MENDIBURUC

JESUS-EN
BIHOTZA-REN
DEVOCIOA

ATV
2866



A.T.V.
2866

A.T.V
2866

INSTITUCION SANCHO EL SABIO
OBRA SOCIAL
Caja de Ahorros de Vitoria

M-10043
R-4429

# JESUS-EN COMPAÑIACO

A. SEBASTIAN MENDIBURUC
*euscaraz* eracusten duen
JESUS-EN BIHOTZA-REN
Devocioa.



*Behar bezala.* Bi-garren aldian.
*Iruñean.* Pedro Joseph Ezquerro, Libru-guillea-ren echean, 1751, Urtean

IRuñeco Obispo jaunac eman du *berroguey* egun-eco, *Indulgencia*, edo bacarcioa Libru onetan iracurtcen den aldi oroco.

Beste *berroguey*-ecoa emengo Irur Bederatci-urren-etaco egun bacoitz-eraco.

*Berroguey* egun-ecoa emen arquitcen diran Regle-etatic bacoitzac diona eguiten duten *aldi-oroco*.

Cer den *Indulgencia*, ta bertce jaquin behar diren gauz anitz arquituco dituzu Libruo ostoen 346. alder-ditic 354. alder diraño.

# IRACURLEARI.

EUscarazco Libru hau, Euscaldun utsentzat eguiña da; bada Frances, Latin, edo Gastelania daquitenac, neque gutiago-requin ecus dezaquee beste Libru-etan, onetan eracusten dena. Españiaco Euscaldunic gueyenac Jesus-en Bihotza-ren devocia arturic arquitcen dira; baña devocio onec escatcen dituen gaucen berri, beintzat andiric, ez dutela. Euscaldun Erri larrietan ba-dira Bihotz maite onen *Ballera* santu edo *Congregacioac*; baña Congregacioco egunetaco ez dute, behar luqueen, Euscarazco Libruric. Oberen bat aguer dedin artean, alic onguiena moldatu dut, Jesus-en Bihotza-ren devociozco hau; izan dedin, non-dic Congreganteai Elizan iracurri (*iracurrico dituzu onelaco* §§§ *izar-equin arquitcen diran* §§); ta devocio artu duten, ta artuco dutenac eguin behar dutena non icasi.

Librua ez da gucia nerea, ez eta besterena ere. One gatic ez-pa-liz, hitz alferra lizaque *euscaraz*, Libruaren asieran, edo tituloan ezarri dudana. Egui-

ten hari nintzanean, beguietan idnqui dut gueyenean, Jesus-en Compañiaco Aita Juan Croisetec devocio bera-ren gañean eguin zuena. Harc berean dacarzien bezala arquituco dituzu onetan, essaten diran, gauzen *assierac*, edo *buruac*. Emen arquitcen diran gauzaric gueienac an arquitcen dira; baña ez dira arquitcen bietan guisa batean. Ango guisara ba guenecartci ango gauzac, ez pa guenecartci bezala, izain liraque, escolaric ez duten anitz Euscaldun-entzat. Neque andiric gabe norc nai adi ditzaquean moduan epeñi ditut, nere ustez, han modu eder goratuan, guizon adituentzat eguiñac bezala dauden gauzac.

Orre gatic lenago dauden, haren cembait gauza, utci ditut azquen alderaco: azquen aldecoac ezarri ditut erdian, lembician, edo obequi iduritu zaidan toquian. Escrituraco, ta dacarcien Santuen hitzac alic zuccnena gure Euscarara ditut; baña ez beti *hitzez hitz*. Gañeraco gauzetan ez dut beguiratu, gauza adiraztеco, dacartcien hitzetara, beguiratu dut hitz-equin essan nai duenara; ta erraten dut hau, len errana ez-pa-lego bezala, ta euscaraz errateco, zuccn-enac di-

zirala, iduritu zaizquidan hitz-equin.

Utci ditut Serorc, edo Monja, Religioso, Apaiz, ta beste cembaitentzat ederqui dacartcien gauzac; horien uts eguiteen berriric izan ez dezaten, len ez zutenac; eta behar gabe ez luzatcea gatic Librua; bada orietatic cembait ez dira arquiteen bazter oietan; ta arquitcen diranac ez dute euscarazco Libru-en beharric, eguin behar dutena, jaquiteco.

Galdu dira, euscarazco Libruric gabez, euscarazco anitz hitz; eta gueldiru diranac, ez dituzte Euscaldun guciac aditcen. Ba dira Guipuzcoan, Nafar-tar gueyenac euscarazcoac izana gatic, aditcen ez dituzten hitzquetac: baita Nafarroan ere Guipuz-entzat berriac diruditenac: eta Guipuzcoaco, ta Nafar-tarren bazter bacarrectan aditcen dira, beste ascotan aditcen ez diran cembait hitzeguite. Non nai adi ditezqueanac billatu ditut, al eguiñean, artcen ditudala orretaraco, euscarazcoac utciric, beste cembait hitz.

Bi ez besteac laburrac dira Aita Croisetec dacartcien meditacioac, edo oracio-gayac. Jaincoac nai badu, emain zaizquitzu laster beste Libru batean, behar

har adiña, ta behar bezain luceac; *erdi-moldatuac daude guey-enac*. Gañeraco gucia, emen arquituco dezu, lau burutara bildua. Lenbicicoan eracusten da, *cer, ta cein ona den Jesus-en Bihotza-ren devocioa*. Bi-garrancan, *cer den guye aldetic devocio onec escatcen duena*. Irugarrenean, *nola eguin behar diran*, Jesus-en Bihotza-*ren devocioac escatcen dituen gauzac*; eta Laugarrenean, *urtea-ren buruan eguin behar duena devocio hau artcen dutenac*. Jesus-ec dizula, gucia icasteco, eta icasten dezuna eguiteco, behar dezuna.

Emen bertan arquituco dituzu Jesus-en Bihotza-ren Congregacioco *Reglac*; eta *Bihotz* bera-ren, Aita *S. Ignacio-ren*, ta S. *Francisco Xavier-ren Bederatci-urrenac*. Batera bildu ditut, len berez cebiltzan bi Libruac, gutiago costatcen zaitzula, izan dezazun gucia; ta guciaz valio zaitecen zure Animaren oneraco. Ori da nic lan labur onequin billatcen dudana. Jaincoac dizula maiz iracurtceco lecua ta gogoa; ta, iracurtcen dezun aldi oro, cere anima-raco nic nay nuquean on gucia ateratceco gracia.

# D. GASPAR

DE MIRANDA, Y ARGAIZ por la gracia de Dios, y de la Santa Sede Apostolica, Obispo de Pamplona, del Consejo de su Magestad, &c.

POR la presente, y por lo que à Nos toca, damos, y concedemos licencia en forma, paraque, sin incurrir en pena, ni censura alguna, se pueda imprimir, e imprima el libro intitulado: *Jesusen Bihotza-ren Devocioa* compuesto por el Rmo. Padre SEBASTIAN DE MENDIBURU, de la Compañia de JESUS, Maestro de Theologia en el Colegio de la Anunciada de esta Ciudad. Assimismo, damos licencia, y facultad para que se puedan imprimir, e imprimian *las Reglas, y Constituciones del Sagrado Corazon de Jesus*, compuestas por el mismo de orden nuestro; como tambien *las Novenas del Sagrado Corazon de Jesus, de San Ignacio de Loyola, y San Francisco Xavier*, compuestas tambien por el mismo R. P. Sebastian de Mendiburu. Aten-

to nos ha constado, no hallarse en todo lo referido cosa alguna, que se oponga à nuestra Santa Fè Catholica, y buenas costumbres. Y concedemos *quarenta dias de Indulgencia* à todas, y cada una de las personas de ambos sexos, que leyeren en dicho Libro por todas, y cada una de las veces, que lo executaren; como tambien à las que practicassen todas las dichas Reglas, y Constituciones, ò alguna de ellas, è hiciessen las referidas Novenas, ò alguna de ellas; por todas, y cada una de las veces, que executaren todos, y cada uno de los referidos actos. Dada en Pamplona, à catorce de Abril de mil setecientos quarenta y siete.

*Gaspar Obispo de Pamplona.*

Por mandado de su Señoria Illustrissima el Obispo mi Señor.

*Lic. D. Joseph Eladio Collado,*
Secretario.

## AITA MANUEL DE LARramendiren Carta, Libru onen Eguilleari bidaldua.

Aita nerea, badaquit, eta hori aspaldicho da, arazo andietan zabiltzala, arguitaratzeco libru bat, Jesus-en biotzarequico devocioari dagocana. Jaquiñ ez eeen, iracurri ere badet oarrez, ta arretaz zure escuscribatua: eta icusiaz ta erabilliaz, are gueiago ezagutu det lan onen anditasuna. Gayari banagoca batetic, eta bestetic hizcuntzari, baderitzat, guezurtatzen dituzula Erdaldunen, ta Euscaldunen ustequeta charrac, ta desseguiten, ta ay-enatzen gucien lausòac, ta lilluramenduac.

Ona non dezun gaya, munduan dan contuzena izatez, ta egoquiz erabilli behar dana: baña ceiñ ere dan goi, mee, ondatsu, ala oi darabilzu, aiñ aisa, ta frobaguez, beste escu-arteco beargai errazen bat baliz bezala. Ez aitzaitu antusteac amilduco. Eztezù hau cerèz: Jaincoaren doaya dezu, noiz, ta nori nai duen ematen diona. Erziñioque aiñ argui ta, garbi saill oni equingò, Jaincoac eman ezpacizun Jesus-en biotzarequico dezun

ſayera hori, ain vicià, ta ſutua. Arê
eraculten dizquitzu gay aundi onen ſa-
yers guztiac, arc egoqui ſantuac, arc ecar-
rai ezti ezti, gozo gozoac, arc guizonent-
zat devocio oni dariozcan Ceruco on-
daſunen iturburuac. Hitzetatic aguiri de-
zu, nola diceeân zure biotzari, ta eztra-
rauiquiola mingañari, barrumbeari di-
raquiena, ta gañez dariona beſteric. Oyez
gañera etzaitu izutzen nequeac, mimbe-
racor, ta alper charrac izutzen dituen
bezala: ta orregatican, ayec ezbezala,
garaitzen dezu, lautzen, ta menderat-
zen.

Beſtenaz banagoca zure hitcuntza-
ri, len ere baño obequiago dacuſt alde
oyetaco Euſcaldunen itſumendea, ceñean
daraſaten, ez tala gure Euſquera, gau-
za andi, ucc, goi diranac aditazteco.
Ona bertan gucien guezurtamena, zure
libru Euſqueraz ain garbiro moldatuan.
Eſan biezat norc nai, cembat zor dioten
zure Euſquera onec, beſte hor dabilzan
hizcundeen naſpiilai? Eſan beguit, ce-
ñetan Jeſuſ en biotzarequico devocioa-
ren gaya obero, ederquiago, gozoroago
berecia dagoan, zucendua, ta apindua?
Gayac berac eztia du, ta alderdi gucie-

ta-

tatic eztia dario; eta artezaz hitzeguiteco ezta munduan gure Eusquera bezaiñ hizcuntza itsascorrago, eztiago, gozoagoric: ta eguia onen icusbidea zure libru hau izango da. Bañan lembicico sayoac onelacoac diranean, esan biezatet, guerocoac nolacoac izango diraden, icusiaz, equinaz, landuez, ateraco diranac?

Escriturac nombait diona da, *aurchoac ogui esque ceuden, ta etzan norc pusca eteza(e)n*: ta oraiñ ere auxe bera esan dezaquegu Euscalerrienzat; bada Jaincoaren hitzaren oguia chiquitu bagueaz, sequereac igartuac bezala, goseac hilcer daude asco ta asco. Cer bada? ezabilza gure Eleizeran Predicarioz franco? eztarasate sermurrez, ta deadarrez Ceruco jaquimbidea? Eguia da, ba-dabilza, ta badarasate. Ordea cer da ansi, enzunle gueyenac erausi hura aditzen ezpa dute? Sinisterazo nai digute, aditzen dala Gaztelania, are icasi ez dutenen artean. Ez ta hori eguia: alperren erausiac, eta aitzaquiac dirade: hitz banacaren batzuec adituagatic, aiceac daramatzi besteac, eta Jaincoaren hitzaren oguia gueldítzen da Euscaldunentzat, cheatu baguez provechuric gabea. Ba-

ña eguia baliz ere?, ez ta lotſagarri, hitzeguin behar digutela Euſcaldunac Euſcalerrietan, ez gucioc daquigun hizcunzan, ez gure errico, gure gurasoen hizcunzan, ez bularrarequin batean edoſqui guenduen, ta lembicico guiñequien hizcunzan; baicican Gaztelauen hizcunza arrotzean?

Siñis nazazu, ereille gaiſtoetan dago azaro charra, eta guero uzta ſoilla, ta utſa. Alabañan guchic daqui bere jayeterrico Euſqueraren erdia, eta alperrac diraden bezala, eztute icaſi nai gueñago, ta eztie nai beren buruai atſecabetic eman. Baña onetatic cer guertatzen da? Daquiten piſca arequin, hitz molcho, eſcumen baren dina ezran arequin, nola eciñ adierazo dituzten beren eſacariac, badaratzte pulpituan hitzera naaſi bat, beiñ Euſquera, beiñ Erdera, beiñ Latiñera, gucia leudatua, ciquindua, barauſtua, ceñean dirudien, igo dirala gaiñ arrara enzule gucien burla eguitera: ta arritu oi naz, nola aſco ta aſco, bulzaca ordu gaiſtoan ayentzat, botatze eztituzten andiean bera. Are gogai carriena da, charlari oyec icuſtea, ta aditzea, nola dauden iſecaz, ta muſinca Euſ-

 que-

querae ederqui daquienen jolasari, beiñ Nafarroaco *minzoa dela*, guero Bizcaico *verba donguea*, barean *auſac ere* Goyerrico hizqueta dezula, beſtean *noaſquiro* Beterricoa; achutlarien, ta necazarien hitzera dala hura, baſerritarra ditudizula, ta milla onelaco aſtaqueria. Eztute icen obeagoric mereci. Ayenatu behar guinituque, gure hizcuntza ederra galtzen diguten hizjario motel char oyec. Oraindic eztaraute, Euſcaldunac Euſquera duela gauzaric onena, ta honragarriçena; bada aridichecala, beti aguertuco du bere burua, dan bezala, Eſpañar uts utſa, anciñacoen, ta arc lembicicoen etorquia, ta ondocoa, ta bera garic naſtebaguea, garbiena, fiñena, ta nobleena: daquiela, non dic, ta noizdanic datorren: ceña dan Euſcalduneçac, itſuca baicic, ezta-quitena, ez eta jaquingo ere.

Beſte barzuec ditozu, gure Euſqueran nai ez luqueenac beſte hizcundeetatic hizcho barere: eta onen bidez epaiçen, ta ciatzen bezala dira jolaſcan. Bederaco erguelqueria! Etzaitcala zu malmeti. Euſquerari erachi zaizca Gazteelaniatic, Latiñetic, edo beſte

hiz eundeetatic hitz asco ; baña adituaz, ta oituaz , Eusqueracoac bezaiñ ongui, aditzen diranac : eta oyec utci behar eztitugu : ta beharbada noiz edo berriz obeeo da , onelacoac utsatzea , Eusqueracoac baño : batezere Eliz gauzetan, ta gure arimen salvacioari dagozten eguicarietan. Lajatuco ditugu erbesteco hitz horiec, nai badegu, gure Eusquerarenac, piscabana usatuaz , ta erabilliaz , escucoi, ta jaquiñac eguingo diradenean. Ongui eguin dezu , Nafarroaco hitzen batzuec ecartcea , egoquiac diranean , eta besteric eztanean : Cerren lembician ta batbateetan aditzen ezpadira, aurqui adituco dira, ta gueyenac, dagoaneco, aditzen ere badira: ta ala Eusquera bide batez ederrtzen ta ugaritzen da.

Ezzaitzàtela tontorzarren erausiac ozpindu , ta icaratu : ez tirade gendàrtecoac , ez contuzcoac ; hitzera onà , ta beardanèzcoa cein dan , eztezu àyetan aurquituco , èzta billatu behar ere. Bazterreretan , ta itsu , morèh, jaquiñezen artean daransquiote , baña eztira gai , ecer ere dànic , aguèrtzeco , ta arguitaràtzeco. Cer degu , astoren batèc , edo bestèc esanagatic , èzrala onelaco hitza

cuieu-

emengoà, edo eztuela aditzen? Nafarroan *kirri*, Bizcayan *barre*, Provincian *farra* eguiten zayela onelaco, ta alaco hitzen batzuei? Suertez ere neurri ederrà guenduque hizquetaraco, besteric ezpaguendu. Guizon zuhur, cintzo, meneac eta jaquintsuac gure alde ditugunean, eztiegu beste gendalla horiei jaramon behar, ez eta ayen esan melanaz ajolaric artu.

Equin bada-equin, Aita nerea, Eusquerari, ta Eusqueraz ichequi Jaincoaren darabilzun lan oni. Uste dezun baño on gueiago eguingo diozu Euscalerriari; ceñean hizcuntzaren naasiaz, ta aditu bagueaz ozta jaquiñ oi da behar dana, ta hiztunen erguelqueriaz, ta aroiqueriaz ozta aditzen degu naspilla, ta Igitucoen marmariza besteric. Camporatzen ditut neronec aditu ditudan batzuec, argui, ta garbi minzò diranac, ta Eusquerari beren onersiari bezala darraizcanac. Erein dezu Jesus-en biotzarequico jayera Euscalerrietan; erneco da, zorituco da, ta bilduco dezu, iñon ere nerequico bildu dan ozzaric ederrena, ta ioricua. Secañetan viciagatic, Euscaldunac eztira secañac, erriberac bay, lubera

gu...ac, beti guiro oncan daudenac, Eus queraz contuz, ta móduz egozten zayen Jaincoaren hitza aitzeco, gordetzeco, acitzeco, ta eunetan ambat emanarazteco.

Aterazazu beraz zure libru hori, eta len baño len bana-ezazu Euscalerrietan; batézere non eta Jesus-en ballera santuac jasò dituzun, ta lenàgo jaioac ceuden. Iracurrico dute ala Eleizetan, nola echeetan, eta Eusqueraz utsic daquitenac, ta Gaztelania arrâstaca bàicican eztaquitenac ere, naico dute beiñ baño gueyagotan aditu, icasi, ta gogoan sartu, hitzèz predicatu ciniena, ta orain, gotz bear-badà azturic daucaten. Onelà Biotz maitagarria haren landatu dezun amodioa, ta jayerà, gucituaz andituàz, ta sutuaz joango da. Alàbiz, ta alà izango da, guizonen biotzac bere escuan dauzcan Jaun harc betetzen badiru bere bildurrez, berè amodioz, bere gracia eguillez, ta ugariz. Nai daquiola bada oraiñ ta beti guçioc beregana gaitzan: artean Agur, Aita nerea, ta gogoango al nazu zure otoitzeçan. Loiolan Marchoaren 15. eguncan 1747. urtean.

Zure servitzaria biotzetic.

JHS.

*Manuel de Larramendi.*

# LEMBICICO BURUA

## Cer den, ta ceiñ ona Jesus-en Bihotzaren devocioa.

### §. I.

### *ADITCERA EMATEN DA cer gauza den Devocioa.*

JAquin gabez, cer den devocioa, anitz arquitcen dira, virtutez betericCeruan sarceco daudela, uste duteneau, becatuaren loihean sartuac. Ez ta devocioa, devocioa dela anitcec uste dutena. Cembaitec uste dute, devocioa dela noiccan beiñ barutcea. Anitcen us-

tea da, bere orduetan ezpada, ecer ez arcea, ta orduan-ere jan-edanean labur gueldítcea, devocio andia dela. Maiz confessatcen diránac, egunean Meza bat entzuten dutenac, cembait hitcezco otoitz, edo oracio erran oi dituztenac, edo egunoroco Errosarioa uzten ez dutenac, devocioz urtcen daudela, uste dute. Orobat uste du maravedi cembait, vici deño, edo ill ondoan, beharrean dagoenari ematen diozcanac.

2 Onelaco gauzac eguiten dituztenac, arqui direzque devocioz bereric, eta vicitza on batean sartuac; bai ta vicitza gaistoan ere, ta devocioric gabe: bada devocioaren estalqui, ta azalac dira ascotan, onac diruditen, gauzac; eta azal ta estalqui utsac ba-dira, Ceruraco ez dira onac, edo ez dira Ceruan sartuco diran gaucetatic.

3 Barren beroa, edo asserrea daducanaren baruac virtutearen estalqui, edo azalac dira; baña azal, edo estalqui utsac. Lagunaren vicitza, ta lanac hitcez, ta murmuracioz ciquintcen ari denaren jan-edan laburrac, iduri oneco gauzac dira, baña devocio garbia-requin ecusteçoric ez duten gauzac. Diran *Ave Ma-*

ri*a*

vi, Meza enzute, ta confeſsioac; bihotz ciquiñcan arquitcen diran confeſsio, Meza, ta *Ave Mariac* dira, utci artean becatuac, eta becatuàren videac. Nai adiña gauz on zuc eguiña gatic, oharturic vici ezpacera otoitzapen lizunen, beguiratce arin, behar ez tiran ſartu-ateratce, danza, joſtatce ta onelaco gaucen artean, becatuaren catez lotua daducazu bihotza, edo cate orien billa zabiltza. Cer nai emana gatic beharrean dagoenari, ematen ez padiozu berea bacoitzari, ta Jaincoari zor diozun amorea, vici beharco dezu beti, dezun devocioa gatic, erre ta urrutaric Infernuaren erdian.

4 Ez ta, bada, ez behar den devocioa ichura, edo arpegui oneco edocein gauza eguitea. Arpeguico larru, edo prinz ederra eracuſten duten anitcec, barren uſlel, edo galdua iduqui oi dute: ta devotoac diruditen, edo idari oneco gauzac eguiten dituzten cembait, devocioric ez duen, bihotza-requin arquitcen dira; ta Evangelioco Fariſeoa bezain utſac.

5 Sartu cen beiñ auſardi andia-requin Elizan Fariſeoa; ta aſi cen Jaincoari eſaten: eſquerrac zuri, nere Jaun ta Jabe

andia ; bada ez naz ni , beste asco , ta bazter artan dagoen guizon hura bezala-coa : ez dut nic sei-garren mandamen-tua urrazcen ; ez diot niori berea quen-cen ; ta ez dut , zucen ez dabillen , gau-zaric eguiten : eguiten ditut , behar be-zala , nere amarrenac , eta bitan barut-cen naz haste-oro. Devototzat ceducan bere burua , baña devocioric gabeco guiza-tzar , arro bat cen Fariseoa. Asqui cela uste zuen, devoto, ta Jaincoaren adis-quide izateco , sei-garren mandamentua-ren contraco loiheric urrun ibiltcea, no-ri berea uztea, amarrenac eguitea, ta ba-rutcea; baña bere baru-amarren, bere gar-biro , ta niori gaitcic eguin gabe vicit-ceac , etzuten bere antuste ta soberviatic atera. Bere devocio gucia-requin gal-du cen azquenean ; ceren haren devocio gucia devocio-azala cen.

6 Hura bezala gal ez ditecen , gauz onac eguiten dituztenac , eta Jesus-en Bihotza-ren devocioa artu duten , edo artceco daudenac, adi-raci nai diet , cer den eguiazco devocioa. Eguiazco devo-cioa da , *Jaincoac nai duena seguiteco, ciñezco gogoa-requin vicitcea.* Ala diote Santu ta Doctore devocioaren gañean itz-eguin dutenac,

7 Bi gauza eſcatcen ditu eguiazco devocioac: lembicicoa, *bihotza-ren garbitaſuna* : bigarrena : *gauz onac gogotic eta maiz eguitea* , edo , *eguin behar diraneco , preſt egotea.*

8 Eguiazco devocioa duenac , behar du *barren* , edo *bihotz garbia.* Bihotza becatuz ciquindua daducanac, ecin iduqui dezaque , Jaincoac nai duen gucia eguiteco , benazco , edo ciñezco gogoa: bada onelaco gogoa duenac, ez daduca Jaincoa aſſerre ; ta aſſerre daduca, becaturic atera gabe, vici denac. Behar du , bada , lembicico lecuan , devoto izateco , becatu mortalic gabe egon ; ta egon behar du, becatu berrien vide, edo ocaſiotic igués eguiteco aſmoan.

9 Becaturic gabe arquitcea zu ez da aſqui , devoto izateco ; bada becaturic gabe arquitcen da bataiaturic dagoen aurra ; bai-ta , vicitza gaiſto baten botuan ongui confeſſatu dena , ta gauza onetaraco alfer-nagui arquitcen den edoceiñ cre ; ta ez hau , ta ez aur hura dira devotoac ; bada onec eztu gauza onic eguiten ; ta harc, eguiten badu cerbait,eguiten du neque andia-requin; ta, devocioa duenac , eguiten ditu gauza onac maiz, eta orrembat neque gabe. Ez

10 Ez dut orre gatic erran nai, devoto denac, eguiten dituela gauza guciac gogotic, eta nequeric gabe; ez; nori nai adiña costatcen zaio, cembait aldiz beintzat, devoto denari hau, edo hura, edo gauzaren batzuec eguitea. Baña onen, ta vicitza gaisto baten ondoan, Jaincoa gana itzuli den, edo modu erdi otz, erdi epel batean vici denaren artean arquitcen da, ollo ta mirua-ren artean arquitcen den diferencia.

11 Olloa ecin bestez egatcen da; ta egatcen denean ere, berealà necatcen da, ta lurrera dator: baña mirua gueienean egaan dabill, ta aicez aice. Olloa, egaan asia gatic, guti goracen da. Mirua, lurra uzten duenean, goratcen da Ceruaren, edo aicearen erdiraño. Olloac, egaan dabilleño, erabilliz, urratu nai dituela, dirudi, dituen luma, ta ezurrac; eta soñuz urratcen ditu bazterrac. Miruari joan oi zaizca aice gañean ordu osoac, noicean bein luma bat, edo berce baicic erabilli gabe; ta dirudi, neca ez dedin, aiceac artcen duela bere besoetan, ta daramala, nai duen alde, ta bazter-etara. Eguia da, ez dela beti onen aisa ibilcen egaan, edo egaca Mirua ere;

ba-

bada aice gogor, edo viciren bat urratu behar duencan, nai duen lecura joatceco, ongui necatcen da. Onelaco aldietan aiceac cembait bider garaitcen du mirua; ta azquenean, ezpada beiñ ſaieſca, edo cearca, beiñ inguruca, ta beti lepoa ulzatuz, ta dituen luma ta gorputz gucia-requin al eguiña aicearen contraeguiñez, ez da nai duen lecuratcen.

12 Orobat guertatcen zaie graciaren Ceruan, edo aiccan dabiltzanei; batzuec nequez goratcen dira lurreric, eta laſter, edo ſite lurreratcen dira; goratcen diranetan aguitz necatcen dira; ta gueldítcen dira laneraco gogoric gabe. Necatcen diranetan, ez dira bacarric necatcen; necatcen dituzte, dituzten lagunac. Beſte batzuec maiz uzten dute, edo ſarritan lurra; ta dirudí, ezdutela onic, non ta Ceruan ez dabilzan; ta dabilzan gueienetan, ez pa-lebilza bezain aiſa, ta erraz ibilli oi dira; baña ez beti; bada ba-dituzte oec ere noiccan beiñ beren neque-lanac.

13 Erran dezagun, norc nai adi dezaquean bezala. Meza bat entzuteac, Errosario batec, baruac, edo confeſsioac aſqui necatcen ditu batzuec. Orietatic

edo-

edoceiñ eguiten dutenean, arquitcen dira egur igar bat bezaiñ idorrac, edo leorrac; eta guelditcen dira, orrelaco gauzac eguiteco gogoric gabe. Eguiten badituzte berriz, izaten da ecin beſtez, ta devocioaren intcic bihotcean ez dutela; edo eguiten dituzte erranaren utsez, ta confeſſoreari, edo norbaiti burua autſi ezquero.

14 Ba-dira ongui vici diranetatic cembait, caſi nequeric gabe orrelaco, ta beſte gauz anitz eguiten dituztenac; gauz onctaraco jaioac dirudítenac; orietan daudenean baicic onic ez dutela, diruditenac: eta beren atſeguin ta guſto gucia virtutean arquitcen dutenac. Onelacoac eguiten dute devociozco vicitza. Baña izan oi dituzte oec ere beren aldiac eta ordu illunac; eta aſcotan nola ez daquitela. Batzuetan gordercen zaie Jaincoa, ta guelditzen dira gauza oncraco batere gogoric gabe; ta, eguiten dutenean borchaz gauzaren bat, guelditcen zaie bihotza igartua bezala. Ez da hau, daramaten nequeric andiena; andiagoa da, ecuſi oi duten bezala, beren bihotza ecuſtea, aſmo ta tentacio gaiſtoz betea. Orduan daude Jaincoac bere eſcutic utci,

ta

ta etsaiac garaitu dituelaco beldur andi barequin: ta, edocein gauz on eguiña gatic, ez dute arquitcen negar, ta nequea baicic, eta ura, eguitean, aitcen zaizte dituzten indarrac.

14 Baña zori oneco nequea da onelaco nequea. Cembat guciago necatcen diran gauz ònetan, ongui vici diranac, ambat gueiago irabazten dute; ta dute devocio obea! Jaincoac graciaren eztian bustitcen dituencan, artu behar diran, lan-nequeac, norc nai artcen ditu gogotic: baña orduan Jaincoac eguiten du gucicna, ta ez guri orrembat esquer. Esquer guri, bacarric bezala uzten gaituencan nequearen azpian, ta bihotz eta barren gucia igartua bezala, ta graciaren ezti guti-requin daduca-gula eguiten dituguncan, eguin behar ditugun gauzac.

15 Emen lurrean ere edoceñec artcen ditu gogotic, eta eguiten ditu Erreguecen echeetaco eguiteco ohorezcoac, edo andiac: baña Soldaduz betetic dagoen Erri bat artu, edo su-gar-ezparen artean sartu behar denean, ez da edocein sartcen gogotic; eta edoceñec ezagutcen du, gueiago irabazten duela Erregue-re-

quico

quico, bere viciaz etsiric, su-burnien artean ta perill andi-etan dabillenac, dabillenac baño, guciac nain dituzten Palacioco eguiteco-etan. Atseguin ta gustoz beteric eguiten dituenean batec Jaincoaren gauzac, eguiten ditu norc-nai gogotic Erregue andi baten echeco eguiteçoac eguiñen lituquean bezala: orrelaco atseguiñic bihotzean ez duela eguiten dituena, etsaien artean dabil, neque andietan arquitzen da, ta eguiten du bere Erregue andiac guciago estimatzen duen gauza bat. Onec ez du, cembaitec bezala, ezizco, edo atseguin utsezco devocioric; baña badu, asco ta anitz irabasteco videa ematen dion, devocioa.

## §. II.
## CER DEN JESUS--EN BIhotza-ren Devocioa?

1 JEsus-en amore-nequeen icenean Jaincoac nai duena guc eguitea, edo eguiteco prest egotea da Jesus-en Bihotza-ren devocioa. Jaquiteco, cer den Jesus ona gatic eguin behar duguna, lenic jaquin behar da, cembat zor zaion Jesusi: bada zor onen alde da, devocio onec eracusten duena.

2 Jesusi zor diogu erran ala, ta anitz gueiago. Gu gatic eguin cen guizon; il cen gu gatic; eta gu gatic dago Jesus Aldareco Sacramentuan. Ecin neurri ditequeana da Jesus-ec digun nai, edo amorea: ta, onen andia ez izatera, ecin eguin cezaquean Jesus-ec gu gatic eguin duenaren laurdenic ere.

3 Gu gatic guizon eguitea, gu gatic iltcea ta Aldarean gueldicea ez da bacarric guc Jesusi zor dioguna. Aldarean ecusten dituen bide-bague, ta charqueriac, gu gatic daramatcien gauzac dira. Aldarean Jesus-ec ecusten duen esquergabetasun oni damùz, ta digun ongui nai, edo amoreari amorez erantzutea da beraren Bihotza-ren devocioa, edo Jesus-en icenean eguin behar duguna.

4 Ezagutzen ezpadezu, edo ohartzen ezpacera, nor den Jesus, ecin ezaguturco dezu, cembat amore zor diozun Jesusi, cembat zu gatic eraman duen, ta, daraman orain ere. Jesus da Aita Eternoaren Semea; ta da, Aita bera bezala, Jaincoa; baña Jainco, zu galdu ezcindecen, guizon eguin cena. Vici izandu cen oguei ta amairu urtez; ta beti nequeicerdiz betea. Ezta, bere vicico azquen

egu-

egunetan beintzat, eguin etzitzaion charqueriric, edo eraman etzuen nequeric. Lapur gaisto, edo gaizqui-guille andi bat bai-liz bezala, erabilli zuten Jerusalen-en echez eche, edo Juezez Juez, eman-cequion eriotz modu gogorren bat. Han eman artean cembat ille-tiraca, cembat ostico, cembat bear-ondoco, edo masalleco etzituen Jesus onac artu? Ascotan bete cioten listuz arpeguia, arancez urratu cioten burua, ta azotez gorputza. Cituen indarrac baño Gurutce andiago bat-equin atera zuten erritic Judu gogorrac. Hura ecin eramanez, jaiqui-erori cebillela-ecusiric, videan ill cequien beldurrez, eman cioten lagun bat. Igan cen nol-ere-bait Calvarioco mendira. Han eman cituen bere azquenecco asnaseac: nola uste dezu? Lumazco colchoien gañean, ta olandazco maindireen artean? Bai; orretaraco cenden haren etsaiac. Ez ez: ill cen Jesus Gurutcean iltcez josiric; eta iltceac urratu citustèn bere escu-oñetatic odola ceriola.

4 Certaco onen bat Jesus-en neque? Zu ta ni seculaco neque, ta sutic libre gueldi guindecen. Zu ta ni bioc sar guindecen, neque ori-equin irabaci cigun

Ce-

Ceruco glorian. Etzuen Jesus-ec gure beharric: gure onaren billa cebillen, eguin zuen, ta ceraman gucian. Ongui nai cigun, ta guri ongui naiez eguin cen Guizon, ta eraman cituen, ecusten dituzun, neque gogorrac. Ezagutcen dezu orain, cein andia den, Jesusi zor diozun amorea? Baña adizazu oraindic.

6 Ba-cequien Jesus-ec, bere nequezco eriotza-requin Cerua guri irabaci ondoan, gu requin gueldítcen bacen, ecusi beharco cituela, nai etzituen anitz gauza. Ba-cequien, Herege gaistoac, itsatsico cerizcala, aldarera iganic, zacur amarratuac bezala. Ba-cequien, erreco cituztela hostia santuac; josico cituztela ezpata puntaz, ta iltcez; sartuco cituztela, iraquiten cegoen, urean, ta emain ciezteela zaldaletzat beren zaldiai; bai-ta, ecin essan ditequean bezain gauza ciquisietan nastuco cituztela ere.

7 Ba-cequien Jesus-ec, Herege eztiranac ere milla ta mill-etan ciquinduco zutela beren sacrilegio gaisto-equin comunioco Maia. Ba-cequien, gueienac ecin beste sartuco cirala Elizan. Ba-cequien, Elizan sartcen ciran-etan ere, hanitz palego adiña caso eguiñen zutela Sa-

cramentuan dogoen Jesusez. Bacequien, an izain cituztela, behar ez tiran berriqueta, ta bazter-etara beguira egoteac; eta, non ceuden oarrua gatic, egoin cirala Jauna ganaco oztasun andi batequin, ta guelditucocirala fitc, gogoa andic urruti ceducatela. Bacequizquien, ganz oiec ez-ecic, gurequin guelditu ezqueroz, ecusi beharco cituen charqueri ta laburtasun guciac: ta ala ere nai izandu zuen gueldditu azquen Juicioco egun-eraño.

8 Cergatic uste duzu? Ceren guciegui nai digun, ta maite-egui gaituen. Beinic-bein guelditu da Jesvs gure zai bezala, ta guri escua ematea gatic gueren behar, ta estutasun gucietan. Gure zorren alde aguertcen zaio egunoro bere Aitari; ta aguertcen zaio egunean, cembat Meza mundu gucian ematen diran, ambat aldiz. Aguertcen zaion gucietan ari da, gu ganaco duen asserrea, edo oztasuna quencen.

9 Aldarean guelditu da Jesvs, onetaraco ez-ecic, gure animen janari, ta indar izateco. Bazter guciac beteteen dituen Jaincoa da Jesvs; baña Jainco, indarrac guri ematera etorcea gatic, bocadu batean bilcen dena. Bocadu eguiñic

Eli-

Elizan dago Jesus gau ta egun, noiz aguertuco garan, gure beguira; ta artean ecusten ditu erran ditugun hiroi, edo irain, iujuria arrigarri, bidegabe, ta charqueriac. Gucia gatic ere, gure amorez urtcen dago beti.

10 Ecusten dezu orain, cembat zor diozun Jesus onari? Ah ccin gaizqui eranzuten diogun digun amoreari! Gure amorez beteric beti Jesus; ta gueieneаn Jesus-ez oroitu ere gabe gu! Gure billa, gure deiez Aldarean Jesus; ta Jesus-en iguesi bezala gu! Hume onac bezala, ar-ganatcen diranac ondasunez betetcen Jesus! ta ar-ganatcen diran gueienac, esquer gabeco hume gaistoac bezala, otztasunez beteric erespetua galtcera, edo eguiten dituzten secrilegio beltz, itsusi-lizun-equin Eliza ta Aldarea ciquinduac uztera!

11 Adimentu gabecoa behar du batec izan, ez maitatceco, onembat bera maitatu duen Jesus. Arrizcoa da gure bihotza, damuz beteric gueldittcen ezpagara, Jesusec gu gatic ecusi dituen gauzac ecusi ezquero. Adimentu gabeco, ta bihotz gogor-dun-etatic ez pacera zu; edo zu ba cera, maite gaituen Jesus

mai-

maitatcen dùten-etatic; eta damutcen ba zaitzu, nequez len, ta guero charqueriz ta sacrilegioz berea Jesus ecusteaz, Jesus-en Biotzaren devocioa-requin arquitcen cera: Jesus-ec ecusi duenari damuz, ta digun amoreari amorez eranzutea da Jesus-en Bihotzaren devocioa.

12 Jesus-en icenean eguiten dituzun gaucetan aguerico da zure ar-ganaco devocioa, edo zure damua, ta amorea. Bat maite duenac eguiten du, hari atseguin eguitea garic, al duena; eta hura nequetan ecusten ba-du, quentcen dio al-eguiñean, edo arintcen dio bere nequea. Ongui vici diran, ta elizan maiz billatcen dutenac dira Jesus-en neque-en arintzalleac: orre garic ori-equin ditu Jesusec bere atseguin ta gustoac: *deliciae meae esse cum filijs hominum.* Ezpa daquizu, Jesus-en nequeac dira, lenen gañ, maiz ecustera loazqueenac aguertu gabez, Elizan daraman bacartasuna; ta joaten diranen moteltasun, ta baldanqueria; bada cembait, nequez, ta bacan baicic, ez dira Elizaratcen; ta Elizaratcen diranac edo, hitz bat Jesusi esan gabe, Elizatic ateratcen dira, edo hitz eguiten diote, bazter-etara beguira daudela,

daudela, gogoa berceran daducatela, ta cer ari diran, ez-daquitela. Onelaco nequeac neque andiac dire; ta, guciac baño andiagoa da, Aldarean ecusten dituen videgabe, comunio gaisto, ta sacrilegioac dacarrena. Bada Jesus maire duenac, ez-tu ald-egnin behar Jesus-en ondotic, Jesus-equin dagoquean orduan: ta arequin dagoenean, egon behar du, maitarcen ez-dutenac ez bezala, edo are ecusten dituen charqueri, ta sacrilegioen damuz beteric. Ori da Jesus-en nequeac arincea: ori Jesus maitatzea.

13 Damu ta maitatce onecquin arquitcen diranac artcen dute maiz Jaun andia; ta, hura artceco, garbitcen dituzte, alic onguiena, beren bihotzac confessioco iturrian. Berequin daducaten Jesusi escatcen diote, barca ditzala orduraño berac, eta gañeracoac eguin dituzten comunio gaisto, ta charqueri guciac, eta ar-dezala gucien alde, alic onguiena eguin duten, aldi artaco comunioa. Ematen diozcate eman al adiña esquer, beti zor izandu dioten, ta Aldarean eracusten digun amore andia garic.

14 Jesus maite dutenac sarri dijoaz beren, ta andic iguesi dabiltzanen icenean,

nean, Jesus Elizan ecustera. Nai lituzquee orduan, munduan diran gucien bihotzac; guci-çequin Jesusi agur eguiteço, edo adoratu, ta maitatceco. Eguiten du norc berea-requin alduena; ta bertc obenen damua guti iritciric, eracusten dio Jesusi nai-gabe, ta damu andia, gañeraco maitatu behar luqueenen charqueri ta esquer gabetasunez: escatcen dio, eracutsi daquiela ez daqui-tenei, cein maitagarria den Jesus; ta diela guciai, bera maitatceco, behar duten, gracia. Elizara ecin ba-doaque, arquitcen den toqui, edo lecutic esaten dio maiz, ta ascotan Elizan dagoen Jesusi, Elizan errain liqueon gucia.

15 Jesus maite duena, ez ta al-badu, gueldituco, Meza enzun gabe: badaqui, alabaña cer den, ta cembat valio duen Mezac. Meza batec badu, diran zorrac areratceço diña: ta, Mezaren presenta Jaincoari eguiten dionac, galcen badu, escatu gabez galduco du, behar duena; bada ar-dezaqueanac baño guciago, ta gueiago valio du Mezan ematen duenac; eta ez taqui Jaunac erreclaco orduetan, escatcen zaion gauzatic, ucatcen.

16 Ecusiric, Jesus-ec gu gatic dara-

mana, ontzat arteen ditu haren maitatzalleac, eguiten zaizcan, charqueri ta bidegabeac; eta, ambat gu-gatic necatu cen Jesus-en icenean, arteen ditu bérez ueque ta mortificacio berriac: eta eguiten duen, ta daraman gucia, Jesusi zor dion amoreari erantzun nayez, da.

17 Jesus-en nequeaz, edo Jesusi eguiten zaizcan videgabeco gaucez damu ta sentimentu arteen dutenac, eta Jesusec digun amore andiari amorez erantzuten diotenac, damu-amore onec escatzen dituen gauzac eguiteco, prest arquiteen dira. Onelaco gauzac gogotic-ago, ta gueiagotan eguiten dituztenac dira, Bihotz onen devocio andiagoa dutenac,

18 Jesus-en Bihotza Jaincoaren Bihotza da; ta da edocein errespetu, ta adoracio zor zaion Bihotza. Orre-gatic-ere Jesus-en Bihotza-ren devocioco damu ta amoreac, eta damu-amore onec eraguiten dituen gauzac ez diote Jesus-en araguizco Bihotz utsari beguiratzen; beguiratzen diote Jesus guciari. Baña beguiratzen diote, bere Bihotceco estutasun ta digun amorea-gatic: eta asco da hau, vide onetatic datorren Jesus-en devo-

cioari *Jesus-en Bihotza-ren devocioa* deitceco, edo icen hori emateco. Gurutce Santuan cegocla eguin, ta eraman zuena gatic Jesus maitatceari, edo Jesus maitcari zaion devocioari deitcen zaño, *gurutce santuaren devocioa. Eta, bost llaguen devocioa*, llaga, zulo, edo zauri orietatic eman zuen odola-requin erosi ciguna gatic, eta iltcéz escuac urratcen asi citzaizcan-etic ill artean eraman cituen oñace, ta dolorec gatic Jesus maitatceari, ta maitatce onec escatcen dituen gauzac eguitcari.

19 Ez dute gure arpeguico beguiac ecusten Jesusec guri digun amorea; ez dituzte ecusten leneco Jesus-en estutasun ta nequeac; ez eta Aldarean eguiten zaizcan charqueri, ta bide-gabe-en erdiac-ere. Orobat guertatcen zaiç gure gorputzeco begui berai llaguequin, ta gurutcean Jesus-ec eguin, ta eraman zuena-requin. Bada llaga Santuac, eta gurutcea artcen diran bezala, guri gogora ecartceco, Jesus-en gurutceco Redencioa, Jesus-en odol-isurtcea, ta neque arrigarria: icuscari, ta oroicarritzat artcen, ta ipinten degu *Jesus-en Bihotza*; onetaz oroitcea-requin, gogora daqui-

gun Jesusi beti zor izandu zaion, ta Aldarean egun-oro zor diogun amorea. Baña gauz eberaz oroitcea ez da oroitce utseraco; lan onac guri eraguitceo da. Redencioaren, ta odol-issurtcearen oroitzapena da, eraman gaitzan, orretan zor diogunaren alde, Jesus maitatcera, ta aren icenean gauz-on cembait eguitera: ta Jesus-en Bihotzaz, edo aren neque-amoreaz oroitcea, da guri Jesus mait erazteco, ta maitatec onec escatcen dituen gauz-onac, munduan garan artean, eraguitceo.

20 Llaga Santuen, ta Gurutcearen devocioac diran bezala beste bi devocioac, Jesus-en Bihotza-ren devocioa da orain eracusten duguna. *Bihotza-ren devocioa da* icena; baña Jesus guciarena da devocioa. *Llaga Santuen devocioa, ta Gurutce Santuaren devocioa da* beste bi devocioen icena: baña gu gatic iltzèz, ta burniz urratu zuten, ta gurutcean gu gatic il cen, Jesus-enac dira devocioac. Orre-gatic bada *Jesus-en Bihotza-ren devocioa* da Jesus maitatcea bere Bihotceco amore andia gatic, era eguin ditugun utseguite, edo culpen, ta Aldareco Sacramentuaren contraco charqueri,

ta sacrilegio gucien damuz bihotza betetzeca; ta, damu ta amore onen ondotic, eguin zaizcan bide-gabezco gaucen, ta Aldarean eracusten digun amorearen alde aldeguna eguiteco ciñezco asmo bat artzeca: edo *Jesus-en Bihotza-ren devocioa* da Jesus-ec gu gatic Aldarean daramanaz damu, ta sentimentu andi bat artzea, Aldarean guri digun amoreari amorez erantzutea; ta daramana-ren, ta digun amorearen alde al deguna eguitea.

21 Españiaco bazter-etara etorri berria bada ere, ez ta berria Jesus-en Bihotza-ren devocioa. Devocio onequin vicitu ciran, gueroago ecusico degun bezala, anitz, ta asco Santu, ta Santa. Eguia da icen onequin guchic ezaguteen zutela, azquen alde onetaraño. Egunoro dijoa munduan banatuaz devocio Santu au. Non-nai arquitcen ditu Jesus-ec bere Bihotceco neque-amoreac gatic ciñez maitatcen dutenac. Badira Italian, badira Españian, badira Alemanian, badira Francian, badira Polonian, Turcoa-ren Erzieran, badira Francesaren, ta gure Indietan, baita Persiaco, Mogolco, ta Chinaço Imperio-etan ere Jesus-en Bihotzaren devocioã gogotic artu duten anitz,

eta asco. Devocio an artu dutènen artean arquitcen dira asco Religioso, ta Monja, anitz Apaiz jaun, Obispo, ta Arzobispo; baita cembait Erregue, ta Guizon andi ere. Orain vici denac, eta bertze bost Aita Santuc eman diote, devocio oni beren bendicioa; bada zortzi-eun, ta gueyago dira, orietatic batac, edo besteac emanicaco Bulda-requin arquitzen diran Jesus-en Bihotzaren Congregacioac. Jesus maitcari nai daquiola, ez ditezela izan Euscaldunac haren maitatzalleric chiquienac, edo Jesus-ec diela bere Bihotza-ren devocioa gogotic artceco, behar duten gracia.

## §. III.

### *NOIZ, TA NOLA AGUERTU den Jesus-en Bihotzaren Devocioa.*

1 ADiraci zuenetic bost eun urteren barnan eguin du Jesus-ec eguin gogo zuen gauza bat: ambeste da erran ciola Getrudes deritzan Santari, eguin behar zuela, eguiñic guc ecusten duguna. Erran cion bada, oztuaz joain cela azquen alderaChristioen ar-ganaco amo-

rea;

rea;ta amore hau,edoChristauen bihotzad berotceco, aguertu, ta eracutsico zuela bere Bihotza-ren *devocioa*: ta au da guc eguiñic ecusten duguna. Munduari guticna zor citzaionean eguin dio Jesusec onembat favore. Zori onecoac gu, baldin hau galtcen ez pa-degu. Gure escuan dago, zabaldua dagoen Jesus-en Bihotcean sartcea, ta berotcea; edo Bihotz oneratic, onac izateco, ta Jauna maitatceco,behar degun gucia ateratcea.

2 Erran degu, cembat dituen bere alde, edo favore Jesus-en Bihotza-ren devocio onec. Erran behar degu orain, noiz aguertu den, nola, ta nori. Ba-dira irur-oguei ta cembait urte, lembicico aldian Jesus-ec bere Bihotza-ren devocioa aguertu zuela; ta aguertu cion Maria Margarita de Alacoque ceritzan Serore,edo Monja bati. Monja,edo Serore hau vici cen orduan Paray deritzan Autungo Obispaduco Erri chiquian, Visitacioco andre Monjac an duten Conventuan. Oni eracutsi cion,cer cen devocio hau; ta aguindu cion, cegoela, beraren berria zuen Jesus-en Compañiaço guizon andi Aita Colombiere-quin, ta erran ceguiola, cer guertatu citzaion, ta

ce-

eguiela al eguiña, haren Bihotza-ren devocioa eracusteco, edo eracustea gatic.

3 Onetara baño len, nai izandu zuen Aita Colombierec ecusi, nolacoa cen devocio hau, ta cembat ciran, andic atera citezqueen ondasunac. Artu zuen beretzat; asi cen, escatcen dituen gauz onac eguiten; ta arquitu zuen, cela, dembora gurian ceruco ondasun, ta virtute asco irabazteco, vide labur erraza. Ezagutu zuen bezala, artu zuen asmo, ta gogoa vide labur, edo Jesus-en Bihotza-ren devocio hau alic gueyenai eracusteco. Ala dio berac, Londres-en eguin cituen Exercicio-etaco Libruan.

4 *Eguin ditudan Exercicio-etatic behartua*, (dio, casi onelaco hitz equin) *atera naz, edo obligatua, Jesus-en aldetic adiraci zaidana eguiteco, edo Jesus-en Bihotz maitea-ren devocioa aldudanai eracusteco. Aldarean dagoen Jesus-en Bihotceco ondasunac, ecin adiraci ditezqueenac dira. Jesus-ec nai du, daguidalanic al eguiña, ondasun oriec dacartcien bere Bihotzaren devocioa eracustea gatic. Orretan nago ni ere. Aldudanai eracutsi dies emen Inglaterran; ta beste bazter-etan ere artu dezaten, es-*

*cri-*

cribitu dut onen gañean Franciara, ta escatu diot, eguin dezaquean nere adisquide bati, daguiela arc ere al-eguiña eguiteco onetan. Ah nor lebilquean mundu gucian, guciei eracusten, gucien oneraco aguertu den Jesus-en Bihotzaren devocioa! Guciac icas-dezaten, onà Jesus-ec devocio onen gañean, ongui nai cion, ta favorez bete oi zuen Serore, edo Monjari erran ciona.

5. Corpus Christico egunetatic batean Elizan arquitzen ninzan (dio Monjac), Jesus Aldarean zor nionaren alde cer eguin ez nequiela: baña laster eracutsi cidan Jesus-ec berac, cer eguin behar nuen. Ecin daguiquezu (esan cidan) cere zorren alde, ambat-etan escatu dizudanac adiña atseguin emain didan gauzaric. Onà (erran cidan, bularra aguertcen cidala), onà, mundusoar ongui nayez, amorez urtcen dagoen Bihotza: ta onà, haurqueria, oztasuna, bista, injuria, ta sacrilegioa beste esquerric mundu co gueyene-tatic ez duen Bihotza. Arctu bedi bada, oraingo zorci egunen ondotic datorren borcirala; comulga bitez maite nautenac, eta eguin bitzate egun onetan, Aldarean egondu nazan-etan ne-

ye Bihotza-ri eguin zaizcan videgaben alde, al dituzten obsequio, ta ganzonac. Ori eguiten dutenac ez dute, ez, ecer galduco: oriendaco izain dira, Bihotz onen amorezco ondasunac.

6 Cer diozu Jesus (elan cion Monjac): nori ematen diozu eguiteco ori? nic bezalaco charqueriric ez duenen bati eman behar diozu, nai badezu ongui atera dedin. Ez orrelacoric (eranzun cion Jaunac); ez orrelacoric: indarsuac lotsaturic uzteco, eraguin oi dieztet nic nere eguiteco, edo lanic andienac, indar guti dutenai; onetan agueri da, cein andia den nere besoco indarra; bada ecin leguique orren indar gabecoac, edo onembat indar ez duenac onen lan andiric.

7 Asco da Jauna, (erran cion Monjac) zuc esatea: baña erran behar didazu zuc ere, cer daguiquedan nic. Ongui da (erran cion): zoaz ezagutcen dezun, nere maitatzalle Aita Colombiere gana, ta erra-iozu, eguin dezala al eguiña, devocio hau eracutsi, ta banatua uzteagatic: uste duen baño, atseguin gueiago emain diola orretan nere Bihotzari; ta ez dedilla, ecin eguiñen duelaco beldurra-requin, izutu: bada bere indar-

rez

*rez etsiric, nereac uste andi, ta ona-requin esatcen dituenac, edocein gauza eguin dezaque.*

8 Adi-raci cion Aita Colombieri, Jauna gandic icasi zuena. Ecusiric onec, erran degun bezala, devocio onen onac eta ondasunac; eta ecusiric Aldarean Jesusi zor diogun amorea, ta gu gatic han ecusten dituen charqueti, ta bide-gabezco gauzac; daramana-ren, ta digun amorea-ren alde utci cion Jesus-en Bihotza-ri bere bihotza, eguin uste situen, gauz on guziequin: ta eguin zuen orretaraco, ascotan esaten zuen, ta azquen aldean arquituco den, otoitz, edo oracio bat. Asi cen guero Jesus-en Bihotza-ren devocioa eracusten; ta eracutsi cien aniztci; ta, ill cen bezain, site ill ez-paliz, utci cituen baño Bihotz onen maitatzalle gueyago lurrean utciric, joain cen cerura, obequi an Jesus maitatcera. Arc asi zuena, eguiñaz doaz beste anitz: eta, Jesus-ec Ceruric lagunt-cen diela, eraman dute Lurreco baster gueien-etara onen Bihotza-ren devocioa.

§. IV.

## §. IV.

### NON DICDEN, TACERTA-raco *Jesus on maitagarria-ren Devocioa.*

1 EZ da erraz Jesus maitatcera garamazten videac, edo gauzac contatcea. Guc ezagu-al baño maitagarri-ago da Jesus. Eguia da, nai duenac arquituco duela nai adiña, cer-gatic Jesus maitatu. Baña nola maitatzalle guciac ez dabiltzan vide batez, on izain da, Jesus maitatceco diran cembait vide, edo maita-garri eguiten duten, gauza-ren batzuec eracustea, bacoitzac ar dezan obequi dagoquiona, edo ònena deritzana.

2 Iduritco zaitzu aguian, cein ona den Jesus icastea, besteric ez dela bear, hura maitacen asitceco. Ez dut ucatcen. Baña zuc ere ecin uca dezaquezu, ez dela, Jesus-en icena aditcea-requin, cein ona den, ta cein maitagarria Jesus ezagutcen. Jesus-en maitagarri-tasuna, ta ontasuna ezagutceco, beraren Bihotzeraño sartu bear degu. Ecin maita deza-

zaquegu bere Bihotceco amore-nequeac gatic Jesus, Jesus-en Bihotceco berriac icasi artean. Aguertu uste ditut, maitatce onetara gueyen lagunduco duten, Jesus-en Bihotceco berriac.

3 Iru gauza dira gure bihotzac bere gana eraman oi dituztenac: gauzaren zucentasuna; gauzan arquitcen den ondasuna; ta gauzac dacarren atseguin, edo gustoa: irurac arquitcen dira, ecusico degun bezala, Jesus-en Bihotcean, edo Bihotz onetaco devocioan. Eta itsutu mai ez ba degu, ez ezagutcea gatic eguia, edo arguia ez ecustea-gatic, beartuco gaitu Jesus-ec, Bihotz aberats hau ecustea-requin, bera ciñez maitatcera. Goacen bada irurac banaca ecustera.

## §. V.

### *GAUZA ZUCENA DA JESUS-en Bihotza-ren Devocioa.*

1 ECin erran diteque cein ona, ta Santua den Jesus-en Bihotza; bada Santua da, bazter-ic ez duen, Jaincoaren Santidadez. Ez da Bihotz onetan arquitçen, neurri direquean, lan edo

go-

gogoric, guciac dira Jainco Guizonaren gauzac, edo bazterric gabeco gauza, ta merecimentuac. Eta norc ez-daqui, onembat valio duten gàuzac, edo merecimentuac dituen Bihotza-requin arquitcen den Jesus-ec, bai-duela cer-garic hura Guizonac maitatu? Norc ez daqui, onelaco Bihotza duen Jainco-Guizona dela den gauzaric maita-garriena?

2 Ongui; nai edo devocioa diegun Ceruco Santuen edocein cuçsu, ta reliquia anitz estimatcen dugu, lurrean vici garanac; eta orietatic baten bihotza gatic emain guenuque cztaquit cer. Bada cer ez-tegu eman bear, ain ongui nai digun Jesus-en Bihotza gatic? Santu gucien bihotzei ez diegu, Jesu-sen Bihotzari zor dioguna-ren, laurdenic zor: non arquituco da bada, Santuen bihotzac noiz nai maitatceco prest dagoela, Jesus-en Bihotza maitatu bear ez duela, usteco duenic?

3 Mundu guciac daqui, cer eguin zuen, ta cembat craman gu-garic Jesus onac: bada, beguiac garbituric, sartcen ba-gara haren Bihotce-raño, ecusico degu, Bihotz onec hartara zuela. Bai: Bihotz onec arquitu çituen, gu gaictic

ate-

atera, ta Ceruan sartceco videac. Urcen cegoen bere Bihotceco amorea gatic artu cituen Jesus-ec gu gatic eraman cituen neque gogorrac. Bai, Jesusen Bihotza da, oni-ongui nai cion batec dion bezala, virtute gucien toquia, Cerutic datozquidan ondasunen iturria, ta atseguin, ta contentu baicic ez tuen lecua. Santuen bihotzac, Santuen ezurrac, eta ascoran Santuac noiz-bait soñean ecarri zuten oyal zatia estimatcen dutenac, ohartcen ba-dira, arquituco dute Jesus-en Bihotz onetan cer obequi adoratu, ta maitatu.

4 Bihotz hau onen maita-garri eguiten duten gauzen, edo virtute-en artean arquitcen dira lembicico lecua duten hiru. Lembicicoa *bere Aitari* dion, bazterric gabeco, *amorea*, ta oraindic ecusi den errespetu, ta *humiltasunic andiena*. Bigarrena, eraman cituen lan, ta nequeac artu-eraci cioten *paciencia*. Bere gain artu cituen, gure oben, edo culpac ematen cioten lotsa; ta, lotsa gucia gatic ere, Aita gan zuen Semearen confianza. Hirugarrena, gure nequeaz izandu zuen *urricaltasuna*, ta *guri*, charqueriz betεac ecusiric ere, digun *amorea*.

5 Guer-

5 Guerta cedilla edoccin gauza, estu cequiola eccin gueyago-raño bere Bihotza, ta bere cequiola, Itsasoa ur gaciz bañon, oñace, ta tormentu gueyagoz bere barrena, etcen iguitcen Jesus bere toquitic; prest cegoen beti guciago, ta gueyago, ta Aitac nai zuen gucia eramateco. Beti cen Jesus gure urricari, nequeeramalle, ta Aitaren, ta gure maitatzalle.

6 Egun ere ez dirudi, duela, gu maitatcea, beste eguitecoric. Urricari gaitu beti. Beti dago guri, bear, edo nai adiña gracia, doai, ta ondasun emateco. Era, besoac zabalduric, gure beguira eguotea guti ba-liz bezala, dena guri eman nayez, edo gurea izan nayez dago.

7 Baña (norc siñistuco luque?), hau gucia onela izanic-ere, cer arquitcen du Jesus-en Bihotzac Guizon-en bihotcetan, ez pada gogortasuna, esquer gaistoa, ta gogoan ere, cembat Jesusi zor dioten, ez artu naia? Non arquitu uste dute munduco bihotz gogorrac Jesus-en Bihotza bezain gauza maita-garriric? Onec digun amoreac, gu gatic onec eraman cituen nequeac asco liraque damuz erdi-

ratu, ta amorez urtceco, gureac bezain arrizcoac ez liraque-en bihotzac. Gureac ere, cerbait bad-ere, beratceco, aguertu bearco degu oraindic guciago, ecin maitatceccoa den Jesus-en Bikotza.

## §. VI.

### *GUZTIZ MAITAGARRIA da ondasunez betea dagoen JESUS.*

1 MUndu gucian banaturic arquitcen den maitagarri-tasunac ez tu cer ecusi Jesus-ec duena-requin. Ecin dagoque nior, San Agustinec dionaz, cerbait maitatu gabe; baña ez dabil vide batez gucien maitatcea. Batac maitatuco du gauza bat, artan arquitcen duen edertasuna gatic; besteac ceren den humore on, edo condicio leunezcoa: guyenac maitatcen dute, emalle den aberatsa: norc-nai onesten du bera bezalacoa: norc-nai gauza guciac haren gogara, ta ongui eguiten dituena. Norbaitec hau ucatu naia gatic, ecin uca dezaque, ederra den, ondasunez beteric dagoen, guciai ongui eguiten ari den,

ta gañeraco partida onez betea dagoen bat, norc nai maitatcecoa dela. Era norc uca dezaque, gue daquizquigun partida on, ta asco gueyago-requin arquitcen dela gure JESUS?

2 Edertasunic andienac, Jesus-en edertasuna-ren aldean, lore igartua ditudi, dio Profetac. Illumbea, ta beltztasuna eguzquiari dariola deritzat, dio Santa Theresac, bein Jesus-en edertasuna ecusi nuenetic. Ez da lurrean edertasun osoa duen gauzaric; alde batetic ez pa da, bestetic itsusiac dira, dirànac, edo guciac. Edertasun utsa duena, ta alde, edo sayets gucietatic maita-garria Jesus da bacarric. Jesus arquitcen da naturaleza-ren edertasun, Graciaren doay, Ceruco ondasun, ta Jaincoa-ren izate, edo perfeccio guci-equin. Ez ta Ceruan atseguin utsez arritu, ta lilluratua, edo amorez urtua gueldítu gabe, Jesusi beguira dezoqueanic. Lurrecoac gara, hartaz oroitu-ere gabe, vici garanac.

3 Bere escuan daduzca Jesus-ec Naturaleza-ren gauza, ta graciaren ondasunac. Queñu bat asqui du, mundu gucia gain bera erabiltceco. Ez ta gauzaric,

ric, ez ta etsanic, nai ducnean, bere oin pera ez dacarrenic. Ainguecru, ta Guizon-en contuac artceco dago: ta onèn escutic artu bear dute Ceruraco dandenac, ango atseguin, contentu, ta gloria. Non arquituco da, bada, onembat escu duen Jaunaren beldur izain ez denic? Non, gure amorez urtcen, ta guri ongui eguin nayez dagoela, jaquinic, Jesus maitatu gabe, otz guelditucco denic?

4 Bazter guciac betetcen dituena; nai duen gucia eguin dezaqueana, ta jaquinsua izana gatic Jaincoa, urricari gaituen Bihotza daduca bere barrenean. Ilcera daramaten ardiac, edo illca queutcen hari zaizcan bildotsac baño guciago, bere ezpañac idiqui etzitucla, dio Profetac, bere nequeric gogorren, ta gure obenic andienen artean.

5 Cein Bihotz bera duen, guri adiraztea gatic, gure Artzai eguiten da barzuetan Jesus; ta bestcetan gure Guraso, edo Aita. Non cebillen etzequien, ta aguertu zayon, Seme maiteari, ba-daquizu, cein beguitarte ona eguiten dion, haren billa cebillen Aitac; obea eguiten dio Jesus-ec, becatua-ren vide,

gal-

galdutic etorcen zaionari. Aſſerretu leçuan Artzaia, atſeguin, ta guſtoz beteric guelditcen da, arquitcen duencan, galdu citzaion, ardia. Baña onen atſeguin, ta guſtoac ez tu cer ecuſi, Jeſuſec anima galdu bat bere graciara dacarrenean, arcen duena-requin.

6 Eſcriba, ta Fariſeoac craman ciotcn bein araguizco loyean arquitu zuten Andre bat. Ba-zuten berac onelacoac arrica ilceco eſcua, ta leguea. Eraman cioten, ecuſi nayez, cer cion Jeſuſ-ec, edo cer ſentencia ematen cion. Baña, bere Bihotza-ren beraraſuna eracutcagatic, etzion Jeſuſ-ec *ea, zoaz, ez berriz orrelacoric eguin* eſatea beſte ſentencia, edo caſtiguric eman.

7 Orduan baño gogorra-goa ez ta egun Jeſus. Ez ta Jeſus lurreço adiſquideac bezalaçoa. Aſcotan adiſquideric andienac, nai ez tuten hitz bat aditu orduco, aſerretcen dira, galtcen dute, zuten adiſquide-taſuna; ez diote gueroz elcarri arpeguiric eman nai; ta guelditcen dira, elcar ezaguru ez pa-lute baño, elcar ganaco oztaſun gueyago-requin. Ez ta Jeſus adiſquide oyetatic: ecuſten du gure ar ganaco aurqueria; ecuſ-

ecusten du gure esquer-gabetasuna;ecusten ditu gure charqueriac, eta gure oben, edo culpac; eta orrelacoric ecusten ez-palu baño, gueyago etzaicu aserretcen: edo, ecusten ez palitu bezala, dago: ta dago, guri lagundu nayez gueren neque, ta esturatasun-etan, ta gu gueren uts-eguite charren artetic ateratcen. Urricari gaitu beti: illuntasun ta penaz beteric ar-gana bagoaz, maten digu, behar degun arseguin, ta arguia: ta bidaltcen gaitu, maite duen, seme bat Aitac bidaltcen duen bezala. Ez tuela dirudi, gau ta egun, ta urte gucian, guri ongui eguitea, ta gu ondasunez beteteca beste eguitecoric.

8 Jesusi zor dioguna-ren laurdenic zor ba guenio nori-nai, emain gueniotzaque milla, ta gueiago esquer; guztiz maite izain guenuque; ta, hari arseguin eguitea garic, eguiñen guenuque al guenuen gucia. Nori berea ematen diola; ez dituela gaistoac ecusi nai; onen-tzat duela, duen gucia, ta gauza gucietan dabillela zuzen Erregue bat, aditcen degunean, nai ta ez, hura maitatcera, doaquigu bihotza: ta orrembeste, ta anitz gueiago Jesus-en gauza aditua-ga-

tic

tic, ez gara Jesus maitatceco! Asco videz zor zayo Jesusi gure bihotza: eman bequio bada, beste gatic ez pad-ere, argandic Aldarean artcen ditugun ondasun, ta zor diogun amorea gatic.

## §. VII.

### EMATEN DITUEN ONDAsunac-gatic, Jesus guciz da maitagarria.

1 ONdasun zalea da Guizona, ta orre-gatic ondasunac dira, lenen hurà escura dacarten gàuzac. Esaiozu bati, maite dezula: zure errana besteric ecusten ez-pa-du, hitz alferrac dituzula, usteco du; ta etzaitu siñistuco: baña nai dituen gauza cembait ematen ba diozcatzu, maite dezulaco jolasic atera gabea-gatic, maite dezula, siñistuco du. Hau da Jesu-ec daraman videa, gure berri duenac bezala: maite gaituela guri adi-razteco, betetcen gaitu enguiz, ta ondasunez. Haren escutic artcen ditugun, gauz-equin neurritcen ba degu digun amorea, amore hau, guc ezagutu

al

al baño andiagoa dela, aisa ta erraz aitortuco degu. Eman digun gauzaric chiquiena, ecin irabaci guenezaqueana da:ta da, artu uste guenuen, ta escatu behar guenion baño, andiagoa. Onembat zor diogun Jesus, nai-ta ez, maita-garria da guretzat. Baña maitatcen degu gucioc Jesus? Nic beintzat ez, behar bezala.

2 Ez daquit, ezagutu ere dezun Jesusi zor diozuna. Cer zor diozun, ezagutcen ez-pa-dezu, nequez emain diozu Jesusi, zor diozun, amorea. Orain daño bezain esquer-gabecoa izan etzaitecen, idiqui-tzatzu cere beguiac, cer, zor diozun, ezagutceco, ta emayozu, ezaguera onec escatcen duena. Nor gandic dezu, dezun izatea? Norc eman cizun, dezun anima? Norc eguin zuen zure gorputza? Etzaitu Jaunac ecer ez etic atera, ecer-ez orretan uzten dituela beste contaal baño asco, ta asco gueyago? Etzuen Jaunac ecusten, zu ez bezalacoac izain cirala, ta ongui maitatuco zutenac oriec-taric gueyenac, edo beintzat anitz eta asco? Gucia gatic ere ez ditu oriec eguin, ta eguin zaitu zu; ta eman dizu, orietatic bati ere eman ez dion izatea. Bada cer ez dio-

diozu zor, eman dizun izate orre-gatic?

3 Ba-daquit, etzarala zu, duen izatea Jaincoari zor dion bacarra: edo badaquit, jaincoac eguin dituela, zu bezala, besteac ere. Hala da: baña ez diozu orre-gatic gutiago zuc Jaincoari zor: bada dezun izatetic ez tizute zatiric quentzeen, Jaincoac eguin dituen, zure lagunac; eta, eguin ez-palitu, bacarric vici beharra ciñan; ta, ceren besteac ere eguin dituen, eman dizun izatearen gain, Jaunari zor diozu lagunac izatea.

4 Eguin ditu Jaincoac besteac ere: eguia da: baña ez guciac zu eguin zaituen lecu, ta orduan. Zu eguin zaitu Jaunac, bera guizon eguin ezquero: ta eguin zaitu Christau-en artean. Mundua eguin zueneric Jaincoa guizon eguin arteco laur milla urte-etan izandu ciràn Guizon, ta Andre casi guciac, illumbean bezala, vicitu ciran, edo legue gogor batean. Israelitac ez besteac, cembaitec ez-pacen, Jaincoa-ren berri guti zuten; ta, beren buruac betico galdu artean, etciran guelditcen. Jaincoac Moysesi eman-cion leguean vici ciran Israelitac: baña nequezco vicia cen legue onetacoac ceramaten vicia: bada anitz gauza gogor egui-

eguitera behartcen cituen Moysés-en Leaguea; eta orietatic cembait-etan utsleguiten zutenac, arrica, zacur amurraruac ill oi diran bezala, iltcen cituzten beren erritarrac. Etcinduen zu Jaincoac sartu Legue gogor onen azpian: ez eta bera guizon eguin artean izandu cen, illumbean-ere. Eguin zaitu, Jesus-ec berequin ecarri zuen, arguiz, ta beratasunez betea dagoen leguea ettorri ezquero.

5 Ba dira orain ere leneco illumbea bezain gaistoan vici diran Gentil, Turco, ta Heregeac. Baña gucien artetic atera zaitu Jesus-ec. Ecarri zaitu bere Legue garbiaren arguira, ta utci zaitu, behar dezun gucia arqui dezaquezun lecuan

6 Cer garic uste dezu, eguin duela hori gucia zure Jaincoac? zuri ongui nayez, edo ceren maite zaituen: bada ez zu, ta ez besteric eguin ez balu ere, ta bera guizon eguin eza-gatic, orain bezain Jainco izain cen, izain cen orain bezain Santua, ta izain zuen oraín duen escu, ta gloria. Eguin cen bera guizon zure ona-gatic; eta, zu galdu etzindecen, eguin, ta eraman cituen, arritceco diran gauzac.

7 Odol chorta, edo tanta bat issurtcea,

eta, edo beste edocein gauza Jesus-ec gugatic eguitea asco cen gure zorren alde, ta, guri, behar guenuen gucia, irabazteco. Baña cembat nai cigun eracustea gatic, eta behartcea gatic bera ciñez maitatcera, eguin, ta eraman zuen gu gatic eraman, ta eguin cezaquean gucia. Oguei ta amairu urtez nequea-ren azpian vicitu cen Jesus. Ar cezaquealà, cen aberatsena, Doncella pobre bat artu zuen bere Amatzat. Negua-ren erdian jayo cen, jayo citequeala uda-berrian, udan, edo nai zuen orduan. Bere lagun eguin cituen neque-icerdiac, eta gose, ta egarria. Etcion niori gaitcic eguiten; ta ongui-guille guchi arquitcen cituen. Itsuari ematen ciozcan beguiac; oñen gañean ecin egon cenari belaunetaco indarrac; gorrari belarriac; mutuari mingaña, edo hitza, illari vicia, ta osasuna: ta gucia gatic ere, ecin ecusi zuten, etsaiez ingurutua cebillen. Etsai oriec bein arrica ill nai izandu zuten; ta, etciran gueldi-tu, gurutce batean iltzèz josia, ta illa ecusi zuten artean.

8 Baña orretara baño len cer etzuen Jesus-ec eraman? Eraman cituen illetirac, ofiçoac, bear-ondocoac: eraman ci-

cituen buruan, dena urratu, ta odoldu cioten, arantzac, arpeguian listu ciquiñac; eta gorpurcean milla, ta millaca azoteac. Juez gaisto, Escriba, Fariseo, ta orien alde cenden guciac ingurutu zuten Passioco dembora gucian, adar zorrotzac dituzten, ta odola iraquiten daducaten Cecenac bezala: ta utzi cien Jesu-sec, ceguitela nai zuten gucia. Etziotenen orduan neque gutiago Bihotzean ematen, gogoan ceducatcien zure, ta nere becatuac. Gure becatuac, eta esquer-gabetasunac, itsaso gacia-ren erdian itotcen dagoena bezala, ceducaten Jesus-en Bihotza; ta itòtce, edo estutasun onetaric etcen atera Jesus, milla tormenturen azpian bere odola, ta vicia utci artean.

9 Ona cembat zor diogun Jesusi. Den gauzaric chiquiena eguin balu ere, zorco guenion degun bihotza, ta amorea. Bada cer zor èz-tiogu, gu garic eguin dituen onembat gauza garic? Galduac guenden, ta etsaya-ren escuan gucioc, guciac-garic Jauna Guizon eguin artean; ta, nola nai gu erostea, ta Etsayaren escuticateratcea asqui ez paliz bezala, erosi guinduen, ta atera, eraman

al

tal nequeren buruan. Nola nai croſteac beharruac uzten guinduen, al eguiñean Jeſus maitarcera: ba-da cer mairace ez diogu Jeſuſi zor, eroſi guinduen bezala eroſtea gatic?

10 Ditugun zorrac ateratceco behar deguna baicic eman ez pa-ligu ere, aſco zorco guenion Jeſuſi: ta cer ez-tiogu zor gañeraco, gu-gatic eguin duena gatic? Bere neque icerdia-requin irabaciric utzi digu Jeſuſ-ec eguin ditezqueen zorrac ateratceco aſco dena, ta gueiago; ta, zorrac atera gabe, ilteen diranac, zor-dun ilteen dira, Jeſuſ-en irabaciaz valiatu gabez. Ceruric ditugun lagunderac, edo gracia-ren indarrac, Jeſuſ-ec gureraco irabaciac dira: ta, nai adiña Lurrecoac artua gatic, artuac baño, artceco gueldituco diranac anitz aldiz gueiago dira. Eſan dudan gucia zor diogu Jeſuſi, ceren, digun ongui nai, edo amoreac eraguin cion, gu gatic eguin duen gucia. Nola bada onembat nai digun, ta gu gatic onembeſte eguin duen Jeſuſ-ec ez du guretzat izan behar guztiz mairagarria?

11 Aſqui da, ecuſi degun bezala, Jeſus guztiz maita-garria izateco, ill ar-

tean gu-gatic eguin zuena ; baña ez ta eguin zuen gucia. Cembat maite guinduen eracustea gatic, gueldìtu cen Jesus gu-requin, gure-quin egoteco, munduac irauten zueño, edo azquen Juicioco eguna etorri artean : ta eguin zuen orretaraco, eguin duen gauzaric, edo miragroric andiena : bada sarturic gueldi-u cen, ta janari eguiñic Aldareco Sacramentuan. Ba-cequien Jesus-ec, ascoc eta gueienac, gu gatic eguin ta eraman zuena-ren ondoan, ta guri ongui nayez aldarean gueldìtua gatic, ez paliz baño gueiago eteciotela beguiratuco : ecumbaitec ecusten, edo ezaguteen ez-paluz bezala, beguiratuco ciotela ; ta beguiratuco ciotela beste ascoc, beren etsaiari bezala. Ba-cequien Jesus-ec, cein esquer guti artuco zuen, gu-gatic eguiten zuena-ren alde ; ba-cequien esquerrac artu lecuan, artuco cituela ascoren escutic milla gaistaqueri, laburtasun, ta sacrilegio:ta gucia gatic ere, digun amorea-requin ecin bururuz bezala, ta amore hau guri eracustea gatic, nai izandu zuen gure-quin gueldìtu.

12 *Nic ez taquit hau-nola den* ( dio Jesus-en maitatzalle andi batec )! *nic ez*

*çaquit, nola digun Jesus-ec, aldarean eracusten digun adiña amore? Galdetcen ba-didazu, nola eguin ditequean oguia aragui, oguia-ren iduria galdu gabe; ta nola aragui hau, edo Jesus-en gorputz gucia bildu ditequean hostia chiqui batera, ta hostiaren edocein zatitara? aisa eranzunen dizut: bada asqui da, ori, ta guciago Jaincoac eguin dezaquela, esatea. Baña galdetcen ba-cenit, nola, edo cer gatic maitatcen dituen Jesus-ec, maite dituen adiña, gu bezain gauza char, errebes gaistoac? ecin eranzun nezaque, ez-pada, bazterric gabecoa dela, ecin ezagu-ditequeana, ta mundu gucia arritu behar luqueana Jesus-en gu ganaco amorea.*

13 Gauza oiec-tetic cembait aditcen ditutenean, orrelaco berriric ez duten Indietaco Gendeac, *ah! cein ona den*; esan oy dute, *Christauen Jaincoa! cein ongui-guillea den, ta cein maita-garria! ta norc ez tu maitatuco, onen maite gaituen Jaincoa!* Zuc ez-pa-dezu besste ain besste esaten, izain da ezagutu gabez Jesusi zor diozuna. Jesusi zor diotenari erantzutea gatic, uzten dute mundua, Religioren batean sartceu diranac,

eta

eta munduan, emen ez pa-leude bezala; ta Jesus ciñez maitatcen dutela vici diranac. Orrelaco cerbait eguiten ez dutenac, cembat Jesusi zor dioten, ezagutcen ez dutela, aditcera ematen dute.

14 Etzaitecela izan zu orietatic bat. Religiora ez-pa-zoaz, ta eguiten, ez-pa-dezu ere ongui vici diranac adiña, maita zazu Jesus, orain daraño ez bezala: eracutsi zagozu Jesusi, zure ta munducoen charqueri, vts-eguite, ta becatuac Aldarean eracutsi diotenaren damu, ta urriqui andi bat: eta, nai cenuen gauza eguiten dizunari esquerrac ematera joan oi ceran bezala, zoaz noizean bein, Elizan Jesusi, bâi daquizula cembat zor diozun, adi-ratzera; ta eguiten dituzun otoitz, oracio, ta gauzac eguiz-quitzu, zor onen alde, ta maite zaituen Jesus maitatcea gatic. Ori da Jesus-en Bihotza-ren devocioa: ori da Jesus-ec escatcen duena, Jesusi zor zayona, ta gutic eguin oy dutena, ecusico degun bezala.

§. VIII.

## §. VIII.

## GURE JESUS GANACO esquer-gabetasuna.

1 ESAN ditequean baño andiagoa da, Jesusi Aldarean zor diogun amorea: ta esan ditequean baño charragoa guc Jesusi dioguna. Arrituac guelditucoguiñaque, ezagutcen baguenu, batere zor ez digula, maite gaituela ecin gueyago Jesus-ec. Ez guiñaque guchiago arrituco, onembat Jesusi zor diogula, ta onen guti maitatcen degula Jesus, ezagutu ezquero. Bazterric gabecoa da Jesus-en Bihotcean arquitcen den guga-naco amorea: ta, oni eranzuteco gure bihotzac artcen duena, amorearen icenic ere casi mereci ez duen amorea da. Guri ongui nayez dago, ta gu ganaco amorez urtcen bezala Jesus-en Bihotza: ta ecer Jesusi zor ez-pa-liote bezain otzac daude gueyenen bihotzac. Non dic dator (esazu arren) onembat esquer-gabetasun? Nai-gaberen bat eracutsi dizu Jesus-ec? Zuc hura maitatceco diña, ez du oraindic eguin Jesus-ec? Orain

daraño haren escutic artu dituzun ondasunac-gatic ez-pada ere, etzara noizbait Jesus maitatcen asico, Aldarean beti dizun bazter gabeco amorea gatic?

2 Beguira zazu ongui, cer ari den Jesus Aldarean, ceren billa dabillen, ta nola; nai-ez-pa-dezu, orain daño bezain esquer-gabecoa izan. Nori beguiratu ez palu bezala, gau, ta egun zu maitatcen ari da, edo dago Jesus. Bere maitatce gucia-requin, nai cinduzque irabaci zu; nai cinduzque beretu, edo bere maitatzalle eguin; ta orretaraco eguiten du Aldarean bestetan eguin ez tuena.

3 Zu gatic orain daño Jesus-ec eguin dituen gaucetan, ez tu, orain bezala, alde batera utci bere honra ta gloria. Jayo cen ezcaratz, edo lecu char batean; baña laster, edo fite etorri ciran Cerutic Aingueruac, menditic Artzayac, ba-ita urrutico Erregueac ere, an bertan hari agur eguitera, ta beren Regue ta Jaincotzat ezaguztcera. Quendu cioten Judu gogorrac, Gurutce batean, lapurra bezala josiric, bere vicia: baña orduan bertan eracutsi zuten, vide-gabe oncz guten damua, ezagueraric ez tuten gau-

zac ere, edo lurreco arriac berac, eta Ceruco Illargui, ta Eguzquiac; ta aditcera eman cioten mundu guciari, Jaincoa cela, Juduac gaiſtotzat iltcen ceducatena. Onela beguiratcen cion Jeſuſ-ec, gu gatic ceramatcien, edo eguituen cituen gaucetan, bere honrari. Aldarean uzten du alde batera Jeſuſ-ec honra gucia. Gañeraco gaucetan, guri bezala, beguiratcen cion bere honrari: baña Aldarean, beſte eguitecoric ez-palu bezala, guri beguira dago; ta dago ecin gueyagoraño gu maitatcen.

4 Orra cer zor diogun Aldarean Jeſuſi. Nioiz ere baño obequi adi-razten digu emen, maite gaituſela Jeſuſ-ec. Baña nola eranzuten diogu Jeſuſ-en amore oni? Siñetſico cenuque? Eſan diteque-an baño charquiago. Gureac bezain otzac ez diran bihotzac amorez urteco, gueiegui lizaque Jeſuſ-ec digun amorearen milla zatie-taric bat: eta digun amore guciaren ſua ez da aſqui gureac cerbait berotceco. Ba-lizaque, nai digun adiña, ez-pa-ligu nai, beſte guiſaz beguiratuco gueniquecon Jeſuſi. Ba-lizaque, guchiago maitatcen ba-guindu Jeſuſ-ec, maitatcen degun baño, gue-iago

maitatuco genuqueala. Digun amorea gatic, hitcic atera gabe dago, Aldareço Sacramentuan eguiten zaizcan, charqueri gucien artean: charqueri-guilleai ematen ba-lie zor zaiena, charruagoac vicico guiñaque; berguiratcen diogun baño, obequi beguiratuco genioque Jesusi zor zaionari; ta zor onen ezagueraceramain guinduzque, naita-ez bezala, Jesus ciñez maitatcera. Ezecusi, eguiten du Jesus-ec, eguin daquiola Aldarean edocein charqueri; bada bacan arquitcen dira, orrelacoac-gatic, emen, eguin dituen, castiguac: eta gucere, illari eguiñaz baño, anitz damu gueñago artcen ez degu, Jesus-ec daramatcien, charqueriez. Ez diogu beguiratcen Jesus-ec digun ongui-nai andiari. Ez gara oartcen, eguiten zaizcan Aldareco charqueriac, emengo castiguric gabe uzerazten dioczan, amorera; ta orre gatic ez-gara seiatcen amore oni amorez erantzutera.

5 Beguiac zabaldu nai ba guenitu, ecusico guenuque, cein arrigarriac diran, Aldarean Jesus-ec ecusten dituen charqueri, oztasun, videgabe, ta sacrilegioac. Cer ez diote Aldarean Jesusi eracusten,

Heregeac ez-ccic, Christau epel, Christau otz, eta Christio gaistoac ere! Elizan bacarric dago Jesus guciencan! Noiccean bein aguertcen zaizca, maite duten, cembait. Gueyenac certaco dagoen Elizan, ta Elizan dagoenic ere oroitu gabe, daramazte hasteco egunac. Sartcen dira Jai-iganderan Meza bat enzutera: Mezan daude, non, ta certan dauden, ez daquitenac bezala; ta, Meza eman orduço, Elizatic aurera dira. Egun andi cembaitez igotzen dira, confesaturic, Aldarera: baña certara? egunen batean ecusico duten bezala, comunio char, epel, edo gaisto bat eguitera. Ah! ta ccin contatuac diran, amorez beteric, amorezco Jesus comunio santuan artcen dutenac! Ah! ez ecusteco obeac dira Elizan sartce, ta comunio Jesus-ee ecusten dituen anitz, eta asco.

6 Jesus beti gu maitatçen; beti guri ongui nayez Jesus; Jesus gure urricariz beti; ta beti Jesus nondic ondasunez beteco gaituen. Itsutuac vici behar dute, edo nor den ezagutcen ez dutela, onen Jainco ona maitatcen ez dutenac; edo behar dute izan Genovaco Santa Catalinari aguertu citzaion deabruaren gui-

guisaçoac. Onec esan cion Santari, infernuco su, ta garrac baño gueyago erretzen zuela amoreric ez izateac, edo Jaincoa ecin maitatuac. Jesus-en Bihotzari zor diogun amoreaz oroitzea, ta amore hau ezagutcea, asco lizaque, gure bihotzac Jesus-en amorez urtuac gueldircceco. Baña ez degu aditu nai, Jesus-ec eracutsi naidiguníc: ez degu ezagutu nai, cembar Jesusi zor diogun, ta orre-garic ez degu maitatcen Jesus, behar bezala. Nai baguenu, cer zor diogun Jesusi, ezagutu: icasi nai ba-guenu Jesus-ec eracutsi nai diguna, billatcen degun baño maizago billatuco guenuque Jesus; joan oi garan baño gueiagotan Elizan sartuco guiñaque, Jesus ecustera, ta haren hitzac aditcera. Jesus-en iguesi bezala gabilzaño, digun amorearen berri laburra izain degu; ta ez degu izain ar-ganaco amore andiric.

7 Ambat gaizqui-guille-ren artean, ambat ozrasun, charqueri, ta sacrilegio, gugatic Aldarean ecusten dituen ezquero, ez ote ditu Jesus-ec orain dañó baño, bere maitazalle gueiago Elizan ecusico? Ez ote dituzte cembaitec beguiac idiquico, ecusteco Jesus-ec gugatic daramana, ta gu-ganaco duen amo-

rea;

rea ; amorcari amorez , ta damuz daramanari eranzuteco ? Izan zaiccz harren azzu orietatic bat ; eta zoaz eguiñaz, azqueneco bi Libru onen Buruetan eracusten diran gauzac , edo gauza aetatic al dituzunac : ori da Ceruraco asco lagunduco dizun Jesus-en Bihotza-ren devocioa.

## §. IX.

### *VICITZA ON BATERA DAramaa videa da Jesusen Bihotza-ren devocioa.*

1 ONgui vici nai duenac , maitatu behar du Jesus : ta Jesus maitatceco , behar du Jesus-en laguntza , escu , ta gracia. Hau gucia irabazteco, ta ongui vicitceco vide zucen laburra da Jesus-en Bihotzaren devocioa. Behartcea gatic gu Jesus-ec bera maitatcera , eguin ditu , nor-nai arritceco diran adiña gauza, ta milagro : bada cer ez-tu eguiñen, bera maitatcen asi garala , ecus dezanetic ? Maitatu guinduen Jesus-ec , dio San Bernardoc , eta bete guinduen ondasunez , Jesus maitatceco asmoric guc artu

ba-

baño len : bada cer uca dezaque ; asitcen garanetic ciñez maitatcen Jesus ? Jesus-en Bihotzaren devocioac eracusten du maitatce hau : ta orre-gatic uzi-ta-ez izan behar du , vicitza oncrà daraman vide zucena. Nola alabaña uca dezaque bere Bihotza gatic escatcen zayon gauzaric , Gurutce , lanza , ta edoccin Passioco gauza gatic escatcen zayona ucartcen ez daquien Jesus-ec ? Eta , ucatcen ez-pa-dio , badu Jesus-en maitatzalleac, ona izateco behar duena.

2 Aguertu citzaidan bein (*esaten du Santa Metildec*) *Jesus maita-garria, eguzquia baño ederrago cegoen , ta bazter gucietara arguia cerien bere Bihotza escuz arturic ; eta esan cidan , emendic ateratcen dira, Ceruric datocen , ta munducoac artcen dituzten* ondasun guciac. Iltceco cegoela , escatu cion onec berac Jesusi gauza bat besterentzat ; eta escatu cioneco , *esan behar diozu* ( erran cion Jesus-ec, ) *gauza ori nai duenari: ori , ta behar duen gucia billa dezala nere Bihotcean : maita dezala Bihotz hau ; ta esca diezadala Bihotz onetan , maliciaric ez duen , aurrac Aitari nai duena escatu oy dion bezala.*

3 Margarita Alacoqueri, eracustera cijoala, esan cion Jesus-eç, bere amorearen azquen-indarrac, eta aguertcera bere Bihorcean daduzcan ondasunac, Bihotz onen devocioa artcen dutenei ematceco. Bana bedi, esan cion, ta eracus bequie devocio hau gende modu guciai; bada edocciñec arquituco du emen, behar duena. Devocio onetan arquitcen da Jaüna maitatceco, egun oro ganzac obequi eguiteco, ta bihotz gogòrrac beratceco videa. Devocio onetan icasten da, nola etsayac, nola oitura, ta pasio gaistoac garaitu. Devocio hau artcen dutenac, elcar ongui artcen dute, aisa barcatcen dituzte, eguiten zaizten charqueri, ta vide-bagueac, eta obeac dira berac egun oro.

4 Hau bera eracusten du S. Bernardoc. *Ay Jesus!* (diò) *ta cein andiac diran, zure Bihotcean arquitcen diran ondasunac! Aldarean dago zure Bihotza bere ondasun-equin; ta, nai ba-degu, aisa aberastuco gara, orretan arquitcen duguna-requin.*

5 *Jesus-en Bihotcean arquitcen dira* (Dio Cardenal Pedro Damianec) *behar ditugun armac, eta gure gaitz, edo eri-*

*tasunac escatcen dituzten belarrac. Bihotz onetatic datoz, gu-gana datocen etsayac garaitceco, behar diran indarrac: Bihotz onetan dituzu barreneco neque, ta laztasun guciac leuntceco diran atsegnin, ta gustoac. Estu ba-zaude: etsaien beldur ba-cera: izutcen ba-zaituzte, eguin dituzun becatu ta charqueriac, edo barrena asaldatua ba-daducazu, zoaz Elizara; billaz-quitzu Jesus-en besoac eta sar zaitez onen Bihotcerano; ez ta Bihotz onetan dagoenari gaitcic eguin dezaquéon etsairic.*

6 *Jesus-en Bihotcean arquitcen dira,* ( dio Lanspergioc ) *gure bihotz-etan aldatu behar diran virtute-en belarrac: bai ta belarrac acitceco, ta lore ederrac ematceco, behar duten graciaren ura, ta beroa ere. Beguira zagozu Bihotz oni begui onequin. Esca zazu, bau bitarteco arturic, behar dezun gucia: bada bere escuan ditu graciaren ondasunac. Bihotz bau da, Jaincoa gana garamatcien, ta Jaincoa gu gana dacarren, videa. Ase zaitez Bihotz onec dacarren virtutezco ta gracia-ren urez: ez ta berdin aituco, zuc esta guñeracoac nai adiña edana gatic. Artu zazu Bihotz onequin cíñezco devocioa:*

*ta,*

*ta, eguiten ba-dituzu, devocio onec escatzen dituen gauzac, aberastuco cera Ceruco ondasunez, zuc uste baño len.*

7 Jesus aguertu citzaion bein Santa Metildeti, ta escatu cion, maita cezala, Aldarean eracusten duen bere Bihotceco amorea-gatic; eta esan cion, atseden cezala Bihotz onetan, vici cen artean, ta eriotceco orduan. Ordutic artu zuela, dio Santac, ciñezco devocioa Jesus-en Bihotza-requin: ta ez dela, gueroz artu cituen Ceruco ondasun, ta favoreac ar litzaquean liburuic. Orrembat ez-pada-ere, asqui dira devocio hau artu dutenac, artcen dituzten Ceruco favore, ta ondasunac.

8 Santuac diotenaren berriric ezpa-guenu-ere, asqui lizaque, cembat ondasun dacarren, ta vicitza on bateraco, cembat Jesus-en Bihotzaren devocioac valio duen jaquiteco, cer den devocio hau icastea. Devocio hau, len esan degun bezala, Jesus, Aldarean eracusten digun amorea-gatic, ciñez maitatcea da: ta han daramazquien, icusten dituen, edo eguiten zaizcan videgabe, ta charqueri-en damuz beteric vicitcea. Eta nola ucatuco dic, onelaco damu ta amorez

bete-

beteric vici diranef, escatcen zaiona emateco dagoen Jesus-ec, onac izateco behar duten gauzaric? Uzten dic gaistoai Elizan sartcen; sartcen da bera comulgatcera doacenen barren ciquiñean: bai ta eçin bestez baicic Elizara ez diranen eche ta barrençan-ere; ta ez ta gogotic etorrico maitç duten-en bihotz-etara, bihotzac Ceruco ondasunez beteriç uztera? Ecin ſiñistu diteque orrçlacoric. Aitor bedi, bada, Jesus-en Bihotza-ren devocioa dela, vicitza on batera daraman, vide zucen erraza.

## §. X.

### *ANDIA DA, JESUS-EN Bihotzaren devocioac dacarren, atseguin ta contentua.*

1 JAincoaren icenean eguiten diran, gauza on guciac dacarte beren atseguin ta contentua: baña ez contentu ta atseguin berdiña. Atseguin, edo contenturic andiena ecarri oi dutenac dira, Jesusi Aldarean dagozcan lan, obra, edo gauzac: ala aditcera ematen digute Santuen vicitza, ta his-

ta hiſtoriac: bada S. Franciſcoc, Loyolaco San Ignacioc, Santa Thereſa, S. Luis Gonzaga, ta beſte anitcec etzuten Jeſuſ-equin Elizan ceudenean adiña atſeguin beren bihotcetan izan oy. Atſeguin utſez vicia galdu behartac cirala, ciruditen, Meza ematen, edo enzuten zuten, cembait aldiz, edo comulgatcen citanean. Onelaco orductuan, ta beſte Elizan ceuden cembait-etan bezain atſeguin andizco ſuſpirioric ematen etzuten Santu-en bihotzac; ez eta negar beroagoric ere orien beguiac. Gañeraco lecu, ta myſterio-etan artcen dira graciaren cembait bocadu; baña Comunio Santuan artcen degu gracia-requin batean, gracia-ren Jaun, ta Jabe Jeſus gucia. Gañeraco gracia artceac egun oroco barazcariac dira: barazcari andia, edo atſeguin, ta contentuz betea dagoen barazcaria, comunioco barazcari, ta gracia artcea da. Aldarea da, bere eſcuz ondaſunac emateco, edo favoreac eguiteco, Jeſuſ-ec bereci, ta artu duen lecua; ta orre gatic atſeguin, ta guſtoz beteric dagoen lecua.

2 Jeſuſ-en Bihotzaren devocioa da, eſcutic artu ta bezala, Aldarera, ta Al-

da-

dareco atseguin, ta gusto-etara garamatzacien devocioa. Aldarera garamatzi Bihotz onen devocioac: bada devocio onen eguitecoa da, Aldarean Jesus-ec ecusten dituen vide gabeco gaucen damuz gure bihotzac betetcea, ta maite gaituen Jesus-en amorez berozcea; hau ecin daguique Elizara ez pagaramatci, edo Aldarerontz zucencen ez pa gaitu. Ote garamatzi Aldareco atseguin, ta gusto-etara; Jesusi diogun devocioac? Zori onecoac orien billa dabilzanac, billatcen ba-dituzte behar bezala; bada ez diotza Jesus-ec ucatuco daramatcien charqueri, ta injurien damuz beteric, eta haren amorez bihotza urtcen daducala bere aldean maiz Elizan ecusten duenari.

3 Maiz Elizaratcen diranac, onelaco atseguin, ta contenturic gabe arquitcen ba-dira, ez dute eracusten hari garamaren berriric, edo gogotic artu ez dute Jesus-en Bihotzaren devocioa; bada, gogotic artu ba-lute, maiz edo ascotan oroituco ciran, Jesus-en Bihotzac ecusi dituen estutasunez, ta digun amore andiaz; ta amore ta estutasun oriez oroitu ezquero, izain zuten beren bihotceran, atseguin ta gusto dacarren, damu

ta

ta amorea. Eguia da, damu ta amore onec efcatcen dutela, guero adi-racico degun bezala, bihotz garbia: ta, lenic garbitcen ez ten, bihotzàc ez tu, Jesuſ-en Bihotzaren devocioac dacarren, atſeguin edo guſtoric; ez eta Bihotz onen devocioric ere. Baña devocio hau duenac, izain ditu, lenagoco Jesuſ-en maitazallcac artu ci-tuzten bezalaco, atſeguin, ta guſtoac.

4 *Ah! cein gauza ona den, cembat atſeguin ta contentuz betea dagoen Jesuſ-en Bihotzaren devocioa, edo Bihotz onetan vicitcea! erraten du devocio onen berria zuen S. Bernardoc:* O quam bonum, quam iucundum habitare in corde hoc: exultabimus, & lætabimur in te memores cordis tui. Ez tuc nic, dio, zure Bihotzaz oroitcea baicic bear, atſeguin, ta guſtoz betetic gueldïtceco. Devocio oni zor ciozcala, eſan oi zuen Santa Clarac, Aldarean dagoen, Jesuſ-en beguic-taratcen cenean, artcen cituen atſeguin ta fevoreac. Jesuſ-en Bihotzaz oroi cediñeco, Senaco Santa Catalinac Jesuſ-en amorez urtcen ceducan bere Bihotza.

5 *Nai badezu* ( eſan cion bein Jesuſ-

ec Santa Metildeti ) *barca ditzadan zure utseguiteac, artu zazu nere Bihotzaren devocioa. Bihotz onetatic ateratcen dira, artcen dituzun graciac. Nere Bihotza da graci, ta atseguin gucien iturria: maite nautenai ematen dieztet, arquitcen diran, atseguin, ta gustoric andienac.*

6 Devocio hau artu zuen artean Aita Colombierec, virtute andizco guizona izanic ere, atseguin, ta gusto guti izan oi zuen: baña besteric guertatu citzayon, devocio hau artu zuenetic. *Ar ditzaquet* (dio) *Jesus ona-ren escutic, ematen dizquidan, atseguin, ta gustoac; baña ecin adiraci dezaquet, cein andiac diran gusto, ta atseguin oiec. Ez arren Jesus; ez onembat atseguin, ta gusto niri eman: gorde zazquitu nic baño obequi irabaci dituztenac zu-gana ditecen artean. Oituco naz bestela atseguin, ta gusto-etara; ta eguin nitzaque behar ez diran cembait lan, izatea-gatic onelacoren bat. Aguincen zaidana, eguin behar ez-pa-nu, ez taquit, cer eguiñen nuquean, atseguin, edo gusto oyetatic edocein irabaztea gatic. Baña nola irabaci zure atseguin, ta gustoac? Eroac bezala bitz eguin dut oraingo aldian. Barca zazu Je-*

*sus,*

*Jus, nere atrebiencia, zure favore ta gustoac nastu ditare burua; ta ez taquit cer diodan. Nola irabaci nic zure atseguin, ta favoreac? Ez Jesus maitea: zuc cerorrec neque andi, ta icerdia-requin irabaciac dira, ni ganatcen diran favore, ta atseguin guciac. Esquer milla guciac gatic, Jesus ona: ta betoz, eguin nadin ni zure lagun, cembait neque ta icerdi. Ongui, ta luzaro necatua nere burua ecusi artean, ez tut, maite nazula, sinistuco.*

7 Orra cembat atseguin, ta gusto dacartcien Jesus-en Bihotzaren devocioac. Aldarean ecusten dituen charqueriz neurritcen dituela, dirudi, damuz dandenai Jesus-ec ematen diezten atseguin, ta gustoac. Nola nai, andienac dira Aldarean maite dutenai, edo bere Bihotza-ren devocioa artu dutenai, Jesus-ec eguiten diezten favoreac, eta eman oy dituen atseguin, ta gustoac.

§. XI.

## ANDIA CEN,

### *SANTUAC JESUS-EN BIhozari izandu cioten, Devocioa.*

1 ERacusle, edo Maisuric ònenac Santuac dira; bada, hitzez eracusten dutèna, eracusten dute escuz, obraz, ta lanez. Santuac, beste asco gauzaren artean, nola Jesus-en Bihotza maitatu behar den, beras eguin zutena-requin, eracutsi digute. Santa Clara batec etzuen arquitu, Jesus zor cion amore andiari eranzutèco, beraren Bihotzaren devocioa bezain, vide labur, ta erracic. Sartcen cen eguneaz anitz aldiz, edo maiz Elizan, Jesus-en Bihotza Sacramentuan adoratu ta maitatcera; ta ateratcen cen Elizatic, bere anima atseguin, ta favorez betea cocarrela.

2 Azqueneco Libruaren Buruan arquituco den otoiz, edo oracioac aditcera ematen du, ceiñ andia cen Santa Gertrudesec Jesus-en Bihotzari cion devocioa. Santa onen vicitza aguertu, edo

escribitu zuenac dio, iltceco cegoenean, bidaldu zuela bere anima, berac amorez idiqui cion, Jesus-en Bihotz maitagarrira.

3 Etzuela, cirudien, Santa Metildec, Jesus-en Bihotzaren gañean hitz eguiten etzuen egun, ta orduan, on, edo ondasunic. Beti zuen cer contatu, Jesus-en Bihotza-ren devociozço videz artu zuen on, edo favore berriren bat. Izan cezan, vici cen artean, non atseden, ta, etsayen escuetatic igues-eguiten zuenean, non gorde, eman cion beiñ Jesus onac bere Bihotza.

4 Senaco Santa Catalinac ere, ceren Jesus-en Bihotza gogotic maitatcen zuen, ta Bihotz oni zor cionaren alde, bere bihotza eman cion, izandu zuen beretzat Jesus-en Bihotza. Guerozric ez vici nai zuela cion, ta ez eguin gauzaric, ez-pa-cen Bihotz onec nai zuen bezala.

8 San Eleazaroc gaztigatu cion beiñ Santa Delfina, bere emazteari: *Nai badituzu jaquin nere gaucen, ta osasunaren berriac, zoaz maiz Jesus maitea, Aldareco Sacramentuan ecustera: sar zaitez haren Bihotz ederrean, ta an izain*

 *di-*

dituzu nai dituzun berriac ; an arquituco nazu egun gucietan , ta eguna-ren orduric gueyenetan.

6 *Ay nere Jesus*, esaten du San Bernardoc, *eta cein aberats dagoen zure Bihotza! Ah! cembat galtcen duten, zure Bihotceco amoreaz azturic viei diranac! Nic beintzat nai dut eguin, eguin ala, zure Bihotza, ta ondasunac irabaztea gatic. Zureac izain dira gaurguero nere asmo, lan, ta gogo guciac; eta guciac izain dira gauza guti, orrembat valio duen Bihotza erosi, ta nere-eguiteco. Baña cer? nerea Jesus-en Bihotza? Bai: bada nere burua-rena da, ta burua-rena den-gauza, gor-putza-ren gauza da.*

7 *Gaur guero Bihotz hau izain da nere Eliza; Eliza onetan egoin naz, nere Jauna maittacen. Bihotz onetan, Aldare batean bezala, ucico dut nere bihotza, bertaco sue-requin errea, ta auts-eguiña gueldi dedin Aita-ren beguietan, ta icenean. Bihotz onetan icasico dut, nola vici; arquituco dut, cerequin nere zorrac atera; ta arquituco dut munduco itsaso-ren asserre, ta itorce-etatic nora igues eguin. Emen nagoenean esain dut, Davidec bezala, idiro dut, nere Jaunari*

*oroitz, edo oracio eguiteco, nere Bihotzat bada Aldarean daducat nere Jaun, nere Adisquide, ta nere Anai Jesus onaren Bihotza: eta, ez tut uste, Bihotz onequin escatzen diodan gauzaric ucatuco didala nere Jaun andi Jesus bera-ren Aitac. Ecus dezagun bada, ta sar gaitecen, beñere andic ez ateratceco, Bihotz onetan. Bihotz onez oroitce utsac atseguin, ta gustoz urturic bezala uzten du bihotza: nola utcico du hura maitatceac? Nola an sartu, ta atera gabe vicitceac? Sar nazazu Jesus, sar nazazu, nazan gucia cere Bihotz maitagarrian. Edo uz tazu, neronec sartuco naz berealà; bada idiqui, ta zabalcua dagoen Bihotzac berac, sar nadilla bertatic erraten, didala deritzat.*

8 Lanspergio deritzan Guizon jaquinsu, ta virtutezco batec dacar, nai duena, Jauna-ren amorez betea laster gelditceco, labur, ta erraza dela, dion, vide, edo modu hau. *Beguira* (dio); *zoaz maiz, gure amorez, ta guri ongui eguin nayez, urtcen dagoen Jesus-en Bihotzari, bai daquizula cembat zor diozun, ta maite dezula, adi-raztera. Bihotz onegatic esca zagozu, Aita Ceruecoari, escatu nai diozunaz ta biotz onen icenean,*

edo

*edo onequin batean eramain diozu, emān uste diozuna. Bihotz onetan daude gracia ta Ceruco ondasunac. Bihotz hau da Jauna-requin bat eguiten gaituen, ta Jauna-ren ondasunac dacarz-quigun vide zucena. Ibilli oi zaran bazterzetan paratu behar dezu Bihotz onen estampa, imagen, edo pintura-ren bat, hau ecusten dezunean, oroi zaitecen, maitatu behar dezun, Jesus-en Bihotzaz. Maitatce onetara cere burua aisago eramateco, ezpañez uquizazu cembait aldiz, edo muñ-eguiozu, muñ-eguiten ba-cenio bezala Jesus-en Bihotzari. Eguizu al-eguiña Bihobotz onequin bat cerea eguitea gatic. Ez dezazula nai izan, ez ta billatu ere, Bihotz onec nai duena besteric; eta eguizu contu, cerea quendu, ta utci zaitzala Jesus-en Bihotza cere barrenean.*

9 *Ustuco delaco beldurric gabe, ardezaquezu nai adiña, ondasunez beteria dagoen Jesus-en Bihotcetic. Utci zaitzaque mundu guciac, uste ez dezunean; baña, lenic uzten ez-padezu, etzaitu uzico beñ-ere Jesus maiteac. Ascotan Guizonac, barrenean berena gorde, ta, besteric esain dizute; baña Jesus, Bihotcean duena baicic, ecin esan dezaquea-*

*aa*

*ña da. Ucci behar dituzu, eguin alean, Lurreco guciac, Jesus ona-requin bastiro egoteco. Ez tezu Jesuf-en Bihotza baño atseden-toqui oberic arquituco. Jesus da ciñezco Adisquidea; ta Adisquide, nondic nai bera maite dutenac ateratcen dituena. Sar zaitez bada Jesuf-en Bihotezan, ta, escutcen ba-diozu, behar bezala, ez dizu ucatuco, emen, ta seculan Jauna maitatceço, be-har dezun ganzaric.*

10 San Francisco-ren, Santo Thomàs, Santa Theresa, S. Buenaventura, San Ignacio, San Erancisco Xavier, San Pheiipe Neri, San Francisco de Sales, ta San Luis Gonzaga-ren vicitza, ta libruac ecusi, edo iracurri dituztenac, edo orien berria dutenac ba-daquite cein andia cen, Jesus-en Bihotza-requin zuten devocioa. Gañeracoac uttziric, nai ditut agertu Santaren otsa-requin il den, Armilla Nicolasaren hitz batzuec. *Lurreco-en aldetic cerbait guerta cequidaneco, Jesus ona billatcen nuen: ar gana nendiñeco, banuen nere neque ta illuntasunac garaitceco, behar nuen atseguin gucia: eta iduritcen citzaidan, Jesus, nai ez nuquean lan, edo nequeren bat guerta cequidan,*

bel,

*beldurrez cegoela. Ar ganatcen ninzañ gucietan, an gorde nendin, aguertcen cidan bere Bihotza; ta, aguertcen cidaneco, barrenean nengoen. An sartu ez quero, etciran ecer infernuco al-eguiñac. Dembora luceon ez nequien non nengoen, ez pa-nengoen Bihotz onetan; ta esan oi nien nere lagunai; billatcen ba- nazue, Jesus maiteaven Bihotzean arquituco nazue; ez gau, eta ez egun Bihotz onetatic atera uste det: emen ez naz, iguesi nabillen, etsay-en beldur.*

* * * * * * * * *

*§* *§*

* * *

# BIGARREN BURUA.

## Cer den Jesus-en Bihotzaren devocioac gure aldetic escatcen duena?

### §. I.

### LEMBICICO, JESUS-EN *Bihotza-ren devocioac escatcen duen gauza* : Bihotz garbia.

1 EGUR bustian ez tu suac ecer eguiten ; sua artceco, utci behar du duen bustitasuna. Cembait egunez urean egondu den egurra baño bustiagoa gueldicu cen gure bihotza, cillegui etcitzayola, Adanec artu zuen bocadura-requin ; ta idorragoa

goa gueldicen ez da, berac, becatu eguiten duenean, artcen duena-requin. Bustitasun hau quendu artean, edo gueldicu artean bihotza becaturic gabe, ecin ardezaque, Jesus-en Bihotza-ren devocioa-ren suric. Devocio onec dacar Jesus gogotic maitatcea; ta maitatce onec, nai ta ez, escatcen du bihotz becatu gabea; bada urac, eta suac baño, elcar gaizquiago artcen dute Jaincoaren amoreac, eta becatu larriac.

2 Jesus-en Bihotza guztiz garbia da, ta garbitasun gucia-ren iturria. Maitatcen duenac, atseguin osoa hari ematecо, becatu larriequin batean, chiquiac ere utci behar ditu: ceren atseguin oso onec escatcen du amore andia; ta amore andiac behar du, larriac bezala, becatu chiquiac ere beguitan artuac daduzcan bihotza. Guztiz Jesus maite dutenac, Erregueren aldean dabilzanac bezala dira. Erregueren aldean, ta beguietan dabilzanac, garbiac dabilza, ta ongui apainduac; eta orrela ez-pa-lebilza, naico ez lituque Erreguec icusi-ere. Jesus-en maitatzalleac, nai ba-dute ar dit zan ongui, ar-ganatzen dirancan, joan behar dute bihotz alic garbien, ta vircu-

artez apainduena-requin. Becaturic chiquienac beguitan artuac daduzca Jesus onac. Larriric ez izana-garic, onelacoac dituztenen amorea baño, nayago du bat-eré gabe maitatcen duenaren amorea.

3 Cer garic uste dezu ambat nai ciola Jesus-ec San Juan Evangelistari? Ceren, Elizac dion bezala, sci-garreneco becatu loyetic utruri cebillen, edo Cyriloc dionaz, ceren bihotz aguitz garbia zuen. Bihotz garbico amorea da Jesusen Bihotz garbi garbiari onguien dagoquiona, edo bihotz garbia duenaren amorea da, Jesus onac gucyen nai, edo estimatcen duena; ta hau da amorea, Jesus-en Bihotzaren devocioa nai dutenac, billatu behar duena.

4 Becatu chiquietara ohartcen ez tiranac, andietan erortceco videan daude; ta, erortcen ez badira ere, galduco dute, orrelacoric gabe Jesus maitatcen dutenac izain oi duten, atsedete, ta atseguin andia; bada hau, bihotceco garbitasun, ta oneste, edo maitatce andia dutenai baicic ez die Jesus-ec ematen. Garbitasun, ta maitatce andi hau nai dutenac, ar bezate, eracusten diegun

gun, Jesus-en Bihotza-ren devocioco videa: vide onetan arquitcen dira, orretaraco behar diran gauzac.

## BIGARRENA.

### CIÑEZCO SIÑESTE, EDO *siñiste vicia.*

5 SIñestea da, maitarceearen, edo amorearen beroa bihotzean sartcen duen sua, edo suari videa eracusten dion arguia. Su chiquian ez da artçen berotce andiric, edo su chiqui, ta erdi illac bero andiric ecin eman dezoque otzez dagoenari; ez era fede, edo siñeste erdi ill, edo chiquiac ere maitatce andiric, maitatce-aren beroric gabe arquitcen den bihotzari. Ez ta, guztiz maitagarria dela Jesus, aitortcen ez tuenic; eta guchi dira Jesus gogotic maitatcen dutenac. Cer gatic uste dezu? Ceren gu gatic eguin dituen gauzac behar bezala siñisten ez ditugun.

6 Cerbait uste ba-cenu Erregue gandic; eta harequin sartce, ta escu andia duen Guizon bat aguertuco balitz zure echean, cer ongui etorri, cer beguiratce

ce eguiñen cenioque? Echean dezuna, guti idurico lizzaquezu, hari emareco; ta al eguiña, zu-requin dagoeño, eguiña-garic, behar baño gueyago eguin dezula etzenuque usteco. Artzay baten soñeco charrez jauncia dagoen Erregue baten begui-etan etcenituque goratuco beguiac. Cer gatic orrela? Ceren daquizun, cer den Erregue bati zor zaiona, nola-nai iauntcia egona gatic; eta daquizun, Bitarteco ona-requin ongui egoteac anitz valio duela, Erregue gandic nai dezuna izareco.

7 Ez guenuque guc Jesus maitea-requin eguiñen gutiago, sinisten ba-guenu ongui, edo ezagutcen ba guenu, hura dela, behar degun, bere Aita-requin escuric gueiena, edo gucia duena; hura dela, oguiaren soñeco-equin Aldareco Sacramentuan egona gatic, gauza gucien Jabea, ta lurreco gucien, ta Ceruco Aingeru-en Erreguea. Hau, den bezala, gogoan sartua ba gueneduca, ta siñesten ba guenu, goacen baño, gueiagotan joain guiñaque, soñeco char-equin dagoen gure Erregue Elizan ecustera; joan aldieran, egoten garanetic, beste guisaz egoin guiñaque haren beguietan: ta maitatcen de-

gun

gua baño obequi, ta gogoticago maitat-tuco guenuque. Ez degu eguiten, cerra eguia hau, siñisten ez-pa- guenu bezala, siñisten dugun.

8 Santuen ezur chiqui, ta soñeco zati bat, edo erliquia ecustea asqui da, izutua bezala, hari beguira gueldirceco zu; ta Santuac eguin cituzten cembait gauza andi aditcen dituzunean, berac ganaco nai, ta amore batequin arquitcen cera. Ba daquizu cer garic? Ceren ecusten, ta aditçen dituzun gauzac siñisten dituzun. Siñisten dezula, diozu, Jesus dela Aldareco Sacramentuan dagoena: ta-ez-paliz baño, caso gueyago ez dezu artaz eguiten. Siñisten dituzun, galdetcen ba zaiztu, Jesus-ec eguin dituen gauza andiac? Bayetz eranzuten dezu; ta ezetz eranzuten ba cenu baño, gueyago iguitcen etzara, zor diozunaren esquerrac eman, eta bera maitatcera. Argui, ta su gutico siñistea da, zure bihotza orren otz uzten duen, siñistea.

9 Maite diranai, laburrac iduritcen zaizte elcar-equin daramazten orduac. Maite ba cenu, orobat guertatuco litzaizuquezu, Jesus zaudenean. Orduan ordu erdi bat luce iduritcen zaizu?

Gu-

Guti maite dezu Jesus. Cecenac ecusten, ta beste jostatce, edo diversio-etanba-zaude, nai baño, lastertago doaquizu dembora; ta luce zaitzu ordu erdi bateco Mezan Jesus-equin egotea. Ba daquizu, aurqueriac dirala Mezaren aldean cecen, ta jostatce guciac; baña zure gogo gabeco Meza enzute, ta gauza char-etaco gogoz egoteac aditcera ematen du, siñisten ez dezula Mezaco gauzaric, eta zuretzat aurqueriac dirala gauzaric andienac.

10 Jesus gu-requin, Nazaretco bere Aideen artean bezala, arquitzen da. Etcequiten Jesus-en Aideac nor cen Jesus: ta ez daquigula guc era nor den, aditcera ematen du gure hartaz casoric ez eguiteac. Etzuen Jesus-ec, beste baater, edo errietan eguiten cituen gauza andi, edo milagro-etatic bat eguin Aideen artean, ta bere errian: ta ez du gure bihotcean eguiten, ongui vici diran, ta maite dutenen bihotcetan eguiñ oi duen gauz andiric. Gure itsutasunac, gure siñiste laburrac, edo ezaguera gabeac lotcen diozca, ondosunez bereric gu gana luzatu nai lituqueen, bere bi besoac.

11 Asserretcen zara bere Jaincotzat

ezagutu etzuten, ta jesusi vicia quendu ciotzen Judu gogor-equin, oiec eguin zutenaz oroitcen zaran gucietan. Eta ez dezu nai asserre ditecen zu-requin, zuc Jesus bera-requin eguiten dezuna ecusten durenac? Ez paliz baño gucyago, ez dira gucyenac beñere oroitcen egun gucian, gucien amorez Aldarera jaitsiric dagoen gure Jesus onaz; ta, oroitua garic, etzaizca aguertcen, ez pada ecin bestez, edo jaycetan baicic; eta aguertcen diranean ere, non sartcen diran, ta norequin dauden, beguiratu gabe.

12 Cembat zor diogun Jesus onari, ez-pa-degu obequi ezagutcen, nequez izain gara Jesus-en maitatzalleac, eta ez degu damu andiric artuco Aldarean Jesus-ec artcen ditu en videgabe, ta charqueriez. Vicitza ciquiña-ren queac quentcen dute, edo estaltcen ezaguera: garbia nai duenac iduqui, iduqui behar du loyric, edo becaturic gabe bihotza. Nai duenac garbiro ezagutce, ta siniste andi batequin bero daquion; gogotic Jesus maitatceco, bihotza, ar beza maiz gogoan, Jesusi zor diona; ascotan bijoa Elizan Jesus ecustera, ta esca biezago, aci-taci dezala, oraindic chiqui arquitcen zayon, bere siñistea. IRU-

# IRU-GARRENA.

## *JESUS MAITATU NAI andi bat.*

13 BIhotz garbia-requin, ta Ceruco gaucen ezaguera, edo ʃiniʃte andi bat arturic arquitcen dena ʃite ʃartuco da Jeʃus maitatu nai onetan. Eracutsi den devocioa, Jeʃus maiz, ta gogotic maitatcea da. Bere maitatce hau ez tio Jeʃuʃ-ec nori-nai ematen; baña ematen dic, maitatu naiandia-requin arquitcen deranei: hala dio berac, *Dohaiʃuac* (eʃaten duenean) *edo zori onecoac gauza onen egarria-requin arquitcen diranac; bada aʃʃeac guelditucо dira, ta izain dute nai duena.*

14 Jaincoa maitatu nai onec quentceen diozca bihotzari, becatuen urac utci ciozcan eza-taʃunac. Ezatua gueldítu den egurra, uric gabe egona gatic, eza-taʃunic ez duena bezain aiʃa ez da erre, ta auts eguiten. Becaturic ecuʃi ez duen bihotza, becatua-requin egondu dena baño, errazago berotcen, ta erretcen da; arquitcen da ala-baña be-

carnaren cutsuric gabe. Cutsu onetatic garbitceco, asco valio du, escatcen dugun, Jesus maitatu nayac. Gogozco naya-requin arquitcen ba-gara, Jesus maitaceco, azquenean arquituco dugu Jesus maitatce hau: bada ez tu oraindic iñore aditu, ucatu ducla Jesus-ec, escatu-razion amore, ta maitacea.

15 Arquitzen ez da bat, Jesus maitatu nai duela, ez dionic. Guciac dioté, Jesus onetsi, ta maitaceco nai andi batequin arquitcen dirala. Nola bada onesten, ta maitatcen duten baño gueyacoc, eta obequi maitatcen ez dute Jesus? Nola beren maitatu nai gucia, maitatu nayean gueldítcen zaye gueyenai? Ori guertatcen da, ceren gueyenac, Jesusi baño, nayago dioten beren buruari. Ez daude orretan; baña egon ditezque. Guciac ezagutcen dute, maitagarria dela Jesus, ta maitatu beharra: ezaguera onen ondotic etorcen zaye hura maitatu nai iduri bat; eta orrequin uste dute, Jesus ciñez, ta gogotic maitatu nayez daudela: baña ez du valio, duten, hura maitatu nai-iduriac.

16 Oietatic bat zaran, ezagutceco, beguira zazu, cembat becatu oi ceran

Jesus

Jesus maitatcea gatic, eta cer nola zabilzan, gogotic, edo ciñez nai dituzun lurreco gauzen ondoan. Aguitz nai dezun gauza ɾscura artean, cer neurriac artu oi dituzu? Cembat vide, cembat lagun, edo arteco billatu oi dituzu? Gau, ta egun dacarzu gogoan, gogotic nai dezun, gauza. Nai dezun gauza cezetceco, edo escuratceco behar dirala daquizun neque-izerdiac; oni, ta nai etzenuquean besteari hitz eguiteac, eta vide luceco ibillerac etzaituzte izutzen. Egunac, hasteac, illac, eta urteac doazquitzu, nondic haren jabetuco zaran. Eguiten dezu ambeste, ta laurdenic ere, Jesus maitatcea gatic? Ascotan loa galdu dezu, nola maitatuco dezun Jesus, icastea gatic? Cembati galdetu diezu, non arquitcen den Jesus-maitace hau? Cembat baru atera dituzu? Cembat gauza on eguin dituzu, maitatce onen alderaco, edo dizun Jesus-ec bere maitatce hau? Bada cerbait onelaco eguiten ez pa-dezu, siñetsi zazu, zure Jesus maitatu naia, nai uts, alfer bat dela; ta ez, Jesus-en Bihotza-ren devocioac escatcen duen, ciñezco nai, ta descoa. Nai utsican gueldítcen ditan nai, edo descoac,

 ilt-

ilteen dagoen arguiaren garrac bezala dira. Gar oiec garrac dira; baña aicetan laster ta fite gueldiruco diran garrac. Garrac dira: baña den gauzaric chiquiena ez erre, ta ez berotuco duten garrac; eta garrac, il ta bereala queetan gueldiru beharrac. Ah! noasqui orain dañoco zure, Jesus maitatu naiac, nai, edo deseoac dira, bihotza epeldua garic, berotcen ez dizutenac; eta ilteen diranean, becatuen queez bete, ta galduric urzico zaituzten naiac.

17 Orren lan gogorric etorri ez daquion zure bihotza-ri, beguira zazu, cer nola vicitu zaran; ta arquitcen ba dezu, ez dezula Jesus behar bezala maitatu, ecul-zazu, cer izandu den, Jesusen lecuan, zure gogo, ta bihotzcean egondu den gauza, ta quen zazu, ahic lasterrena; artu zazu guero ciñezco Jesus maitatu nai bat; ar dezazun, nai orren ondoticdatorren, Jesus maitatce andi beroa.

## LAU-GARRENA.

### *BIHOTZ BILDUA.*

18 EZ ta arquitcen Jesus soñu, ta escambillen artean: *Non in commotione Dominus*. Escambillen arteric

teric aldaratcen du Jesus maiteac, bere hitza adi-razo nai dionaren bihotza: *Ducam eam in solitudinem, & loquar ad cor ejus.* Belarri chiquiac ditu bihotzac, munduco ta Jaincoa-ren hitzac batetan aditceco: itsi behar diezte munduco hitzei, nai ba-ditu Jaincoa-renac aditu. Munduco hitz, eta jolasac, Jesus maitatcea quentcen duten eguitecoz beteac daude. Hau behar bezala, eguin nai duenac, utci behar ditu, utci ditzaqueen munduco eguitecoac.

19 Ura bezala banatcen den bihotzac, ecin iduquico du Jaincoa gan edo haren baitan bere asmo, ta gogoa: ta gogo-asmoac Jaincoa-gan ez daduzcanac, ecin ura ciñez maita dezaque. Ciñez ta maiz Jesus maitatcea da Jesus-en Bihotza-ren devocioac eracusten duena. Orre-gatic, nai duenac devocio hau, bildu behar du, eguin alean, bere bihotza. Devocioac bilcen duen bihotza-ri Jesusec ematen dio, bera maitatceco behar duen su, ta garra.

20 Jaincoac nai dionean (dio San Gregorioc) eman bati, maitatce oncraraco behar duen su, ta gracia, lenic ematen dio, lurreco eguiteco, ta lagunac ut-

ucci, ta bacarric bera-requin egoteco, gogo andi bat. Badaqui alabaña, bacartaluna billatcen ez duenari, ematen diozcan ondasunac, ondasun galduac izan oi dirala; bada ondarrean, arean, edo urean eguiten diran letrac bezain laster, ondatcen dira. Jaincoac bihotzari ematen diozcan ondasunac, ber-equin bat eguitea-gatic ematen diozca; ta ura bezala, eguiteco-en artean banatcen den bihotza, Jaincoaren iguesi bezala dabillen bihotza da, ta norbaiten gandic iguesi dabillena, ecin bat hare-quin eguin diteque.

21 Animaco uti-eguite, ta calte gucia erorri oi dira ura bezala gure bihotza, banatce oneratic. Bihotza bilcera eguiten ez tuenac, ez tu Ceruco videan ibilce luceric eguiñen; ta dabillenean ere, ibillico da nequez bereric, edo atseguin ta gusto guti-requin. Cer-gatic uste dezu (galdetcen zuen onen bertria zuen batec), Religioetan vici diran guci-etatic ain guti Santu eguiten dirala? Ba-dute oracioa, ematen dute Meza, edo maiz, ta farri comulgatcen dira, iracurtcen ditezte Santu-en vicitza, ta libru onac, eta gauza onetan daramate urte, ta vici gucia; nola bada, errem-

rembat gauz on eguiten dituzte-nac, ez dira guziac Sanctuac?

22 Nic errain dizut: ez dute zaitcen beren bihoza, edo uzten diote bihotzari, dabillela gogoac ematen dion, bazterretan: ba dacarte escura gorputza; gorputzari eraguiten diote, Santuac eraguin oi cien gueiena: baña ez dute barrenaz, Santuac zuten beguiratce, ta contua: eguiten dituzte, Santuac eguiten cituzten, gauzac; baña ez, Santuac bezala; ta orre gatic ez Santu dira, eta ez Religioso, behar bezaloac.

23 Orobat guertatcen zaie munduan, Santuen vicia dacartela, dirudien ascori. Gauz on añitz eguiten dituzte munduco ascoc urtea-ren buruan, illean, hastean; bai-ta egun-oro ere; ta ez tira orre gatic atzo baño gaur obeac; joan den urtean bezain, aisi berriac dira aurten virtutea-ren videan: igazco uts-eguiteac dituzte aurten ere; igaz bezain aisa asserretcen dira, nai ez duten cerbait ecusten, edo aditcen dutenean; gaizqui andiric ez eguiña gatic, nai ez-luqueena eguiten dienai, ez die barcatcen; hitzez, lanez, edo nola ere bait aditcera ematen dio, eguin diotenai, eguin

zai-

zaielaco damu ta arsecabea-requin ara-quitcen dirala. Onelaco, ta beste utseguite cembait gabe arquituco liraque, bihotzari oharceen ba-litzaizca, ta behar ez diran ibillerac utci-raci, edo quendu, ta barranean loturic iduquitcen ba-lure.

24 Alferric ibillico gara; Ceruco videan aisa, ta arin ibilli nai duenac, edo nai duenac Jesus gogotic maitatu, bildu beharco ditu, eguin alcan, bihotzaren beguiac, eta vici beharco du bere barrencan gordea bezala. Etzuten hau beste videric arquitu, beren virtutetaco, S. Ignacioc, S. Francisco de Sales, S. Xavier, Santa Theresa, eta gañeraco Santuac. Hura bera artu behareҫ degu, virtuteаren mendira igoco bagara. Al dugunean, utci ditzagun lurreco eguitecoac; eta goacen, Jaincoac, cer bihotcera esaten digun, adircera: hitz eguite onec berotuco digu, bera maitatceco behar den suarequin, bihotza.

25 Gure caltea-ren billa dabillen etsaiac, non-dic caltҫa etor daquiquegun, daquienac bezala, eguiten du al-eguiña, Jaincoa-requico hitz eguite, ta bacarrasuna guri quencea gatic. Lan, eta eguiteҫo gaisto-etara ecin eraman gaituenean,

nean, billatcen ditu cembait eguiteco, onac izanic-ere, beharren den bacartasuna quentcen digutenac; eta orien artean banatuac bezala ecuften gaituenean, eguin oi du bere-etatic bat, edo dezaquean gucia, gu galduac uztea-gatic. Bacartasun on hau galduric, dabillenari guertatcen zaio, Artzaia utci, ta ſaſian dabillen ardiari guertatcen zaiona. Artzaia-requin dagoenean, ez da ſciatcen otſoa, ecer hari eguitera; baña Artzairic gabe, ta ſaſian arquitcen duenean, itſaſten zaio bereala; larrutu, ta urratcen du ortz-equin, ta iriſten du laſter ta ſite. Anima bere Artzai on Jeſus maitearequin dabillenean, ez dio gaitz andiric eguiñen Infernuco otſo-tzarrac; baña onen ortcetan gueldirzeco videan dabill, baldin, bere barrenaz contu andiric ez daducala, lurreco eguiteco-en ſaſi ta arantz artean ba-dabill.

26 Saſi onetan ibillia gatic, erſaiaren ortcetara gabe; edo eguiña-gatic baterc, becatu larriric eguin gabe, eſcuetan dacarcien eguitecoac, calteric aſquirequin gueldi diteque, ez-pa-dabill ongui ohartua. Lurreco eguitecoac aiſa banatcen dute bihotza; ta bihotz, bein bana-

na-

natua ; nequez oitcen da barcartasunera, edo Jaincoa-requin hizqueta luceac izatera. Onetarà ez oitu nayez, galtcen ditu, Jaincoac eguin nai ciozcan, ondasunac, eta ez dator beñere gogotic, edo ciñez hura maitatcera; edo ez dator, banatu ez-paliz, eguiñen zuenaren laurdonic eguitera.

27 Ba dira batec ecin utci ditzaquecn eguiteco, ta lanac. Onelaco lan, edo eguiteco-etan ba dagoque barren bilduarequin, edo bihotza banatu gabe. Orretaraco, lana asitcean, escatu behar diozu Jaincoari, hura eguin artean, bera gogotic ez galtceco, gracia. Ansia, ta estutasunic gabe ari behar dezu cere eguitecoan: goratu behar dezu noicean bein Jaincoa gana cere bihotza. Esan diozu orduan Jaincoari nai dezuna; ta escatuco diozu, lagun daquizula bera maitatcen, ta dizula onelaco, edo alaco, behar cenuquean, gauza. Lurreco asmo charren bat ecartcen ba-dizu etsayac gogora; galeraztea garic escuetan darabilzona, ez dezula lan hura asi, esan behar dezu, ez eta eguin, edo bucatu nai ere, ongui esan dezaten ecusten zaituztenac. *Assi nuen*, esan dezu, *lan hau*, *Jaunari atse-*

*seguin eguitea gatic, eta ceren eguitera behartua nengoen; ta ez dut beste gatse bucatu nai. Alferric ibillico da onen ondoan nere etsaya: ez du berdin den zatiric chiquiena cer ichedan: emana dago, ta berriz, ta berriz ere ematen diot den gucia nere Jainco maiteari.* Bucatcen, edo acabatcen denean, esquerrac eman behar diozcatzu, lagundu dizun, Jaincoari.

28 Escueran dacartzun lana erdi eguiña dagoenean, quenteen ba-dizue, edo haren lecuan ematen ba-dizue berriren bat, etzaitecela asaldatu; ecartzu gogora ala nai duela, ongui nai dizun cere Jaincoac, eta eguin zaitzuna eragoiten duela, nor zaran zu ezagutcea gatic, edo, cein maite dezun, jaquin nayez bezala. Ez dezazula beguiratu, cere gogaracoa den, edo ez, eguin vehar dezun lan, edo eguitecoa: beguira zazu nola eguiñen dezun, eguiten dezun lanean, Jaincoren gogoa: gogo hau eguitean dago zure on, ta dicha gucia.

29 Lan, edo eguiteco-ren batean ari zaranean, otoi zaitez, Jesus onac eguin zuen lanen batez. Beguira zazu, ta icusi, nola Jesus-ec, eta cein Bihotz garbiare-

requin eguiten zituen bere eguiteco, tā lanac; nola cegoen, bein ere bere Aita gogotic utci gabe, ta, eguiteco arran ezpa-cegoen bezain, gogotic maitatcen zuela. Ercion bere eguitecoac zutaz, ta zuc eguin behar cenuen lan orrez oroitcea quendu. Eguiteco hartan cegoen, ta zuri beguira; eguiten zuena-requin eracusten cizun, nola eguin behar cenituen guciac. Eguiz-quitzu bada, alic onguiena, Jesusi beguira zaudela, edo ura gogotic galdu gabe. Orrela eguiten cituzten Apostoluac, orrela Santuac beren eguiteco andi ta chiquiac: zuc ere orrela eguitea-requin, galdu Jecuan, irabacico dezu, ta anitz al-ere, cere lurreco lan, ta eguiteco-etan.

30 Bihotza biltcen ez tuena (esaten du Jesus-en maitatzaille batec), galdua ibillico da, ecertaco ez diran, anitz gauzen artean, ta ez tu ezaguruco ere, Jaincoac beràz eguin gogo duena. Bildu balu, adi-racico cion, eguin behar zuena, ta, urà eguiteco behar cituen, indarrac emain ciozcan; eta emain ciozcan, bere Adisquide andiai eman oi diezten, asseguin ta gusto garbietatic ere. Gusto, ta asseguin oiec gatic aisa utci ditezque lur-

reco

reco áurqueriac (aurqueriac dira lurreco gauzaric andienac, Jaincoa-ren gauzen aldean). Ceruco gaucen, ta arseguin andien berriric ez dutenac vicitza nequezcoa daramatela, uste dute, munduaren iguesi bezala dabilzanac; eta illuntasunez, ta melancoliz beteac dirala Jaincoa-requin diardutenac, edo virtutea-ren videan dabilzanac. Bà-lequie, cer den Jaincoa, ta nolacoac diran, Jaincoac, ciñez maitatcen dutenei, eman oi diez-ten arseguin ta contentuac, bertce-ric errain luquee; ez da alabaña lurrean, Cerucoen berria duenari, arseguin edo contentu eman dezoquean gauzaric.

31 Bacartasuna billatcen dutenac, eta Jaincoa-ren gaucetan sartuac dabilzanac dira, aisena vici diranac. Jaincoaren gauzac gogotic siñesten diruztenac, escuan ba-lute, bezain ongui uste dute Jauna gandic, behar duten, gucia; ta Jaincoa da gauza gauciac baño gueyago nai dutena, edo gucien gañean maite dutena. Deusen beldurric ez dute. Duten Jaincoac, bera lenic uzten ez dutela, ez ditu utcico; ta hura dutela, ba dute, behar duten, gucia. Luzaro eguzquiari beguira egondu diranac, beguira deza-

te-

tela nora nai, eguzquiari beguira dandela, uste dute. Jaincoa-requin hitz eguiten oituac daudenac, ecusten, iracurten, edo aditcen dituzten, gauza gucietan atquitcen dute Jaincoa ganaco videa, edo gauza;ta bazter gucietan Jaincoari beguira dandela, dirudi.

32 Jaincoa-requin vici denac, Jaincoa gatic eguiten ditu gauza guciac;eguiten dituen gaucetan ez dio bere gogoari atseguin eguiten; Jaincoari atseguin eguitea da haren lan ta nai gucia. Baña mundoco eguiteco-etan sarturic vici diranac, beren burua billatu oi dute gueyenean, eguiten dituzten gauzetan; bada nai dute, iduri oneccoac atera ditecen guciac; eta ez die atsecaberic eguiten aditceac, ongui lausengatcen dituztela orien berria dutenac. Onelaco laudario, ta lausengac ez dituzte berotcen Jaincoa beren gaucetan billatcen dutenac. Jaincoari atseguin eguin ezquero, etzayc ceer gaizonen erranac gatic. Erran dezatela, nai dutena Guizonac, ez illuntcen zaye, ta ez arintcen arpeguia. Atzo cirainac dira gaur. Beti dira hitz-eguite, ibillera, ta gauza gucietan berdiñac, edo guisa batecoac; ta berdintasun onetan

adi-

aditcera ematen dute, ta eracuſten, barrenean duten virtute andia, edo gogotic maitatcen dutela Jeſus. Onelacoen eſanac, Ceruco eſantzat bezala, artu oi dira;ta guciac nai dute onelaco-equin ezaguera, ta tratua. Orre-gatic, Jeſus maite duena, maite du Jeſuſ-ec berac; bai ta mundu guciac ere, edo beintzat ezagutzen dutenen zatiric andienac.

33 Beren barrenean ſarturic, edo bihotza bilcen dutela vici diranac, bereala datoz Ceruco maitatce andi onetara. Bihotza bilce hau arquitu, edo gorde nai ba-dezu,eguin bear dituzu, errain zazquitzun cembait gauza. *Lembicicoa*; ez artu, hibotzaren Jabe-taſuna quenduco dizun, gauza, edo eguitecoric; eta eguiten dituzun gauzac, eguin behar dituzu laſterca, edo anſiaric gabe. *Bigarrena*; utci ditezqueen, gaucetan ez dezazula oſiic ſartu, edo bihotza banatu. *Hiru-garrena*; edocein gauza eguiten ari zaranean, iducazu bihotza, noiz-nai Jaincoari hitz eguin dezoquean bezala. *Lau-garrena*; beſteren oneraco, edo cerctzat eguiten dituzun, gaucetan egon behar dezu, olioa urean bezala. Echea-ren contua, humeac acitcea, behar dena bi-

llatcea, onequin, ta gañeraco-equin jarduquitcea, ta beste guciac, eguitecoac dira, zure bihotzac, olioac ura bezala, azpian iduqui behar dituenac: orrela ba daduzcatzu, noiz-nai ega diteque, ta goratu, Jaincoa-ren billa, zure bihotza.

34 Bost-garrena; billa zazu bacartasuna; hizqueta luceac ez ditzatzula artu: anitz diarduenac, nequez izain du bihotz bildua. *Sei-garrena*; ez dezazula becatuaren pitsic ere bihotcean iduqui; iduqui zazu barren garbia: aurſen bat, edo edocein uts-eguite chiqui ecusi dezazuneco, zoaz damua-ren, edo confesioa-ren iturrira, ta garbi zazu bihotza. Dohatſuac, edo zori oneccoac, dio Jesus gureac, bihotz garbia dutenac: oriec dira Janicoa ecusi behar dutenac, edo, Jaincoa gogoan dutela, vicico diranac. *Zazpi-garrena*; gora zazu Jaincoa gana bihotza, ordua aditcean, guelan sartcean, echetic irtetean, edo ateratcean, Jana asitcean, hura bucatcean, adisquidea dator-quizunean, norequin nai hitz eguitean, edocein batcean, edo ecustean, gauza eſcuetan artcean, ta beste orrelaco cembait aldiz. *Zorci-garrena*; alic maizena, ecarzu gogora, nola eguiñen

Inquean Jesus maiteac, eguin behar balu, zu eguiten ari zaran, lan ori; ta eguizu al-eguiña, ala eguitea gatic. *Bederatcigarrena*; ohar-zaitez, non-nai, ta edocein gauza eguiten zaudencan, beguira dagoquizula, gucia ecusten duen, Jaincoa: ohar zaitez cere bihotcean, cere escu, ta muñetan, ta bazter gucietan daducazula Jaincoa; aditcen dagoela cer esaten dezun, ta etzaiola gordetcen, gogoan daducazun, gauzaric ere, den chiquiena izana gatic. Esa-iozu, siñisten dezula hau gucia, beste, Eliza Santuac eracutsi dituen, gauz-equin batean. Esca zagozu, bera gogotic maitatceco, bihotza banatu gabe, ta bacartasun on batean vicitececo, behar dezun gracia. *Amar-garrena*; artu-izquitzu Bitartecotzat oneraraco, bacartasun, ta bihotza-ren bilducra andiagoa izandu zutenac, Jesus-en Ama, onen Esposo San Joseph, ta guraso San Joachin, ta Santa Ana; bai-ta San Juan Baptista ere, ta, nai dituzun, gucien artean, Jesus-en Compañiaco S. Luis Gonzaga.

## §. II.

## *JESUS-EN BIHOTZAREN devocioac dacazquien ondasunac gal-erazten dituzten cembait gauza.*

1 ONgui vici diran-en artean bacan arquituco dira, Jesus-en Bihotzaren devocioa ona dela, ta gustoz, ta ondasunez betea dagoela, ucatuco dutenac. Baña ez dira asseguin ta gustoz beteac vicico, devocio onetan sarcen diran, guciac, gusto ta asseguin hau izana-gatic, devocioa artzen dutenai, ta ciñez maitatzen dutenai, Jesus-ec eman oi dien ondasuna. Cer gatic ori guertatzen den, eracustera noa.

2 Anitcec diote, ta aspaldian, asitu dirala, Santuac izan oi cituzten, asseguin ta Ceruco gustoac. Enzuten dituzten Mez-etan, beren confesio, ta comunio-etan, ta gañeraco gauza onetan, idortasuna, ta nequea besteric, ez dutela, diote, ta oracioco suan sartua gatic, sartu ciran can bezain otzac, edo otzagoac andic atera̓tcen dirala. Ez daquitela diote, cerran dogoen ori, baña bai, ez dagoela

vir-

*virtutea* gusto ta atseguin orietan; edo ona izan ditequeala nor-nai, bere vician ez ecusia gatic orrelaco atseguin ta gustoa-ren arpeguia.

3 Hau, ecin uca ditequean, eguia da; baña orobat da eguia, beldur izan gaitez-queala, quentcen diezquigula Jaincoac bere gusto ta atseguinac, gure alferqueria, ta naguitasuna-gatic, edo ceren ez-gabilzan, ibilli guindezquean bezain, viciro Ceruco videan. Egungo Ceruraco videa, Santuac izandu zuten, vide bera da. Santu guciac diote, vide hau atseguin ta gustoz betea arquitu zutela: ta vide onetaco lan ta nequeac berac, munduco gauz-aric ònenac baño, ezti, ta gusto guciagoz-coac dirala. Etzequitela, diote, vide onetan cebilzanac, cer cen atseccabea, cer damua, cer bihotza-ren illuntasuna, edo cer nequea. Nequeric andienean diote, eztiz betericaco eztarria baño, atseguin ta gusto gueiago-requin arquitcen zutela beren bihotza. Jauna galcea beste nequeric ez dela, diote azquenean, Ceruco videan gogotic dabillena-rendaco.

4 Onela hitz eguiten dute, ez cembaitec, baicic Santu guciac, eta, Jain-

coari bere vicitz onarequin atseguin eguitea-gatic, zucen ibilli diranac. Etzaitzu noiqui gogoraco, itsutuac vicitu dirala Santu, ta on guciac. Bada aitortu beharco dezu, ez datorrela Jaincoaren aldetic, Santuen videa daramatela dirudien gucienac, Santu, ta ongui vicitu ciranac izan oi cituzten, atseguin, ta gustoric gabe arquitzea.

5 Ez; ez dator Jaincoa-ren aldetic, Ceruco atseguin, ta Santuac izan oi cituzten gustoric gabe, gu arquitcea. Guti dira Santuac bezain, ciñez, ta gogotic Jesus maitatcen dutenac: guti dira, Santuac bezala, eguiazco virtutea-requin arquitcen diranac. Egungo egunean arquitcen dira, Santuac ibillo oi ciran bezala, dabiltzanac; eta arquitcen dira Santuen atseguin ta gustoz beteac. Ecusi nai ba-dezu cere eragozten digun Ceruco atseguin, ta gustoen ondasunac artcea, beguiratu behar diezu Ceruco videan arquitcen diran arri gaistoai. Atoz ez-peren; nic eracutsico derezquitzut.

6 Lau dira vide onetan arquitcen diran, ta behar bezala ibilcea quentcen duten, arri edo gauzac. Lenbicicoa, *alferqueria*, ta nequeraco naguitasuna.

Bigarrena, *gueren buruari gueyegui naya*, edo gueren burnac gueyegui maitatcea. Hirugarrena, *bihotzaren arrotasuna*, edo antustea. Laugarrena, *gueren barrena eci gabe idu-quitcea*, edo barrena pasioz beteric, edo, oraindic garaitu ez ditugun, pasio cembait-equin arquitcea. Lau gauza oyec dira, beaz-topa Ceruco videan eraguiten diguten, arriac. Guciac quentceco, ecusi behar ditugu banaca.

## 2. EMBICICO, JESUS-EN *Bihotza-ren devocioco ondasunac gal-erazten dituen, gauza*, Alferqueria, *edo* Naguitasuna.

7 JESUS-en Bihotza-ren devocioco ondasunac nai dituenac, ciñez maitatu behar du Jesus. Ez dute orrelaco ciñez Jesus maitateric Alfer-naguiac. Orre-gatic bada *naguitasuna*, edo *alferqueria* da, devocio onec dacartcien, ondasunac gal-erazten dituzten gauz-etatic bat. Ceruco videan nagui dabillenac, ez du sentian, Jesus ciñez, ta behar maitatceco behar den

adiña, bere bihotza berotuco. Naguiâ dituen gauzac, erraiac nasten dituen, ur epela bezala, dira. *Naiago nuque*, erraten dio Jaincoac Ceruco gauzetan nagui denari; *naiago nuque, otza ba-ciña edo beroa; baña ceren zaran epel, ta naguia, ecin iduqui zaitut bihotzean, ta trucatu behar zaitut, edo bota nere gandic.* Erran nai du, orren nagui Ceruco videan zu eccusi baño, naiago nuque arquitzen ba-cindut edo becatuan illa, edo graciaz beteа, ta, ciñez maitatzen nazula, pausu luceac ematen dituzula. Pausu luceequin ba cembiltza, ta gogotic maitatzen ninduzula, lagunduco niquezu cere videan, ta arinduco nituque nere atseguin ta gusto-equin videco zure nequeac eta, ni gatic eguiten cenuena ecusiric, maitatuco cinduzquet, hume ona bezala.

8 Arquitzen ba cindut illa, edo becatua-ren loo gaistoan sartua, ots eguiñen nuen zure bihotza-ren atean, eguiñen nituen zure belarrian desengañoen oyu, ta chistuac; eta, hau asqui ez-pa-cen zu esnaceco, edo iratzartceco, eraguiñen nituen zure ondoan missio-ren baten soñu guciac: zabalduco cenitzen

noiz

noiz-bait beguciac; ezagutuco cenuen, ni ninzala zure, ardi galduaren, billa zembillen, Artzai oña; ta, ecusiric, ibilli ciñan bezala, galduric ibilceac dacartcien calteac, jaiquico ciñan, ceunden lecutic, edo becatutic; eta, nion tricatu, edo gueldìtu gabe, etorrico ciñan nerequin, ta sartuco ciñan Ceruan.

9 Baña ez ill, ta ez vici bezala, arquitcen zara; ez otz, eta ez bero zaude; ta zure epelrasunac nasten derozquitcrray guciac eta Bihotza. Berotuco ceralaco ustea, edo esperanza galdu zait casi. Erdi loo zaude; ta cere naguitasunac ez dizu esnatcera uzten. Iguitcen ba-cera noiz-bait, zauden, toquitic, laster necatcen zara, edo, necatcen baciña bezala, gueldìtcen zara, ta ez dezu nai Ceruco videan ibilli. Becatua-ren loan sarturic ceudenac esnatu, edo iratzarri dituzten, Ceruco chistu, oyu, ots-eguite, deitcei ta soñuac aditu dituzu; baña esnatcera eguin, ta lentsu bezala gueldìtu cera. Ecin zaduzcaquet gueyago: bota behar zaitut nere gandic: *Utinam frigidus esses, aut calidus: sed quia tepidus es, & nec frigidus, nec calidus, incipiam te evomere ex ore meo.* (Apoc. cap. 3. versl.

verf. 15. 16.) Orra certara dacarten bat bere Ceruraco naguitasun, ta alferqueriac. Alferqueri onctan vici diranac, ez dute siñiftu nai, alferrac dirala; gogotic dabilzala, uste dute, Ceruco videan; edo uste dute, ez dela, cer viciroago ibilli. Ba daquizu cer gatic? Ceren, oben edo culpa larriric ez izaña garric, garaitcen, edo escura ecartcen ez dituzten passio gaiñoac. Orrelaco passioen quez betea daducate burua; ta arquitcen dira, eguiten dituzten, uts-eguiteac ezagutceco, behar luqueen Ceruco gracia-ren argui asco gabe; ta gueldiitcen dira erdi itsutuac, edo illumbean daudenen guisa. Ba-dute oraindic cerbait argui; baña ez die, ez necatcea gatic, aguertcen diezten eguiai beguiratu nai. Aguertcen die, laguna-requin ez ongui etortcea, garza bezain hitz gaciac essatea, bestcac baño burua gorago ecarri naya, ta beste gauza anitz, larriac ez diranean ere, culpa larrien vide zucenac dirala; baña, ez ecusi, eguiten dute; ta, len bezala, dabiltza.

10 Ez daquiola Jaincoari nai, zu orretaratcea, edo etzaitzala Jainco onac toqui illun orretan sartcen utci. Cere al-

alferqueri, edo naguitasuna gatic orretaratcen ba-cera, utſ-eguite chiquiac, edo larriac-ez diran, becatuetatic cembaitetara ohartuco ere etzara; ta, ezaguteen dituzunac, larriac ez diralaco aitzaquian, ez dituzu quenduco. Confeſſatuco zara; cere Jauna artuco dezu; ez dituzu utcico cere devocio, ta iduri oneco gauzac: baña eguiten ba-dituzu, eguiñen dituzu, cer eguiten dezun, ezpa-cenequi bezala, ta gogoa lurreco gauceran banaturic darabilzula. Nagui zabilza, ta epel Ceruco videan, ta ongui beguiac idiqui gabe, non artquitcen zaran, ecuſteco.

11 Idiquitcen ba-cenitu beguiac, ecuſico cenuque, gueyena eguiña daducazula, ta, ezerez bat ez eguitea gatic, galtcen dezula, Jaincoa-ren izatea; galtcen dituzula, Jaunaren eſcutic emen izain cenituqueen, arſeguin, ta contentuac; eta galtcen dezula azquenean, azquen orduan aſaldatuco etcinduen, eriotz on bat. Orren merque eroſten diran, ondaſun andiac ez dira galceeoac. Autſi ceniruen becatuaren cate lodiac, eta naſten zara culien farean. Aſi ciñan ezqueto atſeguin Jeſuſi eguiten, cer gatic ez

diozu

diozu eguiten osoa? Erregue bat-equin etciñaque, Jauna-requin bezain, labur ibillico. Etcenioque edocein adisquideri ucaturuco, Jesusi ematen ez diozun, atseguin, edo gustoa. Aztu vide zaitzu, Jesus dela zure Erregue, ta adisquide: ez vide dago zure gogoan, cembat zor diozun Erregue andi, ta Adisquide maite oni. Ez vide daquizu, ucatcen ba-dizu azquen gracia, etzaitzula betico damu, negar, ta nequea besteric gueldircen. Cembat arquitcen dira, zu bezain ongui asi, ta necatu ciranac; eta orregatic seculacogalduac? Etzoa-cen oriec lagun eguitera beren suzco nequean, utzazu noiz-bait, oriec galdu cituen, alterqueria; ta zoaz, uts-egunte larriac bezala, bestcac quenduaz.

12 Ez da escatcen zaitzuna, uste dezun bezain, gauza gaitza: eguin dute orrembeste, zuc bezain uste guri, ta zu baño osasun laburragoa zuten anitcec. Gazteac, zarrac, diranac daguiquec, zuri escatcen zaitzuna; ta escatcen zaitzu cere oneraco. Cembat aldiz esaten dezu, maite dezula cere burua, edo anima: oni ematea gatic seculaco atseguin, ta Cerua, ez dela eguiñen etzenuquean gauzaric.

Izur-

Izutcen zaituela, diozu, betico suan erre beharrac; icara uzten zaituela, etsay-en artean arqui cindezquela lurpeco lece arrigarrian, oroitceac. Bada orrembat ezaguera, beldur, ta icara-requin arquitcen ba-cera, nola icara, beldur, ta ezaguera orrec escatcen duena, ez dezu eguiten? Orrec escatcen duena, da; lenena, oben larri, ta culpa andiac uztea; ta guero, berriz, oriec ecarteco, videric etsayari ez ematea. Orretaraco etsayac artcen dituen, videac dira, zuc ecertan ez daduzcatzun uts-eguite chiqui, edo culpa venialac.

13 Chiquitzat daduzcatzun, cere uts-eguiteac escutic eramain zaituzte larrienetara, cere alferqueri-naguitasuna utciric, uzten ez-pa-dituzu alde-bat. Ez dizut nic esaten; Espiritu Santuac dio, aditcen dezuna: *qui spernit modica, paulatìm decidet*. Ba-daquizu nora daraman guero edocein oben, edo culpa larric. Atera ba-cenitu cembait aldiz oraingo contuac, etciñan orain arquituco, arquitcen zaran bezain naguia. Naguitasun ori uzteco, ateraz-quitzu berriz, ta berriz-ere contu oriec: eta ez daquizula, ispillura beguiratcen duenari guertatcen zayona,

guera-

guerra. Onec, beguiac ispillutic quendu orduco, ez daqui, dio Apostol Santiagoc, nolacoa den, ecusi duen, bere arpeguia. Atera dituzun contuac utci orduco, gueldircen bazara cere naguitasuna-ren berriric gabe, nagui guelditucо zara, ta seculaco cere burua galtceco videan.

14 Edoccin gauza icasten igaro bacenitu, Jauna maitatcea icasten eguin dituzun urteac; eta urteen buruan arquitcen ba-ciña gauza hartan, maitatce onetan bezain berri, lotsaz, ta alquez arpeguia galduco cenuque; ecusico cenuque alabaña, lembicico illean cenequien baño gueiago ez daquizula anitz urteren buruan. Lotsa ta alque andiagoa-requin utci etzaitzan egunen batean, Jesus ciñez maitatcen icasi-gabeac, utzazu noiz bait naguitasuna; garbi zazu cere mastia aisseri char-etatic, edo cere bihotza oben chiqui, culpa, ta urseguite-etatic; ta eguiozu Jesusi maitatce onaren, ta virtuteen matsezco present on bat, nai ba dezu, dizun emen, eman oi duen asseguin, ta contentua; ta guero ecusten bera beti, ta ciñez maitatcen egotea.

§§§

## BIGARRENA

### GUEROI GUZIEGUI NATA, *edo gueren buruac, behar ez bezala, maitatcea.*

15 BEren buruac maitatcen ez dituzten guiti arquitcen dira munduan. Gaizqui vici diranac aisa ezagutzen dute, maite dituztela beren buruac. Gauza onac eguin oi dituztenac ere, ezagu dezaquete, nai ba-dute. Eguiten dituzten, gaucetan Jaincoa billatcen dutenac, ez dute beren burua maite: maite dute Jaincoa: baña, gueyenac uste duten, baño, gueyago behar da, orrela Jaincoa billatu, ta maitatcecò. Billatcen dezun, edo ez, ezagutceco, ecusi behar dezu, cer eguin oi dezun, ta cer gatic.

16 Osasuna galceco beldurrez zabilza? Beldur one-gatic uzten dituzu, guciac ez-pa-dira ere, Jaincoa maite dutenac eguin oi dituzten, neque, ta gauzac? Zabilza maiz gorputzari on eguiñen diola, derittzuna-ren billa? Beldur naz gucieguí nai diozula cere buruari, ta eguiten,

ten dituzun, gauzac ere utſ-eguitez beteac daudela. Erran dezaquezu, maite dezula Jeſus, ta Jeſus ona gatic utci nai dituzula lurreco gauza guciac, baña etzaitut ſiñiſtuco. Zuc diozuna, ziñez dionac, ez dio bere buruari, zuc adiña beguiratcen: onec ez du beguiratcen, gaitza den, edo erratza, Jaincoac aguintcen dion gauza; etzayo ecer oni, ona izan, edo ez olaſunaraco, Jaincoari atſeguin eguiten dion, ta eguin dezala, erraten zayon, gauza. Jaincoa maite duena, Jaincoari, beguira dagoca, berac, edo beraren eſcuna duenac erraten diona laſter, ta tricatu gabe eguiteco.

17 Nai ez-dezuna aguintcen zaitzunean, inguruca ba-zabilza, non-dic, ura eguin gabe, ongui guelditucо zaran; ceren orrec nai dituzun gauzac, gogoac erraten dizunean, eguiten ba dituzu; eguiten dituzun, gauz onetan ere artu utci ba zabilza; nai ta ez eguin behar dituzun gaucetan barreneco illuntaſun, ta atſecabe batequin arquitu oi ba cera; ona izateco aſmoac etortcen zaizquitzunean, orretaraco gogoratcen diran neurriac, edo gauzac izutcen ba zaituzte, ta behar diranac artu gabe gueldítcen ba-cera

cere

zeré burua billarcen dezula, aditcera ematen dezu, ta etzaitucla, eguiten dituzun gaucetara, Jauna maitatu nayac eramaten.

18 Obe lizaque behar bada, ez-pacenitu, dituzun, cembait gauz on; beintzat ezaguruco cenuque orduan, uste dezun baño, beharsuagoa cerala, ta Jaincoa-ren begui-etan, deritzazun adiña, valio ez dezula. Eguiten dituzun gauzac, itsutua bezala, zaduzquec; ba-da orietan, cere oua billatcen dezunean ere, Jainco maitearen billa zabilzala, iduritcen zaitzu;ta,orretan ez-pa-ceunde, eguiñen cenituque, eguiten ez dituzunac. Eguiten dituzun gauz-en artean gaizqui dirudi-enic aguertcen ez pada, eguin dezula, uste dezu, eguin behar cennen gucia; ta etzara ohartcen, behar den barren, ta bihotza-requin egui-ten ez-diran gauzac, animaric ez duen gorputza bezala, dirala.

19 Zure Confessoreac behar bezala estutcen ez-pa-zaitu, loiean datrzan becatoreac baño, gaizquiago arquitcen zara; bada oiec izutu, ta arritcen ditu eguia bat aditceac, edo uste gabeco eriotza ecusteac; baña zu, orrelaco gau-

zac

zac aditu, ta ecusia gatic, ecer ecusten, edo aditcen ez-pa-cenu bezala, gueldítcen zara cere, zauden, toquian. Beti zabilza, nondic gogoa asse, ecusten dituzun, ta ongui iduritzen zaizquitzun gauza char-equin; ta, cembait uzten ba dituzu, izan oi dira, gutiena nai dituzunac. Zure-re-quin ongui datocen-equin baicic, ecce-nuque hitz eguin ere nai. Cere burua era-custea-gatic, eguiten dituzu, eguin oi dituzun, cembait gauza. Besteri dator-quion eritasuna, Jaincoaren ondasuna dela diozu; baña ez dezu ondasuntzat ezagutcen, cerorri etortcen zaitzunean; bada illuntcen zara laster, ta cerequin eccin burutuz bezala zabiltza, luzatcen ba-du beintzat, zuc uste baño gucyago.

20 Ondu behar dezulaco asmoa-re-quin zabiltza beti, ta beti arquitcen di-ra len bezain berriac zure utſ-eguite, ta charqueriac. Ascotan erraten dezu, gu-tiz nai diozula Jaun andiari; maite de-zula cere Jesus; ta, onec nai duena bes-terric, ez dezula nai; baña guititan onec nai duenic eguiten dezu. Ba-daquizu gu-rutce-pean necaturic ibilli cen Jesusen ondotic doanac, artu behar duela bere neque, ta mortificacioa-ren gurutzea: ba-

ña

ña onec izutcen zaitu ; ta , ez arçea gatic , billarcen dituzu, ecer valio ez duten eun, ta gueyago aitzaqui. Hitz bian gucia errateco , gogoac emaren dizuna baicic , eguiten ez dezu , edo eguiten ba dezu , izan oi da , cere buru-aren onguinayac eraguiten derezquitzun asco utseguite-requin.

21 Oncla vici zaraño , Jesus maite dezula zuc errana gatic , ez Jesus , cere burua dezu maite zuc. Beste vicitza artea artean , virtutezcoaren icena izan dezaquezu; baña , virtutezcoac duten Jauna maitatce andiric gabe vicio cera. Ez du Jesus maite , Jesu-sen neque-icerdien igueßi dabillenac. Alferric utcico dituzu Gurasoac , Aydeac , Adisquideac , eta dituzun gauzac , etzaitut neretzat ezagutuco , etzaitut nere escolan artuco ; gañeraco gauz-equin batean cere gogoa, edo cere buruari nai ori uzten ez-pa-dezu , dio Jesu-sec, *adhuc autem , & animam suam.* Ez da bada , gogo charra garaitu gabez , Jesus maitatceac dacartcien, ondasun andiac cer galdu.

§§§

# HIRU-GARRENA.

## *BIHOTZA-REN ARROTAsuna, edo antustea.*

22 Bihotza-ren arrotasun gaistoa da, virtutezco videan dabilzanai eguitecoric gueyena ematen dien essayetatic bat, eta aguian gaistoena; bada gañeracoac eguin ala eguin ondoan, ateratcen zaye videra, indar oso-equin, ta armaz beteric. Beguira, vide onetan zabitzana, essai onec, zu garaituric utzeco, asqui du gañeracoac garaitu dituzulaco gogoracioac dacarren, atseguin, ta berotasuna. Gauza onac garaitcen dituzte gañeraco essayac; baña gauza onac berac dira, essai onec, gu garaitceco, artcen dituen armac.

23 Ez-pa-dituzu nai, eguiten dituzun gauza on guciac, galdu; galdu nai ez-pa-dituzu virtutezco videtic, edo Jesus maitatcetic datocen ondasunac, ez da ecer bihotcean arrotasun gaisto, edo antuste oni lecuric eguin; bada eguiten ba-diozu, galduac dira diranac. Zabiltza



beti

beti erne; bestela sartuco zaitzu barreneràa, zuc uste gabean; ta, bidalcen badezu-ere, ateraco da, arquitcen duen, gucia berequin daramala.

24 Ongui ohartua ez-pa-zaude, atsorotasun onetaric datorrena, Ceruco gauza idurico zaitzu; ta ona delacoan, lecu eguiñen diozu cere bihotcean asmo gaistoari. Aguert-ceeoa den, gauzaren bat eguiteco zaudenean, etortcen zaitzun barreneco estutasun larri, ta gaizqui gucitceco beldurra, arrotasun, edo antuste gaiztotic datorren gauza da. Jaincoaren billa ba cembilza, eguiten dituzun, gaucetan, cere alderic eguin ezquero al eguiña, ansiatuco erciñaque etorquizun-aren gañean, ceren ezagutuco cenuque, ez duela Jaincoac escatcen, ecin ditequean gauzaric.

25 Nai dezu, izan dezaten beguitarte ona, zuc eguiten dituzun gauzac; edo nai dezu, zure gauzac ongui iduri daquiezten, ecusten dituzten guciai; ori zuc uste dezu, eguiten dezula Jauna garic; edo deritzazu, onzat ba-zadurcate, obequi artuac izain dirala, zuc eguiten, edo esaten dituzun gauzac, eta aisago zucenduco dituzula zucen ez-dabiltzanac;

nac ; baña Jaincoaren billa zabil-zañaco aitzaquian, cere burua billatcen dezu, edo cere hontaren billa zabilza ; bada, ecusten zaituztenai gaizqui iduri daquien beldorrac, uzten dituzu cembait aldiz, bestela eguiñen cenituqueen, ta aguian eguitera behartua zauden, cembait gauza. Nai ceniequе, Jaincoari bezala, lurrecoai ere atseguin eman ; baña guertatu oi dena da, guci-equin gaizqui zu artcencan gueldítcea. Zure bihotz arro, annustez betea-tenac dira, ez Jaincoa-tenac, lan oriec.

26 Lan orietan zabilzaño, ez dezu irabacico, bihotz humil garbizcoai Jaunac eman oi dieztεn, Ceruco atseguin, edo gusto-etatic bat ; eta lurrean arquitcen diran atseguin-gustoac, gusto, ta atseguin laburrac dira, ta guezurtiac ; bada, quen ditecenεco, gueldítcen da bihotza utsa, ta illuna. Asaldatcen zaitu orduan, erraten zaitzun, edocein hitzec ; ecusten dituzun, besteren gauza onac atsecabe eguiten dizute; nioren onic ecin eraman dezu ; labur zabilza gucien-equin ; ta etcenuque nai, zu-equin lebillen labur bat ere: zu baño guегyagocoac ez diran-equin, latza da zure

bitz-

hitz-eguitea, ta gogorra : etzenuque nai, arqui-ledin, zu-baño, gueiagogoric ; damuz bezala zaude guizon jaquintsu, ta andien artean zaudenean: ecin bestez egoïn zara orrelaco-equin : billatcen dituzu, nai adiña hitz eguiten uzten dizutenac : baña lurtean billatcen dituzu, arquitcen ez diran atseguin ta gustoac.

27 Eguiten ba-dituzu cembait gauza on, ez dituzu luzaro estaliac iduquitcen: ez dezu galdaco, orien berria banatceco videric : videa dezun gucietan ateraco dituzu : ta ateraco dituzu, zurcac bai lira-bezala, edo Jaincoac lagundu ez-palizu, eguin gabeac gueldituco ciraila, oroitzu gabe. Guelditcen ba-dira ississ, ta otzac, zure gauzac aditcen dituztenac, otzago gueldilitcen zara zu, ta laudatu etzaituztelaco damua-requin. Oic gueiac, bihotz arro, burua goratu naiez dabillena-ren arrastoac dira.

28 Zu bezala ez dabilzanac, ez deritzazu, dabilzala zucen. Cere guisara nai cenituque gauza guciac; onelacoac ez-pa-dira, beguitan artcen dituzu diran onenac. Ez da zuganatcen, zu ascco zaitucnic : Den onena gatic izain dezu

beti cer esan ; ta ez derizazu , dela bat, zu , edo zure gauzac gatic hitz bat esan behar duenic. Bada nola nai dezu , fan ditecen, lurreco asmoz, ta arrotasun gaistoz betea daducazun orretan , orrelacoric gabe danden bihotzetan baicic, sartcen ez diran , Jaincoa-ren asseguin , ta contentuac ?

29 Arrotasun, ta antuste orrec, eguiten dituzun , gauzaric onenac igartuac utcico ditu, barrenean sartcen zaien artac utci oi dituen bezala pagoric ederren ta andienac , ez-pa-dezu quentcen cere bihotceric. Bihotcean daducazuño , ez da cer ichedan , Jesus-en maitatzalleac duten , asseguin , edo gustoric. Lurrerano, edo gucien oñetara beratcen cen Biotza duen, Jesus maiteac ecin ecusi du, burua goraturic ibilli nai duen, bihotz arroric. Maite du Jesus-ec ; beteteendu Cerüco asseguin , ta ondasunez , berac bezala bihotz berach, arrotasun gabeco , ta humilla duena. Bihotz arrotasun gaistoz betea dutenac ; arquitcen dira azquen orduan , ez aberats , uste zuten bezala, baicic asco uts-equin , ta Ceruraco cer gabe ; bada beren arrotasun , ta antustéac igartu cituen , edo usteldu , eguin cituzten, gauzac.

LAU-

# LAU-GARRENA

## OITURA, AZTURA, EDO *costumbre gaistoa.*

1 O Itcen ba-cera, besteac utcia garic, gauza char gaistoren batera, galduco dituzu, orrelacoric gabe, maite dutenac izan ol dituzteen, Jesus-en atseguin, ta ondasunac. Jauna maitatu nai dutenac, garartu nayez dabilza beren etsaiac, edo passio gaistoac, eta, andic datocen, oiturac: baña gueyenai guertatceen zaye, Sauli, Amalec garaitcera joan cencan, guertatu citzayona.

2 Jaunac aguindu cion Sauli, etciozala barca, Agag ceritzan, Amalecciren Erregueri, ez eta onen gende, ta gauzai ere; edo aguindu cion, gal citzala guciac artas. Baña, gañeracoac il, ta barcatu cion Agag Erregueri; ta, aren bazterretan arquitu cituen gauza charrac galdu, ta gorde cituen onac, eta ederrac. Jaunac manatu ciona eguin lecuan, eguin zuen, gogoac eman ciona. Baña cer guertatu citzaion? Cer? Erri bateco

cem-

cembait ondasun gatic, galcea bere ondasun guciac; eta azquenean zuen erresuma, edo reinua: *Projecit te Dominus, ne sis rex.* Saul bezala ba-zabilza, hura bezain gaizqui guelditeeco videan zaude. Aztura gaistoac, bat-ere utci gabe, gal ditzatzula, agintcen dizu eere Jaincoac; uzten dezun edoccin, beguiran arruco du, ta azquenean quen legui-queeu cere errenua, edo bere Cerua.

3 Gañeracoac quendua gatic, gueldicen zaye gucyenai aztura gaisto bat, edo beste. Oitcen dira, utci behar luqueen, gauza-ren batera; ta, hau ez uztea gatic, billatcen dituzte cembait aitzaqui; bana aitzaquiac, arguiz ingurtura dagoela, itsutu nai duena baicic, ecin alc dezaquecnac. Batzuec uts-eguiten dute beren buruac, edo humeac gueyegui apaintccan; besteac jocoan, edo hitz eguitean. Erraz asserretcen dira cembait; cembait dabilza ondasunen ondoan, edo beren buruac aguertu, ta eracutsi naiez. Onelaco gaucetan uts-eguiten ez dutenac, besteri arseguin eguitea gatic, galtcen dituzte berriquetan ordu osoac. Aurrac lotceco alqui ez diran, ati zunza, edo gauza char-equin nasten ditu gure etsayac, edo gueldi-razcen

ren asco ; ta anitz Ceruco videan. Anitz dira, natural gaistoa escura ecarri gabez, galduaz, ta gualduaz doazcenac.

4 Nola, essain dezu, erorri diteque orren calte andia, onen ucs-eguite chiquitic? Aisa. Esazu ezperen, cirrita chiqui bat ez da asco itsasoco onciric andiena urean galceco? Echeric ederrenac ez dira urratcen, ez dira aurs-eguiten, aiceac eraman zuen, tella-ren zulotic sartcen den ura-requin? Itcé, canibeta, edo beste edocein gauzac eguiten duen zuloa asqui da, oharcen etzaionaren aragui-ezurrac ustelceco, Cer bada? Ez dira zulo chiquiac, orrenbat calte dacarten, zuloac? Siñistu zazu bada, barrenean uzten zayon oitura, edo ucs-eguite char-aren irriñ-arretic eguin dezaqueala gure etsayac, gu galceco, behar duen gucia. Guertatcen bazaitzu gaitz, eta calte ori, etzara izain zu, lembicico errela caltear gueldituz dena.

5 Nai ez-pa-dezu, zartcen zaranean, ucs-eguite ber-equin, edo andiago-equin cere burua ecusi, assi zaitez bercala dituzun aztura, ta costumbre gaistoac quencen; ta, quentcen ez-pa-dituzu, guciénean galduco dituzu, quentcen di-

tuz-

tuztenac, eta guero Jesus ciñez maitatcen dutenac, dituzten atseguin, ta gustoac. Munduàc, haren ondoan dabiltzanac zulatceco, sagarroiac, edo tricuac baño, arantza gucyago ditu; ta gusto char baten ondotic, ematen ditu asitz damu, ta atsecabe. Jesus da, Jesus, maite dutenai atseguin andi, garbi, ta beticoa ematen diena. Utzazu bada mundu gaistoa; zoaz bihotz garbi batequin billatcera, ongui eguiten baicic ez daquien, Jesus; ta hau ciñez maita zazu.

## §. III.

## *JESUEN BIHOTZAREN devocioco ondasun-etara daraman videa garbitceco, eguin behar diran, biganza.*

## LEMBICICOA.

## *BERE BURUA HILDURATtea, edo mortificatcea.*

1 JEsus-ec bere Bihotza-ren maitatzalleai, eman oi diezten ondasunac gal-eraztcn dituzte, esan degun beala, alferqúeriac, hoic be-

bere buruari gueyegui nayac, bihotzaren arrotasunac, eta azturа, edo costumbre gaistoac. Galgarri gaisto oyec, quendu nai dituenac, beharco du bere burua hilduratu; ta, hilduratcen ez-pa-du, galduco-ditu, hilduratu, ta necatcen diranentzat dauden ondasunac.

2 Ecin erran diteque cembat etsai irteten, edo ateratcen zaizcan videra ona izan nai duenari, ona izateco asmoa artu dezaneco. Orduan infernu gucia bere leçutic ateratcen dela, dirudi, ta dituen lazo, indar, ta arma guci-equin, nondic galduco duen dabillela. Beguie-tara datorquio mundua; ta burutic quentcea garic, duen, asmoa, aguertcen diozca, ta esqueintcen bere edertasun charrac, eta, azquenean utci behar diran, ondasunac; eta esqueintcen diozca, Jesus maitatceric izan ditzaqueanac baño, andiagotzar. Ingurutcen dute gaistòac hista, ta burl-equin. Ona izateco asmo hau artu orduco, bere contra ditu, dituen lagun gueyenac. Arc bezalaco asmoric ez duten, lagun alferrac ba dute haren contra behar-ez adiña hitz, eta indar. Utci dezàn, artu duen, asmoa, bein, ta ascotan essaten diote berac daquitena, ta etsayac go-

gora ecarteen dien gucia. Oriey atsegain eguin-aayac, bai-ta bere gaitceraco macortasunac ere, estutcen, ta premiatcen dute bein baño gueyago-tan, ta ecartcen dio burura, asmo berri hau utci, ta leneco videra biurtceco gogoa.

3 Garaitu, ta iguesi vidaldua gatic becealaco artan onelaco gogoracio charrac, eta bein-quen-erazoa gatic, etsaya baño gaistoa-goac diranac, berriz, ta berriz etortcen zaizca, euliac bezala, ta ez diote baqueric ematen vide, ta vici gucian. Jaunac luzatcen ez-pa-dio bere escua, edo ematen ez-pa-dio bere graciaren indarra, ta laguntza, ecin burutuz orrembat etsai gogor-equin, utcico du bere asmoa, ta Ceruco videa. Baña ez, ezaitecela izutu; prest dago gure Jesvs behar dugun gucian, guri laguntceco; ta guc eguin-ala eguin ezquero, garaituac dira gure etsayac; eta guc izain ditugu, Jesus-en maitazalle onac dituzten, atseguin-ta ondasunac.

4 Lembicico, eguin behar dezun gauza, etsay gaistoa garaitceco, da cere burua hildiratcea, edo mortificatcea. Ez du etsayric garaituco, ez du izain Ceruco ondasunic, hildura-onetan sartu nai ez duenac.

*nac. Nerequin, edo nere onderen etorri nai dutenac;* ( Jesus onac hitz eguiten dizu ) *ez daguiela, gogo gaistoac escatzen dio, gauzaric: ar beza bere Gurutzea, ta jarrai bequit, edo betor nere ondotica Gurutzea soñean, ta bere burua beguitan arturic ez darraiqui-dana, ecin daiteque nere icasle, edo escolacoa. Ez nago ni onela ez-dabilzan-enzat.* Santuac orobat hitz eguiten dizue; bada nentritu oi dute onaren virtutea, daraman hildurarekin, edo bere buruari ematen dion atsecabearequin. Santua cela norbait, esaten ciotenean Loyolaco Aita San Ignaciori; *ala izain da*, erantzun oi zuen, *bere burnaren etsay andia bada.* Ez da virtuteric jaiotcen, nequea-requin manearcen ez den lurrean; ta jaio, ta loreitu dena ere laster igartcen da, nequeac beradecartcen ez-padio Ceruric, behar duen, ura, ta janaria.

5 Hildura modu bi dira, Ceruco videan virtuteari laguncen diotenac; *campocoa*, ta *barrengoa*, edo *gorputzarena* bata, ta bestea *bihotzarena.* Galtcen bada bata, besteac ez du luzaro irauten. Virtuteac escatcen duen gorpuzaren hildura, edo mortificacioa ar direque ba-

ruz, ſilicioz, diciplinaz, loa gaidaz; eta beſte aſco videz; ta, artcen denean, Confeſſore onac eman dituen, neurriac autſi gabe, garaiteen du alferqueria, izutcen ditu etſayac, eta irabazten ditu, aſcotan beharco dituen, graciaren indarrac. Baña auſten ba ditu neurriac, edo eguiten badu behar ez bezala, virtuteari lagunda beharrean, quentcen diotza bere oñac.

6 Bihotza-ren hildura da, virtuteac beharren duen hildura; beti da hildura onà; ta da hildura norc-nai ar-dezequeana, ta artu behar duena. Bihotza-ren hildura, edo nequea da gogo gaiſtoari burua auſtea, edo batec, vide gaiſtoz, eguin nai luqueana, eguin gabe uztea. Billa dezaquezu, ſilicioz beteric ez ibiltceco, aitzaquia: baña ez da aitzaquiric, gauza bat eſſan dizunari, beſtea eranzun nai diozunean, iſsillic ez gueldīteeco. Nai gaiſtoari lecuric bihotzean ez eguitea da, norc nai eguin dezaquean, ta Jaincoac eſcatcen duen barreneco, edo bihotzeco hildura. Hildura au artu nai ez durenac, ona-ren antz-iduria, ichurapena, edo azala izana gatic, illà, uſtelà, edo urſa dagoela, aditcera ematen du.

7 Nai ba-dezu izan virtuteǩſua, arra

za-

zazu gogoric, eta berico, griña char, edo barreneco nai gaiſtoa garaitçeac dacarren, gurutcea. Beguirà, eſſaten dizu S. Bernardoc, ez da cer eſcutic armac utci; çbaquitcen den adarrac, adar berriac dacazqui; ſoa utci duen, icatzac atreen du berriz ere; ta iratzartcen, edo eſnatcen da lo datzana. Inguratu zazu, Profetac dion bezala, aranzazco aracàz cere burua, edo gord-eguiz-quitzu al eguiñean cere beguiac, eta gañeraco, erſaiac barrena ſartceco, ar litzaqueen videac; ez bein-ere oni or oñic ipintcen utci.

8 Cembat erneago zu neque, hildurra onetan, ambat errazago igoco zera JESVS ongui maitatcera. Erne bazabiltza, non nai arquituco dezu, certan cere burua hilduratu. Cerbait ecuſteco gogoa daror-quizunean, ez hara beguiac eraman: ori da, Jaunac aſco nai duen, gauza bat. Nai cenuque egon hitz-quetan? Zaude, zauden, toquian; etzoaccia lagunetara. Cerbait eſſan naiez zaude? Zaude iſsillic; eta, uſte baño, gueciago irabacico dezu. Jaquin nai cenuque, alàco lecuan guertatcen dena? Icaſi nai cenituque, etorri diran, berriac? Ez da cer ecer galdetu, galdu nai ez-pa-dezu irabaci andi

dibat. Gogoratcen zaitzu, aditcen dut tenci farra, edo irri eraguiñen dien hitz, edo gauzaren bat? Ez dezazula eſsan; gorde zazu, atſeguin eguin nai ba-diozu cere barrena orretan hilduratzeaz, Jeſus onari. Jarriric zaudenean, ardezaquezu, neque chiquiren bateraco videa. Ez, etzaitecela aſaldatu, edoceñec quendua gatic, eſcuetan dezuna, luza-racia gatic cere lana, edo nor gandic nai aditua gatic, nai etzenuqueana.

9 Zu-tequin vici denaren aurqueriac zure oneraco dira; arz-quitzu cere Jaunaren icenean ortic datozen nai-gabe, ta eſturaſunac. Eſquer gaiſtoac, otzac, eguraldi naſtuàc, edo gogorràc, buruco miñac, ortcetaco oñaceac, echecoen baldan-queriac, auzocoen beguitarte aſcerreà, ta egun-oro guertatcen diran onelaco aſco gauza, Jaincoac bidaltcen ditu, haren icenean eramaten dituzula, irabaz ditzatzun, bera maitatcea-tequin batean, maite dutenentzat daduzcan atſeguin, ta ondaſunac. Emengo nequeric andienac, neque laburrac dira; ta, Jaunaren icenean ba-dira, neque arin, ta Ceruco ezti beteac. Jauna garic onela hilduratcen, ta necatcen diranac, dira beren bihotceca

ten Jaun ta Jabe; ta, cer nai guertatua garic, ez dute galtcen, virtutcac dacarren, barreneco baquea. Ba-daquite, Jesusec ez duela, orien oneraco ez den, gauzaric vidalduco; ta artcen dute, vidaltcen dien, gucia, maite dituen Jaunaren escutic datorrena beza; ta artcen dute orreţan, lurreco ondasun ta gusto-etan baño, arseguin, ta gusto guiago.

## BI-GARRENA.

### *HUMILTASUNA, EDO NORC bere burua ecer ecean iduquitcea.*

CEruco videan ongui ibiltcea eragozten duten, arri, edo gauzac quendu nai dituenac, ez du bere buruaz casoric eguin behar. Ez digu Christo Jaunac essaten, dio S. Agustinec, icas-dezagula ar gandic Ceru berriac, eta milagroac eguiten: icas-dezagula, dio, bihotz onecoac, eta humillac izatea. Humiltasunic ez duenac, edo gauza anditzat bere burua daducanac ez du, Jesus-en Bihotza ciñez, ta ongui maitatceco behar den, virtuteric.

2 Ba-lizaque, ez daquizula cer dea cere, Ceruco videraco escatcen zaitzun, humiltasuna, edo cere burua ecer-ecean iduquitce hau. Anitz-ec uste dute, ezagutu ezquero bere ecer-eza, edo utsqueria, bai durela, behar duten, gucia: baña orretaraco ez dute oraindic aisiera on bat besteric; anitz gueiago behar dute, behar bezain humillac izateco. Onelacoa izaiñ zara, nai ba-dezu, zuc ezagutcen dezun, cere ecer-eza eragu oczaten, beste zure berria dutenac ecer-ea, izan zaitecen, esca zagozu cere Jaunari, dizula, nor zaran ezagutceco, behar dezun, arguia. Argui onequin beguiguita zazu bein ta ascoran cere bihotzaren bazter, ta zoco guci-etara: ecusi zazu ongui, cer, edo nolacoa izandu zaran, edo certaraco ciñaquean, ez pa-cenduzca, zaduzcan bezala, Jesus onac beire esenric.

3 Ez da cer beguiratu besteren gaucei; nai ba-dezu, izain dezu, bai, cer eguin, cere burua ecuste, ta ezagutce onetan. Cere uci-eguiteai beguira ba-zaude, ez dieru beguiratce luceric eguiñen besterenai. Ecusten dezunean besteren gauza gaisto larriren bat, ohar zaitez, larria-

goac eguiñen cenituqueala, zor ez-pacenio cere Jaunari, eman dizun, lagunza, ta gracia.

4 Ez dezazula cere gauzaric aguertu. Onac ba dituzu, gorde-izquitzu, horien valioa, ta guciago zuri ematceco dagoen, Jauna-ren-zat. Horiec besteri aguertceac, bihotz-aren antuste, ta arrotasun gaistoa besteric, ecarrico ez dizu. Ez dezu cer ibilli, ecceri ez dago-canean, gaistoa zarala, zu bezala-coric ez dela amaren sabeletic atera, ez liquezula niorc zuri beguiratu behar, ta onelaco gauzac essaten; bada orrelaco orduetan, humilcasuna billatu beharrean, beren buruac billatcen dituzte anitz, eta alcoc.

5 Cere charqueri, ta ustac ezagutu ezquero, erran behar diozu Jaunari, diela besteai ere, zu nor zaran ezagutceco, behar duten, arguia: bada deusecean cere burua iduquitceco, anitz lagunduco dizu jaquiteac, ezagutzen zaituztela, ecusten zaituztenac.

6 Bere burua ezagutua daducana ez da asserrercen, essaten, edo eguiten bazayo, nai ez luquean gauzaren bat: ba daqui halabaña, ez de-la, bere charqueria-quin merecitu, edo irabaci ez duen

gauzaric. Eguiten zaizquitzunac artu behar dituzu arpegui garbia-requin, ta bihotcean furic ez dezula; ta barrena berotuaz doaquizula, ecusten ba dezu, oroi zaitez bereala, cer zor zaitzun, ta cere gaistaqueri-equin irabacia daducazun seculaco suaz; ta artuzazu su haren alde neque-pits ori. Esca zagozu Jaincoari, diola, eman dizunari, ona izateco, ta Cerua irabazteco behar duen gucia. Charqueri, ta vide-gaberic eguiten ez-pa-zaitzu, erraiozu Christo Jaunari, oroit-dedilla zutaz; ta, berac escarcen duen guruteea-requin zabiltzàn, vidal diezazula atseccaberen bat: onec ecarrico dizu begui-etara cere char-tasuna, ta deus-eza. Egunñalcan, billa zazu bacartasuna: bacartasuna da, Christo Jauna-ren Escola: bacartasunean eracusten du, icasi dedin, nai duen, humildadea, ta gañeraco behar den gucia.

## §. IV.

### *VIRTUTETSUEN NEQUEAK neque, atseguin, ta gustoz beteac dira.*

1 EZ da nequezco vicia, Jaincoa gatic necarcen diranac daramatena. Eguia hau ezagutu gabez, nequezco

vi-

vicia daramate Munduco gueienac. Oietariic bat zara bebar-bada zu, ta esaten dezu *nai luquean gucia bihotzari ucatcea, ta beti eraguitea batec bere buruari, nai ez luqueana, Jaunari atseguin eguitea gatic, neque arrigarria! Norc eramain du ori? Ori eguiten dutenac, Ceru, edo Glori andiraco daude; baña vici diraño, arricari izatecoac dira.*

2 Ez dezu zuc, Jaincoa gatic necatcen diranen vicitaren azala baicic, ecusten; ta orre-gatic hitz-eguiten dezu, hitz-eguin dezun bezala. Ecusten dezu, orrelacoac onènean biltcen dituztela beguiac; ecusten dezu, berriquetán, jostatcen, edo farraz ta irriz daudenen artean baño, naiago dutela egon beten Jauna-requin bacartasuncan, edo-eguiteco-ren bateá: essaten zaizten gaizquiac, hitzic atera gabe, aditcen dituztela. Ecusten dezu daramaten nequea. Baña ez dezu ecusten, neque orre-gatic Jaincoac ematen dien, atseguin ta gustoa: neque utsac dirala, uste dezun, nequeac, Ceruco graciaren eztian egosiac dauden nequeac dira: ta nequeac, daramitciena, aspertu, ta gogaitu beharrean, neque berrien gose andia-requin uzten dutenac. Siñisten ez-pa-nazu, gal-

galde eguiezu orien azpian vicitu diranai.

3 San Francisco Salesec, atseguin gucia baño, atseguin ta contentu gueiago dacarrela dio, nequezcoa dela, zuc uste dezun, on-n vicitza onec. *Asco da Jauna, asco da*, essaten zuen S. Efrenec bere neque gucien artean; *ez nazazula bits orrembat atseguin ta contentu-ren irsasoan: il nadin, nai ez pa-dezu, ez da cer, niri ongui eguitea-gatic, esiu emalle ori orrembat lazatu*. Gure bazterretan vici ciran, bere Jesusen Compañiaco Anayai, gastigatcen cien S. Francisco Xavier-rec Indi-etatic: *lurreco vicitz esçatcen dituen ganzac, ez dira arquitcen emen*: baña, *Cerutic datozquidan, atseguin ta gustoac nere beguiai eraguiten dien, negarrec il nazan beldurrac nago*. Onela hitz eguiten dute guezurric essaten etzequiten Santuac.

4 Santuac utci zuten arrastotic dabilzanac; edo vici garbi on batec dituen nequeac daramazten, virtuteçuac oronbat erran oi dute, galdetcen ba-zaje, nola arquitcen diran orrembat neque-tequin. Guc gueroc ecusten dugu, ez dela lurrean, Jesusen amorea gatic beren betuac necatcen dituenac bezain, vicitza be-

dina

diña daramanic, eta aialdacio guitiago eracuften duenic. Bada, barrenecco atfe-guin, ta graciaren guftotic ez pa-da, non-dic datorquie baque, ta ondafun oti? No-la arquitcen ez dute nequearen iguefi, ta gufto-en billa dabilzan gañeracoac? Nola, beguiei, belarriei, ta diran guciari eman ala gufto eman ondoan, illuntafuna baicic, arquitcen ez dute beren bihotcetan?

5 *Alferric ibillico gara*, dio S. Agus-tinec: *ez da berdiñ, Ceruco nequeac da-carren, afeguin, ta atfedesea befte atfede-te, ta atfeguiñic*. Atfedeteco batec mun-du onetan, edo, ar dezaquean, defcanfua artceco, eci behar ditu, edo behar ditu ecarri efcura, gaizqui aciac dauden, bere pafioac; eta, orien ondotic dabillenac, eta nai ez duten gucia orici eraguitcen dienac baicic, pafio, ta aztura gaiftoac ecin ecar ditzaque efcura: orre-gatic ba-da onela Jaincoa gatic necatcen dena da, gucien artean, atfeguin, ta defcanfuz be-teric vici den, guizona.

6 Nequez beteric vicitu cen, Jefu-fen icenean, beren buruac necatcen dituz-tenac ez dira bacarric necatcen: nequea-ren uztarria-Jefuf-equin batean darama-te. Afcotan arquitcen dira, nequetic an-

di-

diena berequin dutenean erc, Cerucoac izain diralaco uste, ta esperanza andi barequin; ta uste, ta esperanza onec dacarren atseguin, ta contentua, Ceruan izan behar dutenaren asiera bezala da. Jesusen oñetan arquitcen dute emengo gaucen eroqueria, edo charqueria ezagutceco, behar duten arguia: ta ezaguera onec quentcen die, oriec izateco, naya. Lurreco gaucen ondoan cebilzala, eguin cituzten videgabé, cherqueri, uts-eguite, ta culpen damuz betetcen zaie bihotza; ta damu andiagoa artcen dute beren culpa, oben, ta uts-eguite-equin Jesusi ar-eraci cioten damu, ta sentimentuaz: baña munduco atseguin guciac gatic emain ez luqueen damua da damu hau.

7 Nola hau izan ditequean, ecin aditu dute, munducoac bezala, vici diranac: ez dute halabaña orrelaco gaucen berriric. Jauna maitatcen dutenentzat da onelaco berria. *Betor*, dio San Agustinec, *Jauna maite duen edocein; orrec bereala adituco du, ta sinistuco gauza onengañe an essaten deguna: da amantem, & sentit quod dico.*

8 Baña ez daquizula iduri, arrizcoac dirala, Jauna maite dutenac, edo ez

du-

duela nai-gaberic ecusten, Jaunaren icenean beren buruac necatcen dituztenean, edo bestec neca-videac ematen dieztenean. Nic diodana da, len, edo guero, arseguin ta gustoz itotzen dieztela Jaincoac, one gatic daramazten, neque guciac: eta nequetan daudenean ere, aguertcen zaiela Jesus, edo gogoratcen, berac-gatic eraman cituen, nequez betercal; eta eracusten diela, hari beguira daudela, aisago ibiltececo, videa.

9 Gure naguitusunac ez digu uzten, erdizca baicic, gauzac eguiten. Eguiten ba guenu gogotic, Jauna maite dutenac eguiten dutena, ecusico guenuque guc ere, cein ariñac diran, ongui vici diranentzat, vicitza onec dacartcien neque guciac. Oriec adiña eguin gabez, ez dugu ecusten neque utsa besteric. Saia zaite, eguin ala Jauna gatic eguitera, ta ecusico dezu, cembat arseguin ta gusto datorquizun Jauna gandic: *gustate, & videte, quoniam suavis est Dominus.* Israelgo gende-etatic cembaiti guertatu citzaiena guertacen zaitzu zuri. Jaunac manatu cien Israelitei, zoazela Promissioco Errietara. Erri oietan egondu ez ciranac, ara joan nai etzuten; ceren uste

cuten, an scarcen ciranac, iristen cituela lurrac; baña, ango berria zutenac, cioten, esnea, ta eztia ceriela ceudela bazter artaco Erriac.

10 Ez dezu oraindic, Jaunac bere hume maite-entzat daducatcien, neque andiric ecusi. Erzenuque, Jauna asserte dezaquean, uts-eguite andiric eguin nai; baña igues-eguin nai cenuque, Ceruco videan, hura ciñez maite dutenac, daramazten, neque, ta lanetic; ceren uste dezun, lan orrec galduco duela zure osasuna, edo gucyegui necatuco zaitucla. Besteric naico cenuque, neque, ta lan oriec decarten Ceruco esne, ta eztiaren berriric ba-cenu. *Art-zazu barren cembait hastez neque, edo lan ori; eguizu eguiñ bala, gauza gu-cietan Jaunari atseguin eguitea gatic, edo ez dezazula egun orietan Jaunari atsecabe eguiñen dion gauzaric eguin; ta orien buruan, arquitcen ba-dezu, gaitzequi joan zaitzula, eguizu gueroz nai dezuna*; essaten dizu, neque orien, ta orietatic darocen, atseguiñen berria duen, guizon andi batec.

11 Eguiten ba-cenu erraten zaitzuna, nequezcoac dirala, zuc uste dezun,

arien buruan arquituco ciñaque, munduco gauza, ta joit-aldiric andicuetan igarotcen ba-cenitu baño, arseguin ta contentu gueyago-requin: ta, artu cenuen, videan irauten ba-cenu azquen orduraño, munduco guisa vici diranac baño asalda gutiago-requin ordu artan egoin ciñaque; ta, illceco ez pa-ceunde bezain, barren izutu gabea-requin errain cenuque nosqui, beste anitz-ec bezala; *ez nuen uste onen eguiteco chiquia cela eriotza: uste nuen, duen baño, arpegui illunagoa zuela eriotzac, Atoz. essain, cenuque, atoz eriotza; atera nazazu nagoen toquitic, noan laster, obequi Jauna maitatcen den beste munduco toqui onerá.*

11 Ez-daquit nic, nola zuc Ceruco gaurai beguiratcen diezun; baña ba-daquit, oharteen ba cera, arquituco dezula, Jauna maite dutenac, edo maitatce onec dacartcien lan, edo nequeen artean vici diranac, nai bezala munduan vici diranac baño, sosegu, ta arseguin gueyago dutela; ta munducoen arseguin, ta gauza gaciac gatic, ez luquecla utcico beren nequea, ta sosegua. Contu oyec ateratcen necatu nai ez-pa-dezu

cere burua, adi zazu Jesus-en Compañiaco aita Colombierec diona.

13 Guizon andi onec eguin zuen, Compañiaco reglac dioten gucia eguiteco, ta beti gauza gucietan bere burua necatceco votoa. Usteco dezu, gueroz arrastaca vicitu cela, ta nequezco egunac besteric ecusi gabe. Adi zazu, urte oro eguin oi cituen exercicio-etaco egun batean essan zuena.

14 *Seigarren eguneau luzaro iduqui nuen gogoan, eguiña daducadan nere votoa. Ecin essan dezaquet, milla catez bezala, nere bihotza Jauna servitu, ta maitaceco lotua, edo vehartua daducala oroitceac utci didan atseguin, ta contentua. Ez nau izutcen, voto onec dacarren, nequeac: ez deritzat lotu navela batere: nuena galdu lecuan, len baño esscu gueyago dudala, deritzat, voto hau eguin nuenetic. Milla esquer ematen diozcat voto hau eraguin cidan, edo eguiten lagundu cidan Jaincoari.*

15 *Voto onez oroitcen nazanean* ( dio beste aldi batez ), *atseguin ta contentuz beteric uzten naven, bihotza-ren lassitasun andi bat-equin arquitcen nac. Ez deritzat caltear eguin naza-quean gauza-*

*zaric arqui ditequeala. Orain beintzat, ez da nere bihotzac nai luquean gauzaric, edo naiez du, Jauna maitatcea besteric nere bihotzac. Eguia da, egun oro asaldatcen zaizquit nere pasione gaistoac; baña osqui dut, escura guciac ecartceco, beguriatce bat.*

16 *Jauna maitatcera behartua nago-elaco oroitza-penac ascotan beteteen dit atseguin, ta gustoz barren gucia; ta ezaguteen dut, Erregue gucien ondasunac emain luquean baño, gueyago valio duela onec. Jauna maitatcearequin ez dute cer ecusi lurreco eguitecoric andienac.*

17 *Nere reglac aguinteen, edo eracusten dutena eguiteco gogoz beteric nago beti; ta eguiten dudanean, atseguin, ta gustoz beteteen zait bihotza. Cembat onetan erneago, ambat aisago vici naz. Onetan necatcea ez da neretzat nequea. Neque onen uztarria egun oro da biguñagoa: ta onela necatu beharra da Jaunaren escutic artu dudan, gauzaric andiena.*

18 Orra cer dion, vici gucian bere burua necatcea eguitecoatzat artu zuen guizon onec. Eguin zuen, utci gabe, eriotce-

ceco ordinaño, artu zuen eguitecoa. Oyan etzatea uzten etzion, eritasun batec bucatu ciozcan bere egunac. Eritasunac iraun zueño, egon oi cen caradera betean, caradera, bere burua necatcea gatic, bizcarraz uquitu gabe: ta eritasunaren, ta billatcen cituen neque gucien artean, esaten zuen, ecin essan ala atseguin, ta gusto-requin cegocla.

19 *Jesus ecusteac guciz maitagarri eguiten dit nere neque gucien gurutcea; ta, ecin arqui nindequeala, deritzat, gurutce, ta neque gabe. Neque ta vide-gabeen artean dabiltzanac dira Jaincoaren adisquide maiteac, edo Jaincoac onguiena nai dienac. Neque gabe ba nago, ez dut oriez oroitcea baicic behar, lassatua guelditceco.*

20 Orra non, Aldare-etan dauden Santuac ec-ecic, besteac ere bere nequeen artean arquitcen dituzten atseguin, ta contentuac. Jauna beti da bat, eta, ez du nai, gueldi daquion nior arteco. Ez dio ucatcen niori, irabazten duen, gauzaric. Irabaz ditzagun bada, haren icenean artu, ta eramanicaco neque-equin, graciaren atseguin ta gustoac; eta izain ditugu, gure nequeac arinduco dituzten, contentuac.

§. V.

## §. V.

## JESUS ONGUI MAITATceac escatcen dituen cembait gauza.

### LEMBICICOA.

### OTOITZA, EDO ORACIOA.

1 URruti dagoen errian sarceco, ez da asco prestarcea batec vide gauzac, eta araco vide zuzen garbia arquitcea: ibilli behar du: behar du, dabiliencan, galdetu, uts-eguin ditequean nombait; aitcen zayonean, daramana, escatu behar du, gosea illceco, ta egarria quenceco, behar duena; lo, atsedetea, ta otorodua eguin ondoan, artu behar du berriz bere videa, ta behar du ibilli, videtic atera gabe, billatcen duen Erriraño. Jesus-en Bihotccan sartu nai duenac, edo nai duenac, bihotz guciarequin, maite gaituen, Jesus gogotic, eta ongui maitatu, joan behar du eguiñaz, daraman Ceruco videan, cembait gauza; ta lembicicoa da *otoitza*, edo maitatce ori bera Jaunari *escatcea*.

2 Nor ba-guiña, aisa eguin guenezaque nai dugun gucia: bada behar bezala escatu ezquero, emain liguque Jaincoac, ori eguiteco behar duguna. Bein ta ascotan eman dituen, bere hitzez orretara behartua dago Jesus ona. Baña eman dituen gauceen artean, ez du bat ere ain gogotic ematen, nola, bera maitatceço behar dugun, escua, ta gracia. Esca bequio bada gracia, ta escu hau, nai ba-dugu laster, ta site sartu beraren Bihorcean nayez, ta amorez.

3 Eguin du, guc asma al baño, gueyago, guri maita-raztea gatic bere Bihotza. Bere escuan daduca, guri ematea orretaraco bebar duguna: bada nola ucatuco du, escatcen zayonean? Escatcen ez diogu orretaraco behar dena, coren ecer-ecean bezala daducagun Jesus maitatcea. Maitatce hau gauza andia dela, ba gueneritza, eguiten dugun baño, gueiago eguiñen guenuque, ez galcea gatic. Ez dugu oraindic ezagutu cembat valio duen maitatce onec; ez dugu ezagutu, ar dezaquegun doairic angadiena, Jesus maitacea dela; ta orre-gatiç ez dugu oraindic ori gogotic escatu.

4 Doai andi hau irabazteco gauzaric

ric zucenen, ta erraccena da otoitza, oracioa, edo eſcatcea. *Eſca zazu*, dio Jeſus onac, *eta izain dezu*; eſca zazu, ucatuco zaitzulaco beldurric gabe: *credite quia accipietis*: ta ſiñiſtu zazu, eſcatu ondoan artcen ez-pa-dezu, ez dezula ongui eſcatu: *non accipitis eo quod malè petatis.* Ba lizaque eſcatu diozula doai ori, San Aguſtinec noiz bait eſcatu zuen bezala *Timebam* (dio) *ne me citò exaudires*: eſcatcen nizuna, eſtaten dio Santuac Jaincoari, nai baño laſterrago eman cenizadan beldurrac nengoen. Etzuen nai Santuac, bereala Jaincoac ondu cezan; ta etzion orretaraco behar zuena gogotic eſcatcen. Zuc ere etcenuque noſqui, orren laſter Jaincoa eguin alean maitatcen aſsi nai; ta orre-gatic otz, edo epel zaude, maitatce orretaraco behar dena, berari eſcatceco. Uſte dezu maitatce orretan ſartcea-requin, ſartcen zarala vicitza nequezco batean; ta neque guciac edo quenduco, edo arinduco lizquitzun maitatcean ez ſartcea gatic, ſarturic gueldircen zara nequè urien artean.

5 Ezaguturic noizbait cere itſutaſuna, eſcatu behar diozu Jeſus onari, dizula zure oneraco dela, berac daquien

bera maitatcea. Maitatce onen ondasunequin arquitcen zaranean; edo maitatce onetatic datoccen atseguin andiac cere bihotcean ecusten dituzunean, ecusico dezu, lenago Jesus ez maitatuaz, galdu dezuna: ta, lembait-len ecusi dezazun, asi zaitez bereala, ta gogotic ori Jesusi escatcen. Escatcen ba-diozu, ez dut uste, escatcetic artzeraño luzatceric izain dela.

6 Ez daquizula gogora, behar bada necatuco duela Jesus zure escatce andi-luceac: ongui eguitez ez da necatcen Jesus: eguiten ez dizu nosqui, daquizun baño, ongui gueyago, ceren ez diozun behar adiña, edo behar bezala escatcen. Etzaitecela zu, nai dezuna-requin gueldítu artean, escatcetic gueldi; lenbicico ta bigarren aldian ucatcen zaitzuna, esca zazu, Evangelioco guizonac bezala, izan artean; ta, are bezala, izain dezu azquenean nai dezuna: ez daqui Jesus-ec gauzaric ucatcen orrela escatcen dionari. Gauza gucien gañean esca zagozu, bera ciñez, gogotic, eta garbiro maitatcea; ta esca zagozu gogotic, ta eman deguizun artean. Esca guenitzaqueen cembait gauza, ez dira gure onera-

raco ; baña Jesus maitatcea, ongui dagoquigun gauza da ; ta, behar bezala, escatu ezquero, ecin uca dezaquean gauza ; ez-pa-du nai autsi, emana daducan bere hitza : ta hau arc ecin daguiquean gauza da.

7 Jesus-ec uzten zaitu behar-bada dituzun cembait uts-eguite-requin, arro ez daquizun cere bihotza ; ta cere escatce humilla-requin irabaz dezazun hura ciñez ta ongui maitatcea. Maitatce onen suàz lurra, edo lurrecoen bihotzac erretcera etorri cen ; ta erretce hau orobat nai du orain ere : *Ignem veni mittere in terram ; & quid volo, nisi ut accendatur ?* Nola bada ucatuco dio, artan berea erre nayez, escatcen dionari? Gaur guero goiz-arrats-etan, lanean ari zaranean, ta atsedeten zaudenean esca zagozu Jesus onari, dizula, ecarri zuen Ceruco su onetatic zati andi bat, orain daño maitatu dezun baño obequi bera maitatceco.

## BIGARRENA.

## *MAIZ COMULGATCEA.*

1 EZ da erraz, erre gabe, colcoan sua ccartcea. Ez eta, Jesus ciñez maitatu gabe, ongui ta maiz comulgatcea ere. Eguia hau aisa siñistuco cenuque, cer den Jauna Comunioan artcea ba-cenequi? Ori cequitea Santuac, beren Jesus maitatu naya asetceco, etzuten Jesus bera artcea bezalaco gauza, ta videric arquitu. Jesus da alabaña, den amorezco laberic andiena. Labe onetaco suac auts-eguin etcitzan, beren barrenean zutenean, Santuc-tatic cembaitec behar cituzen ur otzezco oyalac bularraren gañean. Egunoro Jauna artcen zuten Elizaco humeac etciran eceren, edo deusen beldur: Comunioco suan bihotzac berotu ezquero, orobat billatcen cituzten, larrutu, ezurrac autsi, ta ill nai cituztela, cequiten Jesus-en etsai, edo Tyrano gogorrac. Comunioco suan berotu-caco bihotz-equin maite zuten Jesus: norbait maite duenac, ez du bere gauzaric; edo dituenac noiz-nai emain ditu maite duena

ena gatic; orre gatic ematen zuten Jesusen icenean egun oro Comunioa arteen zutenac, beren odola, ta vicia.

2 Uici garbia ba-dacarzu; eguiten ba-dituzu, ongui vici diranac eguin oi dituzten, gauza onac, ba-zoazque, maiz Jesus Comunioan artcera: ta, ez dut uste, maiz guisa orretan artuco dezula, artu gabe beraren Bihotzeco labetic, hura egun oro obequi maitatceco behar dezun sua. Ongui Jaun hau, ta maiz, edo sarri arteen dutenac, obequi, ta gueyagotan artu naiez daude: ta cembat obequi, ta maiz ago arteen duten, ambat su gueyago-requin arquitcen dira, ta gueyago, ta obequi maitatcen dute Jesus.

3 Gañeraco Sacramentuac, Jesusec digun ongui-nai, ta amoretic datocen, gauzac dira; baña Aldareco Sacramentua Jesus-en nai, ta amorea da, dio San Bernardoc; eta, ez nola nai, baicic amore gucien amorea: *Sacramentum Altaris est amor amorum*: bada Sacramentu onetan dago Jesus bera bere amore gucia-requin. Gañeraco Sacramentu-etan arteen den gracia-requin maita diteque Jesus; baña Jesus maitatceco, ez du batec ere, Aldarecoac adiña lagunza, ta gra-

gracia ematen. Aldareccoàc ematen duen gracia, ta hua-requin berotcen ez den bihotza, otza izain da, beste edoccin artua garic.

4 Jesus onac, gu bere ganatcea gatic, ematen digu, janari eguinic, bere Gorputz, ta Odol Santua; ta artcen deguncan Comunio Santuan, amorez urtu nayez dabill gure bihotza. Jaun onen deyez, ta deyez egondu ciran, hau etorri artceco lau milla urtean, orduan vici ciranac; eta, cembaitbacan ez besteac, ill ciran, hau ecusi gabe. Orain lurrean dago beri; ta dago deiez, ta eracartcen dirudiela, ar gandic iguesi dabilzanac: *compelle eos intrare*. Ah, ta cembat zor diogun Jesus onari! Ez artu nayez iguesi dabilzanai ere ematen die, lau milla urtetan, escatcen ciotenai, ucatu ciena.

5 Zoaz, dio San Francisco de Salesec Comunio Santuan Jesus artcera; baña zoaz, bera maitatceco indar berrien billa: bada ez dirudi ongui, amorez baicic billatcea, amorez ematen zaitzuna. Cembat nai dizun ezagutceco, beguira zazu ceñ caratcen den Jesus, zu gana etortcea garic: ecer-ez bat dirudiela gueldicen das ta gueyenaz bocadu bat egui-

orretaratcen du, gure bihotzaz jabetceco, gure gana nayac.

6 Eta uzten diogu guc nai duena, eguiten? Ematen diogu gueren bihotza? Zuc adiña bider Jaun hau artu gabe, cembat arquitcen dira, zu baño obeac, edo zuc ez-bezala-Jesus maitatcen dutenac? Autsi cituzten oriec, zuc autsi nai ez dituzun catcac; eta eguiten dute, zuc eguin nai ez dezuna. Lurreco gauza char bati loturic dago zure bihotza; eguiten dituzu, Jesusi beguietan ematen dioten, cembait utsi-eguite; ta, burua ecin jasoz bezala, zabilza, Jesusi zucen beguiratceco, edo Jesus cinez maitatceco. Utci behar dituzula, diozu, cere uts-eguiteac; ez diozula gogoan sartcen utci behar munduan den gauzari. Cembat urte da orretan zaudela? Cembat aldiz artu dezuguerozric Jesus cere gana? Ta utci dituzu mundua, ta cere uts-eguiteac? Aitortcen dezu, ez dela ori, orren eguiteco andia: ala ere ez dezu bein-ere eguiten.

7 Baña, cate char cembait ecin autsia bezala, ibillia garic, ez da cer comunio Santua utci. Uzten ba-cenu, dituzun indarrac ere galduco cenituque; ta, dituzun cate chiquiac autsi ordean, gueldituco

dituco ciñaque laster andiz lotua. Care larriric, edo becatu andiric ez dutenai, egun-oro comulgatcea *ez aguinteen, ta ez eragozten diet*, dio S. Agustinec; *baña igandetan bein eguitea ez dezatela utci, al-ba-daguie.*

8 Comunioan icasten da, San Francisco Salesi-ec dion bezala, Jainco onz maitatcen; ta quenteen dira animares utci-eguireac, eta bihotzaren illun-tasunac. Onac obetcen dira Jauna artcarequin; ontcen dira erdi-onac; osasuna dutenac gueldicen dira indarsu; ta eriac osasuna-requin. Echean eguiteco guti dutenac comulga ditezque ascotan; ta eguin bezate. Maiz, sarri, edo ascotan comulgatu beharrac dira eguiteccoen artean vici diranac; bada oriec asqui necatcen dira, ta jan behar du ongui, ongui necatcen denac. *Ongui comulgatceco, comulga zaitez maiz*, essaten du Santuac; *ascotan eguin den gauza obeto eguiten da. Zuritzen dira, elurrá baicic ecusten, ta jaten ez duten erbiac: maiz artcen den Jaunaren edertasunac, bein Cerucosuaz edertua utzico du, ta berriz amorez urtua artcen duenaren bihotza.*

9 Nola eguin behar den, ta maiz comulgatcea-ren gañean hitz eguin beharrac gara urrengo Buruaren VII. garren §: orain asco da, ecusi den bezala, ecustea, maiz Jauna artcea dela, Jauna maitatu nai-ducnac eguin dezaquean ganzaric onena. Jesus maite dutenac izan oi dira, maiz artu naiez dabilzanac. Anima loiean sartuac, edo gaizqui vici diranac, pocic egoin liraque, bethere Jesus comunioan artu gabe.

## IRU-GARRENA.

### *MAIZ ELIZAN JESUS ecustea.*

1 ELcar maite dutenac maizelcar ganatcen, dira; ta, dezaquela, uzten ba-lute elcar ganatcea laster utcico luquee elcar ganaco amodioa. Jesus maite dutenac ere, maiz arganatceco premian daude; ta cembat maiz-ago arganatcen diran, edo ar-gana doacen, ambat gueiago Jesus-ec ere naico die: ceren, nola gurequin egotea gatic, dagoen Jesus aldarean, nai-ta-ez ongui artu behar ditu, ascoran ecustera joaten zaizcanac. Gu-requin egotea gatic bezala, ta guri ongui eguitea gatic, dago Jesus Elizan. Bada cer onguiac ez diezte eguin

be-

behar, berari ongui naiez, gañeracoac haren iguesi bezala dabilzanean, ecustera maiz joaten ba-zaizca? Eman oi duen ondasunic andiena, ta gucienic aldi aietan ematen duena, bera maitatcea da, edo bere amorea.

2 Jai-igandetan, ta gueienac Elizara doacen eguneran eguiten zaizcan ecuste, ta visitac, naita-ezco ecusteac bezala, dira; ta orre-garic ambat Jesus-en gogoa esseteen ez dutenac. Bacarric dagoenean, aztua bezala gañeracoac dadugocnean, aztua bezala gañeracoac dadu- caten orduetan eguiten zaitzanac dira, aleco Jesus-ec nai dituen, ecuste ta visitac. Orduan, bai, zabalteen dituela Jesus-ec arescoac, erorcen zaizcanen bihotzai arala ondasun ematecο: orduan aguertcen die, gure amorez urteen daducan bere Bihotza; orduan hitz eguiten die beren bihotceean; orduan aditcera ematen die, eguin dezaten, nai duena: Adisquide oñac bezala, illun etorri ciranac, arguiz betcric vidalteen ditu, edo barrenceo neque ta tristuren artean vici ciranac, uzten ditu atseguin ta gustoz beteac, eta Jaincoa-ren icenean neque andiagoac eramateco indar andi-equin. Zoaz bada maiz, edo ascotan Jesus ecustera; baña zoaz,

zoaz, norequin hitz eguitera zoazen, ongui ezagututic: orrela joaten ba-cera, ta joaten ceranetan eguiten ba-dezu, guero eracutsico zaitzuna, Jesús maitatceco videan ongui, ta zucen ibillico cera.

## LAUGARRENA.
### EGUITEN DIRAN GAUZA *onac, beñere utci gabe, eguitea.*

1 JESUS maite dutenac, uzten ez dituzte, ez-pada ecin bestez, Jesús maitatcea gatic artu cituzten, gauza onac. Orretaraco artu oi diran gauzac dira comunio bat edo beste, eguin oi ciranen gañera; noicean beiñ Jesús ecustea gatic, Elizan sartcea; neque ta mortificacio chiqui, oracio labur, ta orrelaco beste combait gauza. Aurqueritzat daduzcate onelaco gauzac, Jesús benaz, edo ciñez amatzearen gañean orrembat necatcen ez diranac: baña benazco amatze, edo maitatce onen ondoan dabilzanac, beste beguiz beguiratzen die maitatce hau irabazten laguntcen duten, gauza chiquiei.

2 Onelaco gauzac aurqueritzat daduzca-tenai, guertatcen zaie, Naaman ce-

ceritzan, Syriaco guiron andiari guertatu cequiona. Zuèn lepratic sendatu naicz, Joan cen Naaman Profeta Eliseo gana; ta, garbi cedilla zazpi aldiz Jordango urean, Eliseoc gaztigatu cioneco, aserretu cen, valio bagucco gauza aguindu ciola idurituric; eta artu zuen bere echeraco videa. Lepraz bereric nai zuen guelditu, chartzat ceducan gauza bat ez eguitea gatic. Gaistoagoa den lepratic sendatu gabe daude, Jesus maitatzeen dutenac eguin oi dituzten, cembait gauza chiqui eguin nai eza-gatic. Essan daquieque, Naamani essan citzaiona; ta, onec eguin zuena, eguiten badute, hura bezala, ciranetic, edo lengotic bestetic guelditucо dira.

3 Ecusi zutenean, eguitera cijoana; essan cioten be-requin ecarri cituenac *gauza andi bat escatu ba-lizu ere Profeta Santuac, eguin behar cenuen, sendatzea gatic; cer gatic ez dezu bada eguin behar escatu, dizun, orren gauza chiquia?* Ezagutu zuen, ongui nai ciotenac bezala, hitz eguiten ciotela bere videco lagunac; jaitsi cen Gurditic, edo Carrotatic: eguin zuen tricatu gabe Profeta-ren essana; ta guelditu cen lepraric gabe gorput-

putcean, ta animan ere sendatua; bada, len Jaincotzat ceducatcien idolo guciac utci, ta artu zuen bere Jaincotzat gure Jainco eguiazcoa: *non enim faciet ultra servus tuus holocaustum, aut victimam dijs alienis, nisi Domino.*

4 Gauza chiquiac alde batera uzten dituzuna, ta animaco utseguitez ta leguenez betea zaudena, essan daquiquezu zuri ere: escatcen ba-litzazu, Jesus-en maitatzalle onà izateco, daguizula gauza gogor andiren bat, eguin behar cenuque, gogorragoa baliz ere; bada, eguiñic ere, merque erosico cenuque, ambat valio duen Jesus onestea; baña etzaitzu orrembat escatzen; maitatzalle çiñezcoac eguiten dituzten, cembait gauza chiqui eguiten badituzu, horien lagun izain zara. Nola ez dezu bada, ambat valio duen gauza garic, orren chiqui bat cere contura artcen?

5 Jauna-ren iceneco gauza chiquietan contuzcoac diranac, nequez contua galduco dute larriago-etan; ta larri ta chiquietan erne dabilzanac, maite dute beren Jaincoa. Chiquietan erne bazabilza, ta irazarria, aila larriac ernaracico gaituzte. Zabilza bada beti erne,

chi-

chiquietatic batcan ere ez-uts-eguitea gàtic. Bein, eguiteco, artcen dituzun gauzac, ez ditzatzula, cere buruz beintzat utci, ez pada obeac eguitea eragozten dizutela, ezagutcen dezunean. Eguiten dituzten gauzac aldatcen dabilzanac, ez Jaincoari, baicic beren gogoari atseguin eguiten diotela, dirudi.

6 Jainçoa gatic eguin dezaquegun gucia, ez-da gauza andia; baña ez da atseguin chiquia Jaincoari eguiten dion gauza, naiz gogoac lagun diezagula, ta naiz ez, haren icenean eguiten dena. Arqui zaitecela bada illun, edo argui, ta alegre; zaudela cere gogara, edo nequearequin, fiña, ta leyala izan behar dezu cere Jauna-requin; ez dezu eguiñ alcan, eguin gabe utci behar, haren icenean, ta hura maitatcea gatic, eguin oi dituzun, gauzetatic chiquiena ere: ori da Jesus ciñez maitatcea: ori da beti begui onaquin zuri beguiratceco, behartua bezala Jesus uztea.

BOST-

# BOSTGARRENA.

## *JESUSEN AMA MAITATZEA.*

1 ECin uca diteque, Jesus-en Ama dela gueiena criaturen artean Jesus maitatu duena, ta guciac maita dezaten, asqui Jesus-ec nai luquecana. Jesus-en Ama da amodio, ta maitatce ederraren Ama: *Mater pulchra dilectionis.* Bijoaz bada Ama on one-gana, onen Seme-Jesus maitatu nai dutenac. Elcarren onetsleac dira, ta elcar maite duten Bihotzac dituzte Seme-Amac. Semea-ren Bihotzac ez du bihotz garbiric baicen artcen bere gana: baña lenic Ama-ganatcen diranac, Arteco ona gana bezala, badute bihotzac garbitceco behar duten ura edo gracia.

2 Eguia hau eracusten diguten Santuac, beharreàn daudeneri ustea, ta esperanza dela, diote, Jesus-en Ama; hau dela, etsaien iguesi dabiltzanen gordetoquia, ta estutasun gucietan nori-nai behar duen gucia emateco dagoena. Cerortec ecin artu cenuena Jesus-en escutic,

art-

artcen du aren Amac, eta ematen diza guero, dio San Bernardoc. Ez du nai Jaincoac, dio Santuac, izan dezagun; Amaren escutic ez datorquigun gauzaric. *Nihil nos Deus habere voluit, quod per manus Mariæ non transiret.* Ama-ren escutic artu behar dezu, Semea maitatceco, behar dezun gucia.

3 Semea maitatceco gogoa-requin ba-zaude, aisa, ta erraz Ama ganaco zara: ceren, Jesus-en Amari ongui beguiratcen ez dionac, ez du Jesus maitatceco gogoric. Ecusi oi dena da, Amari nai ez-diotenac, erra, ta gorrotu diotela Semeari: ta Jeisusi gaizqui nai ez-pazayo, ez dela aren Amari gaizque nai dionic. Lembicico gurasoac eracutsi oi duten gauza da, Jesus-en Ama maitatcea, edo arequico jayera; ta maitatce hau aciaz doa gu-requin, austen ez-pa-digu aztura gaistoren batec.

4 Autsi eccoquigun, ta autsi ta galdu lecuan, izan guenezan gucioc egun oro devocio gueyago Jesus-en Amarequin, azaldu, edo aguertu cituzten Santu ascoc vide berriac, eta eman cituzten aviso ònac. San Carlos Borromeoc eman cituenac, Milango Concilio-etan ar-

arquitcen dira. San Francisco Salès Errosarioco Cofradiacoa cen; ta Cofradia berean, ta beste Virgiñ Amaren Cofradietan sartuac nai cituen ecuñ gañeraco guciac; guciac izan citecen aren onestariac, eta devotoac. Baña, beingoan gucia erran dezadan, ez da Santu gucien artean bat Jesus-en Ama anitz maitatu ez duenic.

5 Baña ez da cer Santu-etara joan, Jesus-en Amari ongui nai diotenac arquitceco. Herege biurri gaiñtoac aldebatera utci, ta guti arquituco dira, barajatuen artean, nai-ta-ez bezala, Jesusen Amac bere gana ez daramatcienac. Asserre daudenai Semea-requin, ematen die escua, ta laguntcen die, lotsa gutiago-requin aguer ditecen haren beguietara, becatuen barcacioaren esque, eta baqueac eguitera. Ongui vici diranentzat ateratcen ditu Jaunaren ondasunetatic asco gracia, eta auxilio, edo laguntza; ta, nai duten, gucientzat da, ongui baicic, eguiten ez daquien Ama.

6 Edocein gauza on eguiten, laguntcen du Jesus-en Amac; baiña ez gutiena Semea maitatcen. Bat maite duenac, nai luque, maita lezaten guciac: eta, no-

la eein gueyagorano maite duen Jesus-en Amac bere Semea, aguitz nai du, maita dezaten hau bera, munduan diranac; eta andic dator, prest bera egotea beti, Semea maitatu nai diotenai, Arteco onac bezala, laguntceco. Asi zaitez bada gogoz, ta bihotzez Jesus-en Ama maitatcen, nai ba-dezu maitatu ciñez Jesus bera, ta Jesus-en Bihotcean sarturic, amorez artua gueldita.

## SEIGARRENA.

### *SAN LUIS GONZAGAREN devoto izatea.*

1 ANitz Santu dira, escatu ezquero, Jesus maitatcen, lagunduco dizutenac. Orietatic bat Jesus-en Compañiaco San Luis Gonzaga da. Ez da Ceruan Santuric, maitatcen, ta honratcen dituenari gogotic laguntcen ez dionic; baña gogotic-ago laguntcen dio berac eguin cituen-en guisaco gauzac eguiten dituenari. Ala essan oi zuen San Luis Gonzagac, eta ala utci zuen escribituric, ill ondoan arquitu citzayon paper batean. *Elcarren iduricc, ta gui-*

*saco*

*Jaco guizonac* ( dio paperac ) *obequi elcarri laguntcen dioten bezala, Ceruecoac ere gogotic-ago laguntcen diote, berac eguin oi cituzten, gauz-etan ari diranai.*

2 San Luis Gonzagac eguin cituen gauza gucien artean, gogoticago bezala eguin oi zuena cen, bere bacar-tasunean, gañeraco gauzac gogotic utciric, Jesus bihotzez maitatzea. Hau bera eguiteco asmoa dutenac, Bitartecotzat artcen ba dute, lagunduco die gogotic, eta eramain ditu Jesus-en Bihotz-era: beintzat, onez valiatu diran ascori, ori guertatu zaye; ta guertatuco zayela, deritzat, benaz, ta ciñez valiatu nai dutenai. Eta, norbaitez valiatceco, valia ditezque San Luis Gonzagaz, edoceín estadu, ta eguitecotan Jauna maitatu nai dutenac; bada nori-nai eracusten dio, eguin dezaquecana, edo eracusten du, nola, baztertai adiraci gabe, ta Jaunac gueyena nai duen videz, bera maitatu.

3 Ill cen gazteric, eta barreneco virtutea aguertcen duten milagro, ta gauza andiric eguin gabe; ta, eguiten cituen, gauz etan ere bere burua gorde naiez cebillen. Irabaci zuen, duen gloria andia, gauza andiac eguiten dituztenac,

nac, eta anditic eguin gabe vici diranac irabaz dezaqueten videz; bada irabaci zuen bihotzez; ta ez da bihotzic ez duenic. Vici izandu cen San Luis Gonzaga, bere bihotecan sartua bezala; etzuen uzten, ongui etcirudien, pitsic bihotz onetan. Emendic beti beguira cegocan bere Jaincoari, Jaincoac ecusi nai dituen virtutez beteteen ari cen beti bere biotza; ta, ecusitic gañeraco gaucen artean, Aldareco Sacramentuan zor cion amodioa, maitatcen arri cen beti Jesus, bihotecan cituen indar-equin: ta azquenean, amorez eranzutea garic, gure amorez Aldarean urteen dagoen Jesus-en Bihotzari, escatu zuen ilteea, ta ill-cen Bihotz maite onen festaraco berecia dagoen egunean.

4 Bihotz eder oni beguira cegoela icasi zuen, beti Jauna maitatcen egotea; ta egotea beti bihotz berdin, edo eguiteco, ta nasteric andienen artean asaldatcen, edo berotcen ere ercizayon batequin. Bihotz onec ceramatcien vide-gabe ta damuac, damuz beteteen cioten bihotza, ta negarrez arpeguia. Bihotz oneratic ateratcen zuen, arpeguia su eguiñic, Bihotz oni zor çion, bere bihotza

errez-

erretcen cion, ta ezurrai, autsi, edo atera nai ba-litu bezala, saltoac eraguiten ciozcan amorearen berota unà.

5 Arqui cedilla non-nai, edo cegoela edocein gauza eguiten, beti cegoen gogoz, ta bihotzez bere Jauna-requin. Aguintcen ba-cioten, utci cezala cembait demboraz gogotic bere Jaincoa, bere toquitic aterea dagoen ezurrac dacarrena baño, oñace andiagoa-requin erdiratua gueldìtcen citzaion bere bihotza. *Nic ez daquit* (dio Santuac berac) *certaco quen-erazten didaten Jauna nere gogotic. Beldur dira hura gogoan ecartceac neca dezan nere burua: baña Jauna gogoan ecartzeac baño gogotic hura quentceac asco gueyago necatcen nau ni. Oitua nago, Jaincoabetigogoan daducadala, vicitcera; ta oitura onec necatua, ez, baicic, atseguin ta gustoz beteric naduca.*

6 San Luis Gonzagac bere bihotzeco vicitce onequin, ta bihotzaz Jesus maitatcea requin cembat irabaci zuen ecusi nai duenac, ez tu Sta. Maria Magdalena Pacis-ec dìona aditcea bestèrio behar. Milla ta sei eun garren urteco Apirillaren laugarren egunean, Jaunac

Ceruan eracutsi ciona-requin arrima be-
zala gueldi‹u cen ; ta afsi cen emequi,
ta hitzac bacan eguiten : *Ah! cein an-
dia den Ignacio-ren Seme Luis-en glo-
ria! Jaunac eracutsi ez-pa-lit ez, nu-
en seculan siñistuco. Ez dela Ceruan,
iduritcen zait, Luis-ec adiña gloria
duenic. Bai ; Luis Santu andia da. Ne-
re ustez ba-dira Elizan Santu-asco
Luis adiña igan, edo igo ez diranac. Nai
nituque munduco bazterrac ecusi, guci-
etan adi-razteco, Santu andia dela Luis,
Ignacio-ren Semea : ta ez-daquis, cer
emain nuquean adi raztea gatic, cembat
gloria duen; ta onembat gloria eman dion
Jauna cein maitagarria den. Eman za-
io orrembat gloria, eguin zuen bere bar-
reneco vicitza gatic. Ah! ecin essan adi-
ña valio du barreneco vicitzac! Ez du
cer ecusi campocoac barreneco vicitza-
requin.*

7 *Lurrean vici ceño eezituen, gu-ga-
tic guizon eguin cen, Semea gandic be-
guiac quendu. Luis, odolic issuri eezan
Martire bat da ; ceren zure berria dua-
nac, ba-daqui Jauna, cein andia, ta
maitagarria zaran : ta ba-daqui, nai
adiña maitatcen eezaituela. Onelacoen-*

zai;

*zat, maitatu behar cinduztenac berriz ta berriz asserretcen zaituztela, ezagutcea, odola issurtceac dacarren martirioa baño, martirio gogor-agoa da. Beste aldetic, Martire da Luis, bai: ucatu cion beti gogo gaistoari escatu ciona. Jesus! eta cembat bere Jauna maitatu duen Luis-ec! Orre-gatic dago orain amorez dicecala, ta gloriaz beteric Ceruan. Emen vici cenean, amorezco flechac tiratcen ciozcan beti Jesus-en Bihotzari; ta flecha berac bere bihotzari datozquio Ceruan; bada orduan Jesus maitatuac, edo maitatu zuela oroitceac ecin gueyagoraño co atsegu in bat ematen dio Ceruan.*

8 Orra cer dion San Luis Gonzagaz, Santa Maria Magdalena Pacis-ec. Orra cein maite zuen Jesus San Luis Gonzagac: orra cein sarturic vici cen Jesus-en Bihotcean. Ar bezate bada, Bitartecortzat San Luis Gonzaga, Jesus-en Bihotzean sarturic, edo Jesus maite dutela, vici nai dutenac; bada beràc eraman zuen videa artu nai dutenai, gogotic lagunduco die. Artcen dutenac, arquitu oi dira sire, ta laster, lurreco gauz-etatic beguiac quendu, ta barrenera bildu ric, Jauna maitatcen dutela, vicitceco nai, edo gogoa-requin. ZAZ-

# ZAZPIGARRENA.

## *ILLECO EGUNEN BATEAN Jauna-requin contuac eguitea.*

1 ESsan ditugun gauz-etatic edoceein bezain behar dena da, Jauna maitatceco, noiccan bein Jauna bera ganatcea, Jauna-requin contuac eguitea. Hau eguiten ez tuenac, nequez eguinen du, beintzat ongui, gañeraco-etaric bat ere. Adisquide, edo ezagunen baten uste gabeco eriotza galtecco viderie, nola ez daquigula, gueren burua aterea ecustea; guertatu den gauza arrigarriren baten berria aditcea; edo aditcea Confesore, Predicadore, edo besteren bate gandic gaistoai guertatu oi zayena, asqui da, edocein beldurrean sart-eratceco. Gaistoa ba-cen, artcen du bereala ona izateco asmoa, ta gueldicen da Jauna maitatceco gogoz betericic.

2 Onelaco cerbait guertatcen zayonac, uste du ez dela gueroz gueyago leneco vide gaisto-etan sartceco, ta joain dela, gueldidtu gabe, ta zucen, artu duen,

Ceruco videan. Baña guertatceen zaye añitci, suteguian goritu den burniari guertatu oi zayona. Atera berrian, dirudi, ez duela galdu behar, andic atera duen gorritasuna, ta sua; baña, surtaratcen ez-pada berriz, laster gueldítcen da, suteguian sartu cenean bezain otza, ta gogorra. Missió, Garizuma, edo Sermoyen batean berotu diranac, uste dute, oztuco ez dirala beñere; baña sutaratcen ez-pa-dira, laster galduco dute, duten berotasuna; edo, orduan vide gaistoa utci-raci cien contuac ateratcen ez-pa-ditu, gaistatuco da berriz ere.

3 Illeán bein onelaco contuac ateratcea; edo illeco egun-etatic batean, aldezun gucia Jaincoa-requin igarotcea da, eguin dezaquezun gauzaric ònena, len, bera maitatceco, artu cenuen, asmoa, ta berotasuna berritceco. Eguiteco-etan sarturic dabiltzan munduco Guizonac eracusten digute, cembat valio duen onela contuac eguiteac. Egun-oro daramate, artcen, emaiten, eguiten, ta eraguiten duten guciaren contua. Cembait hasteren buruan artcen dituzte Libruac; beguiratcen dute, certara diran, esquetan dacazten, eguitecoac; ecusten dute

ira-

irabaciaz doacen, edo galduaz beren artu-emanetan. Asicen dira guero, nondic darocen calteeac, nondic irabaciac, ecusten; ta daude hastiz ta luzaro irabazvide berriac asmatcen, edo billarcen; ta ez dute lan hau escue-etatic uzten, abe-rasteco, eguin behar dituzten, neurriac arta artean.

4. Mercatari, Zaldun, ta Erregueac berac escue-tan dacazten eguiteco gaciac baño, eguiteco andiagoa da gure salvacioco eguitecoa. Nor-ba-gara, ez-zaicu egunic igaroco, edo joain, eguin dugunaren contua gueren buruai artu gabe. Goizetic arrats-eraño eguin ditugun uts-eguite, ta gauz onac gogoraco ditugu, etcin baño len, guero ezarteeco memoriaco Libruan. Cembait hasteren buruan, ta illa joan baño len, ateraco ditugu dembora artaco galdu-irabacien contuac; eta artuco ditugu irabaci berrien neurriac; orobat eguinen dugu orrengo illean; emendic atera baño len, Ceruco ondasunez betetic guelditeeco. Aguer dezagun, edo adiraci gauza hau, obequi.

5 Ba da-quizu maita-garria dela Jesus, ecin gueiago raño. Cerori lotsatcen co-

cera afcotan, maitatcen dezun baño, gueyago hura ez maitatceaz. Egun oro zor diozu, len baño, gueyago; baña atzo baño, egun ez dezu orre-garic gueyago maitatcen. Eguneric egunera farcen zara, Jefus maitatcen lagundu ez oi duten, eguiteco-etan. Eguitecoen artean banaturic dabil gueyenean zure bihotza. Nequez hau biltcen dezu, animaco eguitecoari contu artceco; ta, biltcen dezunean ere, izan oi da dembora laburreco; bada lafter doaquizu gogoa befte behargai, edo lurreco gauz-etara. Ongui nai badiozu animari; nai ba-dezu Jefus maitatu, ar-zazu illean egun bat, cere buruari contuac artceco, Jaunari ematéco, ta, urrengo illean eguin behar dizan, behar-gayen neurriac preftatceco, ta zucentceco.

6 Gañeraco egunetan ecin ba dezu, eguizu efcatcen zaitzuna, Jai, edo igandeen batean. Egun hartan ere eguin ditzaquetzu, ecin utci diterqueen, echeco eguitecoac. Baña, eguitecoac uzten dituzten demboran, utciric alde-bat joftatce, hitzqueta, ta orrelaco gauza, edo arazo alferrac, ecuf-quitzu animaco galdu-irabaciac, edo beguira zazu ongui, cer-

certan, ta nola joan zaizquitzun egunac, eta hasteac. Ecus-zazu certan dauden, Jesus maitatceco, artu cenituen, asmoac; cembat bider, edo aldiz uts-eguin dezun onctan, ta, eguiteco ceunden, beste gauzetan: ohar zaitez nondic, datocen zure uts-eguiteac, edo certan dagoen ez gueyago zuc irabaztea. Arquitcen ba-dezu, garaitu zaitucla naguitasunac, eguin dituzun baño gauza on gueyago ez eguiteco: arquitcen ba-dezu, gaizqui ecia dadueazun pasioren batec ez dizula zucen ibiltcen utci Ceruco videan, ar-zazu, naguitasuna garaitceco, ta pasioa escura ecarrceco, asmoa: ar-zazquitzu, orretaraco behar diran, neurri, ta videac; eta ez arren cupida izan gueroz gueyago cere burua.

7 Escatcen zaitzuna eguin dezaquezu Elizan, edo cere guelan; eguin dezaquezu belaunico, jarriric, edo nola nai. Asmo onac ar-ditzan zure bihotzac, bigu-induco dezu oroituz, ez dela eriotceco orduan gaizqui eguiñaren damua, ta urriquia berteeric: ill ondoan eman behar dela contu estu arrigarria; ta, naita-ezitsusiac dirala gaizqui dabilzan gauzac. Ecartzu gogora gaistoentzat su-leçean dagoen nequez-urratce icaragarri hu-

hora. Oroi zaitez, Jauna maitarceac dacarren emengo arſeden, ta deſcanſuaz; bai-ta, orien ondotic datocen, Ceruco arſeguin, ta ſeculaco guſtoaz-etc. Onelaco, ta beſte cembait gauza on dacartcien libruren bat ba-dezu, iracurri zazu artan cembait demboraz; ta eguizquitzu cere devocioac, batere utci gabe.

8 Illean egun bat onela daramatenac ba-daquite, cembat orretan irabazten den. Profeta Santuac dion, onelaco contuetan Jauna-requin dagoenac, artcen dituela indar berriac, ciñez, ta finqui Jauna maitatceco: *& in meditatione mea exardeſcet ignis.* Bacarric arquitcen duenean, hitz eguiten dio Jaunac bera maitatu nai duenari. Orduan adi-razten dio eguin behar duena, ta eracuſten dio bere utſ-eguitearen itſuſtaſuna, ta eraqueria; ta uzten du azquenean aſmo on batequin, edo ona izateco gogoz beteric.

9 Orrelaco cerbait eguiten ez dutenac, ſiñiſtu dezaquee, fedeac eracuſten diena; baña ezdaquite cer ſiñiſten duten, ta vici dira ecer ſiñiſten ez-palute bezala. Siñiſtuco dute, guti dirala, Chriſto Jaunac dionaz, Ceruan ſartcen diranac; ſiñiſtuco dute, bai-dela gaiſto-entzat Infernua, ta

beti

beti beti iraun beharrac dirala infernuco neque gogorrac ; baña ez dute Jauna galtceco beldurric ; nola-coac diran Infernuco nequeac, eta cer den eternidadea, ezagutu gabe, ateraco dira mundutic. Cer gatic, uste dezu ? Ceren, beste gauzac utciric, bilcen ez diran noiçean bein bad-ere onelaco gauzen gañean beren contuac eguitera, edo cer diran ecusi, ta ezagutcera.

10 Eguiteco anitz dituela, diote cembaitec, orrela contuac ateratceco. Ascoc essan oi dute, ez dutela bururic orretaraco ; ta guti dira, ondasunez betea dagoen, vide hau artu nai dutenac. Eguiteco anitz dituzula diozu ? Baña badezu, animaco eguitecoac adiña, valio duenic ? Bada cer ? Egunac eta hasteac ez dira asqui, ecer-ez bat baño anitz gueyago valio ez duten eguiteco-etaraco ; ta ez diozu eman behar ill-eco egun bat bad-ere, gañeraco guciac baño, gueyago valio duen animaco eguitecoari? Lurreco vicitza laburra gatic necatcen zara egun, haste, ill, ta urte gucian; ta, aituco ez den eternidadeco vicia gatic, ez dezu ill-eco egun bat Jauna-requin eraman behar ? Ezagun zaitzu, ez dituzu-

zula, azaletic baicic, Ceruco gauzac ezagutceen.

11 Autsi zazu, dio San Eucherioc, lurreco behar-gayen cate luce ori; ta eguizu beñicbein animaren eguiteco andia. Ez dezazula beiñ-ere begui-etatic galdu; ta illeco egun bat izan bedi, orietan eguin dezunaren, contuac artceco. Hori da Jesus onac eracutsi cizuna. Ondoren cetozquion guciac utci, ta gordetcen cen noicean bein Jesus, ta egon oi cen luzaro bere Aita-requin contuac eguiten bezala, edo oracioan. Arc erzuen cer bacartasuna billatu, beti Aitagan gogoa iduquitceco; guri eracusllea gatic, cer eguin behar guenuen, gendeac utci, ta igorcen cen mendira, edo bereisten cen, bein bazter onetan, bein bestean otoitza, edo oracioa eguitera. Dagnigun bada illean bein bad-ere Jesus-ec eracutsi ciguna.

# IRU-GARREN BURUA.

## Cer gatic, eta nola eguin behar diran, Jesus-en *Bibotza-ren* devocioac escatcen dituen, gauzac?

### §. I.

*JESUS ECUSTEA GATIC, Elizan sarceac, edo Santissimoaren Visitac dacazten ondasunac.*

1 JAincoa guizon eguin, ta lurrean aguertu arteco demborac, demboraa gogorrac ciran. Orduraño venganz-etaco, ta exercito-etaco Jain-

çoa-

Joaren icena-artcen zuen gure Jaunac. Hitz-eguin behar zuenen, sua ta trumoya cerion, odeyez jaunciric aguercen cen. Beretzat artcen zuen, lecu edo toquian etzuen nai Erregueric ere sar cequion: ta sartcen ciranac, ongui pagatcen zuten beren ausardia, edo atreviencia.

2 Orre-gatic ere ecusi cezaneco Israelgo gendeac, Jaunac bidaldu-ricaco odei batez ingurutua toqui hau, belaunac lurrean ceducatcien, ta escuac, eta hitza goraturic; *ah! ta cein ona den* (cion), *ta cein maitagarria gure Jaincoa! Odei orrec aditcera ematen digu, or arquitcen dela, gure artean artu duen toqui, edo Eliza orretan! Ongui behartuac arquitcen gara, gogoan beti, ta ezpañetan, eguiten digun, honra ecartcera!*

3 Hau cioten Israelitac, cer errain etzuten, ecusi ba-lute, guc gure artean ecusten duguna? Ayentzat ain asserre, ta gogorra cirudien, Jauna, gu gatic eguin da Guizon, ill da gu gatic; eta gu gatic eguiten dago, ta egoin da azquen eguneraño, eguin duen, gauzaric andiena; bada orduraño egoin da gure ongui-nayez, ta gure amorez urtcen Aldarecco Sacramentuan. Ez daquit, adi-raci

ba-litzaye, guerta-quizuna cela hau, siñetsico zuten Israelitac.

4 Eta nola siñistuco zuten, onen gañ guertatcen dena? Barterric gabeco gure Jaincoa eguin da azquencan janari, munducoen ona gatic; eta munducoac ez maitatu nai dute Jaun on andi hau, ta ez ecusiera doazquio, ez-pa-da ecin bestez. Galde dezaque gaur, len galdetu zuen bezala, Jesus maiteac: *cer? Uste dezu, Jainco Guizon eguiazcoa etortcen denean, arquituco duela fedea, edo siñistea duenic?* Luc. 18.8.

5 Siñisten ba dute, gueyago da orice eguitea, eguiten dutena. Siñisten ez-pacenu, edo aztutzat ba-ceneduca Jaincoari zor diozuna, eguiten dezun baño, caso gueiago-hartaz ez eguitea, ez lizaque orren gauza arri-garria: baña siñistu, zu gatic illceco, eguin cela Guizon; ta, ori guri iduriturie, zure amorez loturic daducala bere burua Sagrarioco presondegui, edo carcelan, ta orre gatic ere, eguiten dezun baño, caso gueyago hartaz ez eguitea, burua gal-eraci dezaquean gauza da!

6 Ez da hau, ez munducoac eracusten diguтena. Betor non-dic nai erri ba-

tera Guizon jaquinsu, aberats, edo escu andia duenen bat; an izain ditu laster, ongui-etorri eguitera joanac, Errian diran puntuzco guciac. Etorri bequio bari urrutitic Adisquide bat: etorri berria adi dezaneco, an da hura den lecuan: nequez ta ecin bestez quenduco da haren bazter etic, edo aldamenetic; eta al duen gucietan har-equin egoin da. Ongui-guilleari norc-nai esquerrac ematen diozca; ta maiz asqui ecustera jozin zaizca, cerbait gueyago artu uste ba-dute har gandic.

7 Jesus-en humeac, cer eguin da zuen siñistea, edo fedea? Non arquituco dezue jaquin-tasunean, ondasun-etan, escu, ta gañeraco gaucetan Jainco-aren pareric? Ta, hau ain zuen aldean iduquiric, ez diozute casoric eguiten? Orren bacarric utcico dezue? Non arquituco dezue, onec zuec adiña, bere adisquidea maitatu duen, Guizonic? Eta, zuen amoreac cativo daducala, jaquiñic ere, ez dezute noiccan bein badere hura ecustera joan behar? Cer ez dezue Jaunaren escutic artu? Cer etzandezte artceco, nor-ba-cerate? Ez daquizue, bera dela, diran ondasunen Jauna, ta Jabea? Ez daquizue, behar bezala escatcen-za-

yon, ganzaric ez daquiela ucatcen? Ez daquizue, onec baicic ecin eman dezaqueala Ceruco gloria; eta ematen diela beraz casoric eguiten ez duten gaistoai betico sua, ta nequea? Eta ecer zor ez-pa-ceniote, edo ecer ecin ba-leguique bezain aztua daducazue?

10 Cerura igotceco cegoenean, arquitu baguiña Jesus-en oñeran; eta esan ba-ligu, esca gueniozala nai guenuena, izain guenuen arpeguiric escatceco, azquen eguñeraño gueldi cedilla gurequin? Edo, ceren escatu guenion, eguin ba-ligu ambeste, ez guiñan pozez zoratuac guelditCuco, eta nola esquerrac eman ez gueniquiela? Guc, alquez, ta lotsaz escatuco ez gueniona, eman digu Jaincoac: cein maite gaituen aditcera ematea gatic, guel ditu da, gurequin juicioco eguneraño. Baña cer irabaci du azquenean, gure esquer-gabea, gure epel-tasuna; edo gure oztasuna besteric?

11 Jauna ecusten dezun baño, gueyagoran, ta obequi ecusten ez-pa-cenu, zuri ongui nay ez, ta zu ondasunez betetcea gatic, zure auzora etorrico lizaquean Españiaco Erregue, edo Erromaco Emperadorea, norc-nai errain luque, ez

de-

bezala bururic, ajola gabea zarala, edo animalien artean jaioa, ta acia dirudi gula.

12 Bere Aita gana igan ezquero, certaco gueldituote da gu-requin Jesus? Certara ote dator egun-oroCerutitc lurrera? Certan dago gau ta egun, ogui pusca baliz bezala, Aldarean sarturic? Gueldituc cen, dator, ta dago, gu gandic ecin alde-eguiñez, ta ceren gu-requin egotea den haren atseguiñ, ta gustoa.

13 *Ez nere Semeac, ez; etzaituztet emazurtzac utcico* (dio Jesus on maitagarriac). *Cerura noa, bañalurra utci gabe. Ba-daquit, indar guticoac zaratela zuec, eta eriac: ba-daquit, ascotan arquituco zaratela nequez, ta quezcaz beteac; ascotan egonbehar dezuela nere, ta nere Aitaren beldurrez icara. Ez da cer izutu: Gordea bai; baña zuequin gueldicen naz, mundua mundu den arteco. Billa nazazue Aldarean: emen nago, Aitac bezala, zuen bihotzetaco illuntasunac quenteco. Diran animaco eritasunac uoia quendu daquidan Medicoa naz. Vide guciac daquizquidan Guidaria naz. Duda, ta illuntasunac garaitceco, ba-daquit, jaquin ditequean, guzia. Gose, ta*

*egar-*

*egarri daudenen janaria, ta edaria naz, ta naz mundu gucia Cerura eramatea gatic ill ninzan Redentorea.*

14 Orra cer dion Aldaretic Jesus maiteac. Orra certaco gueldituu cen gurequin gure Jesus. Norc nai eguin baligu, Jesus-ec gu gatic eguin duenaren laurdenac, nola esquerrac eman ez guenequieia, galduac ibillico guiñan; ta oncembat Jesusi zor dioguia, ecer zor ezpa-guenio bezala, vici gara gueyenac.

15 Ezaguteen dutenac ere, cembat zor dioten Aldarean Jaincoari, aitzaqui billa dabilza, ar-gana ez urranceco, edo urbilteeco. Ongui, edo ondasun-equin vici diranac, betaric asco ba-dute beren jostatce, ta alferqueri-etaraco; ta hastiric gabe daude, Jesus ecusteco. Hitzonciquerian ogoin dira goicetic arratseraño; baña, Jesus-equin Elizan hitz eguiteco, mututeen dira: ta, hara ez aguertcea-gatic, ecer valio ez duten eguiteco-etan pocic sarteen dira, ta egoten egun gucian. Beste guciac laneraco jaioac dirutide; bada daramazte, Elizaric denic ere gogoan artu gabe, egunac, eta hasteac.

16 Eguin behar lizaquean gauza da,

Je-

Jesus Elizan noiccau bein ecustea. Neque guri dacarren gauza da, harà, orretaraco, aguertcea: orre-gatic ere hau da gauza bat, guric baicic eguiten ez durena. Batzuec Elizaren ondoan vici dira: besteac haren alderic dabilza; ta guciac dirudite dabilzala Jaincoa-ren iguesi.

17 *Japon*-darrac, eta *Canada* deritzan, Indietaco bazter artaco tristeac ascotan berreun legua vide cebilzan, Elizaren batean Jesus ecusi, ta adorarcea gatic. Eta, onen vide luzeraco indarric gabe arquitcen ciranac, cun aldiz beintzat belaunicatcen ciran, Eliza cegoen aldera beguira ceudela, bertan bere Jauna icusten, ta maitatcen egon nai zutela, aditcera ematca gatic. Horien aldamenean cere burua juicioco egunean ecusten dezunean, eguncan anitz aldiz bi pausuz Elizara zoazquecala, egonac, eta hasteac an sartu gabe daramaz-quitzuna, cer errain dezu cere ajola gabe, ta alferqueriaz? Ez dira nitaz oroitcen ere, dio Jesus-ec, asco zor didaten nere Errietaco gendeac: *Populus vero meus oblitus est mei.* Jer. 2. 32.

18 Icusiric San Juan Bautistac gure

egu-

egunetan guertatuco cena munduan, beguira, ori-eguiten digu, beguira ongui; zuen artean dago, ezagutzen ez dezutèn, zuen Jaincoa: *Medius autem vestrum stetit, quem vos nescitis.* Ioan. (1. 26.) Gau, ta egun Elizan dago, beharrean, edo estu arquitcen diranci escua ematceco; necatcen diranai laguntceco; ez daquienari eracusteco, illumbean dabilczanei argui eguiteco; indar gabez erortceco daudenac indarsu eguitezo, eta loiean erori diranac andic ateratceco. Behar degun gucia emain digu, uste, edo confianza osoa-requin escatu ezquero. Lembicico, edo bigarren aldian ez emana gatic, ucatcen ez daqui, esperanza galdu gabe, escatcen zayonic.

18 Ascotan ucatcen du cembait demboraz escatcen zayona, gueiagotan bere aldean gu eusteα gatic, edo guero berriro escatuco diotzagun beste asco-requin, nai degun gauza ematea gatic. Gueyago costatcen ez-paliz munduco gauzac irabaztea, beharsu guti arquituco liraque munduan. Aitor dezagun noiz-bait, ez dugula oraindic ezagutu, gu-requin vici den, Jesus Sacramentatua: eta nai ez-pa-degu, orain daño adiña

bee

behar ecusi, goazquion maiz, edo ascotan ecustera bere Aldarean; ta escatcera, nai guenuquean gucia: bada gucia daduca bere escuan, eta eman nayez dago nai dugun gauci gucia.

19 Essaten zaizcuna siñisten ez-padugu, galde bequie orretara maiz Elizean sartcen diranai, nola arquitcen diran Jesus ona-requin; ez dut uste, arquituco dela bat, milla, ta gueyago Ceruco ondasun vide onez irabaci dituela, etrain ez duenic. Ascotan Jesus Sacramentuan ecusten dutenac, erraz, edo aisa irabazten dute, bera maitatceco behar duten sua, ta gracia. Su onetan erretcen dituzte, eguiten zaizten, videgabe, ta charquerien egurrac: eta, cembat eta neque gueiago-ren azpian arquitcen diran, ambat atseguin gueiago-requin aditcen dute Jesus bera gandic: *Venite ad me omnes, qui laboratis, & onerati estis, & ego reficiam vos*; atozte ni-gana: nic emain dizuet, zuen neque lanac escatcen duten, atseguin ta indarra.

20 Nequezco nequez beteric vici diranac, eta mundu onetatic, galduac diralaco beldurra-requin ateratcen diranac dira, omen, Jesus-ec digun, *Bihotceco*

amo-

amoreaz azturic bezala vici diranac. An onelacoac ecusico dute, ceimbat galcen duten, ecin bestez baicic, Elizaratcen ez diranac; edo Elizaratcen diranetan, gogoa campoan dutela, bazter-etara beguira, ta moduric gabe, Aingueruac icara daducatcien Jauna-ren beguietan daudenac.

### §. II.

### *NOLA EGUIN BEHAR DIran Jauna-ren Santissimoco icustamenac, edo visitac.*

1 ZOaz maiz, edo ascotan bere Elizan Jauna ecustera: baña zoaz, nora zoacen, ongui ezaguturic. Etzaitecela beñere begui ariñ-equin Elizan sartu: itsi behar dituzu anima-ren leioac, edo cere sentiduac; eta eramazu bihotza amorez ta esperanzaz beteric. Jaincoa-ren eche bedeicatua da Eliza. Elizan, beldurrac bezala, sartcen dira Ainguèruac bèrac: eta hau ecustea asqui dute Infernuco ac, icara guelditzeco. Ecusi zazu, bestec edocein lecutan bezala, sartu behar dezun, Jainco-tasunac betea daducan, eta Christo Jaunac beretzat artu duen Jauregui, edo Palacio onetan.

2 Ne-

5 Negarrez urturic sartu oi dira, hara doacenac, Jesus jaio cen Belengo Echola, edo Portalean: orobat belaunicatcen dira, haren odolac busti zuen Calvarioco lurrean. Beste ambeste guertatcen ez-pa-zaitzu Elizan sartecan, edo beldur santu batequin arquitcen ez-pa-zara Jaincoa-ren Aldarera beguiac goratcen dituzunean, izain da, ceren erdi itzalia, edo illa dagoen zure siñistea, edo fedea: bada, hau vicia ba-lego, ezagutuco cenuque, edocein lecuc bezain erresperu, andia-requin tratatcea mereci duela Elizac.

3 Elizan sartu baño len, oroi zaitez, Elizan dagoen, Erregue gucien Erregue-Jainco andiaz. Oroi zaitez Aingueruz betea dagoela Eliza; eta Ainguetuac, lotsatuac bezala, daducatciela Erregue onen izate, ta edertasunac. Sar-zaitez, cere becatuac gogoan arturic, arpeguitic lotsa dariezuela, ta beguiac lurrean dituzula, Ainguera-en lagun izatera. Bere Andiz, ta Zaldun-ez ingurutua dagoen Españiaco Erregue ecustera, ta oni hitz eguitera sartu behar ba-lu, beraren contra cembait charqueri eguin dituenen batec, belaunac icara eramain litu-

zuque ; ez lizaque , beguiac lurretic goratceco , indarra-requin arquituco , ta ezpañac lotuac iduquico lituque.

4 Eta cer ? Lotsaric gabe sartuco zara zu Ceruco Andiz , ta Zaldunez , Aingueru , ta Serafinez ingurutua dagoen Jaincoa-ren Palacio , edo Elizan ? Ez daquizu , beraren contra eguin dituzun, becatu-equin ecin gueyago-raño asserratua daducazula Erregue andi hau ? Guisa orretan zoaz onequin hitz eguitera ? Ez daqui , certara sartcen den , orrela Elizan sartcen denac.

5 Ez da asqui Elizan ongui sartcea. Sar zaitez , an eguin behar dena , behar bezala , eguitera ; ta zaude an , an egon behar den bezala. Elizan sartcen zaranectan , Jesus ona ecustera , obe izain da ezpañequin guti , ta bihotza-requin alderuna hitz eguitea. Nai ba-dezu bihotza bero daquizun , ar-zazu gogoan, cein ona den Jesus maitea ; cembait nai diogun , cembat zor diogun, ta cembat gugatic,eraman duen. Oroitzapen oriec behartuco zaitue,berari esquerrac ematera, ta bera maitatcera : ta zure esquerrac emate,ta maitatceac behartuco du bera ere, hura berriz ez uzteco , behar dezun gucia zuri ematera.

6 Zoaz batzuetan Artzayac, jaio cenean, joan ciran bezala, vorondate onarequin, Elizan Jesus ecustera, ta adoratcera. Beste aldian joan zaitezque, urrutico Erregueac bezala, al dezun presenta eguitera. Eguiozu zuc ere cere presenta, edo emaitza. Esqueñi behar diozu egun hartaco otoitzen ta obra onen incensoa; cere hildurren, edo mortificacioen, ta becatu-en damua, ta propposituaren myrra; bihotz garbi baten urrea-requin. Urrengo aldian ba-zoazque Apostolo-equin, cer eracusten duen, aditcera; eracusten dizun gucia eguiteco naigogo sendo batequin. Edo zoaz, Magdalena bezala, Jesus-en oñetara, eta eguizu negar cere becatu, ta charqueri-en gañean; edo esca zogozu behar dezuna.

7 Zoacen gucietan, idiqui zazu, Profeta Santuac dion bezala, cere bularra, ta, isuri zazu, edo bota Jesus-en oñetan cere bihotza: *Effundite coram illo corda vestra*: nai dezun gucia adi-racizagozu ongui nai dizun, Jesus onari. Eri ba-zaude, edo becatuan eror zaitecen beldur ba-cera, essan behar diozu Lazaro-ren Arrebac bezala: *Eccè, quem amas, infirmatur*: zuc maite dezun, ani-

ma triste hau cri dago, ta becatua-ren ortzetan illic guelditceco zorian; lagun eguio, zuarrên, ta eman behar duen quemena, ofatuna, ta gracia.

8 Becatuaren loiera ba-cera, essan behar diozu lepraz josia cegoena-requin: *Domine, si vis, potes me mundare*: Jauna, nai ba-dezu, garbi nazaquezu; nai ez-pa-cenu, etciñaque ni gatic Sagrario orretan sarturic gueldituco. Indazu bada nere becatuen ciñezco damu andi bat; indazu, guciac ongui confessatceco, gracia: eguizu guero nitaz nai dezuna: badaquit, ez dezula nere oneraco ez den gauzaric eguiñen.

9 Barreneco quezca, edo nequeren batequin arquitcen ba cera, Elizara zaiteneco, erran behar diozu Cananeac bezain uste, ta confianza andia-requin: *Jesu, Fili David, miserere mei*: urricari behar nazu izan, Jesus nere Erregue ona. Ecusten zaude, cer trancetan nagoen; maite nazula, siñistuco det, estutasun onetaric ateratcen ba nazu; ta ateraco nazulaco uste osoa-requin arquitcen naz ni. Luza dezaquezu niri escua ematea; baña ba-daquit, beranduago bad-ere, emain didazula. Ba-daquit, ez dela eder, humeen

neen oguia zacurrai ematea ; baña badira zacurrentzat ere apurrac. Zure graciaren apur,edo zaticho bat asqui da niri nere gosea quenteeco. Eta nola niri zuc, ori beintzat, ucatu?

10 Idorra daducazunean cere barrena, edo gauza onetaraco gogoric gabe arquitcen zaranean, essain diozu, Soldaduen Nagusiac bezala: *Credo, Domine; adiuva incredulitatem meam.* Ezagutcen dut Jauna, ta siñisten, zuc eracutsi didazun gucia; baña ez, nai-nuquean, ezaguera, ta siñiste andia-requin; ecin bérotu dut, zu benaz maitatceco behar adiña, nere bihotza: indazu orretaraco behar dudan sua,ta arguia. Aisa eguin dezaquezu; zu zara alabaña gauza gucien, ta nere Jabe, ta Jaincoa: *Dominus meus, & Deus meus.*

11 Zure icenean escatcen dugun gauzaric ez ucatceco hitza emana daducazu cere Evangelio Santuan. Bada nic cere icen santua garic escatcen dizut, leneco nere vicitza utçi,ta berri on bat eguitceco behar dudan gucia. Lagun eguidazu ba-da-nere aztura charrac garaitcen; esturcen nauten pasio gaistoac oin-pera, edo escura ecartcen: baita, daquizun

adi-

adiña falta eguiten didan, onelacō virtutea irabazten etc.

12 Zure icenean escatcen dizut onelaco-ren osasuna, alacoren zu gana biurtcea, edo conversioa, eguiteco ònen bucaera, edo acaballa onà. Escatcen dizut, behar nuquean, ta zuc daquizun paciencia, ta beste virtute hura; ta gucien gañean, zu ciñez maitatceco, zure gracia-ren laguntza, ta indar vicia: *Amorem tuum solum cum gratia tua mihi dones, & dives sum satis.*

13 Beste batzuetan artuzazu gogoan, Jesus-ec gogoan darabillena, ecusiric cein caso guti eguiten duten guehienac haren bihotceco amoreaz, ta Aldarean egotcaz: ta azquenean essaten dizula: *Numquid & vos vultis abire?* Cer? ta zuc ere nai nazu utzi bacarric? Eranzun behar diozu, San Pedroc bezala: *Domine ad quem ibimus? Verba vitæ æternæ habes*: noraco naz, Jesus maitea, zu utzi ta? Emen nâi dut egon, seculaco vicitza dacarten zure hitzac aditcen. Ecin besteez ateraco naz emendic; eta orduan ere, nere bihotza emen zurequin utciric.

14 Batzuetan contu eguizu, galderçen

cen dizula, San Pedrori bezala: *Simon Joannis, diligis me?* Maite ote nazu, maite zaitudan, nere bihotceco anima? Ta eranzuten diozula: ez nosqui behar bezala: baña ba-dacusazu, nai cinduzquedala, ta gogotic alere, ta gauza gucien gañean, maitatu.

15 *Quid mihi est in Cœlo, & à te quid volui super terram, Deus cordis mei, & pars mea Deus in æternum!* Ez lurrean arquitcen da, ta ez Ceruan, nere bihotceco Jesus ona, zu baicic, nere bihotza asse, edo bete dezaquecanic. Zu ba-zaitut, ba-dut behar dudan gucia; ta, gañeraco gucia faltatua gatic, ezzair ecer faltaco. Baña zu ez-pa-zaitut, beste gauza guciac izana gatic, ecer gabe arquitcen naz, ta galduco naz azquenean: *Quia ecce, qui elongant se à te, peribunt.*

16 Gaurguero zurea nai dut izan, nazana: nai nituque nere egunac zurequin igaro, lecu on onetatic oñic atera gabe! *Mihi autem adhærere Deo bonum est.* Ecin utci ditzaquedan, eguitecoac naramate emendic: baña ez didate zu-requin beti egoteco gogoa quenduco. Orduric beintzat ez dut uste joain zaidala, zutaz

 oroi-

oroitu gabe ; ta atquitcen nazan toquitic , bidalduco dut zu-gana nere bihotza, zure ganaco nere vorondate ona eracustera , ta zure bendicioa artcera : edo emen bertan utcico dizut , zuri cere bacartasunean lagun eguitceco: gogoz beintzat emen guelditucо da. Gueldi diteque bai ; ceren ez du hau bezalaco atseguin lecuric besteten idiroco: *hæc requies mea: hic habitabo.*

17 Noicean beiñ, Jainco-aren ontasunac ematen duen esfeua-requin, hitz eguin daquioque oncla: nola bada Jesus oña ? Etcera gueldidu , zauden lecu santu orretan , ni ondasuncz aberasteco? Cer hari zara bada ? Betoz ondasun oriec. Eragozten dizute nere cembait uts-eguitec ? Quen-zaquidatzu oiec, eta betor neretzat daducazuna. Etzaitut oraindic behar bezala maitatu : baña zu maitatu naiez , edo maitatceco desfeoz beteric nago : ta ala ez-pa-liz , ez ninzaque onen maiz,zu ecustera onara etorrico. Besteric orain artu behar ez-padut ere, betor zu ciñez, ta gogotic gaurguero maitatcea; *Diligam te , Domine, fortitudo mea... & refugium meum.*

18 Beste gaucen artean, onelaco etor al-

aldietan essan diteque : siñisten dut or zaudela, Jesus ona, Sagrario orretan; ta, ceren hau siñisten dudan, nago nagoen bezala, beldur, ta icaraz beteric. Eman ala esquer, Jesus maitea, zor dizudan amorea gatic: ez daquit cer eguin nezaquean, zu or ambat aldiz egondu zaran bezala, azturic, eta guizonen charqueriz beteric, ez ecustea gatic. Ec dut uste, utcico nazula beñere bacarric; laguntzat uste zaitut, artu dudan, Ceruco videan. Idiqui zazu bular ori, sar nadin, nere amorez beteric dagoen, zure Bihotzean: or icasico dut nola zu maitatu; ta, emen maitatcen zaitudala, irabacico dut Ceruan zu beti maitatcea.

19 Bacoitzàc artuco ditu emen gueldítcen diran, hitcetatic obequien derizcanac edo orien lecuan erran bitza, bere bihotcac idaroquitcen diozcanac. Aurrari eracusten zayo ibiltcen; baña ibiltcen icasi ezquero, berac artcen du nai duen videa. Eracutsi dugu, nola hitz eguin Jaincoari Elizan, ta Elizaz campoan: hari hitz eguiten daquienac, hitz eguin biezago obequien deritzan videz, edo moduz.

## §. III.

## EGUN ORO HORDU LAurden bat, Jauna-requin Elizan egoteco videa, edo modua.

1 BElaunicatu zaitececo Elizan, becarzu gogora, certan ote daraman Jesus maiteac egun gucia Aldareco carcelan, edo Sagrarioan? Egun gucia darama bere Aitari beguira: beti dago Aitaren laudario-alabantcetan, ta Aita, mundu guciaren ordez, ecin gueyagoraño maitatcen. Palacio eder, ta lecu zabalac utciric, Sagrarioco bazterchoan dago. Hitz bi Apaizac esan orduco, an dago preso bezala bere amorez. Bacarric dago casi beti: ez diruric escatcen du, ta ez ondasunic. Bihotz bera-humil batequin eracusten digu cer eguin behar dugun, ònac izateco, ta bihotz gucitic Jauna maitatceco.

2 Mundu guciac Ceruan sar ledin, nayez dago. Guc hartaz casi casoric ez dugula eguiten, ecusten du: ta ala ere beti guri ongui nayez arquitcen da, ta gure amorez urturic. Gavac, egùnac, asteac, illac, eta urteac daramazqui gu-

te beguira, gu ondasunez bete nayez. Haren itzuri, ta gure go o charren ondotic erotuac ecusña gatic, etzayo aitcen paciencia: hordu onen baten beguira dago, bere gana gu artu, bereac eguin, ta doayez beteric uzteco.

3 Noiz-bait gure itsutasuna ezaguturic, escatu behar diogu, ar dezala bere gana gure bihotza; ta lagun daquigula, orain daño galdu duguna bilceen, ta, leneco charquerien ondoan, milla gauza on eguiten.

4 Hordurañoco gure gaista-querien, ta becatuen damuz beteric joan behar dugu Aita Eternoaren oñetara, an hari erratera: *respice in faciem Christi tui.* Seme gaistoa naz ni, Aita maitea; ala da: baña orra non dezun Aldare orretan, nere zòrren alde, zuc nai cenuen gucia beti eguin zuen zure Seme ona. Ez niri bacarric beguiratu: beguira zaguzu bioi batean, orri, ta niri: ba-dugu bien artean cerequin nere zorrai eranzun. Nic nerez ez dut ecer valio; orra nere lecuan gauza guciac valio dituena. Orren ondoan ez naiz zure asserrearen ambat beldur.

5 Ez dut nic nerez nondic nere oben

gais-

gaisto, ta culpen barcacioa erosi, edo cerequin irabaci: baña munduco becatuen zorrac baño gueyago valio dute Jesus-en irabaciac, edo merecimentuac. Gueldi bedi, bada, irabaci orietatic, nere obenac zor duten gucia: ba-daquit ontzat artuco duela hori nere Jesus maite, ta zuc maiteago dezun, zure Semeac.

6 Escatuco diozu guero Jesus maiteari, zaramatcicela berac bere Aitaren oñetara, ta esqueñi dezola, bera gogotic maitatu nai luquean, zure bihotza, cere vici, ta eguin uste dituzun gauza on guci-equin; ta berecico dezu, egun hartan eguiteco, artu dezuna.

7 Azquenean esca zagozu ar zaitzala berac bere ganas, eguin zaitzala berequin bat, dizula bere Bihotceco asmo galanteçatic cerbait, eta utci zaitzala bere Bihotcean sartcen; an icasteco, nola ona izan, edo nola ongui vici.

8 Gu gara Jesus-en gorputceco zati, edo ezurrac bezala, edo Jesus-en senideac gara. Bere neque, lan, icerdi, ta eriotz gogorra-requin irabaci zuena guri utcia daduca. Jesus-en senideac bezambatean ba-goazque haren, ta gure Aita Ceruçoa gana, escarcera, digula,

onaç

eñac izateco, ta bera, ta Semea, Espiritu Santu-arequin maitatceco behar dugun guci gucia. Ez da erraz izain, vide onetatic escatcen diogun gauzaric guri ucatcea.

9 Biurtuco cera guero, edo itzulico zara, Aitac eman dizuna, cere bihotcean sartaric iduquitceco, nai andi batequin, Jesus ona gana. Emain diozcatzu eun milla esquer ta gueyago zu gatic eguin duen, ta Aldarean eguiten dagoeñaz; eta orrembat zorren alde utcico diozu cere burua, bere asmo, ta gauza on gucie-quin.

10 Sacramentu Santuan dagoen Jesus ona-requin gueren buruac bat eguitea, edo unitcea da emen izan dezaquegun gauzaric andiena, ta eguin alcan billatu behar duguna. Hori eguiten da, eracutsi den, otoitz, edo oracio modu onetan. Ez dezatela, bera durenac, egunean bein eguin gabe utci; ta, al-badaguite, eguin behar dute, Jesus bacarrena dagoen orduan.

11 Neca etzaitecen beti vide batez ibilliaz, eracustera noa beste bat. Beguira zazu Aldarera; eta, an dagoela, usnisituric, zure Jesus, Bihotz, eta anima

gucia-requin, escazazu, dizula guero baño guero gogoric-ago bera maitarceco behar dezuna, bere Bihotceco su, ta gar andi hartatic.

12 Sar zaitez guero cere barrenean, nola arquitcen den, ecusteco. Arquitcen dituzun, oben, charqueri, ta eritasunac aguertu behar zaizca Jesus onari; escatuco diozu damuz beteric, uts-eguiñen barcacioa, animaco osasuna, ta gauza on anitz eguiteco gracia.

13 Barrena garbitu ezquero, sartuco zara Jesus-en Bihotcean. An ecusico dezu, nola casoric eguiten ez duen lurreco atseguin, ta ondasunez; ta haren atseguin, ta gustoa dela vicitza gorde, humil, ta estali batean bere Aita, ta gu maitarcen egotea. Ez da hau munduac eracusten duena: munduac aguertu nai du bere burua; ta nai du lurreco gauzen artean atseguin artu, ta gusto charrez beteric vici. Nor gana nai dezu zuc urbildu, edo arrimatu? Norc deritzazu, ezagurcen dituela gauzac obequi? Munduac ote, edo Jaincoac? Artu zazu noiz-bait, aspaldian artu behar cenuen, Ceruco videa.

14 Otoitz, edo oracio modu hau

noizco-nai ona da ; baña uste gabeco nequeren bat-equin zaudeneco , eguitecoren bat gaizqui irten , edo atera zaitzuneco ; estu arquitcen zaraneco ; edo nai etzenuen gauzaren bat aditu , ta bartena itaquiten daducazuneco , guztizcoa. Hori guerta dediñeco , zaude artara oitua; ta ecusico dezu , nola arintcen duen, den guruteeric astunen , ta sendorrena.

15 Nai ba-dezu jaquin nola Jaincoari hitz-eguin ; harequin Elizan zaudenean , zoaz maiz bera-requin hitz-eguitera ; ta icasico dezu. Ez ta Jesus ona bezain gauza maita-garriric. Haren hitzac ez dacar nequeric. Harequin hitzeguiten ez-daquienac , ez bere buruа ezaguteen du , ta ez Jaincoa cer den daqui; ta onetan dago gure lan , ta nequeric andiena. Ezaguteen ba-guenu gu-requin dagoen Jesus ona , maitatuco guenuque, ta hura maitatcea-requin izain guenuque, lurrean izan ditequean asseguin, ta gloria.

§. IV.

## §. IV.

### *JESUS-EN ELIZACO ECUStamenac ongui eguiteco, jaquin behar diran cembait gauza.*

1 L *Embicicoa.* Nora zoacen, ta norequin hitz-eguitera, beguiratuco dezu, Elizara zoazencan. Ohartcen ba-cera, edo ezagutcen ba-dezu ceïn Santua den gure jaun-aren Eliza, ta ceïn andia, ceïn arrigarria Elizan dagoen jauna, etzara sartuco begui ariña-requin, ta beldurric gabe. Cembat bilduagoa zoacen, ambat obequi artuco zaitu, maite zaituen, Jesus onac: eta bidalduco zaitu doai, ta ondasun gueyago-requin.

2 *Bi-garrena.* Zure hitzac, ezpañez erraten ba-diozu cerbait, izan bitez laburrac; baña beroac; ecus dezan zure Jaunac, ezpañac baño bihotzac zati andiagoa ducla zure hitcetan.

3 *Iru-garrena.* Edocciñ orduz ongui artuco du Jesus maiteac, bera ecustera doana; baña jaiqui bezain laster arganatcea gueyago estimatcen du. Nai ba-dezu, guztiz maita zaitzan Jesus onac,

ac, eta dizun, eguna ongui, igarotceco, behar dezuna, zoazquio escatcera jaiqui zaite-cencco. Ori eguiten dutenac beti, erran dezatela, nola doaquien Jesus onarequin; ta ecusico dezu, eguia den, edo ez, orain dioguna.

4 *Lau-garrena.* Egu-erditic arratsera ño, bacartasun andiagoan arquitu oi da Jesus ona. Bacarren dagoen orduetan eguiozu ecustamen, edo visita bat. Ordu-an ecusico du, zoazquiola, ez ecusi zaitzaten, edo ecustea gatic Elizan, edo Eliza videan daudenac, baicic hari atseguin eguitea gatic, eta ceren maite dezun: orrequin behartuco dezu, begui onez zuri beguiratcera, ta nequez ucatuco dizu orduan escatcen diozuna.

5 *Bost-garrena.* Jai-Igandeac dira Jauna-requin guciac igaro behar lituzqueen egunac. Egun orietan maiz-ago joan behar dezu, Jesus ecustera; ta ecuste bacochean, zaude harequin, len baño, luzaro-ago.

6 *Sei-garrena.* Iñoteriac, edo yoteac, eta munduac bere atseguin, ta jostatce-etaraco artuac daduzcan egunac dira, bacartasun gueyago Jesusi eracusten dioten, ta munduçoac galcen, edo

gal-

galceco videan ezartcen dituzten egunac. Alba-daquizu zoaz orduan maiz bere bacartasunean lagun eguitera. Ceren ori eguin duten ceimbaitec, artu dituzte Jauna gandic, artuco cituzten baño, milla aldiz gracia, ta ondasun guciago. Notc erran dizu, etzaitzula zuri orobat guertatuco, berceac eguin zutena, eguin ezquero?

7 *Zazpi-garrena*. Etzaitecela Elizatic atera, Jacob Patriarçac essan zuena, essan gabe: *Non dimittam te, nisi benedixeris mihi*. Ez naz, Jesus maitea, ez naz, nagoen toquitic goratuco, zure bendicio santua artu artean: indazu arren; ta ez bacarric: betoz bendicioarequin batean milla, ta milla gracia. Zure gracia, ta bendicioa, zu maitatceco, nai ditut; eta maitatceco, ala emen, nola secula gucian.

8 *Zortzi-garrena*. Ez-pa-zoazque oñez Elizara, zoaz alic maitena gogoz, ta bihotcez. Nondic nai hitz-eguin dezazuia, hitz-eguizu beti, Jesus maitearequin hitz-eguiten duenac bezala; edo begui ta barren bildua-requin, siñisten duenac bezala, errespetu gucia zor zaion, Jaun bat-equin diarducla: baña es-

çatcen zaionic ucatuco ez duelaco uste, ta confianza andia requin. Hitz-eguiten diozun gucietan, escatu behar diozu, bereaz, ta zure bihotzaz daguiala bat, obequi daguizun cerca-requin, eguin behar dezuna.

## §. V.

## MEZA SANTUA.

### CER DEN, TA CEMBAT *valio duen Meza Santuac.*

1 JAincoaren hontan eguiten diran gauza gucien artean, ez da bat-ere Mezac adiña valio duenic. Mezaco gauzac arrigarriac dira, ta mysterioz beteac. Mezac escatcen du, indar guciac dituen, Jaunaren escua. Honec Mezan eracusten duen onets-mendua, ta amorea, ecin neurri ditequeana da; ta pareric gabecoa beraren paciencia. Beguira bequio nondic nai Mezari, non nai, ta edocein aldetatic eracusten dio cerbait dacusanari arritceco diña ta gueyago.

2 Meza da presenta bat, Jaunaren escutiç artu ditugun, ondasun, ta favore

re guciac baño, gueyago valio duena; ta gure becatuen zorrac ateratceco asqui, ta sobera dena. Ongui ezagutua ceducan Mezaren valio hau, Colombiere, len erran degun, Jesus-en Compañiaco Guizon andi harc: orre-gatic cion: *beldur naz, nere baruac, nere otoitzac, eta nere limosnac, edo penitenciac atseguin beharrean, atsecabe eman diozaten nere Jaunari, edo garbitu beharrean, ciquiñagoa utci dezaten nere barrena: bada nere barren charrac, edo barreneco asmo, ta intencio galduac gaista ditzaque oriec, eta beste edocein gauza on. Baña Meza ematen, edo enzuten dudanean, ez dut lotsaric, Ceruco guciai deitu, ta galdetceco, non arquituco duten, Jaincoari dacarquiodan presentac adiña, valio duenic. Orduan,* dio, *lotsaric gabe, ta, emain didalaco uste osoa-requin escatcen diot nere obenen, edo eguin ditudan becatu gucien barcamentua; escatcen diozcat neretzat, nere adisquide, ta gaizqui-guille-endaco gogora al-adiña ondasun; ta gucia deritzat guti, eguiten diodan presentaren alde, ta guti estimatcea, edo gutiitan iduquitcea dela deritzat, presentac valio duen baño, gutiago Jaincoari escatcea.*

4 Zori oneccoac, eta doatsuac batayaturic gaudenac, ezagutcen ba-ditugu, Mezan ditugun, ondasunac! Onetaraco, ta beste Munduraco behar diran gauzac Mezan arquitcen dira. Emendic datoz eriaren osasuna, ta becatuen barcacioa; emendic gorputz-animen gose-egarriac, ilceco behar den janaria, ta edaria: emendic datoz artcen ditugun gauza guciac: eta, gueyago artcen ez-pa-ditugu, ez da cer aitzaqui billa ibilli: gurea da culpa: asqui da emen gogotic billatcea, nai duguna arquitceco.

5 Meza-coan Christo Jaunac, bitarteco onàc bezala, escatcen dio bere Aitari behar degun gucia; ta, escatcen duenaren alde, eguiten dio, eriotceco horduan eguin cion presenta, edo orduan issuri zuen odola, ta eman zuen vicia ematen diotza Mezan Aitari, guri digun guretzat escatcen diona. Nola ucatuco dio Aitac Semeari onela escatcen dion gauzaric?

6 Cer-gatic uste dezu, daudela asco gaitzez, desgraciaz, ta nequez betéac? Cer-gatic becatuen azpitic beñere irten, edo atera gabe? Cer-gatic aztura, edo costumbre gaistoen catez lotuac? Cer-

ga-

gatic dabilza illun, ta triste? Emazteac ecin burutu du senarra-requin, Gurasoa ecin zucenduz dabil duen semea, edo alaba. Elcar ecin ecusiz daude eche bitaco Nagusiac. Dituen diru, ta ondasunac ez diote uzten aberatsari hordu bateco atseguiñic. Guchi dira, esque dagoquien, barrena isilcceco diña, arquitcen dutenac. Ez da casi bat, duena-requin, asetcen. Nondic uste dezu, galdetcen dizut berriz ere; nondic datoz onembat lan, ta neque? Nondic; ez-pa-da behar den lecuan ondasunac ez billat-cetic? Escatcen ba-litzaio, behar bezala Mezacoan, Jaincoac emango luque, gure zorrac ilcalceco, neque icerdiac quentceco, ta ongui vicitceco behar den gucia.

7 Errazu ezperen, etzigun Jainco onac, guciac baño gueiago, ta guciago valio duen, bere Semea eman? Nola bada, ucatuco digu, Apostoloac dion bezala, beste-onetatic edocein? Ez du Jaincoac charqueriric eguiten, ain labur, maite dituen hume-equin ibilceco. Nai bez-pa-dezu, besteac bezain, estu cere barua ecusi, etor zaitez Meza enzutera; ta Mezan eguiten zaion bere Semearen presenta-requin, zoaz gure Ceruco Aita gana,

ña, ta esca zagozu behar dezuna, ucacuco ez dizulaco uste, ta confianza andia-requin. Nola eguin dezaquezun, eracutsi nai dizut orain.

## §. VI.
## NOLA ENZUN DITEQUEAN onqui Meza Santua.

1 MEza da, ecusi degun bezala, lurrean Jaincoaren honraraco eguin ditequean gauzaric andiena; orregatic da, alic onguiena, eguin behar den gauza. Egondu baguiña, ill cezan, be-requin josiric Jesus ona iduqui zuen gurutcearen ondoan, ascoco cen, ura urratua, nequez betea, ta odola ceriola ecustea, gure bihotzac erdiratuac gueldíteeco; ta beguiac, eta barrena argandic ecin quendu guenituela. Egon behar dugu Mezan, an egoin guiñan bezala; bada Meza, odolic isuri gabe, orduco gauzen berritcea da, edo gauzez oroitcea.

2 Egon behar da bada Meza-coan, batter-etara beguiratu gabe, ta Jesusen Passio Santuco neque-icerdiac, Bihotzaren estu-aldiac, eta eriotz gogorra gogoan arturic. Orduan irabaci zuen gucia-requin aguertzen zayo Mezacoan Jesus

sus bere Aitari; ta gucia esqueintcen dio gure zorren alde, eman daquigun guri, beraren icenean escatcen dioguna. Sinisten ba-dugu hau, eguia den bezala, aissa utcico ditugu alde-batera Mezacoan, orduan gogoratcen diran campoco gauzac; eta gogo ta bihotz osoa-requin egoin gara Mezaco gauzetan. Orretaraco otoigaitezque, Jesus-en Amac, eta onequin cegoen San Juan Evangelistac cer izan zuten gogoan, edo certan ceuden guruteeco Meza enzun zutenean, edo guruteean, nequez beteric cegoen, Jesus onari beguira ceuden dembora gucian: ta, eguin halean, egoin gara Mezan guisa berean.

3 Ecin bestez egon behar dezu Mezatan *Ave Maria*, ta ezpañezco oracioac essaten, ceren ez den erraz orrela dagoenac izatea, isillic dagoela izan lezaquean, ta orduan behar luquean arreta, ta atencio gucia. Otoitz horietan ba-zande, utci behar dituzu noicean bein; ta, ezpañac gueldiric daudeño, adizazu cer cere Jaincoac aditcera ematen dizun; ta naico duela, ezagutcen dezun gucia eguiteco asmoa arturic, hitz eguiozu bihotzez, eta eiça zagozu behar dezuna.

4 Ohra

4 Ohar zaitez, edo zaude beguira, cer eguiten duen Mezacoan Apaizac. Eguiten dituen, gauzac misterioz beteac daude; ta guciac dira zure oneraco. Misterio oriec cer aditcera ematen duten, ezagutcea, ta ezaguera onec dacartcien asmo, gogo, ta proposítu onac artcea izan oi da Meza enzuteco videric òneena. Orretaraco valia zaitezque, ori eracusten duen, Libruren batez.

5 Meza, behar bezala, enzuteco, asco da Meza cer den, ezagutcea. Meza dela, vicitceco, eriotzeraco, ta eternidade gucico ondasunen iturria, ezagutcen duena, ecin dagoque hura enzuten, ez-pada beldur, icara, ta oharquera andi batequin. Gogoa Mezacoan banaturic daducanac, ez daqui, non dagoen, ta cer ari den; edo noiz-bait aditu ba-du ere, aztu zaio, cer den Meza.

6 Mezaz anciric vici diranac, edo cer den Meza bere vician icasi ez dutenac, Mezara doaz, ceren eguinac dauden hartara, edo erran videa quentcea garic; edo datoz beste lurreco gauzaren bate-gatic. Orrela datocenac ez daquite, certan egon Mezacoan; eta egoin dira, Elizan daudenai, edo Elizaco gauza, ta bazterrai beguira. O 2 7.

7 Nai ez-pa-dezu, guerta daquizun orrelacoric, eraman behar dituzu gogoan, Jaincoa gandic artu dituzun, favore, ta mesedeac; eta egon zaitez gucien esquerrac ematen. Esquerrac eman gabez artu dituzunaz, artceco daudenac, galdu cenitzaque, ta, zuretzat ceducatcienac, eman ditzaque Jaincoac, artcen ducnaren ezaguera eracutsico dionari. Gauza arrigarria! Eguin guinduen puntutic, ongui ta ongui eguiten ari zaizcu Jaincoa, maitc gaitu, besoetan bezala gacarci; ta ez gara gu, esquerrac bad-ere, bein ongui ematceco!

8 Artu izquitzu ba-da gogoan Mezan zauden dembotan, Jaincoac eguin derozquitzun onac, eta favoreac; oroi zaitez, cembat aldiz, hura utci, ta cere burua galtceco ceunden videtic atera zaituen. Ecusi zazu cembat gaistaqueri, cembat oben ta culpa barcatu diezquitzun. Bateo gabe utciric, zu bezain onac izain ciran, anitz milla Gentil, ta Turco, bataya cindecen nai izandu zuen. Doctrina Eracusle, Predicari, ta Confessore onac diran, errian, edo erri-aldean eguin cinducn. Zure oneraco gracia dariola dago: zu beretu nayez, zure vici gucian

ibi-

ibilli da. Egun oro har gandic artcen dituzun, ondasunen esquerrac emateco, ez da asqui Mezaco dembora. Ecusi zazu bada, vici gucicoac gogoan artcen badituzu, izain dezun, edo ez certan egon Mezacoan.

9 Guciac gogoan artu, ta ondoan ausardia-requin, edo lotsa, ta alqueric gabe erran behar diozu Aita Cerucoari: *anitz da, Jauna, nic zuri zor dizudana.* Essain diozu guero Semeari-ere: *cer emain dizut, nere zor andien azpitic ateratceco, behar nuena, ta gueyago eman didazun, Jesus on maitagarria? Ori, orra milla esquer-equin batean, nere bihotza. Gucia gatic barcatu arren, Jesus maitea; bada ecusten dezu, eman ala ematen dizudala.*

10 Gogoan ar ditzaquezu Mezacoan cere charqueri, ta uts-eguite guciac. Ez da noasqui egunic, ez eta eguncan orduric ere zure uts-eguiteren bat, edo gueyago ecusten ez duenic; eta Jaincoac ez pa conduzca bere escutic, eguiten dituzunac baño, eguinen cenituen utseguite, ta culpac gueyago liraque. Esca zagozu, eguin dituzunen, barcacioa; ta, berriz ez uts-eguiteco, behar dezun laguntza, ta gracia. Cer-

11 Cerbaiten behar ean arquitcen zara? Ecin burutu dezu cere Gurasoequin, edo humea-requin, cere adisquide, auzoquide, edo beste norbaitequin? Zoaz Meza enzutera; ta, enzuten zauden artean, esca zagozu Jaincoari, escura dacarrela zure etsaya; quen dezola zure alabari bere arinqueria; molda dezala zure senarra; zabaldirzala andrearen errai estuac; ondu dezala, gaizqui dabillen, zure Semea, edo Senidea; eraman ez dezazun orren nequezco vicia. Ba-lizaque, alferqueriz, edo guciegui naiez, gaizqui aci ditozun cere icheecoac Esca zagozu Jaunari, zucen ditzala zure utsac, eta bera dezala, gogortuaz doan, zure humea-ren bihotza. Ez ditzan uca, escatcen diozcazun gauzac, escatu behar diozcatzu, zure gatic Aldarean arquitcen den, bere Semearen icenean.

12 Nequeren bat-equin arquitcen zarà? Ecin garaituz zabilcza cere ecarrai, edonatural charra, ta azrura gaiftoa? Nai etcenuquean oroitzapen, edo gogoratce arc estutcen zaitu, edo ingnruan zarabilza? Orrembat nequeren artetic atera ta Ceruço videan zucen ibilceco,

ceco, cer eguin dezu? Escatu diozu Jaincoari, lagun daquizula, ta dizula bere escua? Cembat Meza enzun dituzu orretaraco? Etzaitzu orretaraco behar dezun gauzaric ucatuco, escatcen badezu Jesus, Jainco, ta Guizon eguiazcoaren odol Santu, ta vicia gatic.

13 Meza gatic ez-paliz, ez lizaque, dio Doctore batec, gaurguero munduric. Asserre dagoen, Jaincoaren ezpata Mezac daduca maguian. Lembaitlen gu galduac ecustea-gatic, galdu nai-luque Meza gure etsayac: orretaraco Herege gaistoac biribillaturic, eguin du eguin ala; baña ez du nai duenic osoro eguinen, Ante Christo galdua etorri artean; bada Ante-Christoc izain du Mezaren contra, onen figuraren contra Antiocho gaistoac izandu zuen escua; *& robur datum est ei contra juge Sacrificium propter peccata*. Orduan Elizac lutua-requin egoin dira, dio S. Hypolito Christoren Martire Santuac. Ez da Mezaric izain Eliz-ecan; Eliz-etaric faltatuco da Jesus ona-ren Gorputz, ta Odol Santua; ta etorrico da azqueneco eguna.

14 Gauza arrigarria! Gucyenac aditzera ematen dute, nayago luquela, Me-

Mezaric ez paliz Elizetan ; bada sartcen ez dira , hura enzutera , ecin bestez baiciç , eta mandamentuaren cateac tiraca bezala dacartciela. Ecer ez pa liz baño, caso gueyago ez dute eguiten , ondasun guciac dacartcien, Mezaz. Mezan arquitcen da , zorrac ateratceco , videa, anima eriaren osasuna , beharrean dagoenaren janari , ta edaria. Asqui lizaque Meza bat ongui enzutea , Purgatorioco suric ez ecusteco. Baña gueyenac orrelacoren berriric ez dute ; Mezan daude, certan dauden , ez daquitela : lembaic len Elizatic atera naiez daude ; ta , an dauden artean , zor zarrrac atera beharrean , berriac eguiten dituzte ; ta , ondasunac ez artu naiez , aberastu nai cituen , Jaincoaren itzuri doaz.

15 Meza cer den daquitenac , eta Jesus ona maite dutenac , enzuten daudenean , egoin dira , Jaincoa-requin daudeneac bezala, beldurtasun, ta atencio andi bat-equin. Consagracioco hitzac Apaizac erran orduco,milla ongui-etorri eguiñ behar diote Jesus maiteari. Guri eguitera datorren onguia gatic , eman behar zaizca beste ambeste esquer. Eraguciñ behar zaio al-den damu ta senti-

mena

menturic andiena, gure amoreac ar-eraci diozcan videgabe, ta charqueriecgatic. Eranzun behar diogu ciñezco nai, ta amore andi batequin, beràc digun Bihotzeco ougui-nai, ta amore bazterric gabecoari. Azquenean escatuco zaio, eracus-dezagula Bihotzez berac eguiten duen gucia; ta digula, ori eguiteco, behar dugun gracia.

## §. VII.

### NOLA JAUN ANDIA
*Comunioan artu behar den.*

ALdareco Sacramentua da, Sacramenturic andiena; ta gure eguirecoric andiena da, Sacramentu onetan dagoen, Jaun andia artcea. Jaun hau artcea, edo comunio da, San Juan Chrisostomoc dionaz, Jaincoa berriz guizon eguite bat bezala. Ecusi zazu cer eguirecoa den comulgatcea; ta cein garbi egon behar duen, Jauna artu behar duenaren, barrenac. Lembicico aldian artu zuena, Virgina cen; ta Virgina, len ta guero, arguia bezain, garbià. Certara zoaçen, ezaguteçen ba-cenu, erziña-

que

que nosqui comuniora urbilduco; ta, urbilcen ba-ciña, joain ciñaque, joan oi ceran baño, obequi prestatua.

2 Munduco guci-etatic, batec baicic, Jaun hau artu behar ez-palu, urte bat balu ere, communiora prestatceco, guti dela, idurico litzaioque; Jaincoa artu behar duen, mihian ez luque, cillegui ez den, gauzaric artuco: ateraco lituque bere baruac; duenetic emain lioque beharrean dagoenari; penitenciaz necatuco luque bere burua: ta guciaren ondoan, negar anitz illuria gatic, ez luque usteco, behar duenaren, erdiric eguin duela comunioraco. Anitcec Jauna comunioan artua gatic, ez du bacoitzac artcen gutiago. Norc-nai behar du, bacarra baliz, adiña cuidadoa-requin bere burua prestatu comunioraco.

3 Comulgatceco asmoa artcen dezunetic, eguin behar dezu contu, erra-ten zaitzula, len dembora lucean comulgatceco ceudenai Diaconoac erran oi ciena. *Sancta Sanctis*: beguira: Santuentzat gauza Santac; edo, San Juan Chrisostomoc dionaz, Santuac, ez diranac ez datocela comunio Santura. *Ez du essaten Elizac*, dio Santuac, *ez dacarrela*

cga

*comuniora datorrenac, becatua-ren loiric, eta itsustasunic; datorrela, essaten du, Santu eguiñic.* Betor bada graciaz betea, obra on anitz-equin, ta virtutez anima edertua, ta apaindua daducala.

4 Ez du gutiago San Ambrosioc esscatcen, comunio on bateraco. *Vici gucian*, dio Santuac, *gogoan iducazu, nor artceco zauden, ta zaude beti, orretaraco, eguiñ ala, eguiten.* Bein baicic artu behar ez-pa-cenu ere, egun-oro artceco ba-ceunde bezala, vici behar cenuque; bada ez luque beiñ-ere Jaun hura artu behar, egun-oro ar lezaquean bezala, ez-pa-du urtea eraman: *sic vive, ut quotidiè merearis accipere: qui non meretur quotidiè accipere, non meretur post annum accipere.*

5 *Orrela* (essain dezu); *obe izain da ecin bestez, urtean bein, edo berandutic beran-dura Jaun andia artcea.* Hitz-eguiten dezu, ez daquizunac bezala. Zuc diozuna eguiten dutenac, izan oi dira gaizquiena vici diranac. Ascotan, edo maiz Jaun hau artcen dutenai gald eguiezu, nola doaquien artu duten videan; ta adituco dezu, oitura,

ta costumbre gaistoac garaitceco, etsaiaren escutic igues eguiteco, ta egunoro zucenago Ceruco videan ibiltceco, ez dutela, maiz comulgatcea bezalaco, videric arquitu. Orietatic cembait gaistatcen, ba-dira, asi oi dira gaistatcen, ba-canago comulgatcen asi ciranetic.

6 Ohartcen ba-cera, maiz, edo ascotan Jauna artua garic, len bezala, gaizqui, ta ondu gabe vici zarala, ondu nai ba-dezu, ez dezazula utci maiz Jaun hau artcea: utci-zatzu, ongui confessatcea eragozten dizuten, gauzac, eta garbi zagozu cere bartena, or artcen dezun, Jaun andiari. Gaistoa ba-cera, ondu zaitez ascotan comulgatceco, edo behar bezain ona ez-pa-cera, ar zazu maiz, gauza gucien Jabe den, Jauna; dizun, cere burua on-ona eguiteco behar dezuna.

7 Ascotan elcar ecusten duten, adisquideac maite dute elcar; ta aisa elcar anzten dute, elcar gandic urrun dabilzanac, edo gutitan elcar-ganatcen diranac. Ona izatea Jaincoa maitatcea da: Jaincoa maitatu nai duenac, ez du onen iguesi ibilli behar: ta, al-eguiñean, ibilli behar luque, gogotic ere Jauna utci gabe.

Quen

Quen bitza, Jaincoac ecin ecusi dituen, charqueriac; apain beza, alic onguiena, bere barreneco hostatua; ar beza alic usu-en, edo maizena; eta ecusico du nola, bera maitatcen, eracutsico dion, eta cembat ondasun-equin utcico duen.

8 Janari onac ez du barren garbian gaitcic eguiten: edo eguiten du, ceren estudio gueyegui-requin, hura egosteco behar den, beroa, edo sua estomagotic quentcen den. Ez dio quenduco Medicuac gaitz eguiten dionari bere janari ona, gaitcic ez daguion: garbituco dio, loitu zayon, barrena: edo quenduco dio, behar duen sua barrendic quentcen dion, estudioa; ta aguinduco dio, ar dezala berriz ere bere otorduetan. Comunio Santua da anima-ren janari ona on eguiten ez dionari aguinduco dio, bere Medicu Confessoreac, garbi dedilla loitu bada, confessioco iturrian; edo utz-ditzala, behar bezala, bere hostatua Jaincoari apaintcera uzten ez dioten, eguitecoac; eta eguin dezala, alic maizen, ta onguiena, Comunio Santuco otordua edo barazcaria; nai ba-du, on daguion, ar ditequean janariric ònenac.

9 Asquida Comunio bat, nornai

Santu eguiña uzteco: Comulga zaitez bada maiz, orren laster ez-pad-ere, azquenean Santu eguiña, edo ondua beinzat gueldi zaitecen. On eguiten dien, gauza artcen duten eriac, artuaz ba-doaz, berantduago bad-ere, sendatcen dira: Comunio Santua animaren erirasuna quendu, ta betico osasuna ematen duen gauza, ta erremedioa da *pharmacum immortalitatis*. Zoaz bada maiz artuaz, orrembat on dacarren, gauza; ta ez dezazula casoric eguin, bacan baicic ez artceco, essaten dizun erſayaz.

10 Baña beguira: ez arren janari, ta erremedio on hau ascotan artu, len bezain eri guero gueldicteco. Jesus onac sendatcen ez dituenac, norc sendatuco ditu? Maiz Comulgatu ondoan, Jaincoa ciñez maitatu beharrean, gaizqui, edo epel gueldicten diranac; eta gueldicten diranac leneco condicio galdu, azturа char, ta uts-eguite gaisto-equin sendatuco ez diralaco, beldurra-requin gueldi diterque. Nola alabaña sendatuco dira, Medicu ta erremedioric oneнac ecin sendatu dituztenac?

11 Zucen ecebilzanean Israelitac, etcien lurrac ematen, eman oi zuenaren,

laur-

lurdenic; eta ematen zuena, edo cecarrena, gueyena beintzat, etsayen escuetan gueldițcen cen. Bidaltcen cien, gosse gogorra-requin eracusten cien Jaincoac, bere pausu macurracquin irabazten zutena; edo lurraren laburtasunarequin castigatcen citnen, gaizqui vici ciran, Israelitac. Baña lurraren laburtasuna, ta gosea ez da Jaincoaren castiguric andiena: andiena da, lurrac ematen dienaz, ez valiatcea. Lurrac emain dizue, essaten dic Jaunaren icenean Profeta Santuac, matsa, ta garia: baña matsac, dolareco ardatza-requin estutua garic, ez du emain, beinzat indarrezco ardoric; eta, garia-requin eguiten den oguiac, jaten ez pacenue, bezain indar guti-requin utcico zaituc: *auferet robur panis*.

12 Hau da guertatcen zayena, Comulgatcen diranetatic, ascori. Christo Jauna-ren Gorputz, ta odol Santua artu ondoan, indarric gabeco janari ta edaria artu ba-lute, bezain gose, ta egarri andia-requin gueldițcen dira. Jaten dute, ta edaten berriz: ta ascotan Comunioco mayean; baña mayera dirala-ere ezagun etzaye: len bezain indar guti-re-

quin

arquitcen dira. Mai onetan bocadu bat artcen dutenac, leoyac bezain indarsuac gueldittu behar luquee, San Juan Chrisostomoc dion bezala, infernuco etsayac garaitceco: *tanquam Leones ignem spirantes ab illa mensa recedamus, facti, diabolo terribiles*; eta guelditcen dira otsoac ortz-equinerraz urratcen dituzten bildotsac bezala: bada leneco aztura, ta costumbreac garaitcen ez dituzte; ta edocein tentacioc garaitcen ditu berac. Ecusi dezagun, quentceco, non-dic datorren gaitz, edo calte hau.

13 Ascotan Comulgatcen diran cembaitec ez dute comuniotic indarric atceratcen, ceren Jauna artcen duten, barrena garbitu, moldatu, ta apaindu gabe. Behar ez bezala barrena betea daducanari ez dio onic eguiten, den janariric onenac; eta, indar berriac eman lecuan, quentcen diozca cituenac-ere. Behar dezu bada, Comunio Santuac on daguitzu, lenic beguiratu, certara zoacen, ta nor artcera, oni zor zayon bezala, cere barrena prestatua eramateco. Orretaraco den liburuen batean, nola ori eguin, icasico dezu.

14 Liburuic ez-pa-dezu, sinistu zazu,

zu, ta icusi, nor datorren zu gana, ta eguizu zure Fedeac eraguiten dizuna: *crede, & fac quod vis.* Siñisten dezu oguiaren estalquia-ren, edo specien azpian datorquizuna, dela, jaio cenean, oialez estali, ta loturic Amaren besoetan egondu cen Jainco ta guizon eguiazcoa? Siñisten dezu, ori dela, Ainguеruz, bere Jaincotzat ezagu cezaten, Artzaiac billeraci cituena? Ori dela, Jaincoac vidalduricaco izarraren ondoren cebil zala, iru Erregueac bere Erreguetzat ezagutu, adoratu, ta ondasunez beteric utci zutena? Siñisten dezu, ori dela hitz-queta batean Samaritana mudatu zuena; ta beguiratce batequin S. Pedroz, Magdalenaz, ta bertce edoceñez, nai zuen gucia eguiten zuen, Jesus maitagarria? Siñesten dezu, ori dela aiceaz, etsayaz, eritasunaz, ta elementu guciaz, nai duena eguiteco escua duen Jaincoa? Siñisten dezu, zuri datorquizula, ongui naiez, charqueriac quentcera, osasuna ematera, ondasunez betetcera, ta azquenean berequin bat eguitera? Eguizu bada siñiste orrec escatcen duena: *Crede, & fac quod vis.*

15 Siñisten dezu, ori dela, Ceruac, ta lurra eguin cituen, Jaincoa: ta ori

dela ; Ceruan Ainguerüac, lurrean Erreguec, Obispo, ta diran Guizonic andienac, bai ta beràc infernuan erretcen daduzcanac, bere Jaun, ta Jaincotzat ezaguteen dutena? Siñisten dezu, Erregue andi, zure Jainco hau, Aldarea ta Aldareco Ainguerüac utciric, datorquizula, comulgatcen zaranean cere bihotcera ; ta datorquizula zu ondasunez beteteera, ta zurequin egoteaz atsseguin arteera? Ez dut uste ; orrembat gauz andi siñistea besteric behar dezula, eguiñ ala zuc eguiteco, orain daňoco-etan baño, eguiñen dituzun comunio-etan obequi zure barrena garbitu ta prestatceco : *crede, & fit quod vis*.

16 Baña ala-ere gogor arquitcen bacera, Jauna arteeco zaudenean, ecartzu gogora, ori bera dela ; Mundu guciaren contuac artu behar dituena ; ta aguian egun gutiren buruan zureac artuco dituena, eternidade bateco atsseguin andia cere lan onen alde emain dizuna, edo, gaistoac eguin badituzu, ta orien azpitic cere burua atera gabe, atera bazara mundutic, seculaco sua ta nequea eman behar dizuna. Jaun hau da, bocca

du

du eguiñic otamen batean, zure barreneco guelan sartu nai duena; ez ondasun esque, baicic nai dituzun guciac zuri esquinteera, bere adisquideta sun, ta Ceruco gloria-requin. Ezaguera galdu ezpa-dezu, edo finistea, ez da erraz, eguin oi dituzun baño, gauz on guciago zuc ez eguitea, ecre Jaun hau artu behar dezunean: eguiten ez-pa-dituzu, izain da, ceren onelaco gauzac gogoco ortz-equin ausatcen ez-dituzun, edo hastiro erabilli gabez.

17 Munduan cebillenean, cembait echetara, Apostoloz inguruturic, joan cen bezala, Ainguerüz inguruturic zure echera datorrela Jesus ona, ba-cenequi, cer-etzenuque eguiñen, eche baztorrac garbitceco, eta harc artu behar duen guela apainteeco? Ez-pa-cenitu, apaintce onec escatcen dituen, gauzac, billatuco cenituque Adisquideen artean: ta eguin ala eguiña gatic, behar denaren laurdenic eguin etzenuela, idurico litzaiquezu. Orduan artuco cenuena, datorquizu; ta Ainguerüz ingurutua. Beguiz ecusten ez-pa-dezu ere, comulgatcen zaranean, zure beguiac ecusten duela sartcen baliz baño, gucia-

go zór diozu estaliric cere barrenean sartcen zaitzunean. Garbi zazu bada barren gucia; ta ez pa-dezu, cerequin apaindu, zoaz beraren Ama-gana; zoaz cere adisquide-erara, edo Cerucoetara, ta esca zaiezu, dizutela, bere Jauna artceco dogoen, cere bihotza apainceco behar dezuna: ta esca zaiezu, eracus dezazutela, nola lan ori eguin; bada zure charqueria-ren, ta Jauna-ren anditasuna-ren jaquintsun dira; ta ba-daquite, cer eguin ditequean, alic onguiena Jesusi hostatua prestatceco.

18 San Buenaventurac dacartci, comunio santura Christauac eraman oi dituzten, edo eraman dit-zaqueen zortci gauza, edo motivo. Batzucc artcen dute, dio Santuac, Jauna comunio santuan, sendatzea gatic. Eri dagoenac nai du, sendatcen daquien, Medicua; ta al-ba-du billatcen du, sendatce ónenac eguiten dituena. Aztura gaistoz, ta costumbres eri zauden anima, ez da, comunioan arquitcen den, Medicua bezain sendatzaille onic. Ba-ditu eritasun gucien erremedioac; era sendatu nai duenic, ez du uzten, sendatu gabe. Zoazquio, ona izateco gogoz beteric; eracatsi behar

diozcatzu, beren arinqueriac gatic utsegu ite anitz eguiten dituften, ta eri dauden beguiac. Efca zagozu, oricc bilduac erabiltceco, behar dezun, erremedioa. Aguer zagozu, hitzqueta gucyegui eguiten duen, edo behar bezala hitz eguiten ez daquien, cere mihia. Aguer zagozu, behar ez lituqueen gaucen ondoren dabillen, zure bihotza. Efca zagozu, labur dezala, ta zucendu zure mihia; ta, behar ez diran, naicunde charrac quendu-ric, dizula, bera maitatceco behar dezun gogo vici, ta amore andi bat. Siñis nazazu, ez daqui, ciñez ta gogoric efcatcen zayon, gauzaric ucatcen. Baña beguira; nai ba-dezu, fenda zaitzan, ez utci eguin gabe, effaten, edo aditcera ematen dizun gauzaric.

19 *Bertce cambait* comunio-ratcen dira, beren burua zor arteric ateratceco afmoan. Zorrez beteric dagoenac balequi, bere errian duela, efcatu ezquero, behar duen gucia emain diona, eftutcen dutenac ifsiltcea gatic, lafter billatuco luque: Becatuen zor andia-requin arquitcen zara? Aitaren Jufticia artzecoen ondotic dabil? Ez dezu non dic eman zor diozuna? Zoaz Comulgatcera;

ra ; zoaz Jesus ona gana. Ondasun gucien Jabea da. Behar duena nori nai emateço, ez du escatcea besteric nai. Eun aldiz escatua gatic, etzaitzu asserretuco. Bera bere Aitari cere zorren alde ematen ba diozu ere, onzat artuco dizu.

20 *Beste batzuec* comulgatcen dirà, diò Santuac, behar dutena izatea garic. Emen vici garan artean izain ez gara nequeric gabe. Nequeac garaitceco behar dugun, gucia Jaincoaren escuric datorquigu. Etorri daquigun, goacen maiz berari Comunio Santuan escatcera. Animac Infernu gucia, mundu eroa, ta bere gorputza bere contra ditu. Irurac dabilza, non-dic galduco duten. Batean tentacioaren suan erretcen dago ; bestean gauz onac eguiteco gogo, ta indarric gabe : ascotan illuntasunez, ta tristuraz beteric arquitcen da; ta cembait aldiz bere burua-requin ecin burutu ducla. Galdu nai ez-pa-du, bijoa ongui prestaturic, Aldarean daducan Jesus ona gana. Atozte, dio onec; atozte ni gana necatuac arquitcen zarasten gucioc; atozte atsedetera, ta indarrac artcera. Comunioco oguia jaten duenac, ar ditzaque seculaco indar-

rac:

tac: *qui manducat hunc panem, vivet in æternum*, eta garai ditzaquè diran tentacio ta nequeac. Emen artcen den neis Odol Santua, ardo, ta edaria da Adanec ciquindu zuen odola-ren su-gar guçiac iraunguitcen, ta itzalcen dituena, ta Ainguerucna dirudien garbitasun ederrarequin animac uzten dituena: *vinum germinans virgines.*

21 *Besteac* Jauna artcen dute, bitarteco on bat izatea gatic. Erregue, ta Gnizon andietara ez dira aguertcen, beintzat bacarric, favore baten ondoan dabiltzan guçiac. Billatu oi dute hitztun eder, edo bitarteco onen bat: eta, berez izain etzutena, erdisten dute arequin batean. Beldur ba-cera, edo lotsa, Ceruco Aitari nai cenuqueana bacarric escatceco, Aldarean daducazun, haren Seme Jesus ona nori-nai laguntçeco dago. Ez dezu Aitarentzat hiztun eder-agoric, ez eta bera bezalaco, bitartecoric ere arquituco. Onen icenean escatcen zayon gauzaric, ez duela, dio berraren Aitac, ucatuco. Esca zaiozu bada Jesus-en icenean noiz-nai nai dezuna; baña nioiz ere baño uste, edo esperanza gueyago-requin esca dezaquezu, bera Comunio on ba-

tean artcen dezun aldian.

22 *Beste cembait* comuniora doaz esquerrac ematea gatic. Onguilleac nai oi ditu, eguin dituen, on, ta savoreen esquerrac. Eman oi diozcate artu dituztenac, beinzat uste ba-dute bera gandic berrirenbat. Ez-pa-daquite berac, billatcen dute norc hari hitz eguin. Guizonen favoreac ez dute cer icusi, guratic edoceñec Jaincoari zor diona-requin. Izatea bera berari zor diogu, gueroztic eguin digun, gucia-requin. Cembat den hau, ecin erran guenezaque. Oraindic asco gueyago artu uste dugu bera gandic. Ez da erraz guc hari esquerrac ongui ematea. Esquer oiec emateco billa dezagun Comunioan Jesus, gure bitarteco ona. Escatu ezquero eguinen digu onembestea, eguiten duen demboran, utcico du bere Aita, beste anitz gauz on guri eguitera, behartua.

23 *Cembait* comulgarcen dira, Jesusen Aitari present on bat eguitea gatic. Ongui guillea-ren beguie-taratcen ez dira guizonac hitz, eta escu uts-equin: al duten presenta-requin aguertcen zaitca. Cembat present andiagoa, ambat obequi artcen ditu presentaren artzalleac.

Asco zor diogu guc gure, ta Jesus-en Aitari. Onen beguie-tan aguertcera, ta artu ditugun gauzen ezaguera eracustera behartuac gaude. Orduan nai ba-diogu cerbait eraman, comunio santuan arquituco dugu, nai dugun gucia. Gu gatic, edo gure oneraco Aldarera datorren Jesus ona da, Aitac onguiena artzen duen, ta gueiena estimatcen duen, presenta. Onequin ba-goaz, ongui artuac izain gara. Egunoro ez-pad-ere, zoaz Comunioco mayera maiz; eta, egun oro haren escutic artcen ditnzunen alde, eramayozu bere Seme guztiz maita-garria: ta esca zaiozu, zure iceneco-ari, ta zure bitarteco izandu diran Santuei, diela eguin dizuten, lan ona-gatic, atseguin, edo gloria zati berri bat, eta ez dezala gueldiric iduqui, ambat aldiz zure oneraco zabaldu duen, escua.

24 *Besteac* beharrean daudenai laguntcca gatic, comulgatu oi dira. Becatu larriric gabe, baña cembait zorequin ill ciranac, zorrac atera artean, Purgatorioan suz erretcen, ta aguitz-necatuac daude. Nai ba-dugu, arin ditzaquegu orien nequeac, eta zorrac atera. Gure nequez, ta hilduraz irabazten du-

gu-

guna valia daquieque guc nai dugunai. Necatcen, ta erretcen daudenac, Jesus ona-ren humeac dira, ta gure senideac. Senide bat lurreco suan erretcen icusi ezquero assaldatuco guiñaque, ta ez guiñaque gueldituco andic libratu artean. Ango sua eun aldiz, ta gueyago-tan emengoa baño gogor-agoa da. Cer bihotcec orrela necatuac ecusi ditzaque luzaro ago necatcen aisa daguiquean cerbait ez eguitea garic? Eguizu al eguiña, orien oneraco; ta comulgatcen zaranean, esca-iozu Jaunari, artu dezun Jesusen irabaci, merecimentoac-garic, ateta ditzala lembaitlen, beren zorrac garic Purgatorioan erretcen dauden guciaecieta lembicico lecuan oroi dedilla zuc gueyena zor diezunez.

25 Ba dira gucien artean *batzuec*, maitatcen duten baño, gueyago Jauna maitatu naiez comulgatcen diranac. Oiec dira noiqui zuccnen babilzanac. Jesus-en Gorputza artcen dugunean, bien bihotzac bat eguiñac gueldítu behar dute, dio Santo Thomasec: *datur ad omnimodam unionem*. Ala eguiñen dira, elcar maitatcen ba-dute. Jesus-ec maite gaitu; ta, guc hura maitatceco, ez da on-

onguicomuniatcea bezalaco videric; bada guc hura maitatcea Ceruco suan berotcea da; ta Jesus, Comulgatcen garanean, Ceruco su gucia-requin sartcen zaicu barren-graño. Arria baño gogorragoac gara, orrembat su barrencan daducagula, berotcen ez-pa-gara.

26 Cembat nai digun, adiraztecó, bularra idiquiric, eracusten digu, gure amorez beteric daducan, bere Bihotza; ta escatzen digu, guc hari ez ucatcea gurea: *præbe cor tuum, fili mi*. Gure bihotza izatea gatic, Aldarera etorriric dago; ta, gu beracęco, ori asqui ez dela icusiric, eguin da bocadu, ta sartcen zaicu bihotzeraño. Ah! Cembat zor diogun Jesus onari! Bera-renac gara garan gucia. Ez dugu, zor ez diogun, gauzaric. Duguna, ta gueran gucia emana gatic, etzaicu artecoric gueldituco. Non da bada arpeguia, escatcen digun, bihotz char gurea ucatceco? Cerutic escatea-requin, edo berac escatu gabe, gueroc ematen gueniola, artcen ba-ligu, gueiegui eguiñen liguque: cer izain lizaque bada, lurrera etorri, gure barrenean sartu, ta escatu ondoan, ucatcen ba-guenio?

du-

27 Jesus-en Bihotzaren devocioa dutenac, comunio santuan dute anitz gauz on eguiteco mugon, ta derecha. Icusi zazu hastiro, cer ari den cerequin daducazun, Jesus-en Bihotza. Eguizu contu, beguiratu ondoan erraten dizula, quen ezazu onelaco uts-eguite, halaco falta, ta beste beguietan ematen didan gauz-ori. Ema-yozu, baiezcoa, ta erraiozu, lenago ez quenduaz dezula damu: barca daguizula orain dañocoa, ta beraren lagunza-requin vicico zerala, berriz orretara gabe.

28 Ecusi zazu cein beraa, cein manso, ta humilla den. Eguiten zaizca anitz charqueri; ta isilic dago. Zure becatuac, eta munducoen comunio gaistoac dira urratcen duten lantza, ta arantzac: eta urratce gucia-requin ere, ez du ay! bat ematen. Premiatua daduca bere Bihotza Mundu guciaren escutic artu dituen vide-gabe, dongue-queri, ta sacrilegioen gurutce pean; ta al-ere ez da asserretcen. Aita maitatcen dago; ta guri ongui nayez, cer eguin ez daquiena bezala. Lotsaz arrituac bezala daude, onequin dauden, Ainguerua. Ainguerú-etatic icasi zazu nola egon Jesusen beguietan, ta Jesus cere barrenean

dau-

daucazun artean : icasi zazu Jesus-en Bihotcean, Jaincoa maitatceco, eta ona izateco, jaquin behar dezuna.

29 Jesus artu ondoan ez-pa-dezu cer hari erran, edo isilllic ba-zaude, ez dezu, anitz maite Jesus: bada ciñez onesten, ta maite diranac, elcar gana ezquero, ba-dute cer elcarri essan. Onetsia ba-duzu, artu orduco, errayozu: *inveni quem diligit anima mea, tenui eum, nec dimittam* : arquitu du nere animac, billatcen zuen Jainco Guizon Jesus maitea. Lotu natzayo; besocu artean bezala daducat : ez diot largatuco; ez dut, ez, beiñere utcico : Jesus maitatcea izain da gaurguero nere eguitecoa : ez dutez, oraindaño bezala, ecer ez bate ga, tic azturic iduquico.

30 *Deus meus, & omnia*: ecin bestez ibillico naz lurreco gaucen ondoan; ta, utci al ditzaquedanac, aisa utcico ditut, Jesus ona garic. Jesus da nere Jabe, ta Jainco; Jesus da nere atseguin, ta gusto. Jesus-en Bihotcean nai nuque sartu, ta vici. Jesus ba-dut, ba-dut, behar dudan, gucia. Jesus izain da gaurguero, nic artuco dudan, videa. Onen ondotic nai dut ibilli, berac vidalcen

di-

didan nequezco gurutcea-requin. Jesus izain da vide onetaco arguia. Jesus-ec essaten didan aldetic, artu nai dut; ez dut utci behar Jesus onac adi-razten didan gauzaric. Jesus izain da nere vicitza. Artuco dut maiz Comunio Santuan; ta, uzten didan, graciaren indarra-requin eguin behar dut eguin ala, etsayac garaitceco, becatuaren eritasuna ayenatceco; ta viciric, edo gracia galdu gabe Ceruan sartceco. Hitz batean; Jesus izain da, ni gatic eraman dituen neque, ta bere Bihotceco amorea gatic, nic beti maitatuco dudana, ta behar dudan guciraco, billatuco dudan Jaincoa.

31 *Dilectus meus mihi, & ego illi.* Nere onetsia neretzat, eta ni arentzat. Jesus nic maite dudana, neretzat, eta ni, harc maite nauena, arentzat. Anitz nai diot, ecin guciago nai didan, ta ni gana etorri den Jesus onari. Nere bihotza nai nuque, nere naiez urtcen daducan, Jesus-en Bihotceco suan auts eguiña ceussi. Nere bihotceco Jaincoa, nic, aberats izateco, ez dut bertce ondasunen beharric; zu ba zaitut, Jesus maitea, nerequin ditut ondasun guciac; zu beste zatiric ez dut nai secula gucian: *Quid*

mi-

*mihi est in Cœlo, & à te quid volui super terram, Deus cordis mei, & pars mea Deus in æternum!*

32 Onelaco edo bertce, al ditu-zun guciac errain diozcatzu Jesus onari Comulgatcen zaranean: baña errain diozcatzu ciñez ta bihotzez. Nola nāi errana garic etzaio deus, bihotz onez erraten ba-zayo. Ez hitzetara, bihotcera beguiratcen du Jesus-ec. Baña ez du zure bihotzac ifsildu behar, Jesus joaten zaitzun-etic. Maite dutenac elcar, elcartez oroitu oi dira, elcar-equin ez egona garic; eta, oroitzea-requin, berritcen zaye elcar ganaco naya, ta amorea. Izan zaitez, Magdalena bezala. Maite zuen Jesus; il ta ere gogoan ceducan beti; ta, besteric ecin zuenean, haren Gorputz Santua-ren billa cebillen. Comunioa bucatu, ta Jesus joana garic, ez dezazula, eguin alean, gogotic utci; billa zazu, alic lasterrena, haren Gorputz Santua, ta bera gucia Comunio berri batean.

§. VIII.

## §. VIII.

## CER DEN CIÑEZ JESUS *maitatcea, ta norc onela maitatcen duen?*

EZ du benaz maitatcen Jesus, ciñezco virtuteric ez duenac: eta, Jesus-ec eracusten duena, eguiten ez duenac, ez du benazco virtuteric. Virtutet-suen icena durenen uts-eguiteac, edo faltac, icen ori ez dutènen falta, ta uts-eguiteac baño, calte gueyago eguiten diote virtuteari. Icen utsa-requin arquitcen diranac, asco nai diote beren buruari; billàtuac nai dute izan: nai dute etorri, edo guerta daquien gucia beren gogara, edo erara; eta ez dute nai, eguin daquien irriric beñ-ere. Hitz eguiten ba-daude, nai dute, siñestu: dezaten guciac orien errana: siñisten ez-pazaye edo sumintcen dira, edo gueldicen illun, ta belz. Ez dute nioren beharrasun, ta uts-eguiteric icusi nai; ta, dacustencan, ba-dute cer eraman oriequin vici diranac, edo oriec behartcen dituztenac.

2 *Virtute-dunen* icen ussá dutenac, ez-pa-dira osasun-tsuac, naguitcen dira, alferquerian daude cembait aldiz, ta ongui eguiñen diela, uste dutena-ren ondoan ibilli oi dira. Beren gaitzac baicic ceertan ez daduzcate; ta heren buruari ongui beguiratcen diote, baña beste-equin gogorrac dira. Guey-egui idurijtcen zaye bertceren edocein gauza. Batzuetan ez dute iño-requin hitz-eguin nai: guelan sartuac daude; ta, echeric ateratcen ba dira, arpegui illun bat-equin dabilza, ta bacarric; eta asqui da orduan norta-nai-gana urbilcea, bera bezain illun edocein uzteco.

3 Cer den ciñezco, edo eguiazco *virtutea*, ez daquien batec, icusten ba-ditu virtute-dunen icena duten oyetatic cembait, ba-zuen ere, utcico du laster, virtutea beretzat billatceco gogoa: bada usteco du, virtutearen videa artu ezquero, beharco duela bacartasuna artu bere laguntzat; ibilli beharco duela beti copeta, edo becoqui belz, eta bihotz illun bat-equin; usteco du, berequin ere ecin burutuz ibillico dela, ta, harequin vici diranai, eraman ala, ta cer-eguin gueyago eman bearco diela. Arquitcen ez-

pa-du ; dena den bezala , eracusten dio-
nen bat , ez du naico oñic sartu virtu-
tearen videan.

4 Onelacoen uts-eguiteac alde ba-
tera utciric, beguira zayezu behar beza-
la vici diranai. Vicitza galduaren essal-
qui gaistoa da gaistoen vicitza ; ez da
asqui , hau , edo hura behar bezalacoa
ez izatea , zu gaistoa izateco. Zu ona
ez-pa-cera, izan dedilla bestea nai beza-
lacoa , galduco cera. Galdu nai ez-pa-
dezu , eguizu , behar bezala , vici dira-
nac,eta virtute eguiazcoa, dutenac eguin
oi dutena. Jaquin nai ba-dezu , cein di-
ran oriec , atoz nerequin.

5 Jaincoa maite ez duenàc , ez du
Ceruco virtuteric. Beaharrean daudenai,
dezun , gucia emana garic , essaten du
San Paulo Apostolnac; emana garic gue-
ro,sutan erreteeco,cere gorputza , ez de-
zu ecer eguiten , maitatcen ez-pa-dezu
cere Jaincoa. Jaincoa maite duenac ez
du , dio berac, natural gogorra , edo ez
da natural gogorraren gogara vici: egui-
ten zaizcan charqueriac isillic daramat-
ci ; ez du besteren onaz arsecaberic : ez
da , behar ez den, lecuan sartcen ; ongui
ohatturic oña ezartcen du , sartcen den
le-

lecuan : ez du edoceín gauzac izutcen, ez dabil atſeguin , ta guſto billa ; ez dabil, erreca bezala ; aſſetretcen ez da , ez du uſte haren ondotic dabillela nior ; gaizquiric eguiten ez-pa-litzayo baño , gueyago ez du bere burua aguertcen ; eſſaten zayona berealà ſiñiſten du ; behar duen , gucia Jauna gandic izan uſte du; eguiten zayon , edoceín vide-gabe , edo donguequeri , ez-pa-liz bezala , darama. Hau da ciñez Jeſus maitatcea : hau da eguiazco virtutea-requin bat idirotcea.

6 *Guizon virtuteiſua*,edo Jeſus maite duena , ez dabil, behar ez dituen, lurreco gauza charren ondotic ; ez du colcoric ; ez du toleſturic , ez eta macurric ere : bihotcean daducana-baicic , ez du agertcen ezpañez : errai onac ditu gucientzat ; baña beretzat beti da gogorra; ez dio bat-ere bere buruari barcatcen: bere utſ-eguite , oquer-ibilliac aguercen ditu; baña ez ditu beſterenac aguertu nai. Ez dio iñori , zor zaion , begui-runeric ucatcen : guci-eqnin dator ongui ; nori nai , al duen , ona eguiten dio; ta, eguiten duena gatic, ez du nai ecer , edo ſariric artu nai ez du. Ongui vici da ; baña ehurçeric gabe,ta bihotz zabal bat-equin;

 be-

bere Jaincoa-requin ditu bere eguitecoac: ecin beltez sartcen da gañeracoetan; ta, oyetan sartua gatic, oroitcen da, beti ez-pad-ere, maiz, edo sarri bere Jaunaz. Ecin utzi ditzaqueen, gauzac eguiten ditu, beste eguitecoric ez-pa-lu bezala; baña estutasunic gabe. Alferqueriari ez dio lecuric ematen. Escuac beste gauzetan darabiltzi-encan, bere bihotza bidaltcen du Jaincoa gana, galdu ez dezan bere salvacioco eguiteco andia.

7 *Virtutetsuac*, edo Jaincoa maite duenac, bera dela, uste du den charrena: bera ez besteac ontzat daduzcat guciac, uste du, virtutez beteac daudela; bere-gan ez du ecusten oben, utseguite, ta culpa besteric; bada arquitcen ba-du gauza onic, Jaincoa-rena dela dio. Ecertan hura ez daducatenac, videgaberen bat eguiten dutenac dira harentzat adituenac, eta hura nor den, ezagutcen dutenac; bada ez du uste, edo ez deritza, iñorc onguiric eguin behar diola.

8 *Virtutezcoa*, edo Jaincoa maite duena, nai duen, gucia-requin arquitcen da; bada, duena baicic, ez du nai. Ongui ateratcen zaizcan gauzac ez arrot-

çen

ten dute, ta ez goratcen. Uste etzuen bezala gauzac atarea gatic, len cena gueldicen da, edo damu, ta illun-tasunic gabe. Bere Bihotza-ren Jabe da beti; ta edoceín gauza guertatua gatic, ez du len zuen atseguin ta baquea galcen: ba-daqui alabaña, ez dela guertatuco, Jaincoac gure oneraco eraguiten, edo uzten ez duen gauzaric. Eguiten dituen, gauz etan Jaincoaren vorondatea billačen du. Jaincoac nai duena eguiten du beti; ta beti nai du Jaincoac eguiten duena.

9 Ez du beguiratcen, eguin behar duenean bat, cein den eguin dezaquean gauzaric andiena; beguiratcen duena da, cein ote den, eguin dezan, Jaincoac nai duena: ba-daqui alabaña, Jaincoac nai duena, eguiten denean, andiena ez izana gatic, irabazten dela gueiena, eguiten bada, berac nai duen bezala. Eguin nai lituquean, gaciac utcico ditu, eguin behar duen gauzaric chiquiena eguitez gatic. Ecin eguin ba-ditzaque, besse combaitec eguiten dituzten, cembait gauza on, etzayo ecer; ceren daquien, nai izan valu Jaincoac, eguin citzan, eman ciola orretaraco behar zuen escua, ta indarra. Nai luquecana, da eman diozcan in-

dar-

darracez galtcea, eta eguin ditzala aguintcen diozcan gauza guciac ongui eguitea.

10 *Virtutez-coari*, guciac, edo gueyenac beintzat, ongui nai diote; ceren beti arquitcen duten bere-barecoa, ta modu onecoa. Maite duela Jesus, Jesusen Amari aico nai diola, ta nai, ta maitatce hau virtutez betericaco bihotcetic datozquiola, ongui agueri zaio, begui bilduetan, ongui ibiltce, ta, eguiten dituen, gauz onetan. Jauna maiz, ta ongui preitaturic artcen duela comunio Santuan, eracusten du bere egun-oroco vicitza obean. Cembat gueyagotan jauna ganatcen den, berriz, ta berriz bera ganatceco nayez, ta eresiaz gueldirtcen da. Egun oro non dagoen, obequi beguiratcen du, Elizan dagoenean. Ez dabill inguruca, Jaincoaren billa: zucen doa bera gana; ta, beretzat ecer gueldictu gabe, ematen dio bere bihotza, ta den gucia.

11 *Virtutez-coaren* asmo, ta gogoa da Jaincoari atseguin eguitea. Jaincoari beguira dago: ta dagoca beti galdez, cer nai duen, eguin dezan, hordu artan, egunean, urtean, ta vici gucian? Jaincoaren ontasunaz oroitcea asqui du hareu

ren amorez iracequia gueldítceço : ta ez du onic, Jauna-requin hitz eguiten ezpa-dago. Oroitcen denean, Jesus gureac gu gatic pairatu, edo eraman cituen nequec, icerdi, odolezco Pasio, ta etsiorzaz, damuz estutcen zayo Bihotza; ta ez daqui cer eguin, artara zuten gure becatu gaistoac deseguitea gatic. Erasortcen dio bere buruari, ta ez dio barcatcen Jesus-en contra eguin duen gaistaqueriric. Eguin dituenac gatic, eta berriric ez daguien, jana, ta edana urri, ta conduz ematen diozca; ta nequez, ta mortificacioz beteric, edo hildurazo-mendean darabil bere gorputza.

12 Onela vici dira Jesus maitatcen, ta eguiazco *virtutea* dutenac. Onelacoa da, Jesus maiteac eracusten duen, virtutea. Ez da, ascoc uste duten bezala, arpegui asierre illuna virtutea-ren arpeguia. Ez dutenac ere, nai-ta-ez ongui nai diote virtuteari: onesgarria da ala baña. Ez du onesgarri hau galtcen, haren jabeac, ufesgnite char, edo falta cembaitequin ciquindu dezan artean. Hitz eguin bezate nai dutenac urleguite, ta falta orien contra; baña virtutea-ren contra ez du iñorc, cer hitzic atera; badá berez virtutea beti da maitagarria.

13 *Virtutearen* jabetcea nequezco lana da : baña, gogotic artcen ez dutenentzat baicic, ez lan gogorra. Virtuteaz jabetu ciràn Santuac, noiz nai essan oi zuten, munduco arseguin guciac gatic, emain etzutela hordu laurden batezco virtutea-ren arseguiña. Lan,ta nequeric gogor-eneran arquitcen ciranean ere, izan oi zuten barreneco, ez daquit, cer arseguin ; ondoren beintzat ba-zuten; ta ambat andiagoa, cembat esturasun andiagoan ecusi zuten beren burua. Orregatic onelaco neque,ta lanen iguesi ibili ez ezen, berriac escatu oi cituzten, ta andiagoac. Siñisten ez duenac, ar beza eguiazco virtutea-ren videa, ta icusico du, cer guertatcen zaion.

14 Baña artcen ba-dezu virtutea-ren vide hau, etzaitecela, erdira zaitecenerco, necatu ta gueldi. Vide hau artu duten asco, essan dugun bezalaco, arseguin ta gustoric gabe vici oi dira. Cer gatic, uste dezu ? Ceren naguiac diran, ta dabilzan epel, ta erdizca bezala. Asitcen diranean, bero dira, ta, gueldítu behar ez duela, dirudic, acabatu artean; dirudic, arseden gabe igoco dirala virtutearen mendico erpiñerano: baña necat-

ten dira laster; itzulcen dituzte beguiac, utci dituzten azpico, edo lurreco atseguin, ta gauza char-etara; artcen dituzte, beera jaitsitic, guciac ez-pad-ere, cembait: abiatcen dira berriz virtutea-ren aldapara: badoaz ccarca mendi gañera: baña, erdira baño, len necatcen dira berriz ere; beera berriz beguiac; beguien ondotic gogoa; gogoa-requin batean oñac; eta azquencan, len bezala, lurreco gauza charren artean arquitcen dira, iraun ba-lue, videaren azquencan arquituco ciranac. Onela virtutea-ren mendico egalean gueldítcen diranac ez dute ezpañez ere uquitcen, gañean baicic arquitcen ez den, atseguin, ta contenturic. Igotzen ba-lira gañeraño, izain luquee, hara artean gueldítu ezziran virtutezcoac izandu zuten, atseguin, ta contentu gucia.

15 Guti dirala, uste dezu, *virtutea*-ren videa artua gatic, virtutea-ren atseguin, ta gusto-etatic bat-ere artcen ez dutenac? Ez bada, essaten dizu S. Francisco Salesf-ec: gucienac dira. Gucienac nai dute beren gogaraco, ta beren modutaco virtutea; ta onen ondoan dabilzaño, galtcen dute eguiazcoa. Berez illun, edo tristea denac, uste du, ez dela virtuteric,

eremuan, ta bacar-tasunean baicic, eta arpegui argui, edo humore ona duenac, ecin duqueala virtuteric. Anitz ec uste dute, baruac ateratcea, ta gorputza cilicioz, edo edocein videz hilduratzea dela eguiazco virtutea. Mezac enzutera, cembait hitzezco otoitz, edo oracio essatera, edo maiz, confessatzera eguiñac daudenac, virtute andicoac dirala, deritzate. Baña oriec guciac, eta beste gorputcez eguiñ oi diranac, virtutetic datozquean, edo virtute-en videan lagun dezaqueen gauzac dira, ez dira virtutea.

16 *Virtutea*, lembicían eracutsi den bezala, barreneco gauza da. Virtutea da macurrac zucendu nai bat, gure nayai uco eguin, ta Jaincoac nai duena eguitea. Virtutea da gueren buruai gaitzirizteа, ta Jaincoa bera, dena-gatic, eta Jaincoa gatic gure lagunac, eta urcoac maitatcea. Virtutearen mendi gañera igoco denac, utci behar du bere antustea, ta bere gucien gañean ibilli naia; ucatu behar diotza bere ecarrai, edo natural gaisstoari, escatcen diozcan, izacari charrac, eta ez du uzcur gueratu behar Jaincoari dagozcan gauzetan: eta egui-

tea

ten dituen gauza onac, eguin behar ditu, Jaincoaren naia, edo vorondatea eguitea gatic, eta beraren icenean. Hau da, Jaincoac escatcen duen bezala, bere gogoa autsi, ta gurutcea-requin Jesusen ondotic virtutea-ren videan barrena Cerura igotzea. Hau da Jaincoaren uztarrian lepoa sartcea; ta hau da eguiazco *virtutea.*

17 *Jauna, Jauna deitcen dioten guciac ez dira*, dio Jesus onac, *Ceruan sartuco: Ceruan sartuco dira, Ceruan dagoen, nere Aitac nai duena, eguiten dutenac. Anitz, eta ascoc, dio berriz, errain didate, Jauna; ez ditugu zure izenean etorquizunac aguertu?* Ez ditugu *vidaldu, zeduzcaten, gorpuz-etatic gaizqui-guiñac, eta Infernuco etsaiac? Eguin ez ditugu zure icenean, Jaincoaren escua zuenac baicic, ecin eguin citzaqueangauzac? Eta orre gatic ere, quen ortic, eranzunen diet nic: quen zaitezte ortic; etzaituztet ezaguteen.* Nola obequi aditaci cezaquean, ez dagoela *virtutea*, begniz ecusten diran, gaucetan; ta, andienac diruditenac ere, ez dirala ecertaco, barren onaren menticac ez-pa-dira; ta ez-pa-datoz barrengo, ta eguiazco virtutetic?

18 Ecertan batec bere burua ez idu-quitcea ; gogo gaiſtoac eſcatcen dion, gauzaric ez eguitea ; ta eguitea , Jain-çoac nai duen , gucia , da ziñezco , ta eguiazco *virtutea.* Hiru gauza oitaric edoccin ez-pa-du , eguiña gatic , Guizo-nac eguin ditzaquean, gauzaric arrigar-rienac , ez du virtuteric. Virtutez beteac egoteço , ez dugu cer gauza andien on-doan ibilli ; aſco da den charrena egui-tea , ori nai ba-du Jaincoac , eguin de-zagun.

19 Biz bada gaurguero zure eguite-ço gucia, zu gandic Jaunac cer nai duen, icaſtea ; ta , nai duela ezagutzen dezun, gucia eguitea. Ez dezazula bat-ere,eguin gabe , utci. Aſco zor diozu ; aguitz mai-te zaitu; eman dizu, dezun , ta galdu de-zun gucia ; ta zuri emateco dago, eſcat-cen diozuna. Ez hau gogotic utci ; ta, eroa ez-pa-cera , etzara Jaincoa-requin labur ibillico. Eſcatcen dizun , gauzaren bat eguiteco arquitcen ceranean , ecar-zu gogora , cembat neque-requin irabaci zuen , eman dizuna , ta emateco dagoe-na ; ta, amorez ez-pa-da , lorſaz bad-ere eguiñen dezu. Beguira; zuc Jaincoa ga-tic eguin dezaquezun gucia , Jaincoac zu

ga-

gatic eguin duenaren aldean, ecin agueꝛ ditequean, aurqueria da.

20 Ez da orre-gatic cer icitu: badaqui Jesus maiteac noraño luzatcen diran gure besoac: al eguiñac guc eguin ezquero, ecer eguin eza-gatic, etzaicu asserretuco; ta, asserretu lecuan, gure aldeegoin da, behar dugun guciraco. Eguin ala eguiten duen humea-requin, maite duen Gurasoa, ez da asserretcen, guti eguin duelaco, damua-requin ecusten duenean; hitz onaquin laguntcen dio, ta arintcen, astun daducan, bihotza. Gurasoric onenac humeari nai dion baño, anitz eta asco gueyago nai digu Jesus maiteac. Eguin ala baicic, ez digu escatcen: ori eguin ezquero, ongui artuco gaitu. Ecin gaudezque beti batean, emen gauden artean: berac nai duena eguitea gatic, ecusten ba-gaitu necatuac, lagunduco digu, bere burua ez aguertua gatic; eta emain dio, illun dagoen, gure bihotzari, behar duen, arseguin, ta arguia.

21 Bide hau artu ez dutenac, edo onetan arracasta dabilzanac, ez dute Jesus-en escu-emate, ta Ceruco atseguin andien berriric: ez daquite, maite dutenentzat cein ona den Jesus: *Quàm bonus est Deus dili-*

gen-

*gentibus se!* Ez dira ſayatcen, virtuteraco behar den, gucia eguitera : eguiten dituzte gogoac ematen diezten cembait gauza : cembait egunez ez dirudite diranac ; ez dira aſierretcen edocein gauza guertar ia gatic ; gauza onetan daramate egun gucia ; ta , Jaincoa-ren gauzac baicic, aditu nai ez dituzte : baña laster artcen dute leneco pauſoa: videac eman ezquero , ez daquite ucatcen beren buruari , eman oi dioten , atſeguin , edo gauzaric ; beguiac zabalduac darabilzte beri, al dutena ecuſteco ; ez dira arquitcen, ez pada berriquetan , edo jolaſcan; ecer ez bat aſco dute , barren gucia erretcen zayela , gueldirceco ; ta cer guertatcen zayen, icaſi gabe gueldiru oi dira azquenean.

22 Onela vici diranac, eguiña gatic, eguin oi diran, cembait gauz on , ez dute virtutearen videric , edo virtutearen mendico egalean inguruca dabiñza. Badute virtutearen azala , edo larrua : baña larru , ta azal utſa. Orrela vici dirañoa , eſſan dezaquee, bere Bihotceco amore andia gatic, maite dutela Jeſus ; eſſan dezaquee , damuz beterten zayela barren gucia , becatuen arantzaz ingurutua

ecuſ-

ecusten dutenean, Jesus-en Bihotza; baña orien maitetasun, ta damuac atseguin guti emain dioe, estu arquitcen den Jesus-en Bihotzari. Eguiten duten baño, gucyago eguin beharco dute, izain badute, Jesus gogoric maitatceco, behar den virtutea.

## §. IX.

## *JESUS MAITATCEAC DAcarcien ondasunac.*

1 JEsus-en Bihotceco nai, edo amoreari eranzutetic, atera oi den ondasunic andiena da, Jesus berac ecarri zuena, dirudien vicitza eguitea. Moldaturic uzten ba-dezu cere bihotza, ta Jesus-en Bihotzaren iduri, ta antzarequin; maitatcen ba-dezu, haren Bihotzac maite zuena; eguiten ba-dezu, eguin alean, Jesus onac nai duena, berac bere Aitac nai zuena eguin zuen bezala: camporic eguiten dituzun gauzac ba-dira, Jesus-ec eguin cituenen iduricoac, maite dezula Jesus, adi-razten dezu; ta arquitcen zara, Jesus-en Bihotza-ren devociotic ateratcen den, ondasun andia-requin,

2 Jesus-ec du Bihotz berach, humi-lla. Jaincoaren Bihotz eder hau beti ce-goen prest, bere Aitac aguintcen cion, eta nai zuen, gucia eguitcco; vici gu-cian egondu cen Jesus-en Bihotza gure oben, ta charquerien aranzaz pitia-tua; ta ala ere Pasioco nequeac, eta gurutceco eriotza zetozquion nayez, ta egarriz. Uzten ba-dezu cere bihotza-ren gagortasuna, ta burua goratu naia: arquitcen ba-cera prest, aguintcen zait-zun, ta Jaincoac nai duena eguiteco; maite ba-dezu gurutcea; edo, zu gatic ambat necatu cen, Jesus-en icenean art-cen ba-dituzu, gogo gaistoac nai ez li-tuquean, neque-icerdiac, maitetusanac dacarten alcarren iduri, ta antza-tequin daude zure, ta Jesus-en Bihotza.

3 Jesus-ec bezala, *bihotz bera hu-milla* du Jesus ona maitatcen duenac. Je-sus mundura baño len, onen berria zu-ten, Profetac esaten cituzten, ta banat-cen haren egoquiac; eta lembicico lecuan, cioten, izain zuela Jesus-ec *Bihotz* bera, isil-humilla. Legue zarreco gucietatic Moyses, ta David izandu ciran Jesus-en antza, ta irudi gueyen-ecoac: eta biac ciran humiltasun, ta mansotasunic andie-

na-

na zutenac : bada Moyses gatic dio Es-criturac, etzela arquitcen, hura baño, guizon berach, eta mansoa-goric : *Vir mitissimus super omnes, qui morabantur in terra* : eta Davidec Jaincoa gandic cerbait nai, edo uste zuenean, bere berach-tasuna aguertcen cion : *Memento, Domine, David, & omnis mansuetudinis ejus.* Jesus-ec berac essaten digu, icas dezagula haren *Bihotceco* berach-tasun, eta humil-tasuna; oriec dirala, nolacoa den, onguiena adiraztcn duten, virtuteac: *discite à me, quia mitis sum, & humilis corde.*

4 Jesus maitatceco, izan behar dezu nor-gana nai bihotz oneccoa : bestela ez da izain zure bihotza, Jesus-en *Bihotza* bezalacoa; ta, elcarren guisaco bihotzac ez dituztenac, ez dute maitatcen elcar. Bihotz on-bera duenac fite virtuteac beretuco ditu. Orretara bihotza ecarteco, nai etzenituquean gauz anitz eraman beharco dituzu. Jaincoa-ren icenean eramanaz, oitucu zara, gaizquiac, asaldatu gabe, aditcera, vidc-gabeac issilic ecustera, eta chaqueriai, charqueriequin ez, baicic al dezun onguia-requin erantzutera. Onelaco aldietan arpegui

 asser-

allerre, copec illun, ta begui urdin-zorrotz-equin gueldicen diranac, ez dute oraindic, Jesus-en onetsiac duten bihotz berach-humilla.

5 *Cerzaraco nai dago*, Jesus maite duena. Ezenuque zuc, maite zaituztela, sinistuco, hori diotenac eguin nai ez-pa-lute, zuc nai cenuquean gauzaric. Adisquide mamiac, eta maite diranen bihotzac, bihotz bat bezala dira: batac nai duena, nai du besteac; eta ez pa-du nai, ez da bat harequin; ez eta adisquide ere. Maite gaitu gu Jesus maita-garriac; guc hura maite ba-dugu, behar dugu nai, harc nai duena. Jesus bat da, maite duen, bere Aita-requin; ta orregatic nai du, Aitac nai duen gucia; naiez izain lizaque bat Aita-requin, ta ez nai ez-palu, ez izain lizaque bat Aita-requin, ta ez Aita maitatuco luque. Maite ba-dezu Jesus, bihotzez bloc bat izan behar dezue; eta bloc bat izateco, nai beharco dezu beti, Jesus onac nai duena. Jesus maite duenac aisa uzten ditu lurreco naicundeac; eta, naicunde char oiec utci dituenac ez du nai Jaincoa nai duena besteric. Gueroz aguin daquiola den gauzaric gogorrena; al ba-du, ez du eguin gabe, utcico. Jaincoac nai duela,

icasi erquero, ambat zaio eguitea gauza bat, nola bestea. Guerta bequio edocein gauza, nola daquien, gucia guertatcen zayola Jesus-en naiez, onzat artcen da. Guertatcen zaio beti nai duena; bada beti nai du, Jaincoac nai duena; ta onec nai duena baicic, guertatcen etzaio.

6 Lecuren bat, eguiteco-ren bat, edo beste edocein gauza cere anquetaz gogoan sarturic ba-daducazu, ez dezu naico, Jaincoac nai duen, gucia; zuc nai dezun eguiteco, gauz, edo lecu hori izain da, baintzat zure Jainco erdia, edo zure bigarren Nagusia; ta ecin eguin dezaque, dio Christo Jaunac, Nagusi onec, eta Jaincoac aguintcen duena. Ciñez Jesus maitatceco, galdu behar da beste gatzetaraco jaiera, ta amodioa; Jesus amatcen duenac, Jesus-en escutic datorrenaren beguira egon behar du. Gauza guciac utci artean Jesus-en escuetan, ez dezu izain atseguin osoric. Ez ta hori, lembicico, ta bigarren sciatu aldian eguin oi den, gauza: baña eguin dezaquena da; ta eguiten dutenac, arquitcen dute munduco ondasunac, eta atseguiñac baño gueiago valio duen atseguin, ta ondasun bat. Zori oneccoac orretaratcen diranac.

7 Jesus maite dutenac, *gogoan dutē beti Jesus-en nequezquo vicia.* Iracurtcen dituzte, ta ecusten ongui, haren eguicari santuac. Beren eguinquizun gucia eguiten dute, al-eguiñean, Jesus-ec eguin zuena bezala. Onetaco beguiratu behar zaio maiz Jesus maita-garriari. Maiz Jesusi beguiratce hau, ondasunac ugari dacartcien, beguiratcea da. Ezagutu ezquero, ambat zor zaion Jesus-ec ecin ecusi dituela bera maitatzea eragozten diguten, lurreco gauzac, seiatu behar dugu, guciac uztera, izan nai ez-pa-dugu esquer gabe char gaistoac.

8 Jesus maite duenac Jesus-ec eguin cituenen guisara, bere gauzac eguiten ditu, ta harc maitatu zuen gurutcea maitatcen du. Maite diranac, aguertcea-requin elcarri barreneco estutasun, ta nequeac, necatcen dira, ta estutcen. Ecin ecusi du Adisquideac, damuz, ta illuntasunez beteric dagoen, bere adisquidea, illuntasuna, ta damua bere bihotzera gabe. Jesus maite duenac, nequetan itoa bezala ecusico du Jesus-en Bihotza; baña itoa, berac nai dituen, neque-etan. Ecuste onec emain dio bihotzeco estutasun, ta damua; ta asqui da, Jesus neque,

ez gurutce naiez dagocla, ecustea, beraz ere nai izateco gurutcea, ta nequea.

9 Usteco duzu, onelaco Jesus-en Adisquide, eta onesle guti arquitcen dirala munduan? Besteric idurico lequizu, ba-cenequi, nola vici diran zu ez besteac, edo ba-cenequi cein asco, ta anitz diran, atseguin, ta gustoz beteac daudenac, zu izutcen zaituzten, neque-gurutcen artean. Nequeric ez izatea, eriotza baño, gauza gogoragoa ceritzan Santa Theresac. Santa Magdalena Pazis-ec eriotzean izan usle zuen gauzaric gogorrena cen, eriotz arequin batean, Jaincoa gatic necatceac ematen cion, atseguin, ta gustoa galtcea. *Jesus, gogo gucia gurutcean daducana icusteac, eguiten dit*, cion beraren maitatzalle batec, *gurutcea guztiz maitagarri; ta deritzat, gurutce gabe, ecin izan naitequeala dohatsua, zori onecoa, edo dichaz betea. Ez dut nai Jesus maitatcea beste atseguiñic, eta gustoric, vici nazan artean.* Arquitcen ez dutenac atseguin, ta gustoric, daramatzen, gurutze-neque-etan, ez dute maite, andiagoac eraman-cituen, Jesus.

10 Gurutce, ta nequeen iguesi dabilzan-etatic cembaitec uste dute, atseguin

guin gueiago artuco duela Jaincoac, haren icenean, ta lagunac garic eguiten badituzte, berenac utci, ta beste cembait gauza; baina ohartcen ez dira, eguiten dituztela, ez Jaincoa garic, baicic beren buruari gueiegui naiez. Jesvs maitatceco, eguin behar dugu, ez gogoac emaiten diguna, baicic harc eguin zuena, ta eracusten diguna. Jesvs maite duenac, maitatu behar du, harc maitatu zuen, gurutcea. Maiteago izain du gurutcea, gueiego Jesvs maitatcen duenac.

11 Ba-da oraindic, Jesvs maitatcen delaco, beste señale bat ere. Hau da, *Jesus-en gauza guciai, Jaincoa-renai bezala, nai, ta estimacio andi bat-equin beguiratcea.* Jesvs maite dutenai, ecusi orduco beraren edo-cein imagiña, lasterca, ta egaca doaquic bihotza, hura maitatzera, ta haren neque, ta Bihotceco estutasunaren damu andi bat artcera. *Jesvs* erran orduco; eztiz betcac bezala, gueldituzen zaizte ezpañac, eta bihotza.

12 Jesvs maite dutenac, Jesvs ecusten dutela derizte, beharrean edoccin ecus-dezáreneco; ceren daquiten, haren icenean dabilzala, eta eguiten zaien onguia, berari eguiña bezala dela. Erren

Gui-

Guizon andiai atseguin eguitea gatic, halacoen echean vici diranai, norc-nai eguiten die beguitarte, ta agur. Beharrean daudenac, eta esquean dabilzanac, Jesus-en echecoac dira: orre gatic zor zaie beguitarte ona, ta eman daqui-queena.

13 Jesus maite dutenac, ez dira beharrean daudenai al-dutena eman, ta beguitarte ona eguiña gatic asetcen; ascotan eguiten die, Jesus berā-ri eguiñen liqueena. Andiac, eta Erreguéac izana gatic, ba-daquite beharrean daudenen, ta esquean dabilzanen maiera, artu behar duten, janaria, ta edaria eramaten; ba-daquite beharsu gaissoen oñac garbitcen, ta orici, loiez beteric egona gatic, muñ eguiten. Norc ez-daqui, hori guzia eguiten dutela, beharsu-en Jabe ta nagusi den, Jesus maitea gatic, eta ceren asco nai dioten Jesusi?

14 Cein maite duen Jesus, ezagutu nai duenac, ecustea baicic ez du behar nola arquitcen den, aguertu ditugun, lau gauzetan. Cembat andiagoa den sugur pillaco sua, ambat luceago da, Ceruta vidaltcen duen, quea, ta garra. Cembat andiagoa zure bihotceco Jesu-en amorea-ren sua, ambat ulugo eguiñac,

obe-

obeac, eta andiagoac zure, su orrec eraguiñen dituen, gauzac. Su andi onequin arquitcen diranac ecusten ez dute lurrean, maita ditequeala derizten gauzaric. Itsusia iduritcen zaic lurreco edertasunic andiena Ceruco edertasunen aldean. Nondic lurra utcico duten, dabiltza, gogo gucia Ceruan daducatenac. Ceruco suac urtuaz darama onelacoen gorputza; ta amorez zoratuac bezala dabiltza, maite duten, Jaincoaren ondoan. Jan edanac, egon-ibilce, ta dituzten eguitecoac ez dira asqui onelacoai, sarturic daducaten, Jaincoa gogotic quentceco. Non-nai, ta beti dabiltza, nola maitatuco duten ta eguiñen bere Jainco maiteac nai duena.

15 Eguia da, onara baño len, igaro behar dirala asco lan, ta neque; ascotan autsi behar du nore bere gogoa, Jaunarena eguitea garic: garbitu behar du bihotza; ta utci behar ditu, Jesus maitatcea quencen dioten gauza guciac. Gai onetara igan nai duenac, ar-beza, eracutsi zaion, Jesus-en Bihotz maitearen devocioco videa. Vide onetaco gogortasunac leuntcen ditu, nai duenari laguntceco dagoen, Jesus-en graciac. Alda-

ßapan igatean erortcen ba-zaio infernuco odei belza, tentacioa-ren ura, garrata ſua dariola, zabaldua arquituco du igan artean, barrenean gordeco duen, Jeſuſ-en Bihotza.

# LAU-GARREN BURUA.

## Jeſuſ-en Bihotzaren maitazalleac urte gucian eguin behar dituzten gauzac.

### §. I.

**LENIC ADI-RAZTEN DA NOLA, TA** *cer gatic eguin behar diran, eguiten diran, gauzac.*

JEſuſ-en Bihotza-ren devocioa da, len eſſan dugun bezala, zor diogun amorea gatic Jauna gogotic maitat-

hapan igatean erortcen ba-zaio infernuco odei beltza, tentacioa-ren ura, garrtza sua dariola, zabaldua arquituco du igan artean, barrenean gordeco duen, Jesus-en Bihotza.

# LAU-GARREN BURUA.

## Jesus-en Bihotzaren maitazalleac urte gucian eguin behar dituzten gauzac.

### §. I.

### LENIC ADI-RAZTEN DA NOLA, TA *cer gatic eguin behar diran, eguiten diran, gauzac.*

JEsus-en Bihotza-ren devocioa da, len essan dugun bezala, zor diogun amorea gatic Jauna gogotic maitat-

ratcea, ta maitatce onec dacazquien gauz-onen presentac eguitea, ta dembora be-rean, gu ez uztea gatic, Aldarean eguiñ zaizcan videgabeen damu andi bat art-cea. Zor diozun amorea gatic bada, ta zu gatic daramana-ren alde, eguin be-har dezu, eguin-gogo dezuna. Ezagu de-zazun zu gatic eguin zuena, eguiten due-na, ta daramana Jesus onac, hitz bian bilduric emain dizut, len luzaroago era-cutsi nizuna.

2 Ecus dezagun onetaraco *bein* gu gatic Jesus-ec Aldarean eguiten duena; ta *guero* guc Jesusi eguin oi dioguna. Vo-rundate osoa-requin, edo nai gucia-re-quin esqueinteen digu Jesus-ec Aldarean bere gorputza-ren janari andia; baña edo nequez artceratcen gara, edo artcen du-guncan, izan oi da, ecin bestez, edo nai gabe bezala. Marric eztuen náia-requin maitatcen gaitu Jesus-ec; eta, ecer zor ez-pa-guenio baño, gueiago ez gara gu Jesus-ez oroitcen ere. Maite guituelaco señale bat escatu ba-guenio, escatu ga-be eman diguna baño, andiagoric ecin eman cezaquean. Gu gatic eraman dituen neque, icerdi, ta eriotz gogorra, maite guituela eracusteco diña ez pa lira bezala,

guei-

gueldïtu zaicu lurrean, dituen ondaiun, ta irate gucia-requin, gu gana etorri, ta gure bihotzean sartcea gatic: eta, sar-aldietan, arceco estaduan baguecunde, emaiten diguna baño, gueiago emain liguque. Non nai, edo edoccin ertitan, ta horduz arquitcen du Jesus, billatcen duenac. Ongui eguiteco, ez dio beguiratcen, escalleatcen andicasunari: den errumes-ena, edo niorc ez ecusi naiez dabillena, artcen du Jesus-ec, billatcen ba-du, bihotz onarequin, ta beste edoccin bezain ongui.

3 Baña nola eranzuten diogu Jesusen favore ecin gueyagoco oni? Aguitz gaizqui. Guizonen escutic artcen du Jesus ec conta ala, ta gueyago charqueri. Lembicico artu aldian, ciquinduric utci zuen Judas-ec bere comunio gaistoa-requin aldareco maya: ta cembat onelaco ciquinqueria ez ditu Jesus onac ecusten guerozțic? Anitz dira munduan, arpegui onarequin Jesus, Judas-ec beraia, saltcen dutenac. Asco dira confessioco iturrian garbiqueta iduri bat eguin, ta bihotz loi, ta galdua-requin comunioco mayera igaten diranac. Onelacoac favoretzat saldu nai dieztе Jesusi, Heregeen sacrilegioac adiña sentiteccoac diran, be-

ren

ren comunio gaistoac: bada Heregeen Sacrilegioac negarrez betetcen ditu Jesus maite dutenen beguiac, eta damuz, ta urriquiz bihotzac: eta onelaco urriquiac, damuac, eta negarrac arseguin eguiten diote Jesusi, eguiten zaizcan charquerien artean; baña comunio gaistoen charqueria ez da ecusten; ta ecusten ez den, videgabeac edo charqueriac ez du negarric eraguiten. Beste alde, guti dira comunio gaistoen orrembar berri dutenac; eta gutiago, horiec gatic daramazquien miñetan, beren damuz, Jesusi lagun eguiten diotenac. Eguia da, bi-etatic edoccin dela charqueri arrigarria.

4 Jaquiquerazco, edo chanzazco Jaincoa ba-liz baño gaizquiago erabilli dute ascotan Jesus Herege gaistoac. Quendu dute Eliz-etatic, Eliz-etan arquitu dutena. Urratu, ta erre dituzte anitz lecutan Eliz-etaco Aldare, ta Sagrarioac. Autsi, ta deseguin dituzte Mezaco Calizac, eta Comunioco Copoiac. Erabilli dituzte oin pean, eman diezte zacurrai bazcatzat, eta zaldaletzat manzdoai, Copoietan arquitcen cituzten, Forma consagratuac: eta, hau guti irittiric, onelaco cembait Forma Holandaco

He-

Heregeac iltzez josiric utci cituzten, gaistoac urcatu oi cituzten, toquian. Bruxelas, Borgoña, ta beste anitz bazter, edo alderan ecusi cituzten Heregeac, berac ezpata puntequin eguin ciezten zulocratic odola ceriela, forma santuac: baña, zacur amurratuac ba-lira bezala, gueyago berotcen ciran Jesus-en contra, edo-ccin onelaco gauza, edo milagro ecusteaequin; ta eguiten cituzten Jesus onarequin, infernucoac berac izutceco asqui ciran, gaucac. Sartu oi cituzten cembait aldiz, iraquiten cegoen, urcan. Barzuetan surtara botatcen cituzten; ta saldu ere ba-cituzten cembait aldiz: bai ta arru ere ecin essan ditezquean gauz-etaraco. Ay Jesus! ta ccin ona zaran, orrembat gu gatic daramazunean! Orra cer esquerrac, zor zaitzun, amorea gatic!

5 Ez ta izandu, zuci eguin zaitzunaren laurdenic ere ecusi duen Guizonic. Milla lapurqueri, ta beste ambesteeriotzen ondoan arrastaca urca bera doan Guizonac urricariz erdiratcen ditu, neque hartan ecusten dutenen bihotzac. Jesusen nequeac, Jesusi eguiten zaizcan videgabe, ta charquerias dira (diran andienac

nac izanic ere ), ez-pa-lira bezala, ecusi oi diranac. Arrizcoac dirudite gueyenen bihotzac; bada ez ditu beratcen, Jesusec dien, amoreac: ez eta berac-gatic eraman dituen neque izugarriac ere.

6 Jesus-en amore hau, ta one gatic Aldarean ecusi dituen charqueriac gogotic utci gabe, egon behar gucnuque, Elizan gauden gucian. Baña anitzec, onelaco gauzaric gogoan artu ere gabe, eguiten dituzte ango aldiac. Cembait, berriquetara, joan oi dira Elizara. Bartzuec, Jesus dagoen Aldarera baño, gueyagotan daramazte beguiac Elizan sartcen, ta ateratcen diranetara, edo bazterren batera. Besteac hitzquetan, ta galdeca daude; ta ez die uzten gauz onic eguiten Aldamanean daudenei. Anitz hume chiquiequin doaz Elizara, Elizaco guciac nastera: ta ez da faltaco, ecin essan ditezqueen, gauzac essaten, edo eguiten dituen bat, edo beste.

7 Onelacoric eguiten ez dutenac, errespetuzco edoceñ-equin egoin liraquean baño, lasai-ago egon oi dira Elizan. Mezacoan ere, ceccenetan arquitcen ba-lira, edo jostatcen dabilzan aurrai beguira baleude bezala, egon oi dira. Cer den Meza, edo certaco den oroitcen ere ez dira

gue-

gueienac. Mezan arquitcen den Jaincoaz, ez-paliz baño, caso gueiago ez dute eguiten. Ascotan belaun bat baicic lurrean ez dutela, edo jarritic, edo esseritic daude, an dauden Ainguerуac arrituac daducatcien Jauna-ren beguietan.

8 Jauna artu behar dutenean, certara doazen ez daquitela, dirudite gueienac. Erregue, edo Guizon andiren bati, icara daudela baicic, beguiratuço ez liqueenac ere ez dira izutcen, comulgatcera igotcen diranean; ogui zati bat artzera bezala, doaz, Erregue gucien Erregue, Jainco ta Guizon Jesus artzera. Ar dezateneco, Elizatic atera naiez daude: ta, an daudeño ere, cembait *Ave Maria* essaten ari dira, berequin ez-ba-lute baño, gueiago Jesus-ez oroitu gabe. Elizatic atera orduco, Jesus artu duen aoa-requin asitcen dira berric-etan, behar ez diran gauzac aguertcen, ta gaizqui moldatua, ta, cei gabea daducaten, barrenac dacazquien gauzac aguertcen.

9 Ba dira, maiz, edo ascotan comulgatcen diranac; baña, eguiten dutela, aguitz guti ezagun zaienac. Cer-gatic uste dezu? Ceren, oituraz bezala, comulgatcen diran. Behar bezala edo al egui-

eguiñean barrena virtutez apaindu-ric, artcen ba-lute Jesus, Jesus-ec utcico lieque, utci oi dien baño, ondasun ta gracia gueyago. Ez dute necatu nai bèren barrènac ustutcen, graciari onci andi bana eguiteco; ta, non utzi arquitu gabez, utcico lituqueen, gracia anitz utci gabe, doaquic, berequin iduqui duten, Jesus. Atoz ea; ta ez da sentitcecoa, Jesus maiz artcen dutenac, eta orre-gatic egun-oro gogotic-ago maitatu behar luqueenac, onen guti Jesus maitatcea? Berandutic berandura baizic comulgatcen ez diranac, maitatce onetan orzac, edo epelac izatea, beréz datorren gauza da; bada neguco izotz, eta elur artean vici diranen gorputzac bezain, otzac dira, Ceruco graciac berotcen ez dituen, bihotzac; eta negu otzean bein, edo berriz baicic suaren ondoratcen ez diranac, otzac oi daude. Arritceco den gauza da, su andiaren ondoratzea bat ascotan, ta orre-gatic ere beti otz egotea: Hau da maiz edo sarritan comulgatzen diran ascori guertatzen zaiena; bada Jesus-amorez su, ta gar eguiña dagoen Jesusen *Bihotz*-ceco labean sartua gatic cembait ez dira erreteen, ez eta berotcen-ere.

Ot-

10 Otzago gueldicen dira, asa oriec, nola bacan su hau artcen dutenac, su onen ondorartcea baicic, eguiten ez dutenean, edo, noiz-ean bein baicic, Elizan sartcen ez diranac. Ecin beſtez bezala joan oi dira oriec Elizara. Dioaz-enean-ere izan oi da, nora doacen, norequin hitz eguitera, edo certara, beguiratu gabe, Sartcen dira Elizan, adiſquide baten echean bezala. Adiſquidea-requin balende bezain, ajola guti-requin daude beren Jauna-requin. Beguien arinquerian, errespetu gutico egotean, gogoa non nai erabilteean, ta eguiten dituzten beste aſco utſ-eguiteran aditzera ematen dute, ez dituztela beren barrenac berotu, ta etzituela Jeſus maitatu naiac ecarri Elizara.

11 Aldarean ba-lego Jaincoa, Legue zarrean eracutſi oi zuen mageſtade, ta gogortaſuna-requin, obequi beguiratuco guenuque, nora goazen, Elizan ſartcen garenean-beldur gueiago-requin artuco guenuque, comulgatcen garanean, ta ez guiñaque ibillico, gabilzan bezain, laſai. Utci-raci diozca leneco gauza izugarri guciac guri ongui naiac: orre gatic maitatu behar guenuque anitz gueiago

Jesus : baña gutiago maitatcen dugu. Ah! cein andia den gure , Jesusi zor dogunaren , ezaguera-gabea ! Ah! cein gaizqui eranzuten diogun Jesus-ec digun amoreari!

12 Corpus Christico egun-etan ateratcen du Elizac Jesus , apainduac dauden , cale-etan barrena , Elizan bezala, cale , ta bazter gucietan ezagu-dezaten guciac beren Erreguetzat , Erregueri, zor zaion bezala , agur daguioten , ta maita dezaten , diranac. Baña cer guertatcen da ? Heregeen escutic artu dituen vide-gabeac, injuriac,gaistoen comunioac eta Elizaco charqueriac asqui ez-pa-lira bezala , charqueri berriac eguiten zaizca, honra ta amore utsferaco Elizac bereci dion egun onetan ere. Hala beràc aditcera eman cion , Doña Sancha Carrillo ceritzan , bere maitatzalle andiari.

13 Ezijaco Errian Corpus Christico processioa cebillen batean , nola uste dezu , aguertu cela Jesus Doña Sancha-ren begui-etan ? Gurutzean jostera Jerusalengo Cale-etan barrena eraman zuten guisan , arantzez burua beteric , eta gurutze sendor bat bere soñean ceearrela. Arritu cen , Jesus ala ecusi au-ncan, ta, no-

ia Jauna, galdetu cion, ecusten zaitudan ichuran zu, egun bezalaco eguncan? Bai, Sancha, eranzun cion Jesus maiteac; eta beguiac estaltcen ciozcan, ta, odolez betea cegoen, buruco illea aldaratu, ta eracutsi cion arpegui gucia odol eguiña, ta essan cion; ona nola uzten nauten egun oietan, Heregeric ez den bazter oitaco gendeac ere. Orra cer egunac neretzat Corpus Christi egunac.

14 Egun onetan bada, ta urte gucico egunetan Aldareco Sacramentuan eguiten zaizcan vide-gabeen alde eguin daquion, atseguin baicic emain ez dion, cerbait, bereci du Jesus onac bere *Bihotza*-rentzat urtean egun bat. Egun bara ta urrengo zazpiac Jesus-en gorputz Santuaren egunac dira, ta beste hau *Bihotza*-ren eguna da. Egun aietan, ta urte gucian eracusten ari da, digun, amorea. Egun onetan guc hari eracustea nai du, berea-ren al-de dioguna; ta eracustea, Ceruco guciac, eta lurrean diranac ezagu dezaqueen videz, ta moduz.

15 Ciñez ta bihotzez maite dutenac Jesus, egun onetan eguin behar dute maitatzc onec escatcen duena, edo al daguiten gucia. Nai ba-dezu izan maitatzalle

 oita-

oitatic bat, damuz, ta urriquimenduz beteric egon behar dezu egun onetan, oraindaño eguin zaizcan charqueri, ta vide-gabeac garic; eta vide-gabe, ta charqueri guciac ecin ito dioten zure amoreari amorez eranzuten. Hori bera gogoan daducazula, eguin behar dituzu, eguiten dituzun, comunio ta gañeraco gauz onac. Egun hau ongui igarotzea, izan bedi, guisa berean guero urte gucico gauz onac eguiteco. Ez daquizula gogotic erori Jesus-ec zu garic eguin ta eraman duena; ez eta bihotzetic ere eguin zaizcan charquerien damua, ta zor diozun amorea; nai ez-pa-dituzu, ortic datocen ondasun andiac galdu.

## §. II.

## *JESUS MAITE DUTENAC urte oro eguin behar dutena.*

1 ONgui izateco, Jaincoaren icenean, ta gure Jauna gatic eguin behar dugu, eguiten dugun, gucia; ez da halabaña Jaunari zor ez diogun gauzaric. Gauzac bezala, egunac ere, Jaincoa-renac dira: ez da bat, ongui igaro behar ez denic. Ba-dira

orre gatic ere urtean cembait egun, bestéac ez bezala, igaro behar diranac: badira-igandeac, ba-dira jaiac; eta jaien artean ere cembait, besteac baño, andiagoac. Onelaco-etan nai du beste-etan eguiten ez ditugun, cembait gauza guc eguitea, edo, gutienean, eguiten ditugunac, len baño, obequi eguitea. Lenaz gañera bereci digu bat; hau da Jesus-en *Bihotza* rena: ta hau da gañeracoac baño obequiago igaro behar lizaquecana, lenagoco-etan eguin ditugun utsac ateratzen ditugula.

2 Corpus Christico egunetatic batean Aldareco Sacramentua beguietan ceducala cegoen, len essan dugun, Serore, edo Monja Alacoque oni Christo Jaunac aguerturic erran cion, zor cion amoreari eranzuteco, etcela, ambat aldiz escatu cion, gauza eguitea bezalacoric. Aguertu cion guero bere Bihotza; ,, *ta ona, essan cion, ecin gueiago guizonac maitatu dituen* Bihotza; *ez die ecer gorde, ustu, ta aitu bezala da, dien amorea eracustea-gatic; eta cer uste dezu zor dielaz gueienai* esquerric asco *bat-ere ez; ta, esquerrac eman, ta zor didatenari eranzun beharrean, charqueriz, esquer*

*gaistoz, ta sacrilegioz beteteen naute: ta damuric gueciena ematen didana da, oiea-tic cembait anitz guciago zor didatenac dirala, ta ni-ganaco obligacioz loturic daudenac. Orain nai dudana da, egun bat* Bihotz *onen honraraco; ta izan bedi Corpus Christico zortzi eguneen ondotic datorren, bostirala. Egun onetan eguin behar da, Aldarean dago-enetic eguin zaizcan vide-gabe, ta injuri-equin quen-du zaion honraren alde, comunio bat. Ne-re contu, zabalduco dela* Bihotz *hau, es-catcen dudana eguiten dutenac ondasunez beteteco.*

3 Ondasun oec bada egun hartan ira-baci nai ba-dituzu, eguin behar dituzu orain eracustera noan gauza guciac, edo al dituzunac. Asi zaitez lenagoco arrats-aldetic, bigaramuneco behar dituzun, gauzac prestatcen, edo, Jaun andia art-ceco dagoen, cere barrena apaintzen. Ez dezazula, iracurri gabe, utci, cer den Jesus-en *Bihotza*-ren devocioa adirazten duen libru onetaco leeu bat, edo beste. Arrats-alde berean zoaz Elizara; ta zau-de an, al dezun horduraño, Jesus ona-requin; ta, etcin baño, len iracurri za-zu, iracurtcen zaudena baño len arquit-cen den §.

Egun

4 Egun hau ongui igarotceco, behar da barren bildua. Barrena bilceco, utci behar dituzu lenagoco egunetic, utci ditezqueen, ibillera, diversio, ta hitzquetac; eta arratsean zaude hordu laurden bat, bigaramuneco gauzen neurriac artcen. Ercitera-coan escatuco diozu zurequin dabillen Ainguerüari, dagoela goizeraño Elizan Jauna-requin zure oñ-orde, ta partez; ta erra-iozu Jaunari, loo beharric ez-pa-cenu, ta al-ba-cenu, egoin ciñaqueala zu ere, Ainguerüai lagun eguiten, ta berà-requin gau gucian. Eguizu VI. §. arquituco dezun bost-garren otoitza. Belaunac lurrean dituzula, ta, burua beitituric, escatuco diozu Jesus onari, dizula bere bendicioa, ta gava ongui igarotceco behar dezuna. Lotaric esnatcen ba zara, eguiozu agur Jesus onari; ta adora zazu haren *Bihotz* maita-garria.

5 Alic osoena eman behar zaio Jesus onari urrengo bere eguna. Ez dezazula egun onetan artu, utci ditequean, lan, edo eguitecoric: ez eta alterquerian ere galdu egun onen hordu, edo zatiric. Jaiqui zaitece-neco, zoaz gogo gucia-requin Jesus-en oñetara; eguiozu agur, edo

ado-

adora zazu. Zor diozun guciaren alde, ta dizun amore andia gatic esqueñi, edo ofreecituco diozu egun hartan eguin behar dezun gucia; ta escatuco diozu, lagun diezazula, dena ongui eguiten.

6 Prestatuco zara Confessio on bateraco. Artuco dituzu, al dituzun videac, egun hartarraño eraman dezun baño, damu ta urriquimentu gueiago eramateco Confessorea-ren oñetara; ta ez da cer utci confessatu gabe Elizan eguin dezun uts-eguiteric, chiquia izana gatic ere.

7 Egun hartaco Comunioan atera behar dituzu, leneco-etan eguin dituzun, utsac. Ori eguin ezean, izain cenituque uts-eguite berriac, leneco-etan baño beguiratce gueiago ez-pa-cenerama. Ongui comulgatceco, eguizu, maiz comulgatcea-ren gañean iru-garren Burua-ren VII. §. eracuiten dena. Bere uts-eguite andiac lotsatua daducatena bezala, joan behar dezu Jauna artcera; ta joain zara, Comunio hartan atseguin andi bat Jesusi emateco naiez beteric. Oroituric guero, gu maitcea gatic, Aldarean ecusi dituen vide-gabezco gaucez, eguin behar dezu contu, asserre dagoela Jaun andi hau, ta gozatcera zoacela cere comunioa-requin;
bai-

bai ta cere Redentore ona ateratcera be-
zala-ere, behar ez bezala darabilten He-
rege,ta Christau gaistoen escu-etatic. Zoa-
az dembora berean cere contra daduca-
zun Jaincoa-requin baqueac eguitera, ta
berriz asserre dezaquean gauzaric ez egui-
teco asmoa-requin. Artuco dezu Jesus,
nor artcen dezun daquizunac bezala;er-
ran nai dut, beldur ta humiltasunez be-
teric;eta, artu ondoan, essain diozu,
maite duen bihotzac eracusten duen gu-
cia.

8 Eguizu guero al eguiña ezagutcea
garic, cerequin daducazun, Jesus-ec di-
gun amorea, ta gure har ganaco oztasu-
na. Ezaguera onec dacarren damuz bi-
hotza beteric, escatu behar diozu, dizu-
la, digun amoreari eranzuten ez diote-
nen icenean eguin ala eguiteco gracia.
Daramatcien esquer-gabe, ta charque-
riac bihotza erdiratcen dizutela, hertari
adi-razteco, essazu guero VI. §co lem-
bicico otoitza; charqueri, ta esquer-ga-
be tasun horien alde, emayozu cere bi-
hotza, cere anima, ta zaran gucia, an-
go bi-garren oracioan eracusten den
bezala.

9 Goiz hartan gucienean, edo al de-
zun

zun gucian egon behar dezu Elizan : ta, zauden lecuan, egon zaitez, Jesus maitatcen, ta gogotic utci gabe ; ta eguiten dituzula, al dituzun gauza on guciac.

10 Arratsaldean iracurri behar dezu, Jesus maitatceco, zure bihotza bero dezaquean cerbait, edo, daquizquitzun gauzac gogoan arturic, egoin zara Elizan, zure amoreac hara ecarri duen, Jesus onari al dezun gucia bihotzez esaten ; ta, bihotzera Jesus-ec esain derezquitzunac, aditcen. Baña ez da cer utci orre-gatic eguin oi dituzun beste egunetaco devocio, ta gauza onac.

11 Zoaz gutienean bost aldiz egun onetan Elizara. *Lembicico* joan aldia izain da, Aldarean gueldítcea-requin eracutsi cigun ongui nai, edo amorearen esquerrac ematera. *Bi-garrena*, eguin ditugun comunio-etaco favoreen, ta orduco ondasunen esquerrac ematera. *Hiru-garrena*, ezaguteen ez dutenen escutic artu dituen, ta Herege gaistoac eguin diozcaten vide-gabe, ta injurien damu andi bat eracustera. *Lau-garrena*, gaizqui comulgatcen diranac, eta gañeracoac Elizan eguin dituzten sacrilegio, ta gauza gaistoen alde, guciac urratceco, nai ta deseo baten

pro-

presenta eguitera. *Bost-garren* aldian jo-ain zara, Elizan ecusten dituen bacartasu-netan Jesusi laguncceco naicz beteric; bada gueyen-etan ez-pa-liz bezala ureiric daducate gendeac; eta ecin bestez Eliza-tatcen dira.

12 Egun onetan, cembaitec ecusi oi dute Jesus Errico Eliza gucietan; gucie-tan artu dituen vide-gabe, ta injurien da-mua gucietan Jesusi eracustea gatic. Ba-dira, beharrean dauden cembaiti Comunio Santua, egun onetan ar-erazten dienac, no-la eguin behar duten lenago eracutsiric: becomulgatu ondoan bidaltcen dituzte, be-re beharra arintceco, cerbait emanic. Beste anitz prestatcen dira cembait baru, cilicio, ta gorputzaren neque-requin. Gueyena eguiten dutenac ere, egun hau ongui igarotcea gatic, ez dute eguiñen gueyegui: bada egun hau, ecusi degun bezala, beste eguneran beste guciac eguin dituzten, ta guc eguin ditugun utsac ate-ratceco eguna da; ta gure, ta gu-cien utsac, uts asco, ta an-diac dira.

§. III.

## §. III.

## ILLORO EGUIN BEHAR *diran gauzac.*

1 ILlaren lembicico hostirala ere Jesus-en *Bihotza*-ren eguna da. Egun onetan eguin behar dituzu, beraren egun-eraco bereci ditugun, gauzac, edo gauz-etatic eguin ditzaquezunac. Oste-gun arratsaldean iracurri zazu lembicico §. ta zoaz dembora zati barez Jesus-ec-quin Elizan egotera. Hostiral goicean, jaiqui horduco, eguin behar diozu, maite zaituen Jesus-en Aitari, bere Semea-ren honran, ta icenean egun hartaco zu-re gauza gucien presenta. Zoaz al-bait las-terrena, Aldarean eguiten zaizcan char-querien damua eracustera, ta dizun amo-re andiari, al dezun videz eranzutera.

2 Confessa zaitez, Elizan eguin dituzun, ta gañeraco uts-eguite ta culpaz. Ar-tu zazu Jauna, lenagoco zore, ta besteen comunio-etan eguin diran uts-eguiñen alde; ta esca zagozu, cerequin daducazu-nean, becatu berriric ez eguiteco, ta ci-ñez bera maitatceco gracia. Erraitzu gue-

ro

to bihotz osoarequin VI. garren §an. arquitcen diran *lembicico* ta *bi-garren* oracioa.

3 Hordu bat, edo beinzat erdia, eguizu arratsaldean Jesvs ona-requin Elizan. Ez da cer utci, Jesvs ecustea gatic bost aldiz Elizaratcea: ta zoaz lenagoco §. eracutsi dena gatic.

4 Eguin oi dituzun gañeraco gauz onetatic, ez da cer bat-ere utci; ta al-ba-dezu, ema-iozu cerbait behartean dagoenen bati.

5 Zabiltza egun gucian, eguiten zaizcan, charquerien artean Jesvs onac *Bihotz-ean* daducana gogotic utci gabe. Amorez betea dagoen Jesus-en *Bihotza* gogoan artu ezquero, arrizcoa ez-pa-da, berotuco da zurea, bera maitatceco. Cembat gueiago maitatcen dezun, ambat gueiago zorco diozu; bada, aciaz badoa zure ar ganaco maitatcea, emanaz joain zaitzu Jesvs ondasun berri andia-goac.

6 Zuc bezala, bera maitatcen dutenac gatic, escatu behar diozu Jesvs onari: maitatu behar dute halabaña elcar, Jesvs maite dutenac; elcar maite dutenac, lagundu behar diote elcarri; ta ez da, Jauna gandic elcar-enzat Ceruco gracia,

ta

ta ondasunac ateratcea bezalaco, lagunt-ceric. Mezacoan bada, ta Comunio santuan esca zagozu Jesusi, egun oro maita dezatela gueiago ta gueiago, bein maitatcen asci diranac; eta ar ditzala milaca egun oro bere maitatzalle berriac. Arte-çen dituen guciac escatuco diote guero zuretzat; eta gueiena maitatcen dutenac gogotic-ago. Orre-gatic ceretaco ari zara, beste gatic escatcen diozuncan Jesusi. Oro bat irabacico dezu, egun onetan, ta beste edoceiñ-etan, escatcen ba diozu Purgatorioco suan erretcen dàndènac gatic: bada bèrac ere beren aldetic eguiñen dute zu gatic al dutena, ta escatuco diote behar dezuna; ta, zuc baño, gogotic-ago, ala suan dauden artean, nola guero Ceruan; ta lagunduco dizute, vici zaraño ez-ecic, Purgatorio-ratcen ba-zara, han zauden artean.

7 Lembicico ostiralean ecin daguiqueanac, eracusi duguna, eguin dezaque urrengoan, edo beste edoceìn egunetan; ta, bein baño, gueiagotan eguiten dutenac illean, maitcago dutela Jesus, aditcera ematen diote, ta egun-oro doaz, Jesus-en *Bihotz*-ean barrenago sartceco, beren bihotzac prestatuaz. Egun-oro egui-

ten

ten ba-cenu ere , zor dezun baño , guciago eguinen ecцenuque ; bada zor diozu zure Jesusi egun , ordu , ta instante-oro, dizun, amorea. Guciagotan ez-pa-da, ez-da , eracutsi zaitzuna , illean bein bad-ere , eguin gabe cer utci.

## §. IV.

### *HASTE ORO EGUIN BEHAR ueza.*

1 HAsteco egun guciac dira onac, Jesusi zor diogunaren alde, cerbait eguiteco ; baña gucien artean ez da orretaraco ostirala bezalacoric. Ostiralcan gu gatic asco eguin , ta eraman zuen Jesvs maiteac ; eta eguin , ta eraman zuenari eranzun guenioзan damuz, ta amorez , berecia bezala utci cigun orretaraco ostirala. Eguizu bada ostiraletan zor onen alde cerbait guciago : ta, eguiten dituzun , gauzac eguiñen dituzu, gañeraco egun-etacoac baño , obequi beguiraturic.

2 Comulgatzen ez-pa-zara , zaude Mezacoan , beste egun-etan baño , atencio , ta arreta guciago-requin. Esca za-

go-

gozu Jaunari lenagoco utſ-eguite, ta vide-gabe gucien barcacioa; ta utzajozu Meza gucia Aldarean Jeſuſi eguin zaizcan charqueri, ta injurien alde. Apaizac Jauna arcean, gogoz, ta deſeoz artu zazu zuc ere: ta eſca zagozu, dizula, harc bezala, artzen ba-cenu, irabacico cenuen gucia.

3 Egun gucian oroi zaitez Aldarean Jeſuſi zor diogun amoreaz. Ez gaitu berac gogotic uzten beiñere; ta gure artean ba-dira, haſte gucian bein, Jeſuſez oroitzen ez tiranac. Oroitzen diranetatic guti dira, behar bezala, edo eguin alean maitatze dutenac; eta gucienac gaiſtaqueriz eranzuten die Jeſuſ-en eſcutic artu dituzten ondaſunei. Oroitze onec emain dizu, batetic Jeſuſ-ec daramatezien penen miña, ta beſtetic bera maitatzeco gogoa.

4 Zoaz, *joan zaitezquean gucietan, Jeſus Elizan ecuſtera, edo viſitatzera: ta zure viſitac, eta ecuſteac izan bitez, Jeſuſ-ec eraman dituen nai-gabeen alde, zor diozun amore andiari eranzutea gatic, eta bere bacartaſuneam laguntzecoetan. Nai adiñ ecin ba zoazque Elizara, bidaldu behar dezu gogoz, zauden coquitic,

tic, cere bihotza, Aldarean dagoen Jesus-en *Bihotz*-eraño, beguira diezagon ongui, ta icas-dezan, nola egon, nequez ta nai gabez beteric dagoenean. Noiz-nai hau eguiteco asqui da, cere bihotzaz, behar ez diran gauzen ondotic ez dabillen, contu iduquitzea: bada, banaturic ez dabillen, bihotzac laster icasico du, noizean bein Jesus-en *Bihotz*-ari beguiratzen ba-dio, nola nequeac, asaldatu gabe, eraman, ta nola gaizqui-guilleai amorez eranzun.

5 Ez doaquizula egun hau, beste-etan eguin oi dituzun gauzez gañera, eguin gabe, bat, edo beste. Artu zazu, zu garic necatu-den Jesus-en icenean cerbait hildura, edo mortificacio, edo emayezu beharrean dandenai al dezuna. Jesus-en *Bihotza*-ren devocioac escatcen duen damu, ta amorea-requin egun hau igarotzeco, iracurri zazu orretan lagunduco dizun, ta emen arquitcen diran, gauz-etatic bat, edo beste. Zaude guero hordu erdi, edo beintzat hordu laurden bat, Jesus-en amore-nequeac gogotic utci gabe.

## §. V.
## EGUN-OROCO GAUZAC.

1 JEsus-en escutic egun-oro artcen ditugun onguite andiai, ongui izatceco, egun-oro nolere bait eranzun behar diegu. Jaiqui zaiteceneco, asco Santuc eguin oi zuten bezala, jarri zaitez belaunico, Jesus Sacramentarua dagoela, daquizun Eliza-ren alderat arpeguia itzuliric. Han ba-ceunde bezala, adora zazu, buru ta bihotz gucia-requin; emaile-catzu alic onguiena, beste bera gandic artu dituzun ta Sacramentu onetan eguin derez-quitzun favoreac garic milla esquer. Zuri ongui eguitcea garic, ecusi dituen nai-gabe, ta charqueriac garic eracutsico diozu damu andi bat; eta escatuco diozu, eracutsi, ta lagun diezazula bera maitatcen. Guciac ongui eguiteco gogo andi bat-equin utcico diozcatzu Jesusi bere escuetan, egun hartan eguin behar dituzun, gauza guciac; eta escatuco diozu, ecertan uts eguin gabe, eguna igarotceco gracia.

2 Mezan egoin cera, cer den, ta certaraco, daquiena bezala. Gauza oiec, eta

nola enzun behar den Meza, aquituco dituzu Libru onen Iru-garren Buruco pag. 209. Icara bezala dauden, Aingueruz inguratua dagoen Jesus, Ceru ta lurraren Jabea-requin zaudela, gogoan artzea asco da, zu Mezacoan behar bezala iduquitceco.

3 Arratsalde-etan bacarric egon oi da Jesus. Eguitecoen artetic atera al-bazaitez, etzaitecela, Elizara gabe, gueldi beñere; ta eguizu han Jesus-equin al dezun dembora: ta esca zagozu, artu dezunaren esquerrac eman ondoan, behar dezun gucia. Ez dizu ucatuco, ez, ongui dagoquizun, ta gogotic escatcen diozun, gauzaric.

4 Etziteracoan ecusico dezu cer eguin dezun egun gucian; lagundu dizuna gatic, emain diozcatzu esquerrac Jaunari: ta, urrengo aldian erneago ibiltceco asmoa-requin, escatuco diozu barca diitzala zure uts-eguite guciac. Han eguin ondoan hiru *Ave Maria* essan oi ciozcan Jesus-en Amari San Luis Gonzagac; eta escatcen cion bere *Bihotz*-eco amoreagatic Sacramentuan dagoen Jesus onari, ar citzala bere contura Elizaco guciac, eta gucien artean gucyena bera maite zu-

tenac. Etzuqueala nai, cion, Jesus-en *Bihotz*-can baicic loric ere eguin: *in pace idipsum dormiam, & requiescam; id est in te uno summo bono.*

5 Jesus-equin egotea gatic, Elizara joateco gogoa-requin arquitzen bazera, ta Jesusi eguiten zaitz-can charqueriac ceretzat artcen ba-dituzu, adi-razten dezu, nai ceniqueola zor diozun amoreari amorez eranzun. Zure Jesus ganaco nai ori aciaz doan bezala, aciaz ta anditu az joainda, haren *Bihotza*-requico zure devocioa. Devocio onequin arquitcen zarala, ezagu dezan mundu guciac zoaz alic gueyenetan Jesus Elizan ecustera; zaude han, norequin zauden daquizuna bezala, edo beguiac lurrean daduzcatzula, ta bihotza Jesus maitatcen. Eraman behar dituzu al dituzunac, oro bat eguitera: bada Jesus maite duenac nai du, ezagu dezaten guciac, eta maitatu berac bezala.

## §. VI.

## *JESUS MAITE DUENAC eguin ditzaquean cembait erregu, otoiz, edo Oracio.*

LEMA

# LEMBICICOA.

## JESUS-EN BIHOTZ-AREN *egunean, ta illaren lembicico ostiraletan eguin behar dena.*

1 GUre amorez urtcen zauden, urricari gaituzun, gu ondasunez bete naiez zabilzan, ta zaran gucia ar zaitzagun, nai cenuquean, Jesus maitagarria! Eun milla bider, ta gueyagotan egun oro gure zorren alde, Mezatan cere Aita-ren beguieta-ratzen zaran, Jesus, gure Jaun ta Jabe maitea! Cer deritzazu, zutaz azturic vici diranen bihotceco gogortasunac? Etcen asqui diguzun naia, ta amore andia bein guri eracustea? Certaco da, Jesus gu bezain esquer gaistozco batzuec garic odolezco nequez, ta icerdiz beteric vicitcea? Etcenequien cembat injuria, cembat charqueri ecusi beharra ciñan, Aldarean gurequin gueldiru ezquero? Ori gucia cenequiela, gueldiru ciñan, ta zaude gurequin. Ah! ta cembat zor dizugun, Jesus ona!

2 Onà ni beintzat, Jesus, Heregeen, ta Christau gaistoen escuz eguin zaizquitzun, charqueri, ta sacrilegioen damuz beteric zure oñetan! Ay Jesus! orren gaiz-

qui

qui erabilli zaitu dalaco damuz erdira ba-lequit bihotza! Negarrez, edo nere odola-requin garbi al-ba-nitza eguin zaizquitzun vide-bagueac ciquindu dituzten bazterrac, pocic emain nuque dudan Gucia. Gueldi bitez arren barcatuac, Aldarean gueldîtu ciñanetic orain daño ecussi dituzun, charqueri, ta uts-eguite guciac! Munduco bihotzen Jabe ba-nintz, diranac ecarrico nituque zure oñetara, uts-eguin dutelaco damuz urratuac.

3 Baña ay! Certan nabil ni besteren utsac, edo charqueriac ecusten? Ez naz ni gaizqui-guille gaisto-etatic bat? Ez naz ni beste anitz bezala vicitu, Jesussi Aldarean zor diodanaren berriric ez banu bezala? Ascoc baño gueyago zor diodala, ez naz ni, besteac bezain labur Jesus ona-requin ibilli? Ala da Jesus, ala da: ta ori da, odei beltzez estalia dagoen gava bezain, illun nere bihotza daducana. Ez daquit cer eguin nezaquean onen labur, ta gaistoa zurequin nazala oroitceac ematen didan neque petic, nere burua ateratcea garic. Erre nazazu Jesus; urra nazazu, edo eguizu nitaz nai dezuna; ta barcatuac gueldi bitez orain daño co nere uts-eguiñac.

4 Asserretua iduqui zaitudan, Jesusen Aita, cere Seme maitearen *Bihotzeco* amoreac gatic, eta Seme onen Amac, hura Gurutcean josiric ecusi zuenean, eraman zuen bihotceco estutasun, ta nequez gatic, escatcen dizut, utci dezazula betico cere asserre-tasuna, ta lagun zaquizquidala, orain dudan asmoan nere egunac igarotcen, edo bucatcen. Asmoarequin nago, vici nazan artean, zuri eguin zaizquitzun injurien, ta zure Semeac Aldarean ecusi dituen charquerien damuz beteric ibiltceco. Asmoa-requin nago, zor diodan amorea gatic Jesus maitatcen dudala, beti vicitceco. Ni joain naz, alic maicena, Elizan Jesus ecustera. Oraindaño baño ernecago ibillico naz, nere Confessio, ta Comunio-etan, Meza enzuten, edo beste edocein gauza on eguiten dudancan; arqui ez dedin batean ere, lenengo-etan bezalaco uts-eguite ta charqueriric. Nere gogoz, ez ta bat arquituco, Jesus nic bezala, ta nic baño gogoticago maitatuco ez duenic; eta al ditudanac orretara zucenduco ditut. Indazu arren zuc, cere Seme, ta Espiritu Santua-requin batean, nere asmo onetán beti irauteco gracia.

# BI-GARRENA.

## JESUSI BATEC, BERE bihotza, ta gauzac ematecо, eguin dezaquean, Otoiza.

5 A Itcen ez den Iturria, ta virtute gucien Jabe, Jesus maitagarria, cer gatic onen ongui nai diozu, gaistaqueriz betea egondu den, ta zu ganaco, daquizun adiña, oztasun izandu duen nere bihotzari? Arriturie naduca onetan zor ditudana-ren ezagueracceta zor oni eranzun naiez nago. Nai ba-cenu, gaur-danic emain niquezu zor onen alde nere bihotza, bihotz onetan arqui ditezqueen asmo ta gauza on guci-equin. Ba-daquit, ecer ez bat bezala dela zuretzat hau gucia: baña ecusten dezu, ez dudala, gueiago valio duen gauzaric; ez eta zuc, ditudan gucien artean, naiago dezunic ere.

6 Orra bada, Jesus ona, gaur guero izan bedi zurea, bere gauza guci-equin, nere bihotz osoa. Gaur-guero beguira zagozu cereari bezala. Eracutsi zagozu, noła vici, ta nola zu maitatu. Ceretzat eguin cenuen; izan bedi bada, ongui vici dela, dena zurea. Ni gatic vicia gurutzean eman artean, ta gueroz Aldarean, eguin dezunaz oroitu ezquero, ez dut lot-

*taric, edocein gauza zuri escatceco.* Es*catcen dizut bada, beguira daguidazula* Aitaç, Adisquideac, *eta* Maisuac *bezala. Aitac bezala barcatceco nere utsac. Adisquideac bezala, beharrean arquitzen nazanean, escua eman ta laguntzeco; ta Maisuac bezala, eguin behar dudan guciа niri eracusteco.*

7 *Ez diot gaurguero nai nere buruari beguiratu; beguiratu nai diot zure* Bihotzari. *Nere buruaz azturic vici nai dut, zure* Bihotza *astiroago maitatcea-gatic.* Zureac *dira, Jesus, gaurguero nic eguin behar ditudan gauzac; izan bitez bada guciac, zure beguietan aguer ditezqueanac. Nai nuque jaquin, nola nic zu maitatu; seculaco zu maitatzen bertatic asitzeco. Eracutsi zadazu arren maitatze hau, ta indazu, maitatze onec escatcen duen gracia gucia. Hala guerta dedilla.*

## IRU-GARRENA.

### OROBAT ERACUSTEN DUEN *Aita Colombiere-ren beste otoitz, edo oracio bat.*

8 EZagutceco cembat zor zaion Jesusi, ecusi behar da, cer ari den Jesus Aldareco Sacramentuan. Maitatzen dago, eccin guciago bere Aita, ta begui-

ra dagoca, beguira daquiqueon erreſpeturic andiena-requin. Hitz bat atera gabe daramatzi, ecuſten dituen ſacrilegio, ta eguiten zaizcan vide-gaberic andienac. Jesus bera lotſatzecoac dira, bere gain artu cituen gure obenac, eta culpa gaiſtoac. Gure beharsen, nequeen, ta eſtutaſunen urricariz dago; ta dago guri onguí naiez, edo gu maitatzen. Mundu gucia naſtua ecuſten ba-lu ere, ta bere contra, ez lizaque Jesuſ-en *Bihotza* aſaldatuco. Beti bat da Jesus; beti berdin. Baña gueienei cer zor dic Jesuſ-ec? Eſquer-gabea baicic ez, eta aſma al diña charqueri, ta injuria. Onen eranzute gaiſtoa-ren damuz beteric, eta bere zorrari al eguiñean eranzun naiez, zucendu zuen, Jesuſ-en Compañiaco guizon andi Aita Colombierec, emen arquituco dezun, ta berac aſcotan ill oro eſan oi zuen.

## *OTOITZA.*

9 *ESquer-gabez, charqueriz, ta ſacrilegioz zure amorcari, ta Aldarean zor dizugunari eranzuten dioten-en lagun ez izatea gatic, ematen dizut bein, berriz, ta aſcotan nere bihotz oſoa, eguin ditzaquean gauza on guciequin. Ni barrencan artzeco, zabaldu*

de-

dezun, zure Bihotz-ean sartzea gatic, ez diot beguiratu nai nere buruari; nitaz azturic nai dut vici, zutaz oroitzen nazala, ta zu beti maitatcen zaitudala vicitzea gatic. Ez nuque nai Bihotz orretatic atera, atera dediño gorputz-etic nere anima, obequi zu maitatuco zaituen, toquian sartceco. Communio, Meza, Otoitz ta gauza on guci-equin irabazten dudan gucia izan bedi, Jesus, zor dizudan zure Bihotz-eco omorea-ren icenean, ta ecusten dituzun vide-gabeen alde. Obequiena deritzazuna eguin dezaquezu denaz: dena, daquizun bezala, utzia dago, Purgatorioan daudenenizat, izan bedi, bada, daquizunen oneraco.

10 Onzat artu behar didazu, bestela zor ditudan, edo caridadeac escatzen dituen Meza, edo beste cembait gauza emendic aldaratcea. Baña orduan ere zorrac atera, edo, caridadeac escatcen duena eman, ta gueldicen den gucia izan bedi zuc nai dezu-neraco.

11 Zurequin orain eguiten dudan gucia gatic nai nuqueana da, garbi balequit, zu maitatceco, behar bezala, nere bihotza. Zuc nai dezuna, nai nuque eguin; baña ecin daguiquet, eracusten

ez

ez-pa didazu nola eguin; ta, icasten dudana, eguiten laguntcen ez didazula. Erraz da zuretzat orì gucia; eguizu bada, daguidan nic ere zuc nai dezuna. Zurea izain da eguiten dudana-ren honra; hau da nic arquitu nai nuquecana. Lagun zaguizquit, onetaraco artu dudan, videan.

Ala maita zaitzatela nerequin batean munduan vici diranac. Amen.

## LAU-GARRENA.

### JESUS ECUSTERA ZOAcen cembait aldiz, Elizan eguin dezazun, Otoitza.

32 GU ganaco urrical-tasunez, ta maitatcez beteric, zaudena, ta ni gandic beinzat oztasuna, ta esquer-gabea baicic ecusten ez dezun, Jesus, cerc gueldituu zaitu, zauden, Aldare orretan? Gurea bezain erantzute charrentzat, etcen asco ta gueyegui eriotceco borduraño gu gatic eguin cenuena? Obenic gabe, oben-dun tristeac galdu ez guindecen, utci cenuen urra citzatela arantzaz zure loac, eta burua, azoteac bizcarra, ta lantz-hilteac zure escuac, oñac, eta Bihotza; ta azquenean gueldi-

tu ciñan, odola, ta vicitza galduric : eta neque, ta eriotz orren gogorra asco ez pa-lira bezala, maite gaituzula guri adirazteco, gueldìtu nai izandu dezu Aldareco Sacramentuan; cenequiela or gueldìtu ezquero, ecusi beharco cenituela millaca charqueriac egun-oro! Eranzun ezcecen, noiz ezagutuco ere dut nic zuri zor dizudan amorea! Orrelaco zorric ez panu bezala vicitu naz oraindaño-coan, ta nere esquer-gabetasun, ta charqueri-equin zor berriac eguiten ditudala! Ay ene! Ez aldut berriz, onelaco utsic eguiñen! Indazu arrren, Jesus, bihotza erdira lezaquean oraindañaco nere uts-en urriqui, ta damu bat. Escatcen dizut damu bat, nere uts-eguiteac gogoratcea-requin, odolezco icerdia ceriezula gueldìtu ciñanean izandu cenuen, Bihotz-eco estutasuna gatic. Indazu halaber, orrez gaiñ zu ciñez maitatcezo behar dudan gracia. Maitatcen etcindudanean ere, nai cenuen, maita cintzadan: ona bada non zu maitatu nayez arquitcen nazan. Nola bada uca cenezaque orretaraco escatcen dizudan gauzaric? Ez, nere Jesus, ez arren ucatu, zu maitatceco, ta gaurgero zurea izateco behar dudanic.

BOST-

## BOST-GARRENA.

### *GOIZ-ARRATS-ETAN, TA noicean bein eguin ditequean, Jesusi zor dioguna-ren aitormena.*

13 *B*A-*daquit Jesus ona, ta aitorticen dut, Aldarean arquitcen zerala, Ceruan bezala. Ba-daquit cembat or zuri zor dizudan: ba daquit, ni maitatcen zandela beti, ta ni ondasunez bete naicez. Zure maitatce, ta ondasun-en alde ez daquit cer eguin; bada nic eguinnezaqueanguçia ecer-ez bezala, da nere zorrentzat, Artu zazu horien alde maitatce ori bera; bai-ta, lurrean vici ciñanean ta gueroz zure* Bihotz-*ac eguin duen, ta seculan eguinen duena erez ta artu zazu orrequin batean nere aitormena, edo zor dizudana-ren ezaguera; ta ezaguera, edo aitormen onec dacarren maitatcea: ta, obequi maita zaitzadan, ar-nazazu, ta gorde zure* Bihotz-*ean. Hala guerta dedilla, nere Jesus.*

## SEI-GARRENA.

### *DAMUZCO OTOITZA, EDO Oracia.*

14 J*Esus, cere gain gure peccatuacc artu cenituena, ta* Bihotza *damuz bete çizutena, inda-*

*en arren, edocein bihotz erdira lezaquean, zure miñ-nequeen, ta nere culpen damu andi bat: garbi beza zure penac nere bihotcean, nere damuac ecin garbitu duena. Lagun zaquizquit, ciquindu gabe gordetcen bein garbitcen didazun, bihotza: beguitan arturic, ala zuc artua daducazun edocein uts, eta falta, maitatcen dezuna zuc, maita dezadan gaurguero nic ere. Ez Jesus Ona; ez hau niri ucatu.*

## ZAZPI-GARRENA.

### *CONSAGRACIO ONDOAN egnin ditequeana.*

25 J*Esus-en ta nere Aita Cerucoa, ematen dizut, zor dizudana-ren alde, zure, ta nere amorez urtcen dagoen, ta zuc nai dezunondasun utsabesteric ez duen zure Semea-ren* Bihotza. *Ar-dezaquezu, bai; nerea da; bada ni gatic dator Aldarera: ta zor dizudanac adiña ta gueyago valio du. Baña ez naz assetcen nere zorrac ateratce utsa-requin: zorren gain, ematen dizudana gatic, indazu zu ciñez maitatceco, ta maitatce onetan nere egunac bucatceco behar dudan gucia. Al-ere ez diazu emain, ematen dizudan, Jesus-en Bihotz-ean artcen dezuna baño gueyago.* ZOR-

## ZORZI-GARRENA:
## SANTA GERTRUDES-EC
### Jesus-en Bihotza-ri essaa oi ciona.

16 AGUR, maite zaitudan, Jesus-en Bihotza. Zu zara, aitcen etceran, ta vicia ematen duen ura dacartzun Iturria. Zuc dituzu Jaincotasuna-ren ondasunac. Zu zara, Jaincoac digun amoreac berotcen duen, sueguia: ta zuc izan bebar dezu nere gaztelu, ta atsedeteco toquia. Urtu zazu, Jesus, zurea urtcen duen, suan nere bihotza. Bete zazu zureari dariezcan graciez, ta ondasunez nere bihotza, emen ta beti maita ezdezan, zuc nai dezuna, besteric.

## BEDERATCI-GARRENA.
## AMODIOZCO OTOITZA.

17 EZ dut cer zuri eman, Jesus maita-garria. Ecer-ez bac dira nere gauzac. Nic dudana da, zuc emanicaco, bihotza; ta bihotza, nierc quenduco ez didana. Eguin dezaquedana da bihotz onequin zu maitatcea. Ongui da Jesus: nic maitatuco zaitut: eta nere maitatce one-gatic ez det nai eman daguidan, secula gucian, zu maitatcea besteric.

# JESUS-EN BIHOTZA-REN CONGREGACIOCO REGLAC.

## §. I.

### ANITZ LAGUNTCEN DUTE *Ceruraco Cofradia, ta Congregacioac.*

TNeràco gogoric bague, ta gaitzera macurtuac gatoz garanac. Ez-pada gogo-gaiftoa garaituz, ta gueren buruac necatcen ditugula, ecin gabilzque, ibilli behar dugun, Ceruco

videan. Vide onetaraco behar den gucia, norc-nai izan dezaque gure Jauna gandic; baña, edocein Christauec baño, errazago Cofradian, edo Congregacioan vici denac.

2 Ceruco videan dabilzanai guertatcen zaic, lurrecoan dabilzanai guertatzen zaiena. Lurreco videcoac, galdu ez-ditecen, behar dituzte cembait gauza; beste ambeste behar dituzte Cerucoan dabilzanac. Emen videz dabillenac behar du, nondic artu ez daquieneco, nori galdetu. Nequetic atsedeteco, behar du hostatua; gose-egarriaren contra behar ditu janari-edarriac; eta, aguertcen zaizcan, etsaiac garaiceco behar ditu armac. Onembat gauza-requin arquitcen dena ba-dabilque bere lurreco videan.

3 Ez da gutiagoren beharrean arquitcen, Ceruco videa artcen duena; ta vide onetaraco behar den gucia arquitcen da Congregacio, edo Cofradietan. Cofradia, edo Congregacio-etan ba-dira reglac. Congregacioco reglac Ceruco videaren letrazco mugac dira. Cer dioten aditzeco, badira Congregacioan cargu dunac; baita macur, gaizqui, edo contraco videan dabilzanen zuzentzalleac ere.

4 Icasten da emen, Ceruan sartceco, jaquin behar dena; edo icasten da nola gauzac eguin.

5 Vide hau bi videz icasten duteCongregantéac, aditúz, ta icusiz. Elcar ganatcen diran-etan adirazten du, ottetaraco cargua duenac, aldian eguin behar dena; baita nola eguin ere, eguiten den, edocein gauza. Uci-eguiten duenari eracusten dio zuzen videa: videa galduric dabillena, eracarcen du videra; ta, berriz galdu ez dezan, vidalzen du bere oharmenac, edo avisoac emanic.

6 Elcar gana bilcen diran-etan, ta beste cembait aldiz icusten dute cer hari diran, edo nola lagunac beren-eguitecoetan; ta icusiz, ta adituz icasten dute nola ibilli Ceruco videan, reglac eracusten duten bezala.

7 Cofradietan sarturic vici diranac ba-dute elcarren artean Ceruco senidetasuna; bada, senide onac bezala, hordu jaquiñetan bilcen dira elcar gana; elcar artcen dute; laguntcen diote elcarris ta elcar-equin eguiten dituzte gauz on asco; ta eguiten dituzten guciac, gucienzat dira. Hau Cofradeac, ez nola nai Ceruco senideac izatea ceic, Re-

ligiosoen vicitza dirudien, vicitza bat munduan bertan eguitea da.

8 Reglac bereizten dituzte atseden horduac. Hordu orietan sartcen dira Cofrade, edo Congreganteac Elizaco hostatuàn. Emen arquitcen dute oraciodren descansua, Sacramentuen Maia, ta Graciaren janaria, ta edaria. Jaueco onec ematen ditu Ceruco videan ibiltceco, ta videco etsaiac, edo etsaiaren tentacioac garaitzeco behar diran auxilio, ta armac.

9 Onembat ondasun dacartcien elcarrequico Cofradeen vicitza gatic essan direque: *ah! cein gauza ona, cembat atsequin dacarzien gauza den Senideac elcar-equin vicitzea!*

10 S.FranciscoSales-ec eraguturic emendic datocen ondasunac, al duten guciac sar ditecela, dio, Congregacio, ta Cofradietan. Oetatic cembait Jesus-en icenecoac dira; onen Amaren icenecoac dira beste cembait; eta beste icen moduac dituztenac beste asco. Baña guciac dira Jauna-ren honraràco, ta gure ta Purgatoriocoen oneraco.

11 Sar zaitez bada al dezunetan; baña, batean, edo bestean baicic sartu

be-

behar ez-pa-dezu, sar zaitez cere anima gucienа ontcen, edo moldatcen lagunduco dizùn artàn. Bada ontzen, edo virtutez apaintcen ba-dezu anima, atseguin eguinen diozu Jaincoari, ta len baño gueiago lagunduco diezu Purgatorioco suan erretcen daudenai.

12 Orretaraco guztiz onac dira Religio...taco irugarren Ordenac; eta Christo Jaunaren, eta onen Amaren Escolac baita berriro Euscaldunen Errietara etorri den Jesus-en *Bihotza*-ren Congregacioere.

13 Congregacio onetacoac atera dezaten, atera dezaqueen, ondasun gucia, eracustera goaz, certaco den ta cer eguin behar duten onetan sartcen diranac, Congregante onac izateco, ta, elcarri laguntcen diotela, Ceruan sartceco.

§. II.

## §. II.

## *CERTACO DEN JESUS-EN Bihotza-ren Congregacioa; ta onetan sartcen diranac, egnin behar dituzten cembait gauza.*

1 JEsus-en *Bihotza*-ren devocioac asco laguntcen dio Aldareco Sacramentua-ren devocioari: ta, Congregacio onec biai: bada Congregacioac irauño, iraun behar du Jesus-en *Bihotza*-ren devocioac; eta *Bihotz* onen devocioa duen bihotzean, ez ta faltaco Aldareco Jauna-ren devocioa. Orre-gatic bada Jesus-en *Bihotza*-ren Congregacioa, *Bihotz* onen devocioari beinic bein, ta onen escuz, Aldarecoa-ren devocioari indarrac ematen diozcan gauza da.

2 Congregacio hau, Jesus-en *Bihotza*-ren devocioac escatcen duena, gogotic eguiteco da. Devocioac escatcen duena da, *lembicico* lecuan, naicz ta amorez eranzutea, Aldarean Jesus-ec eracusten digun bere *Bihotz*-ceco nai, ta amore bazterric gabecoari: ta *bi-garrencan* Je-

Jesus-ec Aldarean, ecusten dituen oztasun, videgabe, charqueri, ta gañeraco gauz arrigarrien damuz beteric gu vicitcea. Orre-garic Congregacioa da, Jesusi zor diogun amorea-ren amorez, ta gugaric Aldarean ecusten duena-ren damuz gure bihotzac beteteco.

3 Gu garic Aldarean daramanaren, ta guri digun nai andia-ren berriric gueiena duen, Jesus-en Ama da, bere contura Congregacio hau artua daducana; ta Jesusi zor diogunari eranzuteco, behar dugun gracia Cerutic vidalteco dagoena.

4 Guizonac bezala, sar ditezque Emacumeac ere Congregacio onetan: bada, gucien aldetic artu dituen bezala Aldarean videgabeac, nai du Jesus-ec gucien amorea, ta damua. Damu-amore onetara daraman gauza da Jesus-en *Bihotza*-ren Congregacioa.

5 Sar ditezque Congregacioan, onen Buruzagui, edo Cargu-dunac nai duten adiña. Baña ez dute artuco, ots, omen, edo fama char-ecoric: ez eta erranquizuna emain durenic ere: bada gaisto bat asquida Congregacioa galteco; ogui gucia galteco, asqui den bezala, legami, edo orantz zati usteldu bat.

6 Elcar-equin eguiten dituzten gauzac, Elizan eguiñen dituzte, ta Jauna aguerturic. Orietaraco behar den arguizarenzat emain dute, al dutenac, nai dutena.

7 Jesusi ongui-naiac eraguin behar die Congreganteai, eguiten dutena; orregatic ez da Congregacioan becaturic chiquiena-ren carga dacarren, reglaric. Asqui da Jesus-en maitatzalle-entzat, reglac eracusten dutena eguiteco, orretan Jesusi atseguin eguiñen diotela, jaquitea.

8 Congregacioan sarteco, guciac eguin behar dute Confessio general bana, eguin berriac ez-pa-dira, edo Confessore onac besteric aguinteen ez-pa-die.

9 Osasuna dutenac, eta dozquenac, ez dute cer utseguin Congregacioco exercicioric. Alferqueriz, naguitasunez, edo joan nai gabez noizbait uts-eguiten badute, ordañez eguin behar dute, beste gauz onen bat.

## §. III.

### CONGREGANTEAC EGUIN *behar dituen, beste lau gauza.*

1 LAU gauza eguin behar dituzu, Congregante ona izateco.

*Lembicicoa* cere Jainco ona gatic: *bi-garrena.* Jesus-en Ama-gatic: *irugarrena* vici diran, ta ossasuna dutenac gatic; eta *atcenecoa*, eri arquitcen diran, ta ill ondoan Purgatorioan daudenac gatic.

2 Eguin behar dezun *lembicico* gauza da, Aldarean arquitcen den Jaun andia-ren Bihotza-requin devocio ciñezcoa artcea. Devocio hau, dizun *Biotz-eco* amoreac gatic, Jesus-maitatcea da; baña maitatcea gogotic, eta vici gucian. Onela maite duenac, billatcen du Jesus, al duenean, bere Elizan. Ecin ba-doaque, an egon naiez dago Ainguerú-equin batean. Jesus maite duenac, enzun nai lituque, lurreco bazter gucietan ematen diran, Mezac; gucietan zor diona-ren esquerrac eman, ta agur eguiteco, edo adoratceco; escatceco berari, barca dizquiola bere oben, ta charqueri guciac; eta diola horien, ta gañeracoac eguin diozcaten gucien urriqui, ta damua.

3 Congregante ona izateco, eguizu gogoz bad-ere beste onembeste: ta zaude, Elizan zaudençan, Meza enzutean, Sermoia aditcean, ta ango gauza gucietan, Jesus-en beguietan dagoena bezala; edo beguiaç lurrean, ta gogoa Jesus-en

Bi-

*Bihotz*-ean daduzcatzula ; ta ecusten zaituztenac essan dezaqueen bezala : *ara, hari ezagun zaio, den gucia Jesus onarena dela.*

4 *Bi-garren* lecuan maitatu behar dezu, Congregante ona izateco, Jesus-en Ama. Maitatze onequin behartua daducanàc Jesus-en Ama , emen ona izan ondoan , izain du seculaco gloria : *Qui me invenerit, inveniet vitam.* Gueiegui zor diogu Jesus-en Amari , hau guc ez maitatceco. Ez guiñan Jauna ganaco , escua guri onec ez ematera. Semea gurutzean il cenetic humetzat artuac gaduzca ; ta gueroztic , guc mereci ez bezala , beguiratcen digu. Onen escutic ez datorquigun ondaisnic ez dela , dio San Bernardoç : dugun gucia Jesus-en Amari zor diogu : baita bere contura artu duen Congregacioac izatea ere. Guztiz maite duen, bere Seme on Jesus maitatcen, guri laguntceco dago: ta, çembat bera gueiago maitatcen dugun, ambat obequi lagunduco digu. Maite duenac , ez du Jesus-en Ama-ren eguñic uzten confessatu gabe : artua daduca egun-oroco Errosarioa : artuac daduzca goiz-arratseraco , ta horduetaco *Ave Mariac* : echetic

tic ateratceaan, esturasun gucietan, ta noizean bein billatcen du hume onac bezala, ta escatcen dio bere laguntza, ta escua. Orra Jesus-en Ama-ren devoto, ta Congregante ona izateco, eguin dezaquezuna.

5 *Hiru-garren* Jesus-en *Bihotza*-ren Congregacio-coac eguin behar duen gauza da, vici diranequin ongui etorcea. Nor-equin nai ongui etorrico da, Jesusec bere *Bihotz*-ean eracusten diozcan bi virtuteac icasten dituena. Beguira, dio Jesus-ec, eta icasi gucioc, nic eguiten dudana: noiz-nai, ta beti beraa da, edo mansoa, ta humilla nere Bihotza: *Discite à me, quia mitis sum, & humilis corde.*

6 Zucendu behar dituzu al eguiñean, Ceruco videtic atera diranac. Ez diozu bati-ere utci behar asserretcen; ta, asserretu ba-da, eraguin behar diozcatzu baqueac. Neque-ren batequin arquitcen diranai, quendu behar diezu, edo arindu cere hitz onacquin duten barreneco miña, ta oñacea. Esquean dabillen, edo beharrean dagoeñari, al dezun bezala, lagunduco diozu: bada, eguiten dituzun, urricarizco lan onacquin neurritu behar zaitu Jesus-ec bere Tribunalean.

7 Al-

7 Aldezunei eracutsi behar diezu, ta ar-eraci Jesus-en *Bihotza*-ren devocioa. Jesus maite dutenac nai luquee, gañeracoac ere maita lezaten; ta orici devocio hau ar-eraztea, Jesus maitarceco videan sar-eraztea da. Orretaraco eramain dituzu al dituzunac, Congregacioco lan on, edo exercicio-etara. Hau da guci-equin ongui etortcea.

8 *Laugarren* eguin behar dezun gauza Eriaquicoa da, ta ill-ena. Eritasuna, Jaincoac vidalduricaco ondasuna da: baña ondasun, nequetzat baicic, ascoc ezagutu nai ez dutena. Behar baño gueïago estutu oi ditu gucienac. Al dezunei escna ematea gatic, zoaz auzoco eriac ecuitera; beguitarte ta hitz onacquin lagun eguiezu, Jaincoa-ren doaitzat ardezaten beren eritasuna. Beharrean badaude ta arquitcen ba-cera cer-equin, andic atera baño len, cerbait utci zaiezu. Eri dagoen, ta il den Congregantearequin gañeraco eguin behar dena, guero eracutsico da.

9 Purgatorio-cosi eguin behar zaie al den on gucia. Aiec, era gu Jesus-en humeac gara, ta Ceruco senideac; era ez dirà senide onac, Purgatoriocoac be-

zain

zain necatuac daudenai laguntcen ez diotenac. Leguntcen dic obra onen irabacia uzten dienac. Urci zaiezu bada, edo gucia, edo guciena, erretcen dauden, zure senide onai: ta lembicico lecuan gueciena zor diezunei. Ba-dute eguiten zaiena-ren ezaguera: ba-daquite ordañez an daudeño ere Jaunari guretzat guc behar duguna escatcen. Ceruan sartu ezquero guri laguntceco egoin dira. Escatcen ba diegu, noiz-nai izain dira gure Bitartecó: ta, gu aetaz aztua gatic, ez dira aiec guraz aztuco. Illai, ta viciai oneia eguiten diezuna gatic, emain dizu Jesus-ec bera-ren *Bihotza*-ren maitatzalle, ta Congregante ona izateco behar dezuna.

## §. IV.

## *VRTEAN BEIN EGUIN BEhar diran gauzac.*

1. JEsus-en *Bihotzac* ba-du bere eguna. Egun hau Jesus-ec berecia da; ta da Corpus Christitic zorci garren eguna-ren urrengo *ostirala*. *Bihotz* onen devocioa dutenac, nola egun hau igaro, devocioaren gañeco li-

libruan ongui eracutsia arquituco dute. Orain hitz eguiten dugu Congregacio-coac elcar-equin eguin behar dutena-ren gañean.

2 Nioiz emateco, emain ditu Jesus-ec bere *Bihotza*-ren egun onetan, gracia-ren doai, ta ondasunac; eta andiagoac, obequi prestaturic igarotcen duenari. Egun onetan bucatcen da Christo Jauna-ren Gorputz Santu eguenean asitzen den Jesus-en *Bihotza*-ren Bederatci-hurrena. Bederatci-hurren hau eguin behar dute Congreganteac Elizan, ta Jaun andia aguerturic. Eguin diteque Meza nagusia-ren ondoric. Elizara ecin joan dirtequean Congreganteac eguin behar du echean, edo al duen lecuan.

3 Jesus-en *Bihotza*-ren eguna, urte gucian Aldarean ecusi dituen sacrilegio ta charquerien alde gordetcen zaion, eguna da. Al ba-du, ez du Congreganteac egun onetaco Comunioa utcico; ta eguin behar du nioiz ere baño obequi beguiraturic; edo ongui ongui bihotza Confessioan garbitu, ta barrena prestaturic.

4 Egun onetan cantatu behar zaio Jesus-en *Bihotza*-ri bere Meza, bere Sermoia-requin.

5 Ez

5 Ez goiza ecic arratsaldea era Jesus-en *Bihotza*-rena da. Eguin behar dute Congreganteac arratsalde onetan, illeroroco señalatuco den exercicioa. Mezacotic exercicioa bucatu artean, aguerturic egon behar du Aldareco Jaun andiac.

6 Necazari anitz dituen Congregacioàc alda dezaque egun onetacoa iganderen batera. Devocio ta indar andiarequin asitcen ditan Congregacioac, eta beste gauza onac, olaco suteguian eguin den burnia bezala dira. Burniric goriena, luzaro ba-dago, su-teguira gabe, oztu ta gogortuco da. Gogor daquion, beldur den Ola-Guizonac suteguira darama, moldatcen ari den, bere burnia. Oztutcera doacen bihotzac, devocioz beratu nai ba-dituzte Congreganteac, orobat eguin behar dute, edo billatu behar dute Ceruco sutegui-ren bat. Guztiz ona da Loyolàco Aita San. Ignacio-ren exercicioetacoa. Onetara behar dute bada urtean bein; edo urte oro eguin behar dituzte San Ignacioren exercicioac.

7 Exercicio oiec Elizan eguin behar dira, ta Aldareco Jaun andia aguerturic. Eguin nai dituzten guciai, Congregan-

teac

teac ez izana gatic, utcico die berequin batean oriec eguiten.

8 Eguin ditezque edoccin demboraz; baña al-ba-dedi, eguin behar dira, eguitecoric gutiena Congreganteac dutenean.

9 Iraun behar dute zortci, edo sei egunez; ta egun-oro bi horduz goicean; ta arratsaldean beste biz. Cer horduz sartu behar den exercicioan, ecusico dute Cargu-dunac.

10 Goiceco exercicioac asico dira Meza-requin. Hau asitcean aguertu behar da Jaun Andia. Exercicioen asiera, beste-etan bezala. Onetan, ta hitzez, edo orretaraco den libru-ren batetic oracio-gaia edo otoitz-eraco materia Congregantei ematen, eraman behar da hordu erdi bat. Beste erdi bat oracioan: ta azqueneco hordu erdia, Jesus-en *Bihotza-ren* devocioco Libruan iracurtcen, ta Jaun andia gordetcen.

11 Arrats-aldecoac asico dira Jaun andia aguertcetic. Devocioac esan ondoan, eman behar da hitzez, edo libru-tic oracio-gaia. Hau gucia hordu erdi batean. Gucro beste erdi bateco otoitza. Urrengo hordu erdian edo Librutic iracurri, edo platica bat, Azqueneco hor-

du

du erdian, esain da Jesus-en Ama-ren Errosarioa, ta gordeco da Jaun andia.

12 Hastia dutenac oracio gueiago eguin behar dute goiz-arratſ-alde-etan; bai ta iracurri ere Libruren batean. Eguin dezaquee Elizan, edo echean.

13 Gueroco utci diteazqueen eguiteacoac, ez ditzatela eguin exercicio-etaco egunetan. Cembat Jaincoa-requin bereac luceago, ambat emalleago arquituco dute Jaun hau.

14 Cerbait behar du egun oietaco Jauna-ren arguiac; Ceruco arguia Jauna gandic nai duten, Congregānteac emain dute, al dutena, Jaunari argui eguiteco.

15 Urtean eguin behar dute urteco Confesſio generala. Onec escatcen duen conturaco, ta hau eguiteco demboraric onena exercicio-etaco dembora da.

16 Erri chiqui-ren bateco, Congregacioan ecin eguin ba-ditezque goiz-etaco exercicioac, arratſ-aldecoac bad-ere eguin behar dira.

* * * * * * *

* * * * * *

## §. V.

## ILL-OROCO CEMBAIT GAUZA.

1 GUeiegui tiratceen gaitu gaitzac, gurteco exercicio-equin bero viciteeco Jesus-en *Bihotza-ren* devocioan. Devocio onec iraun dezan, ill oro ere Ceruco sureguira beharco dute Congreganteen bihotzac: baña ez len adiña demboraz egoteco. Olaco suregui andian cembait hordu eguin dituen, ta meetu den burniac dembora guti behar du Errementaria-ren sureguian berotu ta goritceco; ta exercicio-eraco sureguian urtu ta moldatu den bihotzac asco izá oi du berotceco, exercicio labur bat.

2 Leeu gueienetan bildu ditezque Congreganteac amabostean bein, Jesus ona-requin ordu bat igarotcera. Erri chiqui etan, illean bein bad-ere bilduco dira. Ba-dira Congreganteac zortcian bein ere onetara bilcen diranac, eta hordu ta erdi aldian Jesus ona-requin daudenac; edo daramatenac. Ostiral-etan, igandeetan, edo noiz exercicio onetara bildu behar duten Congreganteac, cargudu-

nac ecusico dute. Exercicioac dirauño, jaun andia egoin da Aldare gañean aguertua.

3 Aguertce-an Jesus-en *Bihotza*-ren cembait laudariotan, onen Ama-ren letanian, ta oracio gaia, hitzez, edo libratic Congregantcai ematen, gastatuco da, edo eramain hordu erdi bat. Laurden bat Jaincoari otoitz, edo oracio eguiten; ta beste laurden luce bat platica batean edo Jesus-en *Bihotza*-ren devociozco libratic iracurtcen. Iracurri ondoan, gordece dute Jaun andia Elizaco cantua-requin.

4 Illean bein bad-ere confessatuco dira, ta artuco dute Jaun andia: ta, al dutenac, exercicioco egun gucietan.

5 Egun orietan ecin dutenac, edo gueiagotan nai dutenac, artu dezaquee illeco ostiral-etan; ta, batean baicic ez artcecotan, lembicicoan ecin duenac, eguin beza al-duen egunean. Duqueala, ez ditzala utci Jesus-en Ama-ren egunac.

6 Cembat gueiagotan comulgatcen diran (ongui comulgatcen dirala) ambat obequiago egoin dira etsaiac garaitceco, Jauna maitatceco, ta gañeraco lan onetaraco.

7 Hastia dutenac, eguin bezate ill-oro Jesus-en *Bihotza*-ren Bederatci hurrena. Noiz nai asi diteque: baña asitcen bada doan illaren atceneco ostegun-ean, bucarcera dator *Bihotz* maitagarri onen egun-ean, edo illa-ren lembicico ostiral-ean.

8 Ostiral hau nola ongui igaro, arquitzen da Jesus-en *Bihotza*-ren devocioco libruan. Egun onetan ecin dutenac, eguin dezaquee edocein egun, edo Iganderen han eracusten dena: ta eguiten ba dute, eguinen dute, Jesusi atseguin andia eguinen dion, ta beren oneraco izain den, gauza bat.

9 Ill-oro iracurri behar ditu baçoitzac Gongregacioco Reglac.

## §. VI.

## *HASTE-OROCO GAUZAC.*

1 HAstean, ta egun oro Congregantceac eguin behar dituzten gauzac, elcar gana gabe eguin ditzaquenac dira. Ez da erraz cembaitec egun-oro eguitea, egun oro beste cembaitec eguin ditzaqueen gauza cembait

ban

baña bacanac izain dira, haſtean bein bad-ere, orain berecico diran gauzac ecin eguin ditzaqueen Congregancteac.

2 Haſte-oro necatu behar dute beĩn beintzat beren burua, edo baruren bat ateratcea-requin, edo nai ez luquean lanen bat eguitea-requin, edo eſcatcen duen gauza edo guſto-ren bat ucatcea requin.

3 Oſtirala, Jeſuſ-en *Bihotza*-ren eguna bezala, orretaraco onena da. Egun onetan, beſteric ecin duen Congreganteac, ecarri bitza halic bilduenac bere beguiac, bere mihi, ta bihotza.

4 Ez doaquiola, al duenari, Mezaric enzun gabe haſte gucia. Onetan utſeguiten duenac, enzun beza ordaña jaiean, edo igandean.

5 Al duenac ez du haſteric utcico, Elizan, bein beintzat, ſartu gabe. Sartcen den-etan, utcico dic, an dauden Aingueruci, bere lecuan Jaunari lagun eguiteco, cargua.

6 Echeco cargua duten Congreganteac eracutſico die haſte oro, jaquin behar duten, gure legueco cerbait, orien contura daudenai. Lan-eguncetan eguitecoz beteac daudenac ere badituzte orretaraco jai-igandeac.

7 Ez

7 Ez da aſqui cer eguin behar duten echecoai eracuſtea. Nola eguiten den ere eracutſi behar die, hura bera berac eguiten dutela.

8 Al eguiña eguin behar dute, malcor-toqui, ta galceco vide-etatic Gazteac quenceea gatic. Orrelaco vide-eta-ratcen dira gueienic jay-igandeetan. Ez ditzatela beguietatic utci, beinzat egun orietan.

9 Vide gaiſto-etatic quendu ez-ecic, aci behar dituzte Gazteac Jaunaren beldur andian. Onela acico dituzte, berac onac dirala, noiccan bein gogora ecartzea-requin gucien il beharra, nequezco vici onen labur-taſuna, gaizqui eguiña-ren contu eſtua, gaiſto-en betico errecè arrigarria, ta ònen Ceruco atſeguin ta contentua. Onela acico dituzte, maiz edo uſu confeſſa-razten dituztela, gauza onetara eramatea-requin, ta Jeſuſ-en *Bihotz* maitearen devocioa ar-erazten diela.

10 Berac onac izatea, hau gucia eguitea, ta modu onez eſatea aſco ez ba-da nai dena eraguiteco eſcupean dituztenai, ez da cer barcatu dollorqueri, ta utſ-eguite charric. Obe da, nai dutena eguitea

utci

utci ta galcea baño, nai ez duten cerbait eraguin ta Gazteac Cerura vidaltcea.

11 Haste gucian echeratcen ez diranac, echeco guciequin essain dute Igandeetan Jesus-en Ama-ren Errosarioa.

## §. VII.

## EGUN ORO EGUIN BEHAR *diran gauzac.*

1 CEruraco eman cigun Jaincoac, dugun izatea; ta ditugun indarrac Ceruco gloria irabazteco dira. Goicean vidaltcen digun arguia-requin lanera deitcen gaitu. Jesus-en *Bihotza*-ren Congregante onac, arguitu ta alic lasterrena jaiqui behar dute, ta, jaunci-orduco, asi Ceruco lanean.

2 Lan hau da belaunico jarriric Jaunari milla esquer, orduraño zor diogunaz ematea; egun gucico hitz, asmo, ta lan guciac berarentzat, Jesus-en *Bihotz*-ean uztea; ta diranac ongui eguiteco gracia *Bihotz* onen, ta Virgin Ama-ren icenean berari escatcea.

3 Gurutze pean, arantzez ingurutua,

ta

ta argui-garrac dariozcala aguertu zaicu Jesus-en *Bihotza*; hiru gauza oec aditcera ematen dituzten amore-nequeen icenean essain dituzu goicean, eguerdian, ta arratsean, belau-nac lurrean dituzula hirur *Aita gure*, *Ave Maria*, *ta Gloria*. Hau eguiten dezunetan escatuco diozu Jesus onari ceretzat, eta echeco guciențzat eriotz on bana: ta escatuco diozu, haren *Bihotza*-ren devocioa dutenac izan ditecela beraren *Bihotz*-ecoac; eta gañeracoai oro bat guerta daquien, dacartcicla bere *Bihotza*-ren devociora.

4 Hal dutenac, eguin behar dute hirur aldietaco hau Elizan, ta Aldareco Jaunaren aitziñean: ezperen Jesus-en *Bihotza*-ren Estampa bat aizinean dutela, ta Jesusi zor dioguna, gogoan arturic.

5 Echecoaquin, hal ba-dute bestela bacarric, essain dute egun oro Jesus-en Ama-ren Errosarioa.

6 Jauna ganaco gure zorrentzat ez da, Mezac adiña valio duen gauzaric ez eta Jesus-en Aitari atseguin gueiago emain, ta gracia gueiago eman-eracico dion presentaric ere, len adi-raci dugun bezala. Izan dezaten bada Congregan-

ceac,

teac, beren zorrac ateratceco, behar dutena ta edocein gauz on eguiteco, ez dezatela, eguunic utci Meza enzun gabe.

7 Libruac dira isilic bai, baña lotsaric gabe, ta copeta garbiarequin hitz eguiten diguten Adisquide, ta Predicadoreac. Orien hitzac, Jaunac ematen diela barrengo indarra, biguindu dituzte arrizcoac ciruditen asco bihotz; otzac ceuden cembait berotu dituzte, ta berotuac Ceruco suz erreac utci dituzte. Ez utci oriez valiatcea; ta, guti bad-ere, iracurri zazu orictaric batean egun oro.

8 Gu galtcea beste eguitecoric ez duten-etsaiez inguruturac gaude. Oriec garaitceco, erne vici behar dugu, ta armaz jaunteciac bezala. Gueiena izuteen dituen arma da, gure Jauna gana guc igues-eguitea. Igues-eguite hau, da lagun daquigula escatcea, edo otoitz eguitea. Esturasunean arquitcen garanean, ez utseguiteco, lenic oitu behar gara ori noizean bein eguitera. Eguizu egun oro escace, ta otoitz onetan, hordu laurden bat.

9 Ez da cer galdu Elizan sarceco, izaten dezun vide, ta derechic. Sarcen zaranean, joan behar dezu, an dagoen Jauna-

nari buruz, ta gogoz agur eguitera, zor diozun amorea-ren esquerrac ematera, ta zure lan ta pausu guciac zucen ditzala, escatcera. Hau eguizu, hal-dezun gucian; ta cembait aldiz orretara berariaz joana gatic, ez dezu ecer galduco; ta eguiñen dezu, Jesusi atseguin eguinen dion gauza bat.

10 Loa eriotza-ren iduri, ta imagina da: ta ascorentzat lotan sartcea vicia bucatcea izandu da: bada iratzarri, edo esnatu ciranean, eternidadea-ren arguiac eman cien begui-etan. Edoceñi guerta daquioque orobat, edo beste ambeste. Guertatcen ba-zaitzu ere, etzara galdua izain, eriotzaraco prestatcen ba-cera, loari cere burua eman orduco, edo lotan sartu baño len. Prestatce hau, cere bihotzari, egun gucian eguin dituen gauzen contua escatcea da; onac gatic Jaincoari esquerrac ematea: ta orduan, edo lenago eguin dituzun gaitz gucien barcacioa ciñez escatcea; berriz, orrelaco lanic ez eguiteco asmo, ta gogoa-requin.

11 Ori eguin ondoan, belaunac lurrean dituzula, essain dituzu cere hiru *Aita gure*, *Ave Mari*, *Gloriac*; urrengo Elizan dagoen Jesusi buruz, ta bihotzez

agur

ßgur andi bat eguiñen diozu, ta escatuco diozu, gorde zaitzala gau artan bere *Bihotz*-ean, ta zaduzcala bere escutic, edo bere gracian.

12 Jesus-en Amari ere escatu behar diozu, hiru *Ave Maria* esanic, bere Concepcio garbia-ren icenean (eguizu hau be a goiz egu-erdi-etan) vidal diezazula Cerutic gana, ta vici gucia garbiro igarotceco behar dezuna.

## §. VIII.

### ELCAR GATIC CONGREganteac eguin behar dutena.

1 ELcar arturic, etsaia gana doacen Soldaduac, banaca dijoacenac baño, aisago huta garaitcen dute: ta errazago ateratcen dute Chistauac Jauna gandic, Infernua, mundua, ta aragui gaistoa garaitceco behar dutena, batean, edo elcar-gana bilduric ori escatcen diotenean. Orre-gatic joan behar du beti Congreganteac exerciciora. Bestequin batean gauza onac eguiten ditucnean, laguntcen die diranai, ta ateratcen du berentzat, bacarric eguiten ba-lu baño, guciago.

2 Beren estu-tasunetan, senide onac bezala, lagundu behar die elcarri Congreganteac. Norbaiti cerbait emateco, eman behar diozu orietatic bati. Edocesii eguiten zaiona, berari eguintzat artcen du gure Jesus-ec. Beste Christau anitz baño, Jesus-en alderago daude onen *Bihotza*-ren maitatzalle, Congreganteac; eta beharrean dagoen Congregantecari Congreganteac eguiten diona, beste ascori eguiña baño, obequi iduri behar zaio Jesusi; bada elcarri, gañeracoai baño, gueiago zor diote.

3 Laurreco gauzen beharrean ez egona gatic, eri ba dago edoccin Congregante, beste guciac artaz oroitu behar dute beren escari, ta oracio-etan.

4 Elizacoac artceco, edo arturic dagoenean Congreganteren bat, esain du bacoitzac ar gatic Jesus-en Ama-ren Errosarioa, ta, Ama hau bitarteco arturic, escatuco dio Jesusi eria-ren osasuna, edo, ongui ez-pa-dagoquio osasuna, eriotz on bat.

5 Eri dagoenac gaztigatuco dio, edo eria-ren echecoac adiracico diote Congregacioaren Cargua duenari, nola dagoen Congregantea; bana dezan, edo

adi-

aditaci, aren berria, ta daguiten Congreganteac esan dena.

6 Ilcen ba-da, atera behar du bacoitzac, edo enzun Meza bat aren alde. Ecussi behar ditu, edo visitatu Aldareac; eta errain du Errosario bat. Lembicico exercicio-etan eman behar zaie guciai Congregantea-ren il berria, ori jaquin gabez, galdu ez dezan, Purgatoriotic ateratzeco, edo ango sua arintzeco, norc-nai eguin behar diona.

7 Congregacioa-ren ongui-guilleac gatic, escatu behar diote Jesusi Congreganteac, onac izateco behar dutena, ta, osasun ona-requin, vicitza lucea. Besteric ecin duten, Congreganteac eman behar diote Jesusi bihotz garbi, beraren maitatzalle, bana.

## §. IX.

## CONGREGACIOCO CARguac.

1 ELiza Santua Congregacioa da; ta Congregacio bere cargu dunac dituena. Cargu dunetatic batzuec Obispoac dira, Elizetaco Nagu-

ñac besteac, besteac Apaizac : baña oiec, eta gañeracoac baño escu gueiago duena San Pedro-ren Catadèran dagoena da. Onec, eta besteac duten eguitecoa da ez daquitenai, jaquin behar dutena eracustea, eta eguin behar dutena eraguitea, edo eguiten laguntcea. Eracusle, Laguntzalle, edo Eraguilleric ez-pa-lu, ez oiñ, ta ez buru ibillico lizaque Eliza, edo Elizaco Congregacioa. Ori bera guerta ez daquion, behar ditu Jesus-en *Bihotza*-ren Congregacioac ere bere Cargu dunac.

2 Congregacio onetaco Cargu dunac izan ditezque zortci. Aita bat, lau Consejari, Ohartzalle bi, Deitzalle bat, eta Biltzalle bat.

## CONGREGANTEEN AITA.

3 ELizan lembicico escua duenari *Aita Santua* deitcen diote Euscaldunac; eta dei daquioque Congregacio onetan escurio gueyena duenari *Congreganteen Aita*.

4 Ongui nai dien lurreco Aitac humeai beguiratcen dien bezala, Aita onec beguiratu behar die Congregante guciai,

Gu-

Guciac eman diozca Jesus-ec bere *Bihotza*-ren devocioan acitceco. Onetan acitceco quendu beharco ditu, belar gaistoric, edo esanez, ta palacuz utciraci beharco dic edocein vide macur, zucena ar-erazteco. Gogortuco zaizca cembait; beste cembaitec ez aditu eguiñen diote, anitz, artu duten, vide onetic leneco gaistora biurtuco zaizca: ta guti izain dira eguiten dienaren ezaguera eracutsico diotenac. Gucia gatic ere irauten badu, artu duen, eguiteco onean, anitz on eguinen du Jesus-en Congregacioan; ta azquenean, eguiten duenaren esquertac, Ceruan arquituco ditu.

5 Congreganteen Aitac, Aldareco Jauna aguertu ondoan, erran behar du exercicioa-ren asicera. Emain du oracio-gaya. Hitz on cembait essan ditzaque, Congreganteac oracioan daudenean, ta, hau bucatcean. Deritzanean, eguin dezaque bere platica. Platica onen lecuan iracurri ditzaque, te explicatu noicean bein Congregacioco Reglac.

6 Exercicio gucietan escatuco du *Ave Maria* bat, edo beste Congregacioaren ongui-guillentzat: bai-ta il diran Congregante-entzat ere. Eriric ba-da, dien

dien Jesus-ec osasuna, edo eriotz on bâ-na, essain du beste-equin batean *Aita-gure* bat, eta *Ave Maria*; ta essan be-har die Congreganteai, daguitela orre-taraco eguin behar dutena.

7 Cargu-dunen consejua escatcen du-en gauza-ren bat guertacen denean, bill-craci ditzaque.

8 Congreganteai adi-racico die, nor diran il diranac, eta nor sartu diran ber-riro Congregacioan.

## CONSEJARIAC.

9 CONsejarien eguitecoa da, car-gu-dunac biltcen diran-etan, gauzac zucenceen consejuz laguntcea.

10 Consejarien erdiac Apaizac izain dira: ta Congregacioco Aita eri, edo eguiteco-ren batequin arquitcen denean, bietatic edoceñec eguin behar ditu Con-gregacioco haren lanac. Eguitecoric ez izana gatic, Aitac esan ezquero, lagun-du behar diote Congregacioco edoccin gauzetán.

## OHAR-TZAILLEAC.

11 OLen eguitecoa da, Congregan-teac nola vici diran jaquiteco oharturic vicitzea. Arin dabillela nor-bait, behar ez diran pausoac dacartciela, ta erran-videac ematen dituela, icas de-zateneco, gucia adi-razico diote Con-gregacioco Aitari; onec berez edo Car-gu-dunac diotena adituric, ar ditzan be-re neurriac, gauzac zucentceco.

12 Uste ba-dute, lembicico elcar-ganatceen diranean, Cargudunai essatea-requin, obequi zucenduco dela gauza, beude afsillic orduraño. Halaco bordue-tan hitz-eguin behar dute, duten egui-tecoaz, ta essaten dituzten hitzaz Jau-nari contua eman behar diotenac bezala.

13 Ohartzalle bieratic bat, Apaiza izan da.

## DEI-TZALLEA.

14 ONec bi eguiteco ditu. *Lembi-cicoa* da, Congregacioco Ai-tac essaten dionean, Cargu-dunac biltcea; ta biltcen diraneco, behar diran gauzac prestatuac iduquitcea.

15 *Bi-garrena*, gueroco gorde behar diran, Cargu-duen avisoac Libruan ezartcea, edo escribitcea.

16 Onen contura gueldituco da, limosnaz biltcen den dirua; bai-ta-arguizaguia, ta exercicio-etaraco behar diran gauzac erosi, ta prestatcea ere. Artu-emanac ezartceco, behar du Libru bat. Cargu-dunac aldatcean, eman behar ditu Contuac.

## §. X.

## *GAÑERACO CARGUAC, eta zortci Cargu-dunen biltce aldiac.*

1 IRacurle bi behar ditu Congregacioac. Iracurrico dute aldizca urteco, ta ill-eco exercicio-etan. Iracurri behar dute, Congregacioco Aitac emaren dien, Librutic, eta berac nai duena.

2 Izain dira *Aldarea-ren Apaintzalle* bi ere. Bien artu-emanac Biltzalleaquin izain dira. Oni escatuco diote behar duten arguizaguia, edo edoccin gauza; ta berari emain diote gelditcen denaren contua.

3 Erri chiquietan gutiren artean ar-

su beharco dituzte Cargu guciac.

4 Zortci Cargu-dunac, elcar-gana bilduric hitz-eguin behar dute Congregacioco gauzen ganean lau aldiz beintzat urtean, edo iru illa-beteric irura. Artuco dute orretaraco illa-ren lenena, edo obequi dagoquien egunen bat.

5 Bilduco dira Sacriſtanian, Coruan, edo Elizan, nior ez den horduren batean.

6 Cerbait guertatcen denean, gauza-ren bat zucentceco, edo eguitceco, on izain dela Cargu-dunac biltcea edocein Cargu-duni iduritcen zayoncan, bego Congregacioco Aita-requin; ta, onec baderitza, eguin diteque noiz nai gucien billera, edo Junta.

7 Elcar-ganatcen diranetan hitz-eguiñen dute, berriro Congregacioan ſartu nai duenic ba-da, onen ſartcea-ren gañean; ta ſartuco dira Cargu-dun gueyenac nai dutenac.

8 Behar du Congregacioac, Reglac, eta Congreganteen icenac dituen, Libru bat. Deitzallearen contura dago, emen, berriro ſartcen diranen, icenac ezartcea. Libru onetan gueldìtu behar dute Cargu-dunac eguiten dituzten gauzac, eta artcen

cen dituzten neurriac. Deitzalleac aterāco du Libru hau, Cargu-dunac bilcen diranetan.

9 Urte bateco dira Carguac. Leneco Cargu-dunac eguiten dituzte berriac. Congregacioco Aita, gueldi diteque bere Cargua-requin. Bilcen diran-etan guciac dute escua, ta votoa; baña berdin daudenean, Aita-rena da guey-ena valio duena.

10 Cargu-dunac bilcen diranetan hitz eguiten asi baño, len belaunicatuco dira; ta essain du Aitac. *Veni, Sancte Spiritus, reple tuorum corda Fidelium.*

Cargudunac. *Et tui amoris in eis ignem accende.*

## OREMUS.

MEntes nostras, quæsumus, Domine, lumine tuæ claritatis illustra, ut videre possimus, quæ agenda sunt, & quæ recta sunt agere valeamus. Per Christum Dominum nostrum. Amen.

Hitz eguin ondoan.

Aitac. *Confirma hoc Deus.*

Carg. *Quod operatus es in nobis.*

ORE-

## OREMUS.

PRæsta quæsumus, Domine, auxilium gratiæ tuæ, ut, quæ, te auctore, facienda agnovimus, te adjuvante, eadem impleamus. Per Christum Dominum nostrum. Amen.

Aitac. *Procedamus in Pace:*
Carg. *In nomine Domini. Amen.*

## §. XI.

## EXERCICIOA-REN ASSIERA.

*Cong. Aitac.* ALabatua izan dedilla Aldarean dagoen Jesus-en *Bihotz* maita garria.

*Guciac.* Bai ta becatua-ren loitic icusi etzuen Jesus-en Ama-ere.

Aitac. *Jesus gurea, galduac izan ez gaitcen.*

Guciac. *Gorde gaitzatzu cere* Bihotzaren *erdian.*

*Aitac.* Gu-gatic Guizon eguin ciña, vici gucian neque-icerdia baicic ecusi etcenuena, ta odola ceriezula Gurut-

ce

ce batean josiric guelditu ciñan, Jesus maitagarria, *galduac izan ez gaitecen.*

Guciac. *Gorde gaitzatzu cere* Bihotza*ren erdian.*

*Aitac.* Gu gana asserre dagoen Aita palacatceco, ta gure becatuac gatic zor dioguna-ren alde Aldare orretan gueldito zaran, Jesus maitagarria, *galduac izan ez gaitecen.*

Guciac. *Gorde gaitzatzu cere* Bihotza*ren erdian.*

*Aitac.* Gure bihotzac, zureari dariozcan graciazco argui, ta amorezco suz bete naiez zauden, Jesus maitagarria, *galduac izan ez gaitecen.*

Guciac. *Gorde gaitzatzu cere* Bihotza*ren erdian.*

*Aitac.* Gure becatuen gurutceac, eta culpen arantza gogorrac zure *Bihotza*ri eman cioten neque, ta estutasunaren damua escatcen dezun, Jesus maitagarria, *galduac izan ez gaitecen.*

Guciac. *Gorde gaitzatzu cere* Bihotza*ren erdian.*

*Aitac.* Indartsuen janaritzat, eta anima erici indarrac emateco, Aldarean gueldicu zaran, Jesus maitagarria, *gal-*

*galduac izan ez gaitecen.*

Guciac. *Gorde gaitzatzu cere* Bihotza-*ren erdian.*

*Aitac.* Artu nai zaituzten-entzat, Ainguerucn ogui, ta edaten dutenac Virgina eguiten dituen ardo eguiñic, May orretan zanden, Jesus maitagarria. *galduac izan ez gaitecen.*

Guciac. *Gorde gaitzatzu cere* Bihotza-*ren erdian.*

*Aitac.* Amorezco labe, ta sutegui eguiñic cere *Bihotza* daducazuna, ta gurea-ren amodioa ecicatcen dezun, Jesus maita garria, *galduac izan ez gaitecen.*

Guciac- *Gorde gaitzatzu cere* Bihotza-*ren erdian.*

*Aitac.* Itsasoac are adiña becatu dituen gaistoa-rentzat, eta arseguin guciac or arquituco dituen onarentzat *Bihotza* zabaldua daducazun, Jesus maitagarria, *galduac izan ez gaitecen.*

Guciac. *Gorde gaitzatzu cere* Bihotza-*ren erdian.*

*Aitac.* Virtute guciac, eta lenic berach izatea, ta humilt-tasuna cere *Bihotzean* eracusten dezun, Jesus maitagarria, *galduac izan ez gaitecen.*

Guciac. *Gorde gaitzatzu cere* Bihotza-*ren erdian.*

*Aitac.*

*Aitac.* Eriotzac iurretic bota nai gaituenean, Ceruco hostaturaco behar dagun ondasuna, ta gracia *Bihotz* orretan dacartzula, gu gana etortceco zauden, Iesus maita-garria, *galduac izan ez gaitecen.*

Gaciac. *Gorde gaitzatzu, cere* Bihotza-*ren erdian.*

*Aitac.* Sacramentu andi orretan, munduaren vicitza, vicitzaco arbola, gaistoen Bitarteco, onen piztura, ta seculaco vicitza zaran, Jesus maitagarria, emendic ateratcen garancan seculaco *galduac izan ez gaitecen.*

Gaciac. *Gorde gaitzatzu cere* Bihotza-*ren erdian.*

Aña. *Improperium expectavit cor meum, & miseriam, & substinui, qui simul contristaretur, & non fuit, & qui consolaretur, & non inveni.*

Vers. *Discite à me, quia mitis sum, & humilis corde.*

Resp. *Et invenietis requiem animabus vestris.*

OREMUS.

DOmine Iesu, qui ineffabiles Cordis tui divitias Ecclesiæ Sponsæ tuæ singulari dilectionis beneficio aperire dig-

dignatus es , concede propitiùs, ut gratiis Cœleſtibus ex hoc dulciſsimo fonte manantibus corda noſtra ditari , ac recreari mereantur. Qui vivis, & regnas in ſæcula ſæculorum. Amen.

## CONGREGACIOAN SARTcen denac eſſan behar duen Otoitza.

ALdareco Sacramentuan zauden , Jeſus maitea , zuri zor dizudana, ta nere eſquer-gabea ezaguturic nator,ta lotſaz beteric gucia. *Bihotz* orretaco amore andiari nola-ere bait eranzutea gatic, eta orain dañoco nere utſ-eguite , ta zuganaco oztaſuna-ren zorrac ateratcea gatic,ſartu nai nuque, ori nola eguin behar den eracuſten duen, Bihorz beraren Congregacioan, edo Eſcolan. Ar nazazu harren, Jeſus, ni gatic ez pa-da-ere , cere, ta cere Ama-ren *Bihotz* garbiac gatic. Ematen- dizut , orain daño ez bezala , gaurgucro vicitceco hitza. Eguiñ alcan eguin uſte dut Congregacioco reglac eracuſten dutena : ta, daguidan , utſ-eguin gabe, indazu orretaraco behar dudan zure eſcu , ta laguntza. Hala guerta dedilla. Amen.

## §. XII.

## CER DEN INDULGENCIA

### *Cembat irabatzen dituzten Jesus-en* Bihotza-*ren Congregauteac.*

1 JESUS-en *Bihotza-ren* Congregacio-etatic anitzec dute Aita Santuaren Bulda. Bulda hau Congregacioa onzat ematen duen, ta *Indulgenciac* dacartcien gauza da. Indulgencia *animaco zorren barcacioa da.* Animaco zorrac becatuaren zorrac dira; ta dira, barcatcen ez diran zorrac, becatua bera barcatu artean. Cembait aldiz barcatcen ditu Jaincoac becatuaren zor guciac, becatua-requin batean. Ori guertatcen zaie, becatuaren damuz bihotza erdiratze-raño bezala erorri diranei. Gañeracoac zor-dun gueldítcen dira, becatua barcatcen zaienean. Zordun gueldítcen diran Congreganteen alde da Buldaren *Indulgencia* ta *barcacia*.

2 *Barcacio* hau erdiſten ez duen Congregantcac atera beharco ditu bere zorrac Purgatorian ſuzco nequea-requin, edo emengo neque, hildura, ta pertinencirequin. Purgatorioco nequea, neque arrigarria da; bai-ta emen becatu-en zorrâc eſcatcen duen nequea ere. Hau ezagutze-

co

co asqui da ecustea cer eraguin oi zuen len Elizac zor-onen alde.

3 Guezur-ezco juramentu bat-egatic eraguiten zuen *zazpi urteco* penitencia. Becatu hau eguin zuenac barutu behar zuen lembicico berrogui egun-etan urogui ur-equin; ta guero haſtean irur egunez. Hau eguin artean etcen comuniatcen. Gañeraco becatu-etatic batzuec zuten guiſa berean *amar-urteco* penitencia; beſteac *vici gucicoa.* Orietatic bat eguin zuenac, barutu ez-ecic, egon behar zuen igande oro Erricoac Mezatan ceudeño Elizaco ate-etan; ta, batzuetan beinzat oñ urſetan, ta ſoca bat lepoan ceducala; ta eriotceco horduraño etzitzaion comunioa ematen.

4 Seigarreneco becatu batzuec *zazpi*, ta *amar urteco* penitencia zuten: beſteac *vici gucico* penitencia: ta beſte batzuec *amabi urtecoa*, romerian ibiltcea, ta guero Conventuren batean ſartcea, an bere egunac bucatzeco obra onen, ta penitencien artean.

5 Honraco gauzan guezurra aſmatzen zuenac eguin behar zuen *vici con artean* oguizco, ta urezco penitencia. Beſte becatu moduac ba-zuten beren peni-

tencia ; ta chiquiena, orain ematen dirā, hen aldean guztiz-cen arrigarria.

6 Onembat zor ba-zaio Jaincoari becatua gatic, icusi zazu cembat-zorrequin arquitcen den cembait becatu eguin dituena, becatuac confessatuac, eta barcatuac egona gatic. Zor oriec escatcen duten emengo, edo Purgatorioco neque pean egon nai ez duenac, irabaz bitza hal dituen barcacio ta Indulgenciac. *Indulgenciac* irabaztea da, Jesus-ec, lurreco vicitzan, ta Passio santuan irabaci zuena-requin norc bere culpen zorrac ateratzea.

7 Indulgencia batzuec *osoac* dira; besteac ez. *Osoa* irabazten duenac ateratzen du bere burua cituen zorren artetic. Laburragoa irabazten duenari laburtzen zaizca bere zorrac. Osoric ez irabacia gatic, bein, ta ascotan irabazten dituen labur-equin, vici dela, atera ditzaque norc-nai dituen zorrac. Ala andiac, nola chiquiac irrabazteco, eguin behar da, Indulgenciac ematen-dituenac escatcen duena ; ta eguin behar da beguitan aituric olienac, edo becatuac.

12 Aita Santuac ez-ecic, beste cembaitec ere eman ditzaquec indulgenciac,

baña ez osoac. Errenco ezartzera noa, bein Aita Santuaren Buldaco Indulgenciac; eta guero Obispo Jaunac emanicacoac.

## *AITA SANTUAREN INdulgenciac.*

9 IRU indulgencia modu dacartea Congregacio-etaco Buldac: batzuec *Osoac*: besteac *zazpi urte, ta zazpi berrogueicoac*; eta besteac *irur-ogueiegunecoac*.

10 Buldaren Congregacioan sartcen diranac, sartcen diran egunean, confesatcen, ta comulgatcen dirala, irabazten dute *Indulgencia osoa*, edo becatu gucien zorren *barcacioa*.

11 Urte oro irabazten dute *Indulgencia osoa* urte oroco Jesus-en Bihotzaren *egunean*, egun hartan, edo lenagocoan, confessatu, ta comulgatzea-requin, ta Congregacioco Eliza, edo Aldarea visitatzea-requin, an escatzen zaiola Jaincoari, *beguira dezagola Eliza Santuari; gal-ditzala beregia gaistoac; ecarri ditzala Herege, ta Gentilac, beren oben, ta itsutasuna ezaguturic, gure legue garbi, onera; diela baquea, ta elcar ongui*

ar-

*artzeco gracia, legue berean vici diran; Erregue, ta Principeai; ta Aita Santuari osasuna.* Otoitz hau, ta Eliza, edo Aldarea, visitatcea eguin ditezque egun gucian; baita lenagoco eguneco Vezperetaco hordutic ere.

12 Eriotzeco horduan ere irabazten du Congreganteac *Indulgencia*, edo *barcacio osoa*, al-ba-du confessatu, ta comulgatcea-requin; ezperen becatuen damu andi bat artu, ta *Jesus* ezpañez, hau ecin duenean, bihotzez essatea-requin, edo barreneco damua nola-nai adizcera ematcearequin.

13 Beste *barcacio*, ta *indulgencia* anitz (eta andiac ala-ere, osoac ez izanagatic) irabaci ditzaque Congreganteac. Orietaric cembait irabazteco, artu behar dira, Bulda datorrenean, urte oroco lau egun (egun oiec, eta festaco eguna, ecin alda ditezque; ez eta bein Congregaciotaco artzen den Eliza, edo Aldarea-ere; ta aldatzen ba-dira, galtzen dira Buldaco inbulgenciac). Lau egun oietatic bacoitzean confessa-comecatu, ta len essan den otoiza Aldare, edo Eliza berean eguitea-requin irabazten da *zazpi urte; ta zazpi berroguecico indulgencia, edo zazpi*

*urte,*

*urte, ta berreun, ta larroguei egunez* len eguin oi cen, ta becatuac irabacia daducaten, penitencia arri garria-ren *barcacioa.*

14 Ba dira Buldan confessioric esscatzen ez duten *indulgenciac*, edo *barcacioac.* Irur-oguei eguneco zorrac, edo mereci cituen penitenciac (icusi dezu cein gogorrac) barcatzen zaizca orain esssatera noan gauzetatic edoccin eguiten duen Congregantearí; ta ez bein baicic, bacoitza eguiten duen aldi-oro. Eguin behar diran gauzac dira 1. Beste-equin batean *Meza* enzutea. 2. Congregatioco *exercicio*-etan egotea. 3. Congregacioco, edo beste edoccin *processiotan* ibiltzea. 4. Illen *ortzitzean* arquitzea. 5. Elizacoac artzeco dagoen eria-gana doan *Jaunari lagun eguitea.* 6. Hau ecin badu, belaunico eria-gatic *Aita gure bat*, eta *Ave Maria essatea.* 7. Vidariai, edo *Peregrinoai* echean lecu ematea, edo ematea cerbait. 8. *Eriac ecustea*, ta hitzonaquin laguntcea. 9. Asserre daudenai *baqueac* eraguitea. 10. *Etsai-equin baqueac* eguitea. 11. Gaizqui dabillena *zuzentzea.* 12. Ez daquienari *eracustea* Cozuco videa, ta Doctrina. 13. Bost *Aita* gu-

*gure*, ta *Ave Maria* Congregante illas-gatic eslatea. 14. Beste edocein *urricarizco*, edo misericordiazco gauza eguitea.

15 Otra cembat ondasun dacartcien asco costatzen ez den Aita Santuaren Congregacioco Buldac. Ez duten Congregacioac ez dezatela ecarri gabe utci, galdu ez ditzaten Congreganteac, bestela ere eguin behar dituzten gauz-equin irabaci ditzaqueen *Indulgenciac*.

## OBISPO JAUN-EN INDULgenciac.

16 NAiz Congregacioac Bulda izan, ta naiz ez, irabaz ditzaquee Congreganteac D. Gaspar de Miranda, Iruñeco Obispo Jaunac eman dituenen, *Indulgenciac*. Aita Santuac eman dituenen aldean laburrac dira Obispo Jaunarenac: baña vide gueiagoz, ta gueiagotan irabaz ditezqueanac. Urtean, illean, astean, ta egunean eguiteco, anitz gauza bereisten dituzte Congregacioco Reglac: eta orietatic edocein eguiten den aldi-oreco eman du Obispo Jaunac *berrogueí eguneco Indulgencia*.

17 Emen arquiten diran iru *Bedera-*

*rat-*

*Bederatzi*-urren-etaco egun-etan Congreganteac, eta gañeraco eguiten dituztenac irabazten dute egun oro *berroguei egunsco* indulgencia. Beste berroguei egunecoa erraten duten oro otoitz labur hau *Jesus maitea, beti, ta non-nai zor dizut asco, ta ez gutienic Aldareco Sacramentuan: nere zorrai nola-ere-bait erantzun nayez nago: gucien, baña lembicico lecuan Aldarecoen alde ematen dizut nere bihotz gucia.*

25 Viciac, irabazten duen, barcacioa, edo *indulgencia* utz dezaque Purgatorioan dagoenaren zorren alde. Viciac elcar-equin bezala, Purgatorioco-equin ere ba-dugu senide-tasuna: gucioc gara, Jesus bere burutzat ezagutcen duen gorputzaren ezurrac, eta Eliza Santuco humeac: eta elcarri viciac gueren otoitz, ta obra onaquin laguntcen diogun bezala, lagundu behar diegu hal dugunean Purgatoriocoai ere. Gueren lanaquin nola hau eguin dezaquegun, eracutsi dugu reglataco §.III.p.316.n.9. Lan on, ta penitencien pagua-requin bezala, lagun daquieque barcacio, ta indulgencia-equin ere. Utzazu bada Jaunaren escuan, irabazten dezun, *indulgencia*; escatzen dio-

-zula , izan dedilla gucienazor diozun añe
de , edo besteren batenzat, arquitzen ba-
da orietatic , ezperen berac-nai
duena-ren daco. Eguiten ba-
dezu , eguiñaz ez dezu
damu izain egunen
batean.

# §. XIII.

# JESUS-EN BIHOTZAren Bederatzi-urrena.

## EGUITEN DUENARI.

Aita Eternoaren escuan daude behar ditugun, eta gañeraco gauzac. Esca daquioque berari edocein; ta, escatcen zayola ongui, ez du behar denic ucatuco. Orre-gatic ere aditcera emana daduca, nai duela, esca daquion, escatcen zayona, bere Semea-ren *Bihotz*-eco maitarce andia gatic; eta ez duela ucatuco oncla escatcen zayon gauzaric. Nai duenac Bitarteco izan semea, ta erditsi Aita gandic escatcen diona, eguin bezo emen arquitcen, den Bederatci-urrena, garbituric confessioco iturrian bere bihotza; bada cembat garbi-agoa bihotza, ambat prest-ago, ceruco ondasun-etaraco. Hau eguin dezaque Bederatci-urrena asi baño len, edo onen egun-etatic batean. Len,

edo aspaldian eguin ez duenac, eguin be-za confessio generala, Bederatci-urrena eguiten duenean.

Duenac cer eman, ez dio hitz eguiten bitartecoari escu utsaquin; nai duena obequi eraguitea gatic, eramaten dio hal-duen *presenta*. Gure bitarteco Jesus onac ez du gure gaucen beharric: hala ere ongui artcen du bihotz osoz ematen, ta eguiten zayona; edo ongui deritza bezaren icenean eguiten den edoceń gauzari. Orrelacoac dira *Eriren* bat *ecustea*, eguiteco estuetan arquitcen denari *laguntcea*; icerdi, ta neque-etan dagoenari *escua ematea*; uste etzuen lan gaistoren batean sartu denari ateratceco *videa eracustea*; esquean dabillenari, edo beharrean arqui-cen den edoceńi *hal-dena lucatcea*: baita *barnac ateratcea* ere; otoreduetaco jan edanetic cerbait *uztea*; beguiratce, hitz eguite ta gańeraco gaucetan *obarturic vicitzea*; lanac eguitea quencen ez duen, ta cerbait miń, edo ońace ematen duen *silicio*, edo *corapilluzco* locarriren batequin gorputza esturuic ecartcea: mezac enzutea; Purgatorioan erretcen dauden Aide, zor diegun, eta gańeracoac gatic, *Aldare-etaco otoitz*,

edo *erreguac eguitea*, eta al ditugun lagun guciac *Jesus-en Bihotza-ren maitatzalleac eguitea*. Libru etan *iracurtzea*. Orra Bederatci-urrena eguiten denean eguin ditezquean cembait gauza.

Onac izanic ere gauza oiec guciac, guciac baño gueiago nai du Jesus-ec bihotz bat. Nai duenac bada, Arteco sendo guerra daquion bere-Aita-requin, utz beza Jesus-en escuetan bere bihotza, dituen asmo, gogo, ta eguiteco guciaquin. Eguin dezaque ori bederatzi-urrena asitcean, ta guero noizean bein pag. 298. arquituco duen otoitzarequin.

## *LEMBICICO EGUNA.*

*CHristo Jauna dagoen Aldarera beguira zaudela, Elizan ba-zaude, edo haren Bihotzaren Imagina-ren oñ-etan cinatu, ta errain dezu* Nere Jesu-Christo Jauna, &c. ta guero

## *EGUN OROCO LEMBICICO* Otoiza.

ONdasun gucien jaun, ta, jabe zaran Jesus maitea: behartsuac gara zu gana gatocenac: zuri gure beharrac, eta premiac aguertcera gatoz; oriec es-

eicatcen dutena, ta gure oneraco den gracia emain diguzulaco uste oioan. Adi gaitzatzu arren, cere *Bihotz*-eco amore andia garic. Amen.

## *LEMBICICO EGUN-ECO bi-garren* OTOITZA.

A*Nimen Artzay* on, Jesus maitea; ardi char-errebesa bezala, ibilli naz ni becatuen sasian, ta su-lececo otsotzarren artean: eraman nazazu, seculaco gal ez nadin, ardi on-etara, cere *Bihotza*-ren maitatzalle-etara; icas dezan nic ere, nola zu maitatu, nola vici, ta nola billatu emen behar dudana. Hala guerta dedilla. Amen.

*Jesus-en Bihotza-ren guruteeac, eta gararanzac aditcera emaien dituzten* amore-nequeen *icenean irur* Aita gure, *ta* Ave Maria.

## *EGUN OROCO IRUGARREN* OTOITZA.

OZeu diran bihotzac berotceo, cere *Bihotza*-ren devocioa berriro aguertu dezun, Jesus maitea; gal ez ditzaten, jaquin gabez, devocio onen ondasunac, emay,

emay-ezu Lurreco guciey, onen ezaguera andi bat, ezaguturic zure *Bihotza*-ri zor zaion *amorea*, ta gu garic eraman dituzun *neque*, *icerdi*, *odol-issurtce*, *charqueri*, ta *eriotz* gogorra, asi garen *amorez* erantzuten zure *amoreari*, ta *damuz zure neque-damu* andiey. Iguzu, Jesus, asitceco ecz-ecic, eriotz-horduraño onetan irauteco gracia. Amen.

*Esca zagozu Jaincoari, Jesus-en Bihotzeco amore-nequeac garic, nai dezun gucia. Guero esazu.*

Aña. *Improperium expectavit Cor meum & miseriam, & sustinui, qui simul contristaretur, & non fuit, & qui consolaretur, & non inveni.*

Vers. *Discite à me, quia mitis sum, & humilis Corde.*

Res. *Et invenietis requiem animabus vestris.*

## OREMUS.

DOmine Jesu, qui ineffabiles Cordis tui divitias Ecclesiæ Sponsæ tuæ singulari dilectionis beneficio aperire dignatus es, concede propitius, ut gratijs cœlestibus ex hoc dulcissimo fonte manantibus corda nostra ditari, ac re-

recreari mereantur. Qui vivis, & regnas in sæcula sæculorum. Amen.

*Latinez aditzen ez duenac, latina utcita essan dezaque.*

Aña. Illuntalunez, nequez, ta icerdiz beteric daduzca-dala nere *gorpuz-Bihotzac* ez dut idiro lagunzalleric, edo norc arindu cerbait nere tristura.

Vers. Icasi ni-gandic bihotzeco beratasuna, ez aserretzea, ta ez burua goratzea.

Resp. Ori da alabaña ongui, ta aisa vicitceco videa.

## OTOITZA.

COnt-al baño ondasun guciago ceré *Bihotz*-eco Devocioan Elizari berriro aguertu diozcatzun, Jesus maitea, *Bihotz* oneraco amore andia garic iguzu gure bihotzac garbitceco behar dugun graciaren ura, ta zu ciñez maitatzeac escatcen duen gucia. Bai arren, Aita-requin, ta Espiritu Santua-requin bat zaran, Jesus ona. Amen.

## ORAIN, COMUNIOCO EGUNetan, *ta noiz nai erran ditequean, ta anitz valio duen.*

## OTOITZA.

JESUS-en *Anima*, virtutez bete nazazu.
Jesus-en *Bihotza*, amorez erre nazazu.
Jesus-en *Gorputza*, salva nazazu.
Jesus-en *Odola*, amorez zora *nazazu.*
Jesus-en *Bihotz*-eco *ura*, garbi nazazu.
Jesus-en *Icerdia*, graciazco viciz bete nazazu.
Jesus-en *Passioa*, indarsu eguin nazazu.
Nere *Jesus Ona*, adi nazazu.
Zure *Llaguetan*, zure *Biotza*-ren erdian gorde nazazu.
Ez nadilla ni etsaien *escuetan* erori.
Nere eriotzeco orduan dei-nazazu.
Zere gana eraman nazazu;
Zure Santu-equin alaba zaitzadan beti, secula guzian. Amen.

## BI-GARREN EGUN-ECO *bigarren* OTOIZA.

HUme *char* esquer-gabe gaistoac gagara gu, Jesus maitea; bada, eguin beharra egun leçuan, eguin ditugu,

gu, zuri atsecabe eman dizuten, anitz gauza, ta charqueri. Eguiñaz damaturic arquitcen gara. Barca izquitzu orain daſſoco gure utſ-eguiteac: eta iguzu, berriſſic ez eguiteco, ta *hume onac bezala*, zure erranac zucen eguiteco gracia: bai-ta orain eſcatcera goacena ere. Amen.

### *IRU-GARREN EGUN-ECO bigarren* OTOIZA.

GU gana guztiz *aſſerre dago*, Jesus, zure Aita maitea. Aſſerretu da, eguin diz-quitzugun char-queriac gatic. Cere aldetic barcatu ez-ecic, *erdit-ſi* behar diguzu Aita gandic gucien *bar-camentua*. Eman behar diguzu, hura-bertiz ez aſſeretceco, gracia; ta orain eſcatcera goacen beste gauza. Eſcatcen dizucera goacen beste gauza. Eſcatcen dizugu cere *Bihotz*-eco amorea gatic. Ala guerta dedilla. Amen.

### *LAUR-GARREN EGUN-ECO bi-garren* OTOIZA.

BErandu bad-ere, ezagutu dut, Jesus, ni gatic ditala zure *Bihotza*-ren *triſ-turac*, eta gañeraco *nequeac*. Neque-

tril-

tristura oriec arindu nayez nago. Indazu orreta-raco behar dudana. Indazu nere culpen ciñezco damua; becatu berritic ez eguiteco gracia; ta egun escatcen dizudana. Escatcen dizut zure *Bihotzac* ecusi duena garic. Amen.

## *BOST-GARREN EGUN-ECO bi-garren*
## OTOIZA.

G*Uuey-egui nai diguzu*, Jesus; ez da gu garic ecusi ez dezunic. Gu garic arru zaituzte presso, urratu zaituzte burutic on-etarano, ta, gurutce batean josiric, quendu dizute vicia. Ceñ andia den zure *Bihotza*-ri zor diogun amorea! Iguzu, hau ezaguteeco, oni eranzuteco, ta ongui viciteeco behar duguna; ucatu gabe escatcera goacen oraingo gauza. Amen.

## *SEI-GARREN EGUN-ECO bi-garren*

## OTOITZA.

BA-daquir, Jesus maitea, gurutcetic ecusi cenuenean, beguira cegoquizun, cere Ama, itsasoco ur gaciac

ba

baño, gaci-agoac cirala zuen *Bihotz*-etaco esku-tasun-neque-tormentuac: orduco bien tormentu gaci-gogorrac gatic, eman behar didazu, nere nequeen artean, behar bezala, egoteco gracia;ta orain escatcera noana. Amen.

## *ZAZPI-GARREN EGUN-ECO bi-garren* OTOITZA.

ICas dezagula, diozu, Jesus, zure *Bihotzac* eracusten digun *bera-tasuna*, ta *isill-era*. Ill-cera daramaten ardia bezain isill, ta humill igan ciñan galvarioco mendira; ta ezpañac erabilli bacenituen guruteean, izandu cen, zere *etsayen alde hitz-eguiteco*. Hitz-eguiozu orain ere, ta esca zagozu Aitari, digula zurea dirudien bihotz isil, manso, humill bana; ta gañeraco behar dugun gucia. Amen.

## *ZORTZI-GARREN EGUN-ECO bi-garren* OTOITZA.

ZUre atseguin ta gustoa dela, diozu, Jesus, anima garbien artean vicitcea: orre gatic gueldítu zara gure-

guin Aldareco Sacramentoan. Zori onecoac garbiro, ta ascotan zu ganatceh diranac! Indazu, zureari darion, ur-etic nere Bihotza garbiteco, behar dudana; aguer nadin maiz, zuri atseguin eguitera, ta nerau aberastera. Indazu orain escatcera noan gauz-ere. Amen.

*BENDERATCI-GARREN, egun-eco bi-garren*
OTOITZA.

I*Ndazu*, erraten dit Jesus-ec, *indazu nere semea, cere bihotza.* Ez dit gueyago escatcen, ni gatic eguin, ta eraman duena-ren alde. Ceñ ona, cen maitagarria den guretzat gure Jesus! Gaurguero zuri nola nic uca nere bihotza, edo bihoz osoz zu, ta ciñez maitatcea? Indazu orretaraco behar dudana, ta Bederatci-urren onetan escatu dizudan gucia. Ala guerta dedilla. Amen.

*JESUS-EN BIHOTZA-REN Devocioari.*

GUre gusto, gure atseguin,
gure Jesus maitea:
*Cere Bihotz-eco suan*
*erre zazu gurea.*

Gure

Gure obenac, gure loiac
lenic quendu behar dirà;
Ura zara, quen-itzatzu,
galdu gara bestelà.
Ba-daquigu zaudelà
gure amorez beteà:
*cere Bihotz-eco suan*
*erre zazu gureà.*

Etceuden bacarric loyac
gure bihotz gaistoàn;
busti ta ur-eguiña dago,
becatuen cutsuàn.
Garbia da, idor dago
Jesus ona, zureà:
*cere Bihotz-eco suan*
*erre zazu gurea.*

'Arguiz dago bereric,
Jesus, zure *Bihotza*:
illumbean gurea
elurra bezain otza.
Emen gatoz, aguer zazu
zu ganaco videà;
*cere Bihotz-eco suan*
*erre zazu gurea.*

Noizbait noizbait arquitu dut
bular hori idiquia!
sartuco naz, ar nazazu
Bihotz-ean gucia.

Egon

Egon behar ez, ote dut
nic or beti gordea?
*cere Bihotz*-eco , *&c.*
Zure suac , zure garrac
auts eguiñen naute ni?
Guerotzic egoin ninzaque
amorez urtzen beti.
Jesus, zu zaran ezquero
gure animen labea;
*cere Bihotz*-eco, *&c.*
Hau cer da ? Cer penac dira
dituzunac barrendic?
zure Bihotza utci dute
dena nequez beteric!
ceñ andi ta gogorra den
daramazun nequea!
*cere bihotz*-eco *suan*, *&c.*
Zure Bihotza arquitzen da
lantzaz erdiratuà:
nere culpen burdiña da
lantz erdiratzalleà.
Damuz autsi ba-ledi
nere barren tristeà!
*cere Bihotz*-eco *suan*, *&c.*
Arantza zorratzac baicic
ez dezu nere escuric:
nere culpen arantzaquin
dena zaude odolturic.

Ah ni baldin ba-nengo
negar, damuz asea!
*cere Bihotz-eco suan*, &c.

Gure culpac eguin dute
Gurutze sendor ori;
ezartzen diote culpac
zure Bihotz onari.
Culpa gaisto, oben gogòr
oben culpa nerea!
*cere Bihotz-eco suan*, &c.

Cer nai duzu? Certan zaude,
Jesus ona, Aldarean!
charqueriac artean dagó
amorezco lecuan.
Charquerien pena nai du;
naì du gure amoreà.
*cere Bihotz-eco suan*, &c.

Ez dut behar maitatù
Jesus zùre bihotzà!
artu behar ez dut nic
zurè nequeen damuà!
Esque nator, zabal zazu
sar-videco Ateà,
*cere Bihotz-eco suan*
*erre zazu gureà.*

* * * * *

* * * *

SAN

# SAN IGNACIO Loyola-coaren Bederatzi-urrena.

## Eguin behar duenari.

BEre Semea gatic ez-ecic, Santu-ren bat bitarteco sartcen zaionean ere, eman oi ditu Jaincoac, berari zu zen escarcen zaizcanean, ucarcen dituen cembait gauza. Orre gatic cerbait ar-gandic nai dugunean, ascotan bera gana baño lenago goaz Santuren baren gana; eta, ceren cembait aldiz Santuac ere ez adituz eguiten diguten lembicían, berriz ta guciagotan escarcen diegu, izan di-zecela Jauna-tequico gure Arteco.

Onelaco escarceac irauten dute cem-bait egunez; ta, icen edo otsic andie-na duenac, bederatzis. Bederatzi-egu-nez irauten duen escarzeari deitu daquio-que *Bederatci-urrena.*

2 Gucicna lagunduco diola deritzan Santuari eguiten dio bacoitzac egun ho-gietaco bete escaera, edo *Bederatci-ur-rena.*

*rena.* Batequiñ baño bestea-requin gues dago ez duten-entzat ba-dira cembait Santu, orretaraco jayoac diruditenac. Orien artean conta ditezque *Loyola*-co Aita *San Ignacio*, ta onen Seme andi, *San Francisco Xavier*; bada biac izandu dira beti escu andicoac, billatu dituztenen oneraco: ta orretaratcen ba-guiña, cunca, ta millaca contatu beharco guenituque, aldi horietan eguin dituzten gauza andiac, edo milagroac.

3 Laguncza Santuaren hau zu ganatzeco, bederatci-urrenari zaquitzanean, eguin behar dituzu haren izenean cembait gauza. Eguin ditzaquetzu Jesus-en Bederatci-urren-eraco bereci ditugunac. Lecturic ba-dezu, iracurri zazu egun orietan Santua-ren vicitza, edo beste libru onen bat.

4 Nai centuen gauza gabe arquitua gatic, Bederatci-urrena eguin ondoan, ez daquizula iduri, dembora galdu besteric eguin ez dezula. Humeari, ongui nai dion, Aitac ez dio, escatcen duen, canibeta ematen; ta, haren lecuan, ematen dio, behar duen, janaria, ta gauza. Cer behar dugun, ta cer gure gaitceraco izain den, gue baño obequi daquien

Jau-

Jauna-ren humeac gara; vide onez escarcen dioguna ucatcen ba-digu, galdu ez gaitzan da; ta haren ordañez ematen digu, on eguiñen digun, gauza-ren bat.

# LEMBICICO EGUNEAN EGUIN behar dena.

CIñATU, ta *NERE JESU-CHRISTO Jauna*, *&c.* erran ondoan egun oro lembicico lecuan eguin behar den-

## OTOITZA.

JAunaren *glori* andiraco, ta munduco guciay *lagundu nayez*, Jesus-en Compañia ecarri cenuen, Aita S. Ignacio, lagun zaquizquit, zure icenean eguiten dudan, bederatci-urren onetana ta, icusten ez pa-dezu, nere gaitzeraco dela, erdietsi behar didazu Jauna gandic egun escatcen diodana. Amen.

# LEMBICICO EGUNEAN baicic eguiten ez den-

## OTOITZA.

ANdia cen Aita San Ignacio-ren *fiñestea*, ta *fedea*; hau baño lenago urcico zuela, cion, bere *vicia*. Ill-cen artean eguin zuen al-eguiña, fiñiste berá, ta fedea ar-eraztea garic Heregegaisto, Turco, ta Gentiley. Oneran ta bere finistea-requin eguin zuen irabacia garic, indazu arren, Jesus, gure legueco misterio, ta gauta gucien *fiñiste vicifendo* bat; baita egun escatu behar dudan gucia ere. Amen.

¶ *Orain A. San Ignacioc Trinidadeco Person-equin izandu zuen devocioaren icenean*, *iru* Aita gure, *ta* Ave Maria.

# EGUN-ORO EGUIN BEHAR DEN irugarren-

## OTOITZA.

JESUS-en Compañia bildu, ta zucendu cenuen, Aita San Iguacio, *zucendu*

... nai nuque nic ere nere bihotza, ta urci nere Jesus onari beguira. Iesusa bezala vici naz, ta ez daquidala, escatcen ditudan, gauzac gai diran onetaraco, edo ez. Daquizunac bezala, lagundu behar didazu eguiteco onetan; ta, nere nayari beguiratu gabe, esca zagozu Jaunari, nere oneraco izain dena, ta, orrelacoa bada, beste gauzen artean, orain zure icenean escatcera noaquiona. Amen.

¶ *Cembait demboraz eguin zara Aita San Ignacio-ren icenean Jaincoa-ri escatcen nai cenuquean, ta behar dezun gucia.*

AZQUENEAN EGUIN BEHAR DEzu, Aita San Ignacioc Jaunari eguin oi cion-

OTOITZA.

O*NA, Jauna, zure escuetan uzten ditut, nere escua, nere adimentua, ta vorondatea. Ez dut nic, zugandic artu gabeco gauzaric: zurea da dudan gucia: gucia biurtcen dizut, ja-*

*bea-*

*beari bezala. Ez dut gaur-guero zuri ez dagoquizun gauzaric nai. Baña, zureac diran ezquero nere gauzac, eracutsi zadazu, nola eguin; edo nola zu ciñez maitatu; bada maitatce onetatic datozgauzac zucē eguitea, ta feculaco gloria. Orregatic maitatze hau da nic nay dudan gacia, ta orain efcatcen dizudana. Indazu arren. Amen.*

Aña. *Similabo eum viro fapienti, qui ædificavit domum fuam fupra petram.*

Verf. *Amavit eum Dominus, & ornavit eum.*

Refp. *Stolam gloriæ induit eum.*

OREMUS.

DEUS, qui ad majorem tui nominis gloriam propagandam novo per B. Ignatium fubfidio militantem Ecclefiam roborafti, concede, ut ejus auxilio, & imitatione certantes in terris coronari cum ipfo mereamur in Cœlis. Qui vivis, & regnas in fæcula fæculorum. Amen.

*BI-GARREN. EGUNECO bigarren-*

OTOITZA.

EScatcen duguna-ren emalle on Jaun maitagarria, iguzu Aita San Ignacio-

*io-ren* icenean, oni eman cenion bezain laco *uste*, ta *esperanza* andi bat. Ecin siñistu zuen onec, ucatu behar ceniola escatcen cizun gauzaric. Nic ere, ucatuco ez didazulaco ustean, escatcen dizut, lenic Cerua irabazteco behar dudan gracia, ta guero zuri orain escatu gogo dizudana. Arren indazu. Amen.

## IRU-GARREN EGUN-ECO *bi-garren*

## OTOITZA.

ANdiac ciran Aita San Ignacioren virtuteac; eta etzen chiquiena Jaincoari cion *ongui naya*, ta *amorea*: onec idazoquitcen cion: *lagun zaquizquit zu ciñez maitatzen maitatceo one-gatic ez dut, berriz ta obequi zu maitatzea beste paguric nai!* Indazu Jesus, onen bihotza berotu zuen *sutic* cerbait, *maita zaitzadan* nic ere orain-daño ez bezala: bai-ta orain escatu behar dizudan beste gauza ere. Amen.

LAU-

LAU-GARREN EGUN-ECO bi-garren

## OTOITZA.

ZU *maite* zaituenac, Jesus ona, *maite ditu zureac*, eta zureac gatic eguiten du, zuc orretaraco nai dezuna. Hau da San Ignacioc eguin zuena: bada, zu gana cenetic ill artean, beti cebillen munducoac zucentcen, ta nondic ceruan sar-eracico cituen. Orretan eman cizun atseguin andia gatic indazu arren nere hitz, eta gauza guci-equin ceusten nautenai Ceruco videan lagunzeco gracia; ta orain escatcen dizudana. Amen.

BOST-GARREN EGUN-ECO bi-garren

## OTOITZA.

ARri-garria da Jesus, zuc *isillic*, eta *paciencian* gu gatic eraman dezuna. Zu gandic icasi zuen Aita San Ignacioc nola eraman Preson-deguiac, cateac, maquil-ucaldeac, deshoore, gose-egarri, ta gañeraco nequeac. Gu gatic zuc, eta zure icenean onec eraman zuena gatic iguzu gure nequeac, eta estutasunac, behar-

Bar-bezala eramateco gracia ; baita orain escatu behar dizuguna ere. Amen.

*SEI-GARREN EGUN-ECO bi-garren*

OTOITZA.

B*Ihotz garbiac* maite dituzun , Jesus ona., garbitu cenion Aita San Ignacio-ri araguia-ren su , gar , ta tentacioetatic berea ; bidalduric orretaraco Cerutic cere Ama. Indazu nere bihotza garbitceco behar dudan gracia, ta orain aditzacico dizudana. Escatcen dizut S. Ignacioren , Virgen Ama-ren, ta zure *Bihotz* garbia-ren icenean. Amen.

*ZAZPI-GARREN EGUN-ECO bi-garren*

OTOITZA.

AItac nai duena baicic nai ez dezun Jesus maitea ; ba-dacusazu , nola S. Ignacioc eguin zuen hal-eguiña , zure Legueac diona *eguin , ta eraguitea* garic ; orretan eman cizun atseguin andia garic , iguzu , zuc nai dezuna eguiteco gracia;ta orain escatcera goazena. Amen.

ZOR-

*ZORTI-GARREN-ECO BI-GARren*

# OTOITZA.

ABeratſ-izan cindez-quecala, *nequeac*, eta *beharra* beſteric icuſi etzenuen, Jeſus maitea; San Ignacioc, zurearen idurico vicitza eguitea gatic, utci cituen, lurreco ondaſunac, hontae, eta gauzac; eta, *ah! cein ciquiña iduritzen zaidan mundua bere gauz-equin* (eſan oi zuen), *Ceruaz, ta an uſte dudan atſ-eguin-contentuaz otoitzen nazanean!* Nai nuque nic ere vide hau artu. Zuc, eta Santu andi onec eguin dezutena gatic indazu lan onec eſcatzen duen gracia: baita eſcatzera noan bertce gauza ere. Amen.

*BEDERATZI-GARREN EGUNeco bi-garren*

# OTOITZA.

SEme onac bezala, maite dezu, Jeſus, zere Ama; ta nai dezu, maita dezaten beſteac ere. Maitatzaſleric izandu ba-du, izandu da bat Aita San Ignacio. Mundua utci horduco billatu zuen zure Ama-

Ama: billatu zu-eneco eracutsi cion Ceruco videa, eracusten ciola Exercicioetaco Libru ederrean dagoena. Onec nai izandu ciona gatic, iguzu guri ere *maiza-rasun ederraren Ama* hau ciñez ta beti maitatzeco gracia; ta, Ceruco gloria diguzun artean, vicitza char hau ongui igarotzeco behar duguna. Amen.



# AITA SAN IGNAcio Loyola-coari.

1 BA-daquizu, San Ignacio,
Etsai anitz dugula: (bay bay
gucia-quin pelcara
noiz nai ateraco gara,
zu ba-zatoz gugana. (ciñea
2 Etzaude galtcera uzteco
billatcen zaituena: (ez ez
behartuco ba-cindugu,
Euscal-dunac uste dugu
diguzun zuc eicna. (bay bay
3 Izan ciñan zu Loyolan,
ez bein, bitan jaioa: (bay bay
bein Soldadu munduraco,
urrengoan Ceruraco;
len ta guero Euscalduna. (bay bay
4 Soldadetsca Munducoan
izan ciñan andia: (bay bay
Anditasun lurrecoac
etziran deus, Cerucoac
jaitsi ezquero zu gana. (ez ez
5 Non da guerra? non da etsaya
zu izutu cinduena? (non? non?
armac, lanzac, suac, garrac,
etsai gucien indarrac
gure contra cer dirà? (cer? cer

Non-

5 Nondic nai, ta nai adiña
cetocela zu gana; (noiz nai
iguesi nor-nai ligero
cijoan, artu ezquero
zuc escuan ezpatà. (bay, bay

6 Arrceco ceuden Francesac
Iruin-darren Erria: bay, bay
orduan zu sarcen zara,
laster zoaz arm-etara,
ta arritzen da Francesà. (bay, bay

7 Murallac galduac ceuden,
galduric Gaztelua; (bay, bay
zu bertan ez aguertzera
muru sendor izatera
sartua cen Francesa. (bay, bay

8 Iruñeco, ta Españaco
Gazteluac cer dira? (cer? cer
munduaren lau Bazterrac,
onen Erresuma ederrac
daude zure contura. (bay, bay.

10 Negarrez beteric dago
zure deyez mundua: (bay, bay
nago, dio, ni galtzeco,
ta Infernuan erretzeco
ez-pa- zatoz ni gana. (bay, bay

11 Atoz, atoz, San Ignacio,
atoz arren onara; (laster
becatuac, heregiac
munduco gaiSta-queriac

emen

emen nere gain dira. *bay, bay*

22 Erregue-en Soldadesca
utzazu bereala : (*bay, bay*
artu zazu Cerucoa,
hau da, bai, hau honrazcoa,
ez zuc orain dezuna. (*ez ez*

23 Bala barec bota zaitu
murallatic lurrera. (*bay, bay*
Buru, ta ezurrac austea,
tripa, esteac urratcea
da guerra onen pagua. (*bay, bay*

24 Ba-du beste Soldadescac
seculaco gloria: (*bay, bay*
hara guero zu zoacen,
ta zurequin gu goacen,
atoz atoz onara. (*fite*

25 Sendatcera zu, San Pedro
laster etorrico da. (*bay, bay*
Baña indarrac izain dira
eramateco (beguira)
munducoac Cerura. (*bay, bay*

26 Virgina dator uztera
zu virtutez jauncia : (*bay, bay*
Ori da arrec zu eguitea
Soldadu, ta moldatzea
gu ganaco videa. (*bay, bay.*

27 Ea laster bildu zazu
Jesus-en Compañia: (*laster.*
zu Capitan ba zaitugu, ezt az

erraz garaituco dugu
guc Infernu gucià. ( erraz.
28 Zure Cartac len zeduzcan
Debruac icarà: ( bay bay.
Infernuan oic sartceco,
ta ondatuac gaur uzteco,
asco da zure icenà. ( bay bay.
29 Españian, ta Italian
bada zure beharra: ( bay, bay
Africaco bazter etan,
Asian, ta Indietan
ay! aguertzen, ba ciña! ay! ay!
20 Francia, ta Germania,
Polonia gucia: ( ay! ay!
Flandes, Olanda, Hungaria
Dinamarca, ta Escocia
cer eguin otc dirà? ( cer, cer
21 Inglaterra, ta Irilanda;
Turcoaren errià, ( ay ay
Succia, Moscovia,
Tibet, Mogol, Tartaria,
China, Japon non dirà! ( non non
22 Guciac, eta guesagoc,
dute zure beharrà: ( bay, bay.
Atoz bada laguncera
diranai, ta eramatera
nai dutenac Cerurà. ( zucen
23 Laguncеco zuc guciai,
ez

ez da cer utci Romà: (ez, ez
zure Seme Soldaduac
betoz ongui prestatuac;
ori laguntzea da? (bay, bay.

4 Non nai ez egona gatic
Soldadu Nagusià; (Cerdan
Soldaduac ba dabilza,
Nagusiac darabilza;
ta ajen lana onena da. (bay, bay.

5 Españara betor Borja,
Canisio Norterà, (betor.
betor Fabro Franciàra,
Xavier Indietàra,
betor Lainez Trentorà. (betor.

6 Aita Ancheta, Aita Lizardi,
Aita Claver andia, (betoz.
Acebedo laguna-quin,
ta Montoya beste-equin
betoz Americara. (betoz.

7 Hitz batean esain dizut
esan nai nuqueanà: (bay, bay.
Jaunac bidaldua cèra
Seme-equin zucentzeera
Mundu guci gucià. (bay, bay.

8 Ea bada; nai diozu
eman, behar duena? (eman.
Compañia bana zazu
Munduan, ta bete zazu
Jesuitez gucia. (bay, bay.

SAN

# SAN FRANCISCO XAvier-en Bederatci urrena.

Bederatzi-urren hau eguiten denean Jesus-en Compañiaco Elizan, irabaz ditezque *Indulgenciac*; bat *osoa*, eta gañeracoac *zazpi urte*, *ta zazpitan berroguei egunecoac*. Guciac escatzen dute *confessa-comecatzea*, ta otoitza. Otoitza eguiten zaio Jaincoari comunioco egunean; ta eguiten zayo pag. 349. eracutsi deguna gatic; eta eguiten da Bederatzi-urrena den Jesus-en Compañiaco Elizan. Lembicico hau eguiten denean irabazten da *Indulgencia*, ta *barcacio osoa*. Berriz bederatzi eguneran eguiten den aldi oro irabazten da *zazpi urte*, *ta zazpitan berroguei egun-ecoa*.

Bederatzi-urrenaren ondotic arquituco dezu San Francisco Xavier beraren *Amar-urrena*. Hau eguiten den egunetaraco bada *Indulgencia* bera: lembicico confessa-comecatu, ta otoitza eguiten deneco *osoa*; ta beste egun-etaraco *zazpi urte*, *ta zazpitan berrogueicoa*.

Egun onelaco-etan eguin oi diran gauzac arquituco dituzu pag. 355.

## *EGUNOROCO ASIERA.*

SAntuaren Aldareçan, edo haren Imaginari beguira zandela ciñatuco cera; esain dezu *Nere Jesu-Christo Jauna, &c.* ta egun oro lembicico-

## OTOITZA.

CEruco *doàyez*, ta *gloriàz* beterie zauden, Indiëtaco Apostol San Francisco Xavier: escatzen diozun gauzaric ez dizu Jaunac ucatzen: esca zagozu bada gure oneraco, ta beraren gloriaraco den gucia; ta, orrelacoa bada, Bederatzi-urren onetan adiracico dizuguna. Amen.

## *LEMBICICO EGUN-ECO bi-garren*

## OTOITZA.

A*Inguerüen* jabe, ta Jaun andia; oriebatatic bat ematen diozu Lurreco bacoitzari, *zai* dezan, ta *gorde* vici den artean. Aingueru-equin batean erabilli cenuen Lurrecoac *zaitzen*, bere bihotz-asmo garbi-etan *Ainguerua* cirudien San Francisco Xavier. Batac eta besteac eman dizuten atseguin andia gatic, iguzu *bihotz garbi* bana, ta orain escatzen dugun gucia. Amen.

*SAN*

*SANTUA-REN ICENEAN*
*itur* Aita gure, ta Ave Maria; *ta*
*guero iru-garren.*

## OTOITZA.

CER hari diran ez daquiten Aurren ezpañ-etatic cere laudarioac aditzen dituzun, San Francisco Xavier, nai genuque, leuden eriotzeco horduan gure bihotzac Jauna-ren amorez beteac, eta zu, guri laguntceco, gueren bazter-ean zaitu-gula; leguien Jesus-ec gure Animey, gorputzac utciric, argaṅatcen diranean, begnitarte ona. Hau escatcen diogu, gure zorren alde eman zuen, vicitza, ta odola gatic, bere Amaren bihotz garbia gatic, eta zuc irabaci cenuen gucia gatic. Escatcen diogu dembora berean, lurreco *asmo charrac* uzteco, ta ceruco gauzen *nai andi* bat artceco behar dugun gracia; *vicitza* zuccena-ren videz far gaitecen *eriotz* ona-ren escu-etan. Lagun zaquizquigu onetan, ta gañeraco escatu behar diogun gucian. Amen.

*ESCA ZAGOZU JAINCOARI, San Francisco Xavier-equin batean, izan gogo dezuna. Esazu guero Santuac egun oro esar oi zuen-*

## OTOITZA.

OROI zatez, gauza guciac eguiten dituzun Jainco mairea, zuc eguiñac dirala *bataiatu gabe* daudenen animac. Ba-dute, besteac bezala, zure antza, ta iduria; baña gure Legucearen berriric gabez, illumbean bezala daude ta galtceco videan. Argui eguiezu, ezagu dezaten Jesusi zor diotena; valia ditezen onen odolezco Passio Santuaz, ta izan ditezen Ceruconac, Cerutic jaitsiric zure Semeac bere contura artu cituenac. Bai arren, oriec garic ez-pad-ere, maite gaituzten Santuac garic, eta Elizan, edo zure leguean vici diranen otoitzac garic. Amen.

Aña. *Hic vir despiciens mundum, & terrena, triumphans, divitias Caelo condidit ore, manu.*

Vers. *Justum deduxit Dominus per vias rectas.*

Resp. *Et ostendit illi regnum Dei.*

ORE-

# OREMUS.

DEUS, qui Indiarum gentes B. Francisci prædicatione, & miraculis Ecclesiæ tuæ aggregare voluisti, concede propitius, ut cujus gloriosa merita veneramur, virtutum quoque imitemur exempla. Per Christum Dominum nostrum. Amen.

## BI-GARREN EGUN-ECO *bi-garren-*

# OTOITZA.

ARchangeloey eman oi dieztezun *eguicoac* eman ceniozcan S. Francisco Xavierri; ta eguin cituen guciac, zuc nay bezala, zucen ta ederqui. Orreran eman cizun arseguin andia garic, iguzu, Jainco maitea, zuc nay dituzun *gauzac* behar bezala eguiteco gracia; ta orain escatcen duguna. Amen.

## IRU-GARREN EGUN-ECO *bi-garren-*

# OTOITZA.

CEruco *Principadua* cirudien S. Francisco Xavierrec, berez, ta, bera ecin zoaqueen alde-erara Lagunac vidalduric, *erruñsten* cebillenean Munducoay, onac izateco, ta ceruan sartceco jaquin behar zutena: zure icenean onec eguin,

ta eraguin zuena gatic, indazu arren, Jainco maitea, nereac, eta gañeracoen gauzac zucenceco behar dudan *ezaguera*, ta *gracia*; ta orain eſcatuco dizudana. Amen.

*LAU-GARREN EGUN-ECO bi-garren.*

OTOITZA.

CEruco *Poteſtadeac* ez-ecic S. Francisco Xavier-ec ere *aienatcen* cituen gorputz-anime-tatic ſu-lececo gaizquiguin gaiſtoac: onec, eta cerucoac zure icenean eguin dutena gatic, iguzu, Jaun andia, gure *etſayac garaitceco* behar dugun gracia; ucatu gabe egun eſcatu uſte dizuguna. Amen.

*BOST-GARREN EGUN-ECO bi-garren.*

OTOITZA.

CEre *Virtuteen* eſcuz anitz gauz andi eguiten dituzun, Jaun maita-garria, ez dira chiquiac S. Franciſco Xavierrec Ceruan, Lurrean, itſaſoan, ta nonnay *eguin* dituenac. Cerucoen gauzac gatic; eta lurreco *Virtute* andi onec, eguin cituenetan eracutſi zuen *humil-taſuna* gatic, inda zu nere gauz-etan zure *honra* ta *gloria billatceco* gracia; ta orain eſcatcen dizudana. Amen.

*SEI-*

## SEI-GARREN EGUN-ECO *bi-garren* OTOITZA.

EScu andicoac izana gatic Ainguеru-*Dominacioac*, besteac bezain *prest daude* Jaunac adi-razten diena bereala eguiteco. Anitz-en Nagusi ta Buru bezala cen S. Francisco Xavier; ta âl-ere gogo osoz ta tricatu gabe *eguiten zuen* Jauna-ren icenean erraten cioten gucia. Onec eta Cerucoac dizuten errespetua gatic, indazu Jainco maitea, zuc cerorrec, eta zure lecuan daudenac adirazten didatena zuzen eguiteco gracia; ta beste behar dudan gucia. Amen.

## ZAZPI-GARREN EGUN-ECO *bi-garren* OTOITZA.

AInguеru *Tronuen* eguitecoa bere gain arturic, Mundu gucian ibilli cen S. Francisco Xavier, Jauna-ren *Icena*, ta gure *Legue*-co berri onac banatcen. Orretan eman cizun atseguin andia gatic, indazu, Jainco maitea, zure Legueac eracusten duen bezala, viciteco gracia, ta orain escatcen dizudana. Amen.

*ZOR*

ZORTI-GARREN EGUN-ECO *bigarren*

# OTOITZA.

AIngueru *Cherubin-ey* ez-ecic S. Francisco Xavierri ere aguertu ciozcan Jaunac gauz, eta mysterio andiac; eta ala onec, nola Cerucoac eguin zuten *aguertze*; ta *eracuste* onec escatcen zuena. Orretan artu cenuen atseguin andia gatic, iguzu, Jainco maitea, jaquin behar ditugun gauzen *berria*, ta, *berri* onec escatcen duen bezala, vicitceco gracia; ta orain escatuco dizuguna. Amen

BEDERATZI-GARRENEGUN *eco bi-garren*

# OTOITZA.

BA-daquit, Jainco maitagarria, cere *amorez* urtzen daduzcatzula Ainguerru *Serafinac*: ba-daquit, orietatic bat cirudiela S. Francisco Xavierrec, emen vici cenean ere: lurreco *Serafin* onec, eta Cerucoac dizuten *amorea* gatic, iguzu, zu ciñez maitatceco behar duguna; ta Baderatzi-urren onetan escatu dizugun gucia. Amen.

*SAN*

# SAN FRANCISCO XAvierren Amar-urrena.

CEmbaitec eguiten diote San Francisco Xavierri urtean *Amar-urren* bat. Eguiten da amar egunez, Indietan Evangelioa eracusten eguin cituen amar urteen icenean: ta eguiten da, ez erreneaco egunetan, baicic amar ostiralez. Ostiralac arreen dira, ta ez beste egunac onetaraco, ceren Santua ill cen ostiralean. Ostiral-oro confesatu behar da, ta artu comunioa, ta eguin behar dira Bederatci urren-etaco bereci diran gauzetatic bat edo beste. Comulgatu ondoan esaten dira amar *Aita gure*, *Ave Maria*, *ta gloria*; ta guero urrengo-

## OTOITZA.

*SUari, Itsaso-Lurrai, ta Ceruari, Jaincoac emanic aco esoua-requin, nai deuna eraguiten diezun Indietaco Apostol, San Francisco Xavier, Ceruco-videa Lurrecoai eracustea gatic, eta orretan cembiltzala eraman cenituen nequeac gatic, lagundu behar didazu, Bitarteco onac bezala, Jaincoari eguiten diodan otoitz onetan, ta escatu behar diozu, berac bere icenean diela, ez dusenai bere, ta Ceru-*

*rucoviden aren berria ; gaizqui vici dirá-nai becatuen damua, ta onac izateco asmoa : escatu behar diozu, dirla gure Legue santuco Erreguecai elcarren artéco baquea, ta Elsaiac garaitceco escua; dirla Purgatorioan daudenai alic lasterrena bere arpeguia, ta gloria ; ta didala niri ere orain escatcen diodana. Zu ganatcen diranac aditu oi dituzu : ni ere adituco nazulaco ustea-requin nator: aditzen ba-nazu, emen, ta Ceruan zuri esquerrac ematera behartua gueldítzen naz ; baña pocic artuco dut lan hau nere gain, artcen ba-dezu zuc cere contura, nic escatcen dizudana. Arren bai ; artu zazu, nere devocioco Santu andia. Amen.*

*S. FRANCISCO XAVIERRI.*

DEyez dago munduá,
negarrez, ta gogoric:
*San Xavier, Ceruric*
*iguzu cere escuá.*

2 Santu bata bateráco
besteraco bestea:
San Xavier, zu zará
nai dutênen oneraco.
Dago gure viciá
neque-penaz beteric:
*San Xavier, Ceruric*

Aguer-

2 Aguertu nai ba-dezù
dezun efcu, ta indarrà,
gure lan, ta nequeà
quendu baicic ez dezù.
Ay! Orretan afià
ba ceunde zu gaur danic!
*San Xavier, Ceruric*

3 Ez andi, ta ez chiquiric
arquitcen da munduan
ez duenic afcotàn
behar afco Ceruric.
Zuc hau bai daquizulà
ez degu guc dudaric:
*San Xavier, Ceruric*

4 Behartfuac afcotan
zu gana bildu dirà:
utfic irten ez dira:
orrelaco horduan.
Baldin zu mudatua
ez pa-zaude-gueroztic:
*San Xavier, Ceruric*

5 Nere behar andiac
nacar ni gaur zu ganà:
ba-daquizu ceitarà:
jaquin beza munduac.
Nic efcatzen dudanà
betor emen bertatic:
*San Xavier, Ceruric*

6 Anitz da len Munduàn
zuc eguin cenuenà:
gueldiric egoterà
sartu zara Ceruàn?
Ecin izain da orcoà
dagoena gueldiric:
*San Xavier, Cerutic*

7 Len ta guero bat zarà,
ongui-guillea beti:
ez arren uca niri
orain behar dudanà.
Uste dut, ez nazulà
uticico ni galduric:
*San Xavier, Cerutic*

8 Ba-daquizu vicià
ematen ill cenari:
baita beste edoceñi
behar duen gucià.
Nic ere nai dudanà
uste dut gaur zu gandic:
*San Xavier, Cerutic*

9 Itsasoz, ta leorrèz
cembait on eguin dezu;
cerbait utci ba-dezù
izandu da, nai gabèz.
Zuc nai dezun gucia
nai du Jaunac gogotic:
*San Xavier, Cerutic*

Ar-

10 Arguia behar ba-dù
Itsasoco tristeac,
laster zure escatceac
Eguzquia lotzen dù.
Ez bat galdu dedillà,
izan gabez arguiric:
*San Xavier , Cerutic*

11 Erretzea suari
quendu cenion noiz-bait;
ez diozu utci nombait
gatzic ur gaciari.
Becatuen gacia
quen ba-ledi gu gandic!
*San Xavier , Cerutic*

12 Alaba Seme eguiña
Ama batec nai zuen:
zure Elizan eguin cen
arc escatzen zuena.
Guc escatzen duguna
orain bihotz gucitic:
*San Xavier , Cerutic*

13 Bi toqui zuc batetan
bere cenituen lèn:
arqui zaitez gaur emèn
or zaudela Ceruàn.
Zu ba-zatoz gu gana
ez da gueroz nequeric:
*San Xavier , Cerutic.*

# ARQUI VIDEA.

## LEMBICICO BURUA.

Cer den Jesus-en Bihotza-ren Devocioa.

§. I. *Cer den Devocioa?* Pag. 1.
§. II. *Cer den Jesus-en Bihotzarenac* 10
§. III. *Noiz, ta nola aguertu cen?* 23
§. IV. *Nor-dic den, ta certaraco?* 29
§. V. *Cein gauza zucena den?* 30
* §. VI. *Guztiz da maita-garria.* 34
* §. VII. *Emallea da, ta maita-garria.* 39
* §. VIII. *Gure esquer-gabetasuna.* 49
* §. IX. *Onrzallea da Devocio hau.* 55
* §. X. *Atsequin andiac dacartzi.* 60
* §. XI. *Da Santuen Devocioa.* 66.

## BI-GARREN BURUA.

Cer escatcen duen Devocio onec?

§. I. *Escatcen du* 1. Bihotz garbia. 73.
2. *Ciñezco susiștea.* 76.
3. *Jesus maitatu nai andi bat.* 81.
* 4. *Bihotz bildua.* 84.
§. II. *Jesus-en Bihotzaren Devocio onen ondasunac gal-erazten dituzten gauzac.* 98
* 1. *Alferqueria, edo naguitasuna.* 101.
2. *Gueroi gucieguì naya.* 102.

3.

3 *Bihotza-ren erkotasuna.* 114.
4. *Oitura, edo costumbre gaistoa.* 119.
§. III. *Devocioac escatcen duzbildura.* 122.
Bigarren lecuan: *Humiltasuna,* 120.
§. IV. *Virtutea-ren gustoac.* 132.
§. V. *Jesus maitatzeac escatcen ditu* 1. *Otoitza.* 143.
3 2 *Maiz comulgatzea.* 148.
3 3 *Maiz Elizan Jesus ecustea.* 153.
4 Gauz onetan irautea. 155.
5 *Jesus-en Ama-ren devocioa.* 159.
6 *San Luis Gonzaga-ren devocioa.* 162.
3 7 *Ill-orp contuac eguitea.* 168.

IRU-GARREN BURUA.

Nola eguin behar diran J. Bihotzaren Devocioco gauzac?

3 §. I. *Jesus ecustea-ren onac.* 176.
3 §. II. *Nola eguin behar den?* 186.
§ III. *Guti bat Elizan egotea.* 196.
3 §. IV. *Cer diran Jesus ecusteac?* 202.
3 §. V. *Meza Santua-ren valioa.* 205.
3 §. VI. *Nola ongui enzun ditequean?* 209.
3 §. VII. *Nola comuniatu behar den?* 217.
3 §. VIII. *Cer den Jesus maitatzea?* 240.
3 IX. *Maitatze onen ondasunac.* 255.

LAU-GARREN BURUA.

J. Bihotza-ren maitatzalleac urtean eguin behar dituzten gauzac.

3. §. I.

§. I. *Nola eguin behar diran.* 265.
§. II. *Urteoro eguin behar du ena.* 276.
§. III. *Il-oro-co gauzac.* 284.
§. IV. *Haste-orocoac.* 287.
§. V. *Egun-oroco gauzac.* 290.
§. VI. *Jesus ganaco 8. Otoitz.* 292.
J. Bih. Congregacioco Reglac.
§. I. *Anitz laguncen dute Congregacioac.* 305.
§. II. *Certaco den Bibotzarena?* 310.
§. III. *Congregacioco beste gauzac.* 312.
§. IV. *Urteco gauzac.* 317.
§. V. *Illoroco cembait gauza.* 322.
§. VI. *Haste oroco gauzac.* 324.
§. VII. *Egun-oroco gauzac.* 327.
§. VIII. *Etcar ganaco gauzac.* 331.
§. IX. *Congregacioco carguac.* 333.
§. X. *Cargudunen bilce aldiac.* 338.
§. XI. *Exercicioa-ren asiera.* 341.
*Congregacioan sarceco Oracioa.* 345.
§. XII. *Cer den* Indulgencia. *Congregacioan irabazten diranac.* 346.
*Aita Santua-ren* Indulgenciac. 349.
*Obispo Jauna-ren* Indulgenciac. 352.
J. *Bibotza-ren Bederatzi-urrena.* 355.
*A. S.* Ignacio-*ren Bederatzi-urrena.* 369.
*S.* Xavier-*en Bederatci urrena.* 381.
*Bera-ren Amar-urrena.* 389.

LAUS DEO.

INSTITUCION SANCHO EL SABIO
OBRA SOCIAL
Caja de Ahorros de Vitoria



